



*Sare 2007
Nazioarteko
Kongresua:
“Masculinitatea
eta eguneroko
bizitza”*



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Sare 2007
Nazioarteko
Kongresua:
“Masculinitatea
eta eguneroko
bizitza”

EMAKUNDE/
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Gasteiz 2008

IZENBURUA:	Sare 2007 Nazioarteko Kongresua: "Maskulinitatea eta eguneroko bizitza"
EDITOREA:	EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea. Manuel Iradier, 36. 01005 Gasteiz
MAKETAZIOA:	ARRIN. Komunikazioa eta diseinua
DATA	2008ko iraila
ALE-KOPURUA:	500
DESKRIBATZAILEAK:	Gizonak, gizonen identitatea, genero azterlanak, osasuna, familiako arduren banaketa, kirola, gazteak, aisialdia, jarrerak
DISEINU GRAFIKOA:	Ana Badiola, Isabel Madinabeitia eta Ana Rincón
INPRIMATEGIA:	Estudios Gráficos ZURE
ISBN:	84-89630-15-1 978-84-89630-15-4
LEGE GORDAILUA:	BI-2742-08

Salneurria: 20 euro

AURKIBIDEA

INAUGURAZIOA	7
Juan José Ibarretxe Markuartu Izaskun Moyua Pinillos	
“GIZON IZATEAREN PREZIOA: MASKULINOTASUNAREN KOSTU ETA ONURAK”	17
M ^º Jesús Izquierdo Benito	
“MASKULINOTASUNAK, ERRESISTENTZIA ETA ALDAKETAK OSASUN-ESPARRUAN”	51
Benno de Keijzer	
“GENEROA, OSASUN SEXUALA ETA JOKABIDE ARRISKUTSUAK”	81
Lola Ferreiro Díaz	
“GIZON IZATEN IKASTEA: ARRISKU-EREDUAK ETA JOKABIDEAK”	129
Élida Alfaro Gandarillas eta Benilde Vázquez Gómez	
“ERREPIDETAKO EZBEHAR-TASA ETA MASKULINOTASUNA” . . .	157
Beatriz Moral Ledesma	

“GAZTEAK, MASKULINOTASUNA ETA ALKOHOLA: IKERKETA Kuantitatiboaren haudemateak”	179
---	-----

Richard de Visser

“Diruaren kudeaketa bikote-harremanetan: Aldaketak jokabide-ereduetan eta identitateetan, generoaren arabera”	199
--	-----

Capitolina Díaz Martínez

“Genero-rolak: jokabide pribatuak eta politika publikoak”	217
--	-----

María Pazos Morán

“Diruaren sexuazioa: gatazka subjektiboek “makulinotasunean”, “feminitatean” eta gizon nahiz emakumeen eguneroko bizitzan duten eragina”	257
---	-----

Clara Coria

“Hiritarren segurtasunaren generoa”	271
--	-----

Tamar Pitch

“Genero-indarkeria ezberdintasunaren tresna gisa”	281
--	-----

Andrés Montero Gómez

“Genero-berdintasunak gizonak behar ditu, gizonek genero-berdintasuna behar dute”	311
--	-----

Jouni Varanka

**JUAN JOSÉ IBARRETXE
MARKUARTU**

**Eusko Jaurlaritzako
lehendakaria**

**IZASKUN MOYUA
PINILLOS**

**Emakunde /
Emakumearen Euskal
Erakundeko zuzendaria**

Inaugurazioa



Egun on guztioi, ongi etorri Euskadira:

Azken urteetan asko aurreratu dugun arren, oraindik ere desberdintasun handia dago emakumeen eta gizonen arteko harremanetan eta boterebanaketan. Sexuaren arabera pertsonak desberdin tratatzen baditugu eta egitekoak eta rolak ere sexuaren arabera esleitzen baditugu, ez dugu desberdintasunaren arazoa konponduko ez eta desberdintasuna azaleratzeko moduak ere. Estatistiken arabera, gizonekin alderatuz gero, emakume gutxiago dago lan-merkatuan, eta, gainera, lan-baldintza okerragoak

dituzte; pobrezian dauden gehienak emakumeak dira; erabaki politiko, ekonomiko eta sozialak hartzeko eremuetan gutxiegi ordezkaturik daude; etxeko lanak eta pertsonak zaintzeko lanak emakumeek egiten dituzte gehienbat, eta ordainik jaso gabe; gainera, larriena hau da: XXI. mendeko izurrik handiena jasaten dute, emakumeen aurkako indarkeria, alegia.

Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna ezabatzeko, beharrezkoa da guztiok mentalitatea aldatzea, ezinezkoa baita gizakion jokabidea aldatzea barneratuta ditugun baloreak aldatu ezean. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzen aurrera egingo badugu, kultura-aldaketa egin eta bultzatu behar dugu, eta aldaketa horren ardatzean, funtsean, hauxe dago: ezbaian jartzea generoak –pertsonak sexuaren arabera sailkatu eta mugatzeko eraikuntza sozializat hartuta- eta bereziki, maskulinitasun tradizionala.

Orain zenbait urte, 2001eko Nazioarteko Sare Kongresuari hasiera ematerakoan ("Gizonak Giza Antolamendu Berriaren Aurrean"), leku honetan bertan esan nuen gizonetzko ezbaian jarri behar genituela maskulinitasunaren paradigmatik.

Orduan, ia iraultzailea ere gerta zitekeen proposamen hori; baina ordutik hona gauza asko egin dugu, eta gaur egun, zorionez, gure gizartean gizon batek ere ez du joko edo oso gutxik joko dute iraultzailetzat.

Beste balore batzuei atxikitzen hasi gara, eta esan beharra daukat: lehendakari naizen aldetik, oso harro nago zuzentasun eta berdintasun handiagoko gizarterako bidean emakumeen bidaide izan nahi duen gizon asko dagoelako gure herrian. Boluntarioen armada baketsu bat behar dugu, emakumeen bidaide izateko eta, emakumeak eta gizonak elkarlanean, proiektu bat elkarrekin eraikitzeko. Gauza jakina da emakumeak izan zaretela soka honi tira egin diozuenak; batez ere zuen lanari esker iritsi garela gauden lekura. Zuek ireki dizkiguzue begiak. Hala ere, gizon asko konturatu gara, gero eta gehiago, guztia gure onerako izango dela; ez dugula beldurrik izan behar aurrera egiteko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean sakontzeko.

Horri dagokionez, esan nahi dizuet kongresu honekin hasiera ematen diogula Gizonduz ekimenari: abian da Eusko Jaurlaritzaren ekimen aitzindaria, Emakundek kudeatutakoa, sexuen arteko berdintasunaren alde gizonak gehiago kontzientziatu eta inplika daitezten eta gehiago parte har dezaten sustatzea helburu duena. Ekimen honen bitartez, berdintasunaren alde egiteko, maskulinitasun tradizionala ezbaian jartzeko eta beste gizon batzuentzat eta, bereziki, datozen belaunaldientzat erreferente izango diren berdintasun handiagoko ereduaren alde egiteko prest dauden gizonen gidari izan nahi dut, lehendakari naizen aldetik; izan ere, alor honetan ere, Estatuan eta nazioartean Euskadi erreferente izatea lortuko dugu laster, bide horri jarraituz gero.

Horren haritik, jardunaldi hauek oso emankorrak izan daitezten nahi nuke, ideia, esperientzia, eztabaida, ekarpen eta abar ugari sortzeko gune emankor. Bidean ikasten jarraitzeko lagungarri izan daitezten nahi nuke, bidean beti egoten baita beste pintzelkada baterako lekua, Gabriel Ramos Urangaren margolanen bezala: "obra bat ez da inoiz amaitzen, beti egoten da beste pintzelkada bat egiteko lekua". Gauza bera gertatzen da berdintasunerako politiketan: ate bat irekitzen dugu eta beste zazpi irekitzen zaizkigu, eta horrela, gainerakoak. Aurrera egiten jarraitzea: horixe da bizitzaren handitasuna. Eta aurrera egiteko non hobeto

eskuartean dugun proiektu eder honetan baino. Izan ere, Euskadin eta munduan XXI. mendean bultzatu behar dugun proiekturik politena, handizaleena eta demokratikoena da, zalantza izpirik gabe.

A handwritten signature in blue ink, consisting of a large, stylized initial 'J' followed by several loops and a long horizontal stroke at the bottom.

Juan José Ibarretxe Markuartu
Eusko Jaurlaritzako lehendakaria



Lehendakari jauna, agintariok, etorritako lagun guztiak, ongi etorri SARE Nazioarteko kongresuaren bosgarren edizio honetara.

Benetan pozgarria da guretzat ikus-tea Emakundek antolatu duen kongresu honetan parte hartzeko agertu duzuen interesa. Maskulinitasunaren gaiaz egun hauetan egingo diren ekarpenek zuen interesa piztu dutela ikusi dugu eta eskerrak eman nahi dizkizuegu guztioi horregatik.

“Maskulinitasuna eta eguneroko bizitza” izenburuko kongresu honen helburua emakumeen eta gizonen eguneroko bizitzan maskulinitasun

eredu tradizionalak duten eragina aztertzea da. Testuinguru honetan, aztertuko dugu maskulinitasun hegemonikoaren erakuntzak zelako lotura duen praktika ausartegiak; zelako lotura dagoen maskulinitasunaren eta biolentziaren artean; zein harreman duten gizonak zaintzarekin; eta diruaren kudeaketan emakume eta gizonak izaten ditugun zereginak, besteak beste.

Urtean behin nazioarteko kongresua antolatzeko ideia duela bost urte bururatu zitzaigun, hegazkin batean hain zuzen ere, askotan goialdean pentsatzen baita ondoen. Gai berritzaileei ekiteko kongresu bat sortu nahi genuen, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunaren ehuna osatzen duten patchwork-ak edo adabakiak hobeto josi ahal izateko. Foro horrek historian gure aurretik izan diren emakume guztiak omentzeko balioko zigula pentsatu genuen Emakunden, egun partekatzen dugun gizartea eraikitzeko behar zen materiala eman ziguten emakumeak omentzeko, alegia. Kongresu horri SARE izena jarri nahi izan genion, haien bizitzaren haria gurearekin lotuz, emakume guztientzako sarea josteko:

gure arbasoetatik hasi eta bizitzaren alde borrokan ari diren emakumeengana iritsi arte, goizero gizadiari justiziaren eta askatasunaren ametsa xuxurlatzen dioten emakumeengana iritsi arte.

Gaur bosgarren edizioari hasiera eman diogu "Maskulinitatea eta Eguneroko Bizitza" izenburuaz, eta aditasun termometroa martxan jartzeko asmoz egin dugu, non dena den garrantzitsu, non dena den ikasbide. Orain arte ikasitakoak ez gaitu itsutuko berrikuntzen aurrean; aitzitik, orain arte ikasitakoari esker, oraindik aurkitzeke dugun guztiaz jabetuko gara, oraindik ere argitu beharreko alde ilun ugari daukagula ikusiko dugu.

Generoari buruzko ikerketak, gizarte zientzien arlo espezializatu gisa, maskulinitatearen arazoari heldu zion 80ko hamarkadan, herrialde anglosaxoietan, batez ere. Une horretatik aurrera, gizona ere ezezaguntzat hartzen hasi ginen, lehengo emakumea gizadiaren ezezagun handitzat hartu izan zen bezala. Ordura arte gizon izateko ezagutzen zen eredu bakarra, patriarkala, alde batera utzi, eta maskulinitatearen moduak aztertzen hasi ginen orduan. Maskulinitateari buruzko ikusmoldeak denbora eta lekuen arabera aldatu egiten direla, baliozko maskulinitate-eredu bakarrik ez dagoela jakiten hasi ginen. Maskulinitatearen eredu unibertsal eta egonkorra zalantzan jartzen hasi ginen.

Gizonek berdintasunaren alde egin dezaketen ekarpenaz aspaldi dago arduratua Emakunde. Argi daukagu guztion eskubideak errespetatuko dituen gizarte berri bat eraiki nahi baldin badugu, behar-beharrezkoa dela gizonak berdintasunaren aldeko borrokan inplikatzeari. Horregatik, sortu zenetik, Emakundek bere ildo estrategikoen artean beti eduki ditu kontuan gizonak, beti barneratu izan ditu bere estrategietan eta landu dituen berdintasun-planen barruan. Gai honetan izan dugun arduraren adierazle da, adibidez, 2001. urtean Donostian antolatua genuen kongresua, "Gizonak giza antolamendu berriaren aurrean" izenburukoa. Orduan oso berritzailea izan zen gai hau jorratzea, eta, zentzu horretan, ekarpen handiak egin ziren. Espero dugu gaur hasten dugun kongresu honek ere ildo garrantzitsuak markatzea berdintasunaren bidean.

Maskulinotasunari buruzko lehen kongresua antolatu genuenetik hona, ikusi dugu, besteak beste, bere liberazioa lortzeko urrats bat ematen duen emakume bakoitzeko, gizon batek deskubritu egiten duela aske izateko bidea pixka bat erraztu egin zaiola berari ere. Emakundek duela hamar urte egindako kanpaina batean erabilitako esaldia da hori, eta orduetik hona argi dago askatasunaren bideetatik doazen emakume gehiago daudela, eta bide berriak deskubritzen ari diren gizon gehiago.


Askotan esan dugu politika ez dela neutroa, gure aurrekontuak ere ez direla neutroak, ez eta instituzioek eta gizarte eta kultur erakundeek egunez egun finkatzen dituzten estrategiak ere. Erabakitzen dugun ezer ez da neutroa: ideia hori erroztzen joan da politikagintzan eta gizartearen kontzientzian. Egiten dugun urrats bakoitzean, hartzen dugun erabaki bakoitzean, emakumeen eta gizonen berdintasunaren haize-orratzak alde batera edo bestera egiten du: Hegoaldera edo Iparraldera, Ekialdera edo Mendebaldera. Berdintasunaren unibertsoan ez dago haizerik gabeko egunik. Mugimendu bakoitzak, erabaki bakoitzak, zuzeneko eragina du berdintasunaren alde edo aurka. Ez dago emakumerik, baina gizonik ere ez, kanpoan gera daitekeenik; inork ez dezala pentsa gai honekin zerikusirik ez duenik. Ez dago neutral egon daitekeen gizonik.

Hori jakinda, bidea eginez jarraitzen dugu, eskalatzen ari garen horman finkagailuak eta ainguraketak jarritz, atzetik datozen pertsonen bidea bermatzeko. Lehenak gara sokan, ainguraketetan segurantza-gailuak jarritz goaz, bidea eginez, pausu seguruak eman daitezzen ahalbidetuz.

Emakundek hezkuntza alorrean sustatzen duen Nahiko programan badago neska-erabilentzako ariketa bat, zeinean erakusten zaien euren eguneroko bizitzan egiten duten ekintza bakoitzaren eraginez berdintasunaren termometroak gora edo behera egiten duela. Geuk ere ikasleen moduan kontuan hartu behar dugu gauza bera. Denek, emakumeek eta gizonen eguneroko bizitzan egiten dugunak ondorioak dituela berdintasunaren alorrean. Ez dagoela ekintza ez jarrera neutralik gai honetan.

Kongresu hau giltza garrantzitsua izatea nahi dugu Emakunden, ate berriak ireki-ko dituen giltza, kontzientzia indibidual eta kolektiboentzat akuilu izango den giltza.

Eskerrik asko.

A handwritten signature in blue ink, consisting of several overlapping, fluid strokes that form a stylized, abstract shape.

IZASKUN MOYUA PINILLOS
EMAKUNDE / Emakumearen
Euskal Erakundeko zuzendaria

**M^a JESÚS IZQUIERDO
BENITO**

**Soziologiako Saila.
Bartzelonako
Unibertsitatea**

Gizon izatearen

prezioa:

*maskulinitasu-
naren kostu eta
onurak*

2001. urtean, SARE *Gizonak antolaketa sozial berriaren aurrean* kongresuan, nire diskurtsoa apustu batekin amaitu nuen: "prest nago bortxatzaile bat besarkatzeko eta norbait bortxatu duelako harekin batera negar egiteko. Baina gela honetako gizonak zer egiteko prest daude gizon eta emakumeen arteko harremanetan berdintasuna lortzeko?". Denbora dezente igaro ondoren, UNAMeko Genero-lkerketen Programan ikastaro batean eskola eman nuen, eta jardunaldi haietan egon zen parte-hartzaile batek, egun hartan esan nahi nuena azkenik ulertu zuela esan zidan.

Ba al du zentzurik bortxatzaile bat besarkatzeak, eta norbait bortxatu duelako harekin batera negar egiteak? Zergatik pentsatzen dugu bortxatzaile batek sufritzen duela? Zergatik atsekabetzen gara? Zergatik pentsatzen dugu bortxatzaileek ere negar egiten dutela, eta hala ez bada, are okerragoa dela?

Ideia horretan, gutxienez bi suposizio daude: bortxatzailea bere egintzen biktima gisa ikusten da; eta emakumearen eta gizonaren egoerak trukatu egiten dira, emakumea subjektu bihurtzen da, eta gizona, berriz objektu.

Lehenbizi aipatutako apustuari erreferentzia eginez, egun hartan esan nuen, eta gaur esaten jarraitzen dut *gizonak* eta beren egintzak sexismoaren ondorio direla. *Gizonak*, *gizonak* diren aldetik, eta gizonak egiten dutena, entitate epifenomenikoak dira, boterearen ondorioa (1). Izan ere, sexuen antolaketaren ondoriozko sexu-esleipen eta maila sozialaren arabera, subjektibotasunean eta egitura sozialetan oinarritutako sexualitatea kudeatzen da, eta horrek ondorio argiak ditu gizonengan. Beraz, baldintza horietan, gizonak ez dira egintzen subjektuak. Egintza hori gizonaren boterea eta emakumearen menpekotasuna berresten duen logikan oinarritzen da. Beraz, ikus ditzagun eraso sexistak edo bortxaketak ildo luze bateko mutur gisa. Ez ditut gaixotasun edo patologia gisa ikusten, baizik eta sexismoaren azken muturraren adierazpen gisa, hain zuzen ere *gizonak* kontrola

(1) Puntu honetan Michael Foucaulten proposamenak eta Judith Butlerrek proposamen horiei buruz egindako garapenak aipatzen ditut.

galtzen duenean, egintzen *subjektu* gisa zehazten duen errealitatea adierazten duena.

Gizon bortxatzailea, tratu txarrak ematen dituen, sexismoaren ondorio eta biktima da. Harreman-trokel baten barne daude, eta harreman-eredu horietan, hain zuzen ere, hori da kanpo-adierazpena; hau da, *emakumea*, gizonaren hein berdintsuan sexismo-tresna bihurtzen da. Beraz, paradoxikoki, bai bortxaketa edo bestelako kasu batean, *gizona* subjektu eta *emakumea* objektu bihurtzea harreman-eredu horien berezitasunetako bat da. Eta hain zuzen ere hori da, gaur egun, bortxaketa edo familiako indarkeria aztertzean ikusten duguna. Ondorioz, sexismoaren mutur hori adierazteko modua eta arazo horri aurre egiteko politika sozialak diseinatzeko modua ere sexismoaren logikaren barne dago, ezin dira hortik atera.

Puntu horretan sartzen da lehen aipatutako bigarren ideia: emakumearen eta gizonaren egoerak trukatzea. Emakumeen egoera soziala eta gizonekin duten harremana kritikatzeko duten diskurtso politikoetan, emakumeen sexismoaren, desberdintasunaren eta diskriminazioaren objektu da, eta gizona, berriz subjektua. Gizonen emakumeak zapaldu, esplotatu eta mintzen ditu. Gizartea, eta zehatzago esanda, Estatua, gizonen esku dago, eta bere lana da egoera hori zuzentzea. Izan ere, gizona arazo eta konponbidea gisa aurkezten da. Hala ere, hasieran aipatutako jokoan, egoera-truke inplizitu bat dago. Emakumea subjektu aktibo bihurtzen da, eta gizona, berriz, subjektu pasibo. Emakumea aldaketaren konpromisoan jarri behar da, botere-objektua subjektu politiko bihurtu behar da. Emakumeak izan behar dira aldaketarako ekimenak proposatu behar dituztenak, baita horien buru izan behar direnak ere. Era horretan, sexismoak emakumeengan nahiz gizonengan sortzen dituen kalteak biltzen dituen subjektu unibertsal gisa zehaztuko da.

Bortxatzailea besarkatu eta norbait bortxatzeagatik harekin negar egitean, sexismoaren arazoari bira etiko bat ematen zaio, eta emakumea subjektu kolektibo unibertsal gisa zehaztean, arazoari bira politikoa ere ematen zaio. Gero eta jende gehiagok dioten bezala, ez gara ezberdintasun naturalen adierazpenak, produktu sozialak baizik, sexismoaren ondorioak. Ondorioz, horrek gizonak eta emaku-

meok batu egiten gaitu, sexismoa baita emakume bakoitzak bizitza-proiektu autonomo bat zehaztu eta egiteko oztopo bakarra. Egituren indarraren aurrean, gizonak eta emakumeak makurtu egiten gara, egitura horiek berezko funtzionamendu-logika inposatzen digute, gure jokabideak subjekturik gabeko egintza bihurtuz. Bortxaketa baten aurrean, bortxatzaileak eta bortxatuak batera negar egitearen aldeko apustuak, agerian uzten du noraino onartzen dugun egituraren garrantzia eta noraino iritsi nahi dugun egitura horiek aldatzeko. Ekimen horrek agerian uzten du sexismoarekiko ukapena eta haren biktimekiko konpromisoa, bai kalte-gileekiko nahiz kaltetuekiko.

Sexismoaren kritikarekin batera, ezberdintasuna ere egon da, eta biktima nagusiak emakumeak izan dira, zapalkuntza jasan baitute. Hala ere, ezberdintasunaren historian, zapalkuntza horretan, emakumeek objektu izan gara, eta gizonak, berriz, zapaltzaileak. Ikuspegi horren bitartez, gizonari esleitzen zaio emakumeen zapalkuntza deuseztatzeko lana. Baina gauza bat da emakume eta gizonen arteko harremanean zapalkuntza dagoela esatea, eta beste gauza bat, egoera horretan, *gizona* subjektua dela esatea.

Gehienetan, gizonak sexismoak ematen dizkien pribilegioei modu aktiboan uko egitea espero da. Itxaropen horretan, inplizituki, sexismoa modu aktiboan gainditzeko xede moraletan oinarritzea eskatzen zaie gizonari. Xede moral horiez gain, gehienetan ez dira kontuan hartzen, gizonak zein interes eta zergati dituzten sexismoari uko egiteko. *Gizonak* ez ditu onurak sortzen soilik, kostuak ere baditu. Gizonaren estatus publikoan, seme-alabekiko harreman arrotza du, eta familia mantentzeko gehiegizko erantzukizuna du. Emakumeek ere gehiegizko erantzukizuna dute, baina gizonak eta seme-alabak zaintzeko. Ondorioz, ezin izaten dute beren bizitza-proiektua garatu. Familia bat sortzen dutenean, gizonak ondare bat eskuratzen dute. Bikotea dibortziazten denean, berriz, gizonari ezkontzean eskuratutako ondare hura kentzen zaie. Sexismoari esker, etxeko jauntxo feudal bihurtzen dira, eta *beren* emaztea eta *beren* seme-alabak galtzeko arriskua ikusten dutenean, beren ondarea defendatzen dute. Ondorioz, baldintza horiek aukeratu ez dituztela susmatzen dugu, eta gizonak horien subjektu direla.

Baldintza horiek, beti gizonen aldekoak dira, baldin eta horiek esleitutako ondareak galtzen ez badute.

Azalpen honetan lau puntu azaldu nahi ditut. Lehenengoa genero-sexu sistemak gizon eta emakumeentzat dituen kostu eta onurak aztertzea da. Sexismoak harreman-sistema bat egituratzen du, eta sistema horrek emakume eta gizonari kalteak dakarzikie. Beraz, ezin dugu esan emakumeen arazoa dela soilik, baizik eta arazo orokorra da, gizarte-egituraketan oinarritutakoa. Ondorioz, gizonak, berdintasunaren aldeko borrokan parte hartzeko, ez dira printzipio moraletan oinarritu behar, politikoetan baizik. Zoriontasuna aurkitzea eta berezko bizitza-proiektu bat egitea aipatzen denean, ondorio moralei egiten diegu erreferentzia, eta ondorio politikoetatik erabat bereizita daude. Hirugarren, borroka politikoa eta politika sozioekonomikoen xedea sexismoa eta patriarkatua ezabatzeko ekintzak egitea izan beharko litzateke, betiere gizonen eta emakumeen jokabideak egitura-baldintzen ondorio psikiko nahi ekonomikoak direla kontuan hartuz. Azkenik, arazoaren dimensio etikoa ere kontuan hartu behar da. Gizonek eta emakumeek subjektu gisa dugun erantzukizunak, guk aukeratu gabeko baldintza historikoen ondorio izan arren, ez du eragozten etorkizunean gertaeren bilakaera aldatzea. Gure printzipio nagusia, bakoitzari buruzko hausnarketa, jartzen du abian, historiaren eta bakoitzaren biografiaren bilakaeran modu aktiboan parte hartuz.

1.

Sexu-generoaren sistemaren kostu eta onurak

Azken urtetan argitaratutako bibliografia ugaria aztertzen badugu, paradoxikoki ikusiko dugu, maskulinitasuna eta feminitatea elkarren artean lotutako kategoriak izan arren, emakumeen eta gizonen egoera bereizirik aztertzen direla gehienetan.

Bigarren, maskulinitasuna aztertzen denean, batez ere aspektu emozional eta subjektiboei edota ideologia-aspektuei ematen zaie lehentasuna, eta nire ustez, aspektu ekonomiko eta sozialei ez zaie behar bezalako arreta ematen. Sexismoaren ondorio nagusia emakume eta gizonen mailak osatzea da: Lanak banatzerako orduan, bizimodua zehazterako orduan edota ahalmen eta jokabideak zehazterako orduan, sexismoak horretarako egoera sozialak osatzen ditu. Hirugarren, maskulinitasun kategoria unibertsala balitz bezala kritikatu da. Horren ordez, gure proposamena da *maskulinitasunak* zehaztea, ez baitago maskulinitasun-eredu bat soilik. Maskulinitasun hegemonikoaren kontzeptua hedatu da azkenaldi honetan. Connellentzat, kontzeptu hori derrigorrezko erreferentzia da. Hain zuzen ere, Connell eta Messerschmidtek (2005) kontzeptu hori aipatzean, adierazi zuten ez zela kontzeptu estatistikoa, arauemailea baizik; hau da, sozialki balioesten den gizonen jokabidea, eta hori da hain zuzen ere gizonentzako erreferentzia-puntua, eta aldi berean emakumeak ideologikoki gizonen mendean jartzen dituenak. Autore horientzat, maskulinitasun hegemonikoa ez da beste maskulinitasunak bezalakoak, bereziki, *mendeko maskulinitasunak* bezalakoak. Gizonen, nagusitasun maskulinoaren bertsio gogorra gauzatu ez arren, patriarkatuaren onurak jasotzen ditu. Maskulinitasun-mota horri *maskulinitasun sopikuna* esaten zaio. Zentzu horretan bihurtzen da askoz ere indartsuago hegemoniaren kontzeptua, baina hegemonia maskulinoak ez du indarkeria inplikatzen, indarraren bidez mantendu daitekeen arren. Kulturaren, erakundearen eta pertsuasioaren bidez lortutako korronteari egiten dio erreferentzia (832. orrialdea).

Hegemonia maskulinoaren kontzeptua hegemonia femeninoaren kontzeptuarekin batera eratu zen, eta azken hori, handik gutxira *feminitate nabarmendu* izendatu zen. Horren helburua zen genero-antolaketa patriarkalean, emakumeak, gizonekin konparatuta, egoera asimetricoan daudela. Zoritxarrez, Connell eta Messerschmidtek (2005:848) aipatzen duten bezala, gizonen eta maskulinitasunaren ikerketetan, kontzeptu hori alde batera utzi da, generoen artean lotura dagoela ahaztuz, eta ondorioz, maskulinitasunaren ereduaren definizio sozialak,

nahiz benetakoak edo irudizkoak izan, feminitatearen benetako eredu edo irudizko ereduarekin kontrajarrita eskuratzen direla.

Autore horiek aurkezten dizkiguten bi mailetan gizonak sailkatzeak inplikazio garrantzitsuak ditu: lehen irizpidearen arabera, alde batetik maskulinitasun hegemonikoa dago, eta bestetik, mendeko maskulinitasuna (gehienetan gizon homosexuali esleitzen zaien jokabidea, nahiz eta maila horren barne beste gizonak ere egon daitezkeen). Bestalde, bigarren irizpidearen arabera, maskulinitasun hegemonikoa eta maskulinitasun sopikuna daude. Lehen irizpidearen arabera, gizon hegemonikoek emakume guztiekiko eta gizon-atal garrantzitsu batekiko nagusitasuna dute, hau da, mendeko maskulinitateko gizonetikiko. Bigarren irizpideari jarraituz, nagusitasun zuzen edo zeharkako nagusitasuna dagoela azpimarratzen da. Gizon batzuek nagusitasun hori zuzenean gauzatzen dute, eta beste batzuek, maskulinitasun sopikunaren barne daudenak, zapalkuntzaren onurak jasotzen dituztela, zeharka izan arren. Nagusitasun horren objektu emakumeak dira. Irizpide bat edo bestea aukeratzeak ondorio nabarmenak dakartza. Izan ere, lehen irizpidearen arabera, gizon batzuk emakumeen aliatu objektiboak izango lirateke, eta bigarren irizpidearen arabera, ez da beharrezkoa itunak egitea.

Kontuan hartu beharreko beste elementu bat hegemoniaren kontzeptuari buruzkoa da. Kasu honetan, kultura eta erakundeak jarri behar dira zalantzan. Hau da, hertsadura fisikora jo gabe, egitura sozialaren funtzionamendua egonkortzen laguntzen duten gainegiturazko aspektuak zalantzan jartzea.

Baimendutako opresio-sistemaren barneko nagusitasun-harremanak aztertzean, aipatu beharreko beste autore bat Bordieu da (2000). Egile horrek *nagusitasun maskulinoa* aipatzen du. Kontzeptu horretan, indarkeria sinbolikoak nahiko garrantzia du; emakumea elementu pasibotzat jotzen du, eta gizona, berriz, elementu aktibotzat. Bordieurentzat, nagusitasun maskulinoak gizonak emakumeekiko duten jabe- eta nagusitasun-nahi erotizatua sortu, antolatu, adierazi eta zuzentzen du; eta aldi berean, emakumeek nagusitasun maskulinoa eta gizonetikiko menderakuntza erotizatua nahi izatea sortzen du. Nahi hori muturrera eraman ez gero, nagusitasunaren aintzatespen erotizatua eskuratzen da. Aldez aurretik,

Millet (1975), Rubin (1986), Connell berak (1987) edo Mackinnonek (1995), besteak beste, sexualitatea sexuan oinarritutako zapalkuntzan oinarritua antolatzen zela aitortu zuten.

Aipagarria da, hegemonia kontzeptua erabiltzean, aztertzen ari garen arazoa esfera politikoan kokatzen duela. Barretek (1003:266), onarpenaren antolakuntza izendatzen du "indarkeria edo hertsadura erabili gabe mendeko kontzientzia-erak osatzeko prozesua". Baina, Bordieuk bezala, nagusitasun femeninoa aipatzen badugu, ezinbestekoa da eragin psikikoa aipatzea. Edonola ere, bi erreferentzia horiek, ondorioa berdinerara garamatza, hain zuzen ere Kristevak (1995) edo Butlerrek (2001), gainontzeko autoreez gain, aipatutakoa; hau da, sexismoak, botereak, pertsonaren gunetik jarduten du, horregatik aipatu dugu lan honen hasieran, subjektua boterearen ondorioa dela. Ekintzaren subjektua sexismoa da, ez gizona edo emakumea. Beraz, funtsezkoa da kontuan hartzea menpeko taldeetako kideek onarpenaren antolakuntzan zein paper jokatzeko duten (bai emakumeek baita menpeko maskulinitasunetako gizonen ere). Horretarako, Laclau eta Moufferen proposamenak (1987) hartu behar dira kontuan. Autore horientzat, "hegemonia metonimia da funtsean: haren ondorioak desplazamendu baten ondorioz sortutako gehiegizko esanahien bitartez sortzen dira (...) logika hegemonikoek ezin dute gizarte osoa haren barne hartu eta gizarte bera funts gisa hartu, hori gertatuko balitz, jostura berri bat gertatuko litzatekeelako, eta hegemonia beraren kontzeptua desagertuko litzatekeelako. Beraz, gizartearen kontuan hartzea, praktika hegemoniko guztien aurrebaldintza da" (p.163). Nire ustez, boterea eta hegemonia ezin dira erabatekoak izan, eta akats horri esker, subjektua agertu daiteke. Subjektua, boterea eta hegemonia bezala, ez da erabatekoa ezta behin betikoa ere: irekia da, eta, beraz, ezegonkorra da.

Diskurtso kritikoetan, eta funtsean ekintzak bideratzeko diskurtso guztietan, arrisku handi bat errealitatea eta irudimena nahastea da. Irudimena errealitatean ez dagoen elementu baten irudikapen mentala da (hau da, ez dago hemen edo ez dago orain). Argi dago, ez dut esan nahi benetako errealitatea islatzeko gai diren diskurtsorik dagoenik. Izan ere, diskurtso guztiak subjektuaren iritzian oinarritua sortu arren, irudikapen-sorta batean oinarritzen dira. Horrek ez du eragozten, diskurtsoak objektiboak izatea. Objektiboak aipatzen dudanean, subjektu-egoera edo iritzi jakin batean oinarritutako errealitatearen adierazpenari egiten diot erreferentzia, berdin dio emakumeak, soziologia kritikoa, pentsamendu liberala edo bestelako iritzi bat izan. Ezagutzaren prozesuan, berriz, subjektuak objektua osatzen duen alteritatearen aitortpena egiten du, bere *iritziak* esparru kontzeptuak batean oinarrituta ematen ditu. Esparru hori, irudimenezko prozesuan, *espresionista* da, hau da, informazio gehiago ematen du subjektu ezagutzaileari buruz, ezagutza-objektuari buruz baino (2).

Sexismoa aztertzeko, zapaltzailearen irudimenezko-maila bat osatu dezakegu. Hori eginez gero, emakumeok geure artean jasan ezin duguna kontzeptu horretan proiektatuko genuke. Horregatik, emakumeei gizonen ukatzen zaizkien ezaguri batzuk esleitzen zaizkie, eta alderantziz. Bestea etsaia al da? Kristevaren (1995) arabera, sexismoa bakoitzaren barne dago, eta borroka patriarkatuaren eta sexismoaren kontra egin behar dela, ez haren ondorioen kontra; hau da, emakume eta gizonen kontra. Autore horrek sexuen arteko borrokari dramatizazioa

(2) Aipatu behar dut, ezagutu eta imajinatzea kontzeptu gisa erabiltzen ditudala, eta jarduera mental guztietan bi gauzak ageri direla hein batean ala bestean.

kentzea proposatzen du, baina ez bakeak egiteko, baizik eta borroka horretako indarkeriak bakoitzaren identitatean ahalik ez zorrotzasun handiarekin jokatzeke, eta ez batak bestea ukatzeko. *Emakume/gizonen* arteko antagonismoa estrukturala da. Helburua ez da etsai horren kontra borroka egitea, baizik eta etsaia dela sinestarazten digun harreman-sistemaren kontra borroka egitea. *Boterearen ondorioa* hor bihurtzen da *subjektu*. Hemendik orrialde batzuetara xehetasun handiagoz aztertuko dugu gai hori. Irudimenezko proiektzio horien adierazleak, besteak beste, gizonak oldarkorrek direla eta emakumeak bakezaleak direla esatea da, edota emakumeak samurtasuna senti dezaketela, eta gizonek ez.

Planteamendu hori hartzean, sexismoa zapaltzailea eta zapaldua kaltetzen dituen sistema gisa aztertzen da. Sexismoaren objektua subjektu bihurtzean, hain zuzen zein heinetaraino subjektu ez garen gaitasunari esker, agerian uzten da, gure egintzek, gure jokabideetan adierazten diren nahiek eta lortu nahi ditugun xedeek zenbatetaraino duten zapaltzen gaituzten baldintza estrukturalen marka. Praktikan, horretarako, bi lan egin behar dira: lehenengoa, inplikatuaren jokabidean baldintza estrukturalen garrantzia zenbatekoa den aztertzea da. Horrek agerian uzten du, emakumearen eta gizonaren artean, esplotazio-, menderatze-, marjinazio-, inperialismo kultural- eta indarkeria-harremanak daudela (zapalkuntza adierazpen horiek Youngenak dira).

Bigarren lana da zehaztea gure nahiak eta horiek gauzatzeko egiten ditugun egintzak zein heinetaraino diren sexismoaren adierazpen. Emakumeoi dagokigunez, galdetu behar dugu zergatik uzten diegun beti gizoni autoa gidatzen, edo zergatik uzten diegun afarirako ardo aukatzen, edo zergatik nahiago ditugun gu baino gizon handiago eta boteretsuagoak, baita zergatik uzten diegun beti hitz egiten edo zergatik gastatzen dugun horrenbeste energia eta denbora gizonen gustuko izateko. Horrez gain, galdetu behar dugu zergatik behar dugun gizonen aintzatespena, zergatik behar dugun gurekin adeitsu izatea edo zergatik galdetzen diegun maite ote gaituzten guk hori esaten diegunetan baino gehiagotan. Zergatik ikusi dugun horrenbeste aldiz *Pretty Woman*, auzo marjinal bateko prostituta baten istorioa, gizon aberats bat ezagutu eta hark Visa Gold txartela uzten dionean estasira iristen dena. Hau da, azken finean, prostituta horren helburua

gizona berarekin ezkontzea da, eta horrela era guztietako erosotasun eta abantaila sozialak izateko, eta orduan, zerbitzuak dirutan kobratu ordez, jenerotan kobratzeko. Zer dio emakumeoi buruz film horrek izandako arrakastak? edo telebistan berriz jartzen dutenean behin eta berriz ikusteak? Gizonek ere jokabide horien guztien jokabide baliokideak dituzte. Epaile batek minigona daraman emakume bat arazo bila dabilela adierazten duenean, eskandalizatu ordez, epailearen epaia berrinterpretatu beharko litzateke, eta minigona janztean gizon batek ez erasotzea nola lortuko genukeen pentsatu beharko genuke, bai guk uzten ez diegulako edo hark, saiatu arren, lortzen ez duelako, edo hori "egin behar ez lukeelako". Edo are garrantzitsuagoa dena, indarrean dagoen sistema objektu sexual gisa zergatik zehazten gaituen galdetu beharko genuke, eta zergatik indartzen dugun joera hori, gizonen gustuko izaten saiatzean.

Kontua da, erantzukizuna gizonek dutela esan beharrean, erantzukizuna guk geuk hartzea. Gogora datozkit gizoni buruz hitz egitean egiten ditugun kritikak edo horiek egitean erabiltzen dugun amorru eta mespretxua. Baita ere gogora datozkit, gizoni buruz gaizki esaka ari garenean, emakumeek geure artean ditugun begirada sopikunak. Hori guztia geure buruari diogun amorrua eta mespretxua besterik ez dira, ohea eta mahaia guk esleitzen dizkiegun ezaugarriak pertsonekin partekatzen ditugulako. Horrelako ametsek, gauzak oztopatzeaz gain, batez ere arazo politiko bat baldintza politikoetan proposatzea ere ez du eragozten.

Foro publikoetan norbaitek hitz hartu eta emakumeen etsai nagusiak emakumeak direla badio, adierazpen horrek sortzen duen nahigabea nabaria da "berriz ere biktimei errua botatzen...!". Ez dut esango ikuspuntu estrukturalaren arabera, emakumeak emakumeen etsai direnik, gure etsaia *gizona* da, gizonaren jarrera estrukturala. Baina gehienetan askoz ere gehiago ikasten da gure etsaiarengandik lagun onenarengandik baino, lehenengoak gure akats guztiak azpimarratzen baititu, eta bigarrenak akats horiek gutxitu edo justifikatzen baititu. Emakumeak emakumeen etsai nagusi direla diogunean, fokua norabidea aldatzen dugu, arazoaren jatorria aurkitzeko, beste leku batera begiratzen dugu. Emakumeok ez gara emakumeen etsaiak, baina arazoa geure artean bilatzen badugu, sexismo-

aren munstroaren fruitu garelara ikusiko dugu, eta hain zuzen ere hor sortzen da sexismoa desagerrarazteko indarra. José Martík AEBei buruz hitz egitean zioen bezala, ez dut munstroa ezagutzen haren barnean bizi izan bainintzen, baina munstroa haren fruituari begira ezagutzen da, hau da, ni neu aztertzean. Munstroa ez dago kanpoan, ez dago nire inguruan, *emakume izateari esker izan naiteke gizon*.

Emakumeon etsai nagusia, gizonak beraiek ordeztuz, gizonen aurrean dugun jokabidea da. Askotan, *gizonaren kontzeptuan*, gizon batek izatea gustatuko litzazkiguen ezaugarriak edo geure akats jasanezinenak proiektatzen ditugu: indartsua izan dadila, oso gizona, oso gogor besarka nazala... bere bular indartsuaren aurka zapal nazala... eta hil egingo nau, noski! Tarzanen Jean ahula, besotetan liana batetik bestera daramana. Gu haserretu egiten gara, etxean lagundu egiten digutela esaten digutenean; baina aldi berean, etxerako soldata irabaztean, ez zaigu burutik pasa ere egiten, emakumeek gizonen jokabide berdina dugula, gehienetan lagundu egiten baitugu, ez baikara soldataren erantzule sentitzen. Baldintza estruktural horiek zehazten dute emakumeek gizonen baino soldata apalagoa irabaztea, eta baldintza subjektibo horien ondorioz, egoera horiek toleratu egiten ditugu. Etxeko soldataren erantzule sentitzen ez garen heinean, emakumeen soldata duinaren aldeko borroka ez da lehentasun bat izango. Kanpo-etsai bat dago, zalantzarik gabe, baina non dago aldaketa-subjektua, gu aldaketa-subjektu bihurtzen gaituena?

1.2

MASKULINOTASUNAREN ONURA ETA KOSTUAK: ESPLOTAZIOA

Maskulinitasuna feminitatearekin duen harremanaren arabera zehazten da. Harreman horren funtsa da, baliabideak sortzen dituztenengandik; hau da, emakumeengandik baliabide horiek ekoizten ez dituztenengana sistematikoki eskualdatzea; hau da, gizonen. Ondorio nagusia da gizonen emakumeekiko boterea

dutela, eta emakumeek gure lanarekin botere hori indartzen dugula. Kontzeptu horrek, emakumeen mendekotasuna beste era batean ulertzen laguntzen digu. Lehenik eta behin, emakumeen mendekotasuna harreman ekonomikoetan kokatzen du; eta harreman ekonomiko horiek dira, hain zuzen ere, emakumeen ezberdintasunaren funtsa. Gainera, gaur egun, emakumeak ez daude gizonen mendebalde ekonomikorik ez dutelako, baliabide horiek gizonei ematen dizkietelako baizik. Gabeziaren eta eskualdaketaren arteko aldea ez da ñabarduna kontua, ezberdintasuna erabatekoa baita. Gabezia zentzu deskribatzailean erabiltzen dut, eta eskualdaketarena, berriz, analisi-zentzuan. Gabezia terminoarekin egoera bat azaldu nahi dut, eta eskualdaketarekin, berriz, harreman bat. Gabezia hitzak gabeziara garamatza; hau da, hezkuntzarik, etxebizitzarik, lanik, botere politikorik ez izateari buruz ari gara. Eskualdaketaren kasuan, berriz, objektua zergatik galtzen den azaldu nahi da; hau da, gabezia zergatik sortzen den. Bi planteamendutan gabezia bat azaltzen ari gara, baina bigarrenean, gabeziaren egoera harreman baten ondorioztat jotzen da; hau da, ekin-tzaren subjektuak zerbait eskualdatzen duelako. Esplotazioaren kontzeptua, baliabideen eskualdaketa berezi bat da. Kontzeptu horri esker ulertzen dugu, adinarekin gizonak zergatik handitzen duten beren balioa, eta emakumeek, berriz, zergatik galtzen duten.

Emakumeek ez dituzten baliabideak gizonei ematen dizkiete, gizonei balioa gehitzearen ondorioz, devaluatu egiten dira, edo bestela, gizon bat alboan izateko premia sortzen zaie. Horren ondorioa da "50 urteko emakume baten truke, 25 urteko bi", edo 25 urteko bi emakumeek 50 urteko batek baino gehiago balio dute. Bien bitartean, 25 urteko bi gizonak 50 urteko gizon batek baino gutxiago balio dute. 25 urtetik 50 urterako bidean, emakumea esplotatua izan da, eta gizonak esplotazio horren onurak jaso ditu. Pasadizo eta adierazpen horrek harreman estruktural hori ikusten laguntzen digu, baita harreman hori esplotazioa dela ulertzen ere. Urteak igaro ahala, gizonak bere emazteak baino gehiago balio badu, emakumeak zure alboan egoteagatik balioa galdu duelako da, hau da, eskualdaketa-harreman bat egon delako, ez balio-galkuntza bat; izan ere, emakumeak galdutako balioa gizonari gehitzen zaio. Zalantzarik gabe, emakumeak dira

eskualdaketa hori egiten dugunak, baina baldintza estrukturalen eraginez egiten dute. Emakumeek ez dute baldintza horiek eratzen lagundu, baina emakumeek eta gizonek adierazten dituzte, esplotazio bat egoteko, horretarako bi alderdiak egon behar baitira prest.

Baldintzatzaile estrukturalak, berez, ez dute boteririk, baina emakume eta gizonak zapalkuntza onartzen duten heinean, indartu eta finkatu egiten dira. Horrek esan nahi du, egitura sozialak bizitza eskuratzen duela haren legetara egokitzen diren emakume eta gizonen bizitzarekin; haien odola xurgatuko balu bezala. Egitura soziala behin eta berriz egindako ekintzen prozesuko momentu jakin bat da. Ekintzaren subjektua egituraren jarrera ezberdina den bitartean, ekintza egituratzailea da, egitura berresten du. Baina egiturak beti egiten du huts, inoiz ez da erabatekoa, egitura ez da inoiz perfektua izaten, eta ondorioz, behin behinekoa da, nahiz eta iraunkorra izan. Subjektu berri bat agertzen denean, egitura desorekatu egiten da, momentu horietan, subjektua ez baita maila soziala, nahiak eta kontzientzia baizik. Elementu horiek ez daude egituraren barne, eta ez dute hura betetzen. Subjektuak, bere bizitza jokoan jartzea erabakitzen du, egituraren barne ezin duelako. Erabaki hori agian bateragarria da biziraupenarekin, baina ez bizitzarekin. Bizitza maite dugulako, gure bizitza jokoan jartzen dugu. Biziraupena ez da helburu bat, bizitzeko aukera baten baldintza bat baizik.

Puntu horretan zehazpen bat egin behar dugu: emakume eta gizonen arteko esplotazio-harremanak ez dira etxeko lau hormen artean soilik gertatzen. Harreman sozialak harreman pertsonalen arabera dira, harreman pertsonalak ere harreman sozialen arabera diren modu berean.

Esparru sozialean, emakume eta gizonen arteko esplotazio-harremanak lan-merkatuaren antolaketan geratzen dira agerian. Izan ere, emakumeek soldata apalenak dituzte atala osatzen dute, baita baliabide sozial gutxienak dituztenak ere. Nire ustez, atal edo sektore batzuetatik bestetara baliabideak lekualdatzen dira. Era horretan, gizonezkoen lan-ataletan, emakumeen ataletako lan-baldintza txarren onurak jasotzen dituzte (berdin dio azken horretan emakumeak ala gizonak ari diren jardunean). Era berean, enpresa nazionalak nazioarteko enpresetara

lekualdatzen dituzte baliabideak. Indarrean dagoen ereduaren arabera, ezin da biziraun ondasun material edo inmaterialak ekoiztu gabe. Ondorioz, pertsonak bizimodu-ekoizpenaren arabera zaintzen dira. Xedeak, giza bizitza, bizi-baliabideen arabera dira. Esparru publikoaren kudeaketari dagokionez, bizitza zaintzea bigarren mailako jarduera bihurtzen da, pribatizatu egiten da, emakumei familia-ekoizpeneko lanak esleitzen baitzaizkie.

Merkatuko harreman ekonomikoei eta merkataritza kanpoko harreman ekonomikoei dagokienez, eta ondorioz, esparru publikoaren kudeaketako harremanei dagokienez, gizonak, emakumeen esplotazioaren bidez, emakumeak menderatzen dituzte. Emakumeek lana gizoni eskualdatzeko sistema bat sortzen dute, eta sistema horri esker, familia, merkaturia eta Estatua elkar indartzen dira.

Ezin dugu ahaztu maskulinitasuna aipatzen dugunean, postu edo egoera bati buruz ari garela, ez pertsonari buruz. Argi dago, postu horretan gizonak egoten direla gehienetan, baita emakume gutxi batzuk ere. Izan ere, postu horretan, *emakume/gizon* arteko esplotazio-harremana bi emakumeen edo bi gizonen artean ere gerta daiteke, ez baita aurreko planteamenduetan ezetsi. Gainera, emakumeek emakume gisa esplotazio jasateaz gain, *langile* gisa ere esplotazio hori jasan dezakete. Azken esplotazio-harremana, kapitala beren esku duten pertsonak sortzen dute, berdin dio gizon ala emakume izan. Etxean lan egiteaz gain, etxetik kanpo soldatapeko lanpostu bat duten emakumeen taldea gero eta handiagoa da. Emakume horien kasuan, *esplotazio bikoitza* jasaten dutela esan behar dugu.

Maskulinitasunak dituen kostuei dagokienez, ezin da esan esplotazioak sortzen dituen onuren isla dela soilik. Azter dezagun azken adierazpen hau. Gizon gehientzat, jarrera *maskulinoa* soldatapeko lanpostu baten mende dago; hau da, maskulinitasunaren alderdi ekonomikoaren barna dago soldatapeko lanpostu bat lortu eta mantentzea. Harreman pertsonaletan emakumeak ekonomikoki esplotatzen badira, merkaturiko harremanetan ere esplotazio-mota bera gertatzen da. Emakumeek mendeko harreman ekonomikoak edukitzeko baliabideak bakarrik lortzen dituzte, aldeztu aurretik esplotazio jasan ondoren. Maskulinitasunaren onu-

rak haren kostuaren jatorri bera du: harreman batean esplotatzaile badira, beste an ere esplotatzaileak dira. Esplotatzaileak dira beste harremanean esplotatuak direlako.

Hori bereziki egia da kapitalismoaren garapen-prozesuaren zati handi batean, soldatapeko klase bat sortzean, bi baldintza nagusi bete behar baitira: baimendutako ekoizpen-harreman jakin batzuk sartzeari; hau da, onespina eratzea, langileak legalki bere lan-indarra saldu edo ez saltzeko aukera baitu. Onarpenaren funtsezko elementu da emakumeak gizonen mende jartzea da; hau da, baimendutako esplotazio-harremanak eratzea. Azken adibide hori hartuta, gaur egungo joera jarraituz, soldatek banakako premiak soilik asetzen dituela ikustean, familiaren hornitzaile ekonomiko izateak langileen esplotazio baimenduaren bermerako tresna izateari utzi diola ulertu behar da. Soldatapeko lana banakako esku-bide izatea, feminismoaren funtsezko errebindikazioa izan da. Eskaera horrek patriarkatuaren oinarriak kolokan jartzen ditu, eta aldi berean, enpresari guztien ametsa betetzen laguntzen du, baita geurea ere, enpresari bagina. eskulana edo burulana izatea, baina langile bat oraindik ekoizkor ez denean, edo ekoizkor izateari utzi dionean, haren ekoizpenaren kostuak ordaindu gabe. Joera soldata banakatzea bada, ez da onartzen pertsona heldu baten soldata ezin dela banakakoa izan, langilea pertsona heldua izanik, haren soldata familia baten premien zati bat asetzeko adinakoa izan behar baita, nahiz eta familia-buruari dagokion soldata ez izan. Emakumeek, beraz, soldata errebindikatzeari, helburutzat autonomia edukitzeaz gain, erantzukizuna ere eduki beharko lukete.

1.3

MASKULINOTASUNAREN ONURA ETA KOSTUAK: NAHIAK

Nahiak dira, eta ez arrazoia, gure jokabideak sortzen dituztenak. Batzuetan, arrazoiek nahiak aldatzen laguntzen dute, baina ohikoagoa da nahiek pentsamendua nolabait zuzentzea, nahi dugunari zentzua emateko eta era horretan,

nahi duguna betetzea bidezkoa dela pentsatzeko. Nahiei buruz hausnarketa egitean, libido-ekonomia aztertuko dugu; hau da, nola erabiltzen ditugun energia psikiko/somatikoak. Nahiak eta horiek betetzeko moduak, nire ustez, subjektibotasuna zehazteko funtsezko elementuak dira, hau da, postu sozial jakin batetik jokatzeko ari den subjektu mota zehaztea bezala. Baina egitura psikiko eta sozialek berezko legeen arabera funtzionatzen dute, ezin dugu esan bi egituren artean harreman mekanikorik dagoela. Hala ere, egitura sozial (ekonomikoa), haren araberrako egitura psikikorik gabe, oso ezegonkorra izango litzateke, eta aldi berean, bi egitura horien arteko harreman ona badago, onarpena eratzea errazagoa da.

Esparru ekonomikoan, emakumeek gizonen esplotazioa jasaten dute. Baina, nahien esparruaren egituran, askoz ere errazagoa da emakumeek gizonen libidoa esplotatzea. Gizonek emakumeei buruz duten kexa nagusia amodio-eza da, hau da, emakumeen motibazio nagusia interesa izatea. Baliokide sozialean, emakumeak, bizitzeko, gizonen mende daude, eta emakume gisa bizirauteko, bikotekide bat aurkitu eta haren zaintzaile izan behar dira. Emakumeen egoera soziala gizonen egoera sozialaren araberrakoa da. Gizonen artean, egoera horren baliokide soziala zaintzaile bat aurkitzea da, eta gainera, lan hori amodioagatik egitea. Kontrol sozialerako dispositiboak nahi horiek indartu egiten ditu, besteak beste, zainketak amodioarekin lotzea, eta ondasun-ekoizpena pertsonen arretarako zerbitzuen gainean jartzea, era horretan gizon eta emakumeen arteko harreman ekonomikoak desorekatuz.

Amodio-ezaren kexa produktu kulturaletan jasotzen da, esaterako abestietan edo txisteetan, elementu horien bitartez, eguneroko bizitzan esan ezin dena adierazten baita: emozioak eta nahiak. Adibidez, *Arrebato* abeslariaren abesti bat dator kit burura. Bertan, gizonak emakumeari hau esaten dio: "Búscate un hombre que te quiera, que te tenga llenita la nevera" (bila ezazu maite zaituen gizon bat, hozkailua beteko dizun gizon bat). Beraz, abestiaren mezua hau da: "nirekin bazatuz, ni maite nauzulako izan dadila, ez baituzu beste ezer izango, eta ni ere ez naiz zure esku egongo, ez baitiot nire bizitzari zugatik uko egingo, zu nire eskue-tan egotea nahi dut, baina nik ez dut zure esku egon nahi". Mexikar abesti bate-

an, gizon batek emazteak egiten dizkion eskaerak kontatzen ditu, ilargia, izarrak. Azkenean “eres una interesada” (interesatu hutsa zara) esaten dio. Horrez gain, txiste bat ere badatorkit burura: emakume batek, ezkondu ondoren, zer nahi du? bere senarra ez, beste guztia. Txisteetan, emakumeak engainatu egin dutela esaten du, eta gizonak, berriz, emazteak ez duela maite, ez baitu berarekin sexu-harremanik izan nahi.

Nahiak, libidoaren arabera, gizon-emakume arteko harreman osagarri gisa egituratzen dira. Gizonaren nahia *emakumea* da (3), emakumea lortu eta eskuratu nahi du, emakumea lortzeko bizitza arriskuan jarri nahi du. Horren adibide dira filmetako eta ipuinetako heroiak, neska, printzesa ederra lortzeko izugarritzko gorabeherak gainditu behar dituztelako. Emakumeak desiratua izan nahi du. Freudek “*Zur Einführung des Narzißmus*” (*narzismoaren hastapenak*) lanean adierazi zuen bezala, emakumeen nahi eta desioen beste alde da, emakumeak maitatuak sentitzen diren heinean bakarrik direla maitatzeko gai. Beraz, onarpe-naren eta aintzatespenaren legeak finkatuta geratzen dira. Ondorioz, lan-esparruan, emakumeek aintzatespena nahi dute, eskolan, ikasgaiak gainditzea. Badakigu, emakumeek helburu horiek betetzen dituztela. Gizonaren irudi nagusia, sexismoaren mitoa sortu zuena, gizon ehiztaria da. Proba zientifikoek ez dute adibide hori sostengatzen, baina erotismoaren imajinarioan irudi hori finkatzen da. Igarotako errealitatean oinarrituta egon ez arren, iraganeko sexismoa azaldu nahi denean, irudi hori azaltzen da behin eta berriz. Guk dakigula behintzat, gizakiek, animalia-jatorriko proteina jateko karraskari txikiak eta intsektuak jaten zituzten, baita beste animalia batzuek ehizatzen zituzten animalien hondarrak ere. Beraz, gizakiak sarraskijaleak ziren. Hala ere, frogak aurkakoa adierazten duten arren, mamut-ehiztariaren irudiaz baliatzen gara emakumeen ezberdintasun soziala azaltzeko, gizonak baitira emakumeen hozkailuak betetzen dituztenak. Beraz,

(3) Emakumea eta gizona letra etzanean idazten ditudanean, orokorrean sexuari lotutako jarrerak izaten direla esan nahi dut, baina ez dute *zertan beti* sexuari lotuta egon behar.

gizonen lan nagusia soldata ona irabaztea omena da, aintzatespena ez da emakumeentzat bezain garrantzitsua.


Emakumeak, berriz, arrantzale-irudia du. Hau da, amuan nor eroriko zain egoten da, baina ez modu pasiboan: beita jartzen du, bera da beita, eta nahi duen motako gizona arrantzatzeko moduko itxura edo erakargarritasuna ematen dio bere buruari. Berak aukeratzen duen gizona emakumearen jabe bihurtzen da, hark irensten uzten du. Emakumeentzat nola ez da izango mehatxagarria beren barne sartzeko aukera, baldin eta nahi dutena gizonaren barne sartzea bada.

Biek, bai emakumeek bai gizonak, bestearengan maitasun erromantikoaren promesa bete nahi dute, desiraren zauria sendatzea, elkar osatzea. Ez dute elementu bakar bihurtu nahi, bikote izan nahi dute. Horregatik, bikote bat dibortziazten denean, seme-alaben jabetza lortu nahi izaten dute, haien hezkuntzan eta bila-kaeran parte hartu ordez. Amodio izeneko sentimendu hori, botere-borroka da, zerbaiten jabe izateko borroka eta ez elkarren osagarri izatekoa. Gizonak emakumea kontrolatu nahi du, eta emakumeak, gizonaren nahiak kontrolatu nahi ditu, esparru publikoa kontrolatzeko tresna bihurtu ahal izateko. Horregatik dira erakargarriak gizonak emakumeentzat. Mugimendu horretan hainbat esapideen erreferentziak aurkitzen ditugu: esaterako "detrás de todo gran hombre hay una gran mujer" (gizon handi baten atzean, beti dago emakume handi bat). Adierazpen horren arabera, ekintzak egiten dituen emakumea da. Horrez gain "mueven más dos tetas que dos carretas" (gehiago mugitzen dute bi bularrek, bi gurdik baino) esapidea ere hor dago. Nahi edo desio hori muturrera eramanez gero, txiste honen benetako zentzua ulertu ahal izango dugu: "- Baina gizona, zergatik jotzen duzu zure emaztea? - Ah, nik ez dakit, baina berak bai". Beste mutur bat bortxaketa da. Ekintza horretan, gizonarengan indartzen den desioa kontrolaren nahia da, eta emakumean, berriz, berak gizona sexualitatearen bidez kontrolatu ordez, gizonak bera mendean jartzen duela.

Gizonentzat, desira antolaketa horrek kostu handia dauka. Desiratutako objektua kanpoko denean, objektuaren zamak, Freuden arabera, libidoa gutxitzen du. Zer esan nahi du horrek? Gizonak bere bizitza eta interesak babesteko gaitasuna galtzen duela. Besta, kasu honetan, emakumea maite duzunean, eta kanpoko

objektu edo pertsona hori desiratzen duzunean, zure bizitza babesteko gaitasuna galtzen duzu. Beraz, maitasunak libidoa gutxitzen du. Maskulinitasuna eta bizi-tzaren artean harreman negatiboa dagoela frogatzen duen adierazleetako bat da suizidioaren, bere buruari eragindako zaurien, hilketen eta erasoen ondorioz hildako gizon-kopurua da.

Suizidio edo hilketa baten ondorioa hildako gizon-kopurua, arrazoi horiengatik hildako guztiekin alderatuta




Iturria: Estadistika Institutu Nazionala, "Heriotzak, arrazoien arabera", 2005.

Bi kasuetan, gizonen baldintza horietan hiltzeko probabilitate askoz handiagoa dute emakumeek baino. Indarkeria delituen ondorioz zigortutako pertsona gehienak ere gizonezkoak dira, baita lan-istripuetako biktima gehienak ere (nahiz eta ezbehar horiei lan-istripu esatea oso egokia ez izan). Egia da patriarkatuaren harreman sozialean indarkeria dagoela. Baina esaten denaren aurka, indarkeria fisikoaren biktima gehienak ez dira emakumeak, gizonak baizik.

Jende askok esango dit alderantziz dela, zainketa-lanek emakumeak fisikoki eta emozionalki higatzen baitituzte, gainontzekoen zerbitzura jartzen baitira, eta lehentasuna ematen baitiete haien premiei beren premien aurretik. Azterketa hori oso gaineratik egindakoa da. Emakumea nekatu egiten da, bere familiaren zerbitzura jartzen delako, baina hori arrazoi batengatik egiten du. Emakumeek senti

dezaketen benetako amodioa mespretxatu gabe, azterketa sakona egiteko, kon-
tuan eduki behar dugu, gizarte patriarkalean, emakumea ez dela subjektu bat,
botere-ondorio bat baizik. Adierazpen horrekin eta orain arte esandakoarekin
ados bagaude, emakumeak, bere harremanetan amodioa eta aintzatespena bila-
tzen ditu, hau da, amodioa da bere eskaera nagusia. Oraingoan, emakumeek
ingurukoak zaintzeko arrazoi nagusia ez da pertsona horiekiko sentitzen duten
maitasuna, pertsona horiek zaintzen aurrean adieraztea espero duten amodioa
baizik. Sexismoak emakumeei eta gizonei egiten die kalte, baina indar gehiago
du emakumeengan, beren bizitza ez baitu behar bezala babesten.

Zigorrak, delituaren eta sexuaren arabera



Iturria: EIN, estatistika judizialak. 2004.

Botereari dagokionez, alde batetik, gizonak eta emakumeak alderatzen direnean,
gizonak askoz ere garrantzitsuagoak dira. Beste alde batetik, egunero jasutzen
ditugun spam posta elektronikoak daude, gizonei potentzia sexuala, erekzio hobe-
ak eta zakil handiagoa edukitzeko produktuak eskainiz.

1.4

DATU BATZUK GAUR EGUNGO EGOERARI BURUZ (4)

Berdintasunaren lehen adierazlea emakume eta gizonen arteko lan-banaketa da. Esparru horretan, aipatu behar dugu EAEn ia berdintasuna lortu dela. Hala ere, lan-eskubidearen banakoiztapen-mailari dagokionez, ezberdintasun nabarmenak daude oraindik, emakumeek baitituzte aldi bateko lanpostu edo kontratu gabeko lanpostu gehien. Azken lanpostu horiek agerian uzten du zerbitzuen sektorean emakumeen duten enplegu-kolokatasuna, bereziki etxeko-lanetan lan egiten duten langileena.

Horrez gain, 2002ko *Soldata-Egituraren Inkestaren* arabera, emakumeek gizonen baino gutxiago irabazten dute (%26,7 gutxiago). Hori azaltzeko hainbat arrazoi daude: ekonomia-sektorea, lan-maila, kontratu-mota, lanordu-kopurua edo sexuatik bereizkeria. (Elizondo, Martínez eta Novo, 2005).

Oraingoz, ezerk ez du adierazten lan- eta soldata-eskubideek, autonomiaz gain, menpeko pertsonak, bereziki, seme-alabak mantentzeko erantzukizuna hartzeko gaitasunik ematen duenik. Izan ere, gizonak ordaintzen dute mantenu-pentsioa (%94). Alde batetik, gizonak hartzen duten beren gain seme-alabei mantenu emateko erantzukizuna. Bestalde, gizonak, hala nahi izan ala ez, ez dituzte seme-alabak zaintzen. Banantzeen eta dibortzioen kasuan, eredu hedatuena adostasuneko banantzea da. Eredu horrek ez digu esaten zeinek ekin dion banantze-prozesuari, baina prozesu hori nola amaitzen zen esaten digu, egintza juridikoaren aurretik gatazkak eta negoziazioak gertatzen baitira. Baina banantze-eskaerak nork aurkezten dituen soilik aztertzen badugu, bikotekideetako batek aurkezten duenean, emakumeek aurkezten dituzte eskaeren %78.

Datu horiek erakusten digute, ezkontzean, gizonak eskuratzen duela ondarea, eta emakumeak, ondorengoak; eta beraz, gizonak hornitu behar duela ondare hori,

(4) Datuak txosten amaierako estatistika-eranskinean ikus daitezke.

familia-unitateko burua baita. Egoera horren ondorioz, gizonak familiako jabea dela pentsatu ohi du, eta beraz, familiarik ez badu, ez duela zertan zama hori eduki behar. Gizona familiaren eredu autoritarioan kokatzen da, horrela kokatua izan delako. Emakumea, berriz, gizakiaren alegiazko kontzeptu batean kokatzen da, eta erdian, gizabanakoa eta banakako eskubideak daude. Emakumeak aurreko familia-ereduari uko egiten dio, gizabanakoaren estatus soziala eskuratu gabe. Ondorioz, emakumea buru duten guraso bakarreko familiak eta bakarrik bizi diren emakumeak dira pobrezia-arrisku handiena duten kolektibo sozialak. Emakumeak banandu nahi badira, ezkutuko gatazkak agertzen dira, eta gatazka horiek ondorio negargarriak dituzte bai emakumeentzat baita gizonentzat ere. Adibide garbiena senar ohiek edo senar ohi bihurtzeko zorian dauden gizonen hiltzen dituzten emakumeak dira, eta ondorioz, gizonen ere ez dute bizitza-proiektu berri bati ekiteko aukerarik izaten.

British Crime Survey eta nazioarteko hedadurako ikerketak aztertu ondoren, Walby eta Myhill (2001) (5) aipatu dute emakumeak banantze-eskaera egitea senarraren egoera sozio-ekonomikoa baino askoz ere arrisku-faktore garrantzitsuagoa dela. Halaber, beste arrisku-faktore batzuk emakumeek harremanean duten desoreka edo emakumeen lan-egoera dira. Genero-ikuspegia familiako indarkerian. Bestalde, Hearn eta Whitehead (2006:47) adierazi dute, emakumeek gizonen giza jokatzeko gai ez den irudia emateko gaitasuna desagerrarazteko modu gisa ulertzen dela gizonen familiako indarkeria.

Gizonak, ezkontzean, ondarea eskuratzen du, eta banantze edo dibortzioaren ondoren, ondarerik gabe geratzen da. Emaztea eta seme-alabak ere galdu egiten ditu, ez baitute berekin bizi nahi, eta haurrak beti amak zaindu izan dituzenez, pentsaezina da haurrak aitaren esku geratzea. Gizonak ondarearen arduradun izaten jarraitzen du, hura galdu arren: izan ere, emaztearen esku geratzen da

(5) Hearn eta Whiteheaden aipatua (2006).

bikotearen etxebizitza, emazte ohiari konpentsazio pentsioa (6), ordaindu behar dio, eta seme-alaben mantenu-pentsioa ere bai. Beraz, irudimen handia eduki behar al da tratu txarrak eman eta emazteak hiltzen dituzten gizonak patriarka-estatusa galdu duten horiek direla imajinatzeko? Gizarteak badaki beren jokabidea nolakoa den, eta gehienetan, erasoen ondorioz, askatasuna irabazi ordez, galdu egiten dute. Beraz, patriarka gisa porrot egin dutenez, delitua patriarkatuaren aldeko opari gisa egin dutela pentsatzea, fantasia hutsa izango al litzateke?

2.

Gizabanako berdin eta solidarioen gizarterantz

Antolaketa sozial demokratiko bat eraiki ahal izateko aukera edukitzeko, hein handi batean, lehenbizi bakoizpen-prozesua amaitu behar da. Izan ere, erabakiak hartzeko gaitasuna ez da kolektibitate oso baten ezaugarria, edo ikuspegi funtzionalaren arabera, familia- edo gizarte-hierarkiaren buruena soilik, pertsona bakoitzaren ezaugarri bat baita. Ezin da ulertu erakunde batek, Estatuak eta familia-buruak banakakoen interesak gailentzea, elkarbizitza errazten duten proposamenak bakarrik garatuz eta abian jarritz, erabakiak erabat monopolizatuz. Estatu gatazka-indarren emaitza besterik ez da; beraz, ez ditu banakakoen interesak helburu unibertsalagoak proposatuz gailentzen, baizik eta gatazkan dauden indarren arabera interes-borrokaren emaitza adierazten du. Bestalde, familia-buru patriarkatuaren emaitza da, eta sistema horren exijentziaren menpean dago.

(6) Aldez aurreko ustiaketa baten aintzatespen gisa uler dezakegu.

Bakoizpen-prozesuan, batez ere, pertsonak bere buruaren arduradun izateko gaitasuna garatzen du, baita bere burua garatzeko baliabideak sortzeko eta ardurapen dituen pertsonak zaintzeko (haurrak, zaharrak, gaixoa edo ezintasun fisiko eta psikikoak dituzten pertsona) baliabideak sortzeko gaitasuna ere, pertsona hori ere, norbaiten ardurapean egon edo egongo baita.

Gure gizarteari buruz, askotan esaten da indibidualistak eta androzentrikoak direla. Hau da, gizonek lortzen dutela *gizabanako* izatea, eta beraz, emakumeek ez dutela bakoizpen-prozesu hori egiten. Hala ere, adierazitako tesiek, ideia hori zalantzan jartzen dute. Gizonak familia-unitateko *gizabanakoak* dira. Gizonen estatus hori ez da automatikoki gizona izateagatik lortzen, *familia-burua* izateagatik baizik, edo nahiago bada, gizona izatean, estatus sozial jakin bat eduki behar da, familia buruarena. Beraz, ezin dugu esan gizonek bakoizpen-prozesura iristen direnik, eta emakumeak, berriz iristen ez direnik. Familia-unitatea sortzen duten heinean, estatus edo egoera horretara iristen dira, familiako buru baitira. Beste gauza bat da, soldaduek ausartak izan behar duten bezala, gizonek familia-buru izan behar dutela. Beraz, ez da espero gizonak indibidualizatzea, baizik eta kokapen funtzional bat eskuratzea, osotasun baten interesak eta premiak defendatzeko: familiarenak.

Erabaki politikoak hartzerako orduan, baldintzatzaileekiko kezka, eta ondorioz, eskubide politiko eta bakoizpenaren arteko harremanari buruzkoa, boz-eskubidearen historian islatzen da. Lehenbizi, eskubide horretatik kanpo jabeak ez zirenak utzi ziren, gero beltzak, emakumeak eta haurrak; aurrerago, emakumeak eta haurrak; eta gaur egun, haurrak bakarrik. Gai nagusia da kolektibo batzuek iritziak adierazteko duten gaitasuna baloratzea, kontuan hartuta menpeko kolektiboen iritzia bikoiztuko lukeela (7). Gaur egun, emakumeek boz-eskubidea dutenez eta borondate orokorraren ordezkari izan daitekeenez, gizabanakoak soilik gizonak

(7) Boz-eskubideari buruzko eztabaidetan emandako argumentuetan, bozaren zentzuari buruzko kezka dago ezkatututa. Adibidez, emakumeek alderdi kontserbadoreak bozkatuko zituztela uste zen, eta gazteek berriz, alderdi ezkertiarrei emango zietela.

direla zalantzan jartzen du, gizabanakoak emakumeak ere izan baitaitezke. Adibide gisa 1978ko Konstituzioan ageri diren demokrazia eta sexismoaren arteko tentsioak hartuko ditugu, 14. artikulua arabera, edozein izaera pertsonal edo sozial izanda ere, pertsona guztiak berdinak dira legearen aurrean. 35. artikulua, espainiarren (hau da, herritarren) lan-eskubide eta betebeharrei buruzkoa, herritar/familia-buru irudian oinarritzen da, lanari esker eskuratutako irabaziak bakoitzaren eta familiaren premiak asetzeko adinakoa izan behar dela zehazten baita. Edo 57. artikuluan, tronuaren ondorengotzari buruzkoan, gizonari lehentasuna ematen zaio, baina hura aldatzeko asmoa dago. Edo 56. artikulua horretan, Erregea Estatu-burua dela xedatzen da “batasun- eta iraunkortasun-sinboloa”, eta familia-harremanetan duen paper sinbolikoan, familia-buru gisa aurkezten da, erregearen familiaren antolaketak familia patriarkal ideala islatzen baitu.

Aipatutako guztia kontuan hartuta, ondorioztatzen da, gizonak eskubide politikoak ez dituela gizabanako gisa, familia-buru gisa baizik. Hala ere, gizabanako aske eta berdinek osatutako alegiazko gizartearen artean, eta errealitateko gizarte patriarkalaren artean, tentsio handiak daude.

Horrez gain, gizabanakoa ulertzeko moduan ere gatazka eta kontraesan handiak daude. Lek (2005: 554-557), bi indibidualismo-mota kontrajartzen ditu: *indibidualismo bertikala eta indibidualismo horizontala* edo auto-eraikuntza. Autore horren arabera, indibidualismo bertikalak ezberdintasuna, lehia eta estatusa indartuz kontzeptualizatzen ditu gizabanakoak; eta horizontalak, berriz, autonomia eta berdintasuna indartzen ditu. Lehen indibidualismo-mota nartzisismoari eta maitatzeko era heldugabeei lotuta dago, eta bikotekidearekiko arreta eta kezka gutxiago duten gizonen artean ohikoa da. Desioari buruz egindako hausnarketekin jarraituz, esan dezakegu indibidualismo bertikalak amodio-objektuaren jabe izan nahi duela. Baina, emakume eta gizonen arteko ezberdintasunek ez dute esan nahi emakumeek indibidualismo horizontalera jotzeko joera handiagoa dutenik. Izan ere, ezberdintasun horiek bi nartzisismo-mota islatzen dituzte: gizonen desiratutako objektuaren jabe izan nahi dute, eta berdin zaie objektu hori pertsona bat izatea; eta emakumeek, berriz, desiratutako objektua gizonaren amodio

eta aintzatespena bilatuz lortzen dute, gizona pertsona edo subjektu gisa aintzat hartu gabe, eta aldi berean, subjektibotasuna baliogabetuz.

Orain arte, maskulinitasunak, generoa, patriarkatua eta emakumeen egoera soziala aztertu dutenen artean, joera nagusiak manikeismo-kutsuak ditu. Izan ere, emakumeen autonomia zehazten da xedetzat, eta ongizate kolektiboan emakumeek egiten duten ekarpena, batez ere familien zainketaren bidez egindako lanari esker, aintzat hartzea. Baina sexismoa bi generoen arteko harreman-kontua dela esan arren, eta ikerketa askotan emakumeak eta gizonak, subjektuak ordez, boterearen ondorioz direla, gehienetan emakumea objektu gisa sailkatu da, eta gizona, subjektu gisa. Orrialde hauetan proposatu nahi izan duguna da gizonak gizon eta emakumeak emakume bihurtzen gaituzten baldintza estrukturalak aztertzea, sexismoaren arazoaren erantzukizuna kanpoko etsai irudikari bati esleitu beharrean.

Azalpen hau amaitzeko, azken ideia hauek aipatu nahi ditut:

- Zapalkuntza-sistemak kalteak sortzen ditu emakume eta gizon zapaltzailean.
- Zapalkuntza gizartea, bereziki aspektu ekonomikoetan, antolatzeko moduaren ondorioz sortzen da, baita subjektibotasuna egituratzeko moduaren ondorioz ere.
- Zapalkuntza egonkorra da, eta maskulinitasunari estatus hegemonikoa ematen dion onarpena antolatzen duten tresnen bidez, betikotu egiten da.
- Gizona eta emakumea ez dira subjektu hutsak. Baina pertsonak, bakoitzak dugun kokalekuak gainditu egiten ditugu.

Ez da interesgarria errudunak bilatzea, baldin eta gure helburua ez bada ignominiaren aingeru hiltzaile bihurtzea. Sexismoaren kausen azterketan ere, errudunek ere interes erlatiboa dute, baldin eta xedea ez bada gure bizitzetako erantzukizunak ahalik eta modu onenean gauzatzea, bai esparru politikoan baita pertsonalean ere.

Zigortu nahi badugu, bidea eginda dago. Guk egindakoaren eta gainontzekoei egiten diegunaren errudun izan ala ez... gertatzen zaizkigun gauzekiko, zein da gure benetako interesa eta parte-hartzea? Bada garaia, elkarbitza errazteko, eta gorrotoa edo errebantxa oinarritzat hartu ordez, erantzukizuna eta ardura hartzeko.

Bibliografía

- Amâncio, Lúgia eta Oliveira, João Manuel, IV. "Men as Individuals, Women as a Sexed Category: Implications of Symbolic Asymmetry for Feminist Practice and Feminist Psychology". *Feminism & Psychology* SAGE, 16. liburukia (1), 2006.
- Barret, Michèle, "Ideología, política, hegemonía: de Gramsci a Laclau y Mouffe", Zizek, Slavoj (bild.), *Ideología. Un mapa de la cuestión*. Buenos Aires, Fondo de Cultura Económica, 2003.
- Bourdieu, Pierre, *La dominación masculina*. Bartzelona, Anagrama, 2000.
- Butler, Judith, *Mecanismos psíquicos del poder. Teorías sobre la sujeción*. Madril, Cátedra, 2001.
- Chambers, Clare, "Masculine domination, radical, feminism and change", *Feminist Theory* 6.liburukia (3), 2005.
- Connell, R. W. and Messerschmidt, James W., "Hegemonic Masculinity: Rethinking the Concept", *Gender Society*, 19, 2005.
- Connell, R. W., *Gender and power: society, the person and sexual politics*. Cambridge: Polity Press, 1987.
- Hearn, Jeff eta Whitehead, Antony, "Collateral damage: Men's 'domestic' violence to women seen through men's relations with men", *Probation Journal. The Journal of Community and Criminal Justice*, 53. liburukia (1), 2006.
- Hofstede, G. *Geert Hofstede cultural dimensions*, (2003). Retrieved May 8, 2006, ikus <http://www.geert-hofstede.com/>
- Izquierdo, María Jesús, "Los órdenes de la violencia: especie, sexo y género". AA.VV. *El sexo de la violencia: género y cultura de la violencia*. Bartzelona, Icaria, 1998.
- , "Razón y sentimiento en las relaciones de pareja: ¿Del contrato al diálogo?". AA.VV. *Nazioarteko kongresua: Gizonak eta antolaketa sozial berria*. Gasteiz, Emakunde, 2002.

-
- , "En qué consiste la masculinidad: De lo privado a lo público, de lo personal a lo relacional, de lo psíquico a lo social", 237-262 orr. Careaga, Gloria eta Cruz Sierra, Salvador, *Debates sobre masculinidades*. Mexiko, Pueg, 2006.
- , "Los costos ocultos de la masculinidad", *LA MANZANA*, 1.liburukia, 1.zk , 2006.
- Kristeva, Julia, "Tiempo de mujeres", *Las nuevas enfermedades del alma*. Madril: Cátedra, 1995.
- Laclau, Ernesto eta Mouffe, Chantal, *Hegemonía y estrategia socialista. Hacia una radicalización de la democracia*. Madril, Siglo XXI, 1987.
- Le, Thao N., "Narcissism and immature love as mediators of vertical individualism and ludic love style", *Journal of Social and Personal Relationships*, 22. liburukia (4), 2005.
- Elizondo, Arantxa, Martínez, Eva, eta Novo, Ainoa, *Cifras sobre la situación de mujeres y hombres en Euskadi* (2004). Gasteiz, Emakunde, 2005.
- MacKinnon, Catherine A., *Hacia una teoría feminista del Estado*. Madril, Cátedra, 1995.
- Millet, Kate, *Política sexual*. Mexiko, Aguilar, 1975.
- Rubin, Gayle, "El tráfico de mujeres: notas sobre la "economía política" del sexo", *Nueva Antropología, Revista de Ciencias Sociales*, 30 zk., 1986.
- Sanchez, Diana T., "Doing Gender in the Bedroom: Investing in Gender Norms and the Sexual Experience", *Pers Soc Psychol Bull*,; 31, 2005.
- Seidler, Victor J., "Masculinities, Bodies, and Emotional Life" *Men and Masculinities* 10, 2007.
- , "Questioning Adam: Men, Power and Love", *La Manzana*, 1.liburukia, 1.zk, 2006.

United Nations Development Program. (2005). *The Human Development Report 2005*.

Young, Iris M., "Las cinco caras de la opresión", *La justicia y la política de la diferencia*. Madril, Cátedra, 2000.

Estatistika-eranskina

Lana duen populazioa, kontratu eta sexuaren arabera. 2004. Portzentaje horizontal eta bertikalak

	Guztira		Emakumeak		Gizonak		
	Abs.	Abs.	%H	%B	Abs.	%H	%B
Mugagabea-finkoa	502,6	194,5	38,7	61,1	308,1	61,3	74,1
Aldi baterakoa	197,7	94,3	47,7	29,6	103,4	52,3	33,5
Kontraturik gabe eta besteak	33,7	29,4	87,4	9,2	4,3	12,6	4,1
Guztira	733,9	318,2	43,4		415,7	56,6	

Iturria: EUSTAT. PRA 2004. *Cifras sobre la situación de mujeres y hombres en Euskadi (2004)* (Arantxa Elizondo Lopetegui, Eva Martínez Hernández, Ainhoa Novo Arbona eta EHUKo Politika eta Adminitrazio-Zientzietako saileko genero-azterketen taldeak egindakoa (UPV-EHU) 2005eko maiatza).

Banantze- eta dibortzio-eskaerak, hura eskatutako ezkontidearen eta seme-alaben mantenu-pentsioa ordaintzen duen ezkontidearen arabera

	Senarrak	Emazteak	Biek	NC	Guztira
Banantzeak edo dibortzioak	22.786	38.035	64.233	7.538	132.592
% lerroa kasu guztiekiko	17,2	28,7	48,4	5,7	100
% lerroa informaziodun kasuekiko	18,2	30,4	51,4		
Pentsioa ordaintzen duten ezkontidea	59.371	1.706	2.322	69.193	132.592
% lerroa kasu guztiekiko	44,8	1,3	1,8	52,2	100
% lerroa informaziodun kasuekiko	93,6	2,7	3,7		

Iturria: EIN: Estadísticas judiciales 2004. Estadística Judicial Civil. Familia- eta Lehen Auzialdiko Auzitegiak

Pertsona bakarreko familiak, pertsonaren egoera zibila eta sexua-ren arabera

	Guztira		Emakumeak		Gizonak	
	Abs.	%B	Abs.	%H	Abs.	%H
GUZTIRA	145.860	100	86.524	59,3	59.336	40,7
Ezkongabea	68.796	47,2	30.784	44,7	38.012	55,3
Ezkondua	12.011	8,2	5.193	43,2	6.818	56,8
Alarguna	53.675	36,8	45.874	85,5	7.801	14,5
Banadua	6.970	4,8	2.690	38,6	4.280	61,4
Dibortziatua	4.408	3	1.983	45	2.425	55

Iturria: EIN: Censo Población y Vivienda, 2001. PRA 2004. *Cifras sobre la situación de mujeres y hombres en Euskadi (2004)* (Arantxa Elizondo Lopetegi, Eva Martínez Hernández, Ainhoa Novo Arbona eta EHUko Politika eta Adminitrazio-Zientzietako saileko genero-azterketen taldeak egindakoa (UPV-EHU) 2005eko maiatza).

Seme-alaben zainketa: Benetakoa eta desiratua

	Benetakoa			Desiratua		
	Emakumeak	Lana dutenak	Gizonak	Emakumeak	Lana dutenak	Gizonak
Amak	70,1	42,0	73,0	10,8	14,1	20,3
Berdin	8,8	9,4	13,1	19,9	23,4	20,4
Hautzaindegian	4,2	7,5	4,9	23,9	22,1	21,9
Zaintzailea etxean	9,6	25,4	4,9	15,6	23,2	14,1
Senide baten etxean	5,4	13,1	4,5	12,9	8,6	10,7

Iturria: Emakunde inkesta 1991.

Pobrezia-mota bateko edo besteko arrisku-egoeren eragina, pertsonaren ezaugarrien arabera. 2004

MOTAK Pobrezia

Emakumeak. Guraso bakarreko familiak. Langabe iraunkorrak <45	66,1
Erkidegoz kanpoko nazionalitateko pertsonak	41,1
Bakarrik bizi diren emakumeak. Langabe iraunkorrak <45 urte	35,7
Bakarrik bizi diren emakumeak. Langabe iraunkorrak 45-64 urte	23,9
Bakarrik bizi diren gizonak <65 urte langabe iraunkorrak	17,9
Familia-taldeak <45 urte. Langabe iraunkorrak	13,4
Emakumeak. Guraso bakarreko familiak. Langabe iraunkorrak 45 –64 urte	10,9

Iturria: Justizia, Lan eta Gizarte-Segurantz Saila. Encuesta de Pobreza y Desigualdades Sociales (EPDS). *Cifras sobre la situación de mujeres y hombres en euskadi (2004)* (Arantxa Elizondo Lopetegi, Eva Martínez Hernández, Ainhoa Novo Arbona eta EHUko Politika eta Adminitrazio-Zientzietako sailko genero-azterketen taldeak egindakoa (UPV-EHU) 2005eko maiatzak). Egileen oharra: Inkestak zehaztutako motak eta pobrezia-aren %5a gainditzen dutenak bakarrik hartu dira kontuan.

Generoetako bilakaera-adierazleen arteko koerlazioa

Adierazleak	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11
Hofstede (2003)											
1 = boterearekiko distantzia-indizea	1,00										
2 = Indibidualismoa	-0,67	1,00									
3 = Ziurgabetasunaren saiheste-indizea	0,19	-0,24	1,00								
4 = Maskulinitasuna	0,10	0,08	0,01	1,00							
HDU (ONU, 2005)											
5 = Emakumeek lehen-hezkuntzan duten partaidetza	-0,16	0,33	-0,07	-0,02	1,00						
6 = Emakumeek bigarren hezkuntzan duten partaidetza	-0,62	0,77	-0,19	-0,02	0,44	1,00					
7 = Emakumeek hirugarren hezkuntzan duten partaidetza	-0,53	0,67	-0,05	-0,21	0,57	0,78	1,00				
8 = Emakumeak parlamentuan	-0,54	0,44	-0,21	-0,34	0,31	0,39	0,47	1,00			
9 = Emakumeak kargu nagusietan	-0,06	0,28	-0,18	0,07	0,39	-0,11	0,32	0,27	1,00		
10 = Emakume teknikariak	-0,16	0,31	0,04	0,09	0,41	0,22	0,41	0,19	0,75	1,00	
11 = Emakumeen errenta-proporzioa	-0,39	0,55	-0,40	-0,10	0,35	0,53	0,52	0,35	0,41	0,38	1,00

Iturria: Egileak berak egindako taula, Cheungen (2007) txosten honetako datuak erabilita: Informe de las Naciones Unidas para el Desarrollo Humano, 2005 eta Hofstede (2003).

BENNO DE KEIJZER

**Veracruzana
Unibertsitateko Osasun
Publikoko Institutua, eta
Salud y Género, AC
Erakundeko
koordinatzailea. Mexiko.**

*Masculinotasu-
nari,
erresistentzia eta
aldaketari
osasun-esparruan*

1.

Txosten honetan gizonen generoaren osaketaren eta osasun-esparruaren arteko harremana jorratuko dugu, eta esparruko ondorioak nahiz potentzialitateak aztertuko ditugu. Generoaren ikuspegiaren arabera egindako osasun-azterketetan, gizonen osasun/gaixotasu/arreta-prozesua nahiko ikusezina izaten da, gizonen eta emakumeen osasunean ondorio zuzen eta zeharkako aski larri eta garestiak sortu arren.

Latinoamerikako osasun-zerbitzuak ez dira ama-haurren osasun-programen inertziatik erabat ateratzen; ondorioz, ezin izaten da gizonen parte hartzea ikusi eta areagotu esparru zehatzetan, besteak beste familia-plangintzan (egun ugalketa-osasuna deiturikoan), gaixotasun kronikoen programetan, osasun mentalekoetan edo osasuna sustatzeko programetan, eta are gutxiago haurren osasunaren zainketan. Gure kulturaren, "zainketa" hitzak, emakumezko eta ospe gutxiko konnotazioa du gizon askorentzat.

Erakundeak adin ezberdinetako gizonekin generoaren ikuspegia lantzeko ahaleginak egiten ari dira, baina ahaleginak GIBaren prebentzio-programetan (gizonekin sexu-harremanak dituzten gizonengan batez ere), debekatutako substantzien prebentzio-programetan eta gizon erasotzaileekin egindako lan-ereduetan atomizatzen dira. Hiru adibide horiek aintzat hartuta, ez da kontuan hartzen arazo horiek elkarren artean lotuta daudela, eta bikotekidearekin edo familiarekin indarkeriazko harremana badu, askotan substantziaren bat gehiegi hartzen duela, eta ziur asko ez duela kontu handirik izango bere buruarekiko eta gainontzeko sexualitatearekin eta ugalkortasunarekin. Latinoamerikako testuinguruan, sozietate zibilak eratzen ditu gizonekin lan egiteko proposamen osoenak eta intergarrienak.

Aurkezpen honetan, hiru alderdi xehetasunez aztertuko ditugu:

- Gizonen osasunaren azterketa generoaren eta bizi-zikloaren ikuspegitik.
- Mexikon egindako azterketa kualitatiboan oinarrituta, herrialde horretan eta kontinenteko beste herrialdeetan azken 20 urteetan gizon heldu eta gazteekin

egindako lanari esker, gizonen jokabidea aldatzen ari dela pentsarazten diguten pistak.

- Osasunaren esparruan, gizonak eta emakumeak kontuan hartzen dituen erlaziozko ikuspegian oinarritutako politika eta programetarako proposamenak.

2.

Generoari buruz

Generoa, klase soziala eta jatorri etnikoarekin batera, osasunean, gaixotasunean eta heriotzan erabakigarria da. Beste elementuak ez bezala, generoa askoz ere kontzeptu berriagoa da, eta oraindik ez du gizonen eta emakumeen prozesuen arteko ezberdintasunak azaltzeko potentziala erabat zabaldu. Lan honetan, osasun/gaixotasun/arreta prozesuan generoak duen garrantzia aztertuko dugu hainbat adibideren bidez. Zaila da osasuneko edozein esparrutan pentsatzea, generoaren garrantzia kontuan hartu gabe, arazoaren jatorrian, bilakaeran edota arretan hein batean ala bestean agertzen baita.

Generoa emakumeen egoera ulertu eta salatzeke ikuspegi gisa sortu zen arren, 1980ko hamarkadatik, eta batez ere 1990eko hamarkadatik aurrera, ikuspegi horrek egoerak azaltzeko duen potentziala gizonen egoera ulertzeko ere erabili da (Kimmel, 1992). Horrez gain, Kairoko eta Pekingo biltzarretan ageri diren gizonen parte hartzerako deialdiak, ugalketa-osasuna, GIB-IHESaren aurkako borroka eta etxeko indarkeria nahiz bestelako esparruak hobetzeko nazioarteko politikak erabili dira.

Ikuspegi garrantzitsuena gizonen eta emakumeen arteko harremana (*generoartekoa*) izan den arren, emakumeen mendekotasun-egoera aldatu beharra azpimarratuz, generoaren ikuspegia oso erabilgarria da genero *barneko* harremanetako alderdi ezberdinak azaldu, ulertu eta horiei arreta emateko, besteak beste emakumeen artean gertatzen direnak edo gizonen artekoak. Horrelako harremanak botere-harremanei lotuta egon ohi dira askotan, eta botere-harreman horiek belaualdi, klase edota etnia-ezberdintasunetan oinarritzen dira.

Generoari esker, gizadiaren historian zehar kultura ezberdinen arteko aniztasuna ere uler daiteke. Kultura gehienetan emakumea mendekotasun-egoeran egon arren, generoari esker, gizonen eta emakumeen munduen barneko aniztasuna ere antzeman daiteke. Estatistiketan eta jaiotza-aktetan aurkako bitar gisa aurkeztu arren, esparru biologiko eta kulturean continuum bat dago, eta alde bakoitzean mutur bat dago; hipermaskulinoa eta hiperfemeninoa, nolabait esateko. Ondorioz, hainbat maskulinitasun-mota daude. Horien artean berdintasunak egon daitezke, baina gizon izateko hainbat era ezberdin ere ageri dira.

3.

Maskulinitasunak, gorputza eta osasuna

Lan honetan ez ditut generoaren ikuspuntuaren arabera sailkatutako maskulinitasunak orokorki aurkeztuko, ziur asko gai hori aurreko aurkezpenetan behar bezala aztertu baita. Beraz, hasieran gizonen gorputz eta osasun-dimentsioa aztertuko dut generoaren ikuspegitik eta haien bizi-zikloa jarraituko dut.

Emakumeak eta gizonak modu ezberdinean sozializatzen gara, baliabideak eskuratu ahal izateko aukerak ez dira berdinak eta arriskuak ere ez. Ondorioz, osasun-arazo zabalak ezberdinak dira gizonentzat eta emakumeentzat. Esparru askotan, gure osasun-sistema, emakumeek jasaten duten ezberdintasunaren ondorioak ikusteko egokia izateaz gain, gizonen sozializazio maskulinoaren hainbat ondorio ikusteko adibide ezin hobea ere bada. Gainera, emakumeek ugalketako arrisku biologikoak ere jasaten dituzte (haurdunaldia, erditzea, erditze ondokoa), eta arazo horiei generoaren, klasearen edota etniaren berdintasunaren edo ezberdintasunaren ondorioz arreta ematea edo ez ematea ere kontuan hartu behar da. Era horretan, generoak ez du gizonen eta emakumeen arteko desoreka bakarrik sortzen, gizonak eta emakumeak gaixotu eta hiltzeko faktore asko azaltzeko ardatz nagusia ere bada. Generoaren eta osasunaren arteko lotura garrantzi-

tsuenetako bat gizarte-zientziak zehazten du, gorputza botere-harremanak agerian uzteko lurralde gisa ulertzen baita bertan.

Beraz, hasteko, gizonek beren gorputzarekin eta osasunarekin duten harremana laburtu eta bateratzen duten bi esaldi aipatuko ditut. Lehenengoa belaunaldi, kultura eta klase ezberdinetan ageri da, eta oso egoera ezberdinetan aplikatu daiteke: *"Gorputzak eusten duen arte!"*

Esaldi hori hainbat egoeratan aplikatu daiteke, batez ere laneko esfortzuarekin, kirolarekin, alkohol-kontsumoarekin, baita sexualitatearekin lotutako esparruetan ere (de Keijzer) .

Esaldi horren adibide garbia dira Iguanillaseko mutil gazteak. Iguanillas Pueblako Estatukoan kanabera lantzen duten erkidego bat da. Bertako gazteek, lehen soldata irabazten dutelarik, herriko putetxeetara joaten dira, "adar garbian", hau da, kondoirik gabe lehen sexu-harremanak izatera, eskualdean hain gustuko diren zezenketen hizkera erabiliz. (Rodríguez eta de Keijzer)

Esaldi horretan, gizonok "gorputzari" buruz hitz egiten dugu, ez "nire gorputzari" buruz, tresna horren "penthouse" edo buruaren okupatzaileak bagina bezala. Lanak eta gorputz-indarrak bizirauteko garrantzi handia duten esparruetan, gorputza tresna gisa ikustea oso ohikoa da, baita bakoitzaren maskulinitasuna heterobaloratua adierazteko ere. Baina, joera hori ez da horrelako sektoreetan soilik ikusten: Men's Health aldizkarian oinarritutako gizonen gorputzari buruzko (The Male Body) bildumak, "Jabearen eskuliburu" izenburu harrigarria du (Caine & Garfinkel, 1996). Obra hori maskulinitasun hegemonikoko kideentzako da batez ere, baita egoera horretara iritsi nahi duten gizonentzat, eta bertan, gorputza auto baten antzeko tresna gisa aurkezten dute, "makina maximizatze" mantentze lanetarako eskuliburu bat behar baitu. Testuak sektore horretako osasun-arazo nagusien azterketa interesgarri bat egiten du, eta bakoitzak bere gorputza zaintzeko hainbat irizpide ematen ditu. Aipagarria da "eskuaren zainketari" buruzko atala. Bertan, (boxeolari profesionali egindako elkarrizketetan oinarrituta) eskuan minik hartu gabe, ukabilkada bat nola eman behar den azaltzen da! Medikuntzaren historian, eta osasunaren esparruan, gizonaren gorputza konparazio eta neurri-unitate gisa erabili izan da, gero, emakumearen gorputzarekin

konparatuz, azken hori txikiagoa, ahulagoa eta "osatugabeagoa" dela esateko. Joera hori esparru zehatzagoetara ere hedatzen da, besteak beste neurologiara (burmuin txikiagoa dute), psikiatriara (emakumeen gaixotasun mentalen jatorria hormonak eta umetokia dira), eta sexualitatera. Arian-arian, zientziak (batzuetan gogoz kontra bada ere) ikuspegi mugatu hori alde batera utzi duen arren, sexismoak gure kulturetan jarraitzen du, eta ondorioz, esplizituki eta inplizituki mutikoak eta neskatoak modu ezberdinean sozializatzen jarraitzen dira.

Gizonen bigarren esaldia gizon helduagoen artean da ohikoagoa. Gauzei, makinei eta gorputzari berari erreferentzia egiteko erabiltzen da: "erabiltzen den gutzia bukatu egiten da". Gizon heldu eta adineko gizonek esaten dute, batez ere eskulangile ahituek (beharginak eta nekazariak), bizitzako eskarmentuaren ondorioz, beren gorputzak laneko tresnak bezala higitu egin direla ikusten baitute. Esaldi horren bidez adierazi nahi dute beren patua dela lan-garai emankorrak alde batera uztea, eta zahartzaroan sartzea. Egoera horretan, askotan ez dute baliabiderik izaten, gaixotu egiten dira eta ez dira oso zoriontsu izaten.

Generoaren ikuspegitik, hainbat arrazoi direla-eta, lana eta aldi berean osasuna zaintzea kontraesankorra da argi eta garbi. Arrazoi nagusia da gizon gehienek, batez ere industrian eta nekazaritzan, dituzten lan-baldintza objektiboak ez direla onak. Baina horrez gain, lanak izugarritzko garrantzia dauka identitate maskulinoa eratzeko orduan: gizonok gure lanbide edo lanpostuarekin nahastu ohi baikara (Deutschendorf, 1996). Ondorioz, usadioz, gizonak familian izandako hornitzaile-rola indartu egiten da. Gorputza helburu horiek lortzeko tresna gisa ikusten da. Pentsamolde hori Osasunari eta Generoari buruzko lantegietan agerian geratu zen argi eta garbi. Izan ere, sexu eta adin ezberdinetako parte hartzaileek, gizon baten funtsezko ezaugarriari buruzko ideia-jasan, beti aipatu zuten indarra eta lana.

Oro har, gizon gehienek sozializazioan, gorputza zaindu eta osasuna baloratzea ez dira kontuan hartzen. Izan ere, bere burua eta ingurukoak zaintzen dituen pertsona rol erabat femeninoa da, baldin eta pertsona hori medikua ez bada eta besteren osasuna zaintzen jarduten ez badu.

Gizonok gorputzari buruz dugun pentsamolde hori esparru bakar batean ezesten da, kirolaren esparruan. Esparru hori ezin hobea da botere-harremanak aztertze-ko (Huerta, 1999). Ildo berean, gorputza (askotan muturreraino) "zaintzen" duten pertsonak kulturistak dira. Modalitate horretako ikastunek, gero eta arazo gehiago dituzte, besteak beste, haragi-etenak, eta are okerrago, hernia diskala, substantzia anabolizatzaileen ondorio kronikoak alde batera utzita ere. Pereirak (2001) horrelako prozesuak bi gizon-talderekin aztertu zituen. Bi talde horietan, identitate maskulinoa kulturismoaren ezaugarri fisikoak, borroka-arteak eta orientazio sexuala nahastuta osatzen zen.

Identitate maskulinoa osatzerako orduan, osasunak eta gorputza zaintzeak ez dute garrantzirik; horren ordez, askoz ere garrantzitsuagoa da arauak hautsi eta arriskuan jartzea. "No rajarse" (ez kikiltzea) Nuñezek (urtea) Mexiko iparraldean jasotako esaera bat da, baina ia herrialde osoan erabiltzen da. «Rajarse» aditzak (egurra bezala) irekitzea esan nahi du, "pieza bakarrekoa" ez izatea; hau da, kikiltzea. Esaera horrek konnotazio sexual nahiko nabaria du, kikildu egiten direnak feminizatu egiten baitira. Sexu-harremanetan kondoia erabiltzen duena, poliki gidatzen duena, zurrut-mahai batetik berehala altxatzen dena edo borrokan sartzen ez dena... ez da horren gizona.

Verakruzeko Unibertsitateko Psikologia Fakultatean, matxismoa zalantzan jartzeko saiakera bat egin zen (huts egin zuen arren), horretarako "matximetra" sustatu zen (goranzko eskalan), matxo izatearen jokabide kaltegarri eta absurduenak barrengarri uzteko. Harrigarria eta kezagarria dena da, eskalako beste muturrean "mandilon" izenekoa ageri dela; hau da, gizon ahula, bere emaztearen mendean dagoena. Baina inon ere ez da agertzen gizon zuzena, alde batetik indartsua dena, eta bestetik, etxeko lanetan laguntzen duena.

Identitate maskulinoak gizonen, emakumeen eta haurren osasunean ondorioak dituela argi dago. Generoak sortu eta eragiten dituen osasun-arazo maskulinoak gero eta ugariagoak eta larriagoak dira. Azken hamarkadetako estatistiken arabera, gizonen gehiegizko hilkortasun-tasa gero eta handiagoa da, baina epidemiologia ez da arazo horren erantzun bakarra. Duela gutxi, beste ikuspegi bat nagusitu da: gizonen hilkortasun-tasa bihotzeko arazoaren, minbizi-mota jakin ba-

tzuen (birika eta prostata), eta batez ere indarkeriaren ondorioz sortzen da batez ere: hilketak, istripuak eta suizidioa. Horrez gain, adin emankorrean gizonen (zuzeneko eta zeharkako) heriotza-arrazoien artean (Menéndez, 1990), mendekotasunak ere aipagarriak dira, bereziki alkoholismoa.

Sozializazio maskulinoaren ondorioak hobeto ulertzeko, maskulinitasuna, haren osaketa soziala eta emakumeengan duen eragina aztertzeko, maskulinitasuna arrisku-faktore gisa hartu dut (de Keijzer, 1998). Michael Kaufmannen (1997) "indarkeriaren hirukoa" oinarritzat hartuta, gizona hiru zentzu ezberdinetan izan daiteke arrisku-faktore. Ikuspegi kritikoa da, kalte-mota ezberdinak agerian uzten baititu:

- emakumeentzat (eta haurrentzat): indarkeria-mota ezberdinak, substantziekiko mendekotasuna, derrigorrezko ugalketa, aitatasun urruna eta etxeko lanetan ez parte hartzea direla-eta;
- gizonen artean: istripuak, hilketak, zauriak eta beste indarkeria-motak direla-eta; baita GIB-IHESA transmititzeagatik;
- eta gizonarentzat: suizidioa, alkoholismoa eta beste mendekotasunak nahiz gaixotasun psikosomatikoak direla-eta. Horien artean, arduragabekeria-mota ezberdinak eta gorputza higatzea daude.

4.

Generoa, osasuna eta gizonen bizi-zikloa

Historikoki, hasieran medikuntzak, eta aurrerago, epidemiologiak, sexuaren araberako gaixotasun- eta heriotza-tasen arteko ezberdintasuna kontuan hartu izan du. Hala ere, erregistro eta azterketa hori ikuspegi biologikoaren arabera egin da. Generoaren ikuspegiak, gizonen eta emakumeen ibilbide bereziak azaltzeko, ikuspegi soziala eta kulturala kontuan hartzen ditu, baita botere-harremanak

ere. Generoaren ikuspegiak, klasea eta etnia alde batera utzi ordez, bi elementu horiek kontuan hartzen ditu azterketak egiteko. Ondorioz, askotan, osasun-profil zehatzagoak eskuratu dira, besteak beste, emakume indigenarena.

Osasun-arazo batzuetan, sexua eta generoa oso estu daude lotuta. GIB-IHESaren transmisioan eta alkoholismoan, emakumeak askoz ere ahulagoak dira. Lehen kasuan, baginako mukosaren egitura eta ezaugarrien ondorioz, infekzioarekiko iragazkorragoa da (Herrera eta Campero, 2002). Bigarren kasuan, anatomia- eta metabolismo-arrazoak direla-eta (gorputzean koipe gehiago dute eta alkohola prozesatzeko gaitasun txikiagoa dute), gizonak hartutako dosi bera hartu arren, substantziak askoz ere eragin handiagoak sortzen ditu emakumeengan. Orain arte, genero-arrazoien ondorioz, Mexikon, GIBak eta alkoholismoak garrantzi handia izan du gizonen hilkortasun-tasan: gizarteak permisibitate handiagoa du gizonekin, eta sexua eta substantzia jakin batzuk oso eskura dituzte. Ondorioz, zauriezin sentitzen dira, arauak hausten dituzte, eta sozializazio maskulinoaren beste ohiko aspektuak betetzen dituzte. Hala ere, azken urtetan, beren bikotekidearen ondorioz GIB-IHESarekin kutsatutako emakume-kopurua nabarmen areagotu da, eta emakume gazteen eta hirietako nerabeen artean, alkohol-kontsumoa ere nabarmen areagotu da. GIBaren kasuan, emakumeen ahultasuna sozializazioaren ondoriozkoa da. Izan ere, sexu zurrta negoziatzeko orduan, denari baiezkoa esatearen ondorioz, zailtasun handiak izaten dituzte. "Gizona emakumeak nahi dueneraino iristen da" eta gure kulturaren horren ohikoak diren antzeko esaldiek egoera hori indartu besterik ez dute egiten.

Emakumeen eta gizonen bizi-zikloa aztertzen badugu, genero-ezberdintasunak jaiotzetik (edo jaio aurretik) agertzen dira, nahiz eta desoreka horiek aurrerago nabariagoak izan. Gauzak aldatzen ari diren arren, Mexikon, batez ere landa-eremuan eta indigenen artean, jaioberriak mutilak direnean, beste era batean baloratzen dira. Ondorioz, mutikoek edoskitze luzeagoa izan ohi dute, eta gaixo badaude, askoz ere lehenago eramaten dituzte medikuarengana. Gizonak era ezberdinean baloratzeko joera hori, haurrak jaio aurretik ikusten da hainbat herrialdetan. Esaterako, Txinan eta Indian, haurra neska bada, hautazko abortua

egiteko aukera dago, eta ondorioz, gizonen eta emakumeen arteko desoreka demografikoa arazo handia izango da epe ertainera.

Biologikoki mutil gehiago jaiotzen dira neskek baino (Mexikon, neskek baino % 3 gehiago). Baina haurtzaroan, mutilek hilkortasun-tasa altuagoa dute, batez ere infekzioek sortutako arnasa-gaixotasunen eta diarrearen ondorioz. Jaiotzetiko bizi-itxaropen ezberdina. Herralde garatuetan generoari eta osasunari buruz egindako azterketetako ondorio argi bat emakumeen bizitza-luzera da. Adin eta heriotza-arrazo guztietan, emakumeek gizonen baino heriotza-tasa eta heriotza-arrisku txikiagoa dute. Gizonen eta emakumeen heriotza-tasen arteko aldea etengabe hazten joan den arren, badirudi hazkuntza-erritmoa gelditzen joan dela, eta azken hamarkadan gutxitu ere egin dela (Malterud eta Okkes, 1998).

Hamar urte inguru dituztenean, nesken eta mutilen arteko ezberdintasuna areagotu egiten da, mutilen hilkortasun-tasa asko areagotzen baita, eta nerabezaroan eta helduaro hasieran, gizonen heriotza-tasa bikoiztu eta ia hirukoitzen da, batez ere indarkeriatatik. Lehenbizi, istripuak agertzen dira, eta aurrerago suizidioak edo hilketak. Ondorioz, hurrengo hamarkadetan, populazioaren gizon-proporzioa nabarmen gutxitzen da (de Keijzer, 1998 eta Barker, 2000). Indarkeriaren ondoriozko heriotza-kopurua herrialdez herrialde aldakorra izan arren, alde hori mantendu egiten da: *AEBtan hilketen ondoriozko heriotza-tasa Erresuma eta Japonian baino hamar bider handiagoa izan arren, hiru herrialde horietan, gizonen hilketa baten ondorioz hiltzeko arrisku bikoitza dute* (Owens, 2002).

Biologiaren esparruan egindako ikerketek frogatu dute gizonen eta goi-mailako primatuen, nerabezarotik aurrera indarkeriaren ondorioz eta infekzio nahiz parasito-gaixotasunen ondorioz emakumeek baino heriotza-arrisku handiagoa dutela, baina ez dakigu arrisku gehiago dituztelako edo immunogaitasunaren ondorioz den (idem).

Mexikon, gizonen haurtzaroan erabiltzen dituzte osasun-zerbitzuak, eta handik aurrera, desagertu egiten dira (larrialdi-zerbitzuetatik izan ezik) zahartzarora arte, eta orduan osasun-arazo askoz ere larriagoak izaten dituzte (CNEGS, 2006). Nazioarteko bibliografia ikusita ere, datu hori frogatuta geratzen da: emakumeek gaixotze-tasa handiagoa dute (bai osasun-arreta bilatzerako orduan

–ugalketa-zerbitzuetan ezik–, bai inkestetan ere). Gainera, gizonak ez dituzte gaitasunak horrenbeste hautematen, gaixo jartzen direnean, erresistentzia handiagoa dute, eta laguntza eskatzea ere askoz gehiago kostatzen zaie.

Nerabegarotik aurrera, helduaroan, lana funtsezko elementua da gizonen eta emakumeen gaitasun-mota ezberdinak zehaztean. Mexikon, lana sexuaren arabera banatzen da. Ondorioz, gaitasun eta heriotza-ereduak ez dira berdinak gizonen eta emakumeen artean (Garduño, 2001). Emakumeek etxeko lanen zama bikoitza jasan behar dute (doakoa, ikusezina, balio anitzekoa, errepikakorra) eta gizonak, berriz, askoz ere lan fisikoagoak, astunagoak eta osasunerako nahiz bizitzarako lan arriskugarriagoak egiten dituzte.

Migrazioaren ondorioz (Bronfman, 1999), batez ere AEBtara doazen langile ilegaleen kasuan, gizonak arrisku handiko egoerak bizi dituzte, eta arrisku horiek gero eta gizon gazte gehiagok bizi dituzte, eta berrikiago, baita emakumeek ere. Izan ere, emakumeen migrazio-tasa ere gero eta handiagoa da. Migrazioaren fenomenoari buruzko interpretazio ezberdinez gain, pobrezia eta aukera-gabezia dira AEBtara migrazio luze eta arriskutsuari ekiteko arrazoi nagusiak. Generoaren ikuspegitik, gizarte-zientzialari batzuek adierazi dute, migrazio-prozesua ongi ateratzen bazaie, gizonen kapital sinbolikoa areagotu egiten dela, heroismo-modu berriztatzen baita. Halaber, askotan, landa-erkidego batzuetan, migrazioa da gizon gazteentzako igarotze-erritu berria.

Generoak ere gizonen sexualitatea, ugalketa, eta bikote- nahiz familia-harremanak ulertzeko modua ere zehazten du. Sexualitateari dagokionez, gai horretan ohiko desorekak islatzen dira, baita gizon batek (konkistatzailea, aktiboa, hausle) eta emakume batek (zuhurra, harkorra eta birjina) nolakoa izan “behar duen” kontzeptuen irudikapen polarizatua ere. Eredu hori nahiko azkar aldatzen ari den arren, generoak oraindik eragin handia dauka sexualitate-praktiketan, baita hirietako gizon gazteengan ere. Izan ere, gizonak emakumeen birjintasunari garrantzi handia ematen diote oraindik (Amuchástegui, 2001).

Beraz, zalantzarik gabe, sexualitatea funtsezkoa da gazteen identitate maskulino eta femeninoak ulertzeko, baita horrek osasunean dituen ondorioak ulertzeko ere. Hainbat herrialdetan egindako ikerketek agerian utzi dute gizon eta emakumeen

sexu-praktiketan aniztasun handia dagoela, eta gehienetan, sexu-harremanak boterearen ardatzaren inguruan eratzen direla. Gizon eta emakume gazteek osasunarekin, sexualitatearekin eta ugalketarekin duten harremana aldatu egiten da bizi-zikloan zehar. Txikitako sexu-hezkuntza, askotan "ustekabeko hezkuntza" izenarekin ezagutzen dena da. Esaterako, "Cuiden sus gallinas... mi gallo anda suelto" ("kontu egin oiloei... nire oilarra solte dabil eta) esaldia ohikoa da. Esaldi hori gizon helduek (eta batzuetan, emakumeek ere) esaten dute barrez, eta ume txikiek entzun egite dute. Hori entzutean, neskek, ez dakite zergatik, kontuz ibili behar direla dakite, eta mutilek, berriz, arriskutsua den zerbait dutela.

Genero-logika horien ondorioz, askotan, haurdunaldiak eta aitatasunak beste esanahiak ere baditu:

aitatasuna da gizon baten gizontasunaren azken froga, emakume bat ernaltzeko gai dela frogatzen baitu. Ekintza gogoangarri sexualak kontakizun hutsak dira, eta gizon guztiek ahoberokeriak esaten dituztela susmatzen den bitartean, haur bat gizonaren potentziaren froga ziurra da. Horregatik, gizontasuna behin betiko frogatzen du, eta aita izatea lortzen ez duen gizona zalantzan jarriko dute. (Fuller, 2001, 435 or.)

Interesgarria da, gazteen sexu- eta ugalketa-hezkuntzaren prozesuan, helduek (senideek edota profesionalek, batez ere osasun- eta hezkuntza-esparrukoek) parte hartzen duten ala ez zehaztea. Ildo horretan, deigarria da gobernuen, hezkuntza ministerioen gurasoen eta sozietate zibileko antolatzaileen artean sortzen den eztabaida handia, hain zuzen ere gazteek jaso beharreko sexu-hezkuntzaren dosia zehazteari buruz. Izan ere, gazte askok, batez ere mutilek, sexualitatea hedabideen eta Interneten bidez ezagutzen dute; eta landa-erkidegoetan, berriz, senideek hiritik edo AEBetatik ekarritako porno bideoen bidez.

Gizarteko esparru batzuetan, amatasuna emakumeen legitimitate- eta mugikortasun-bide gutxietako bat da, eta aitatasuna, berriz, ez da horren esperientzia garrantzitsua gizonen bizitzan, baina hala ere, ohoretsua da. Harrigarria bada ere, haurdunaldian parte hartzen duten gizonak ez dute ikerketetan eta prebentzio-programetan parte hartzen. (Atkin) Osasun-, familia- eta hezkuntza-progra-

metan, prebentzioa emakume gazteekin lantzen da batez ere. Aurten, lehen aldiz, hezkuntza ministerioko pertsona batzuek gaiari buruz gehiago jakin nahi izan dute, eta nerabeen haurduntzan inplikaturako gizonekin zerbait egin daitekeen galdetzen hasi dira.

Ugalketan, gizonak ia ez dira azaldu ere egiten. Datu demografikoak emakumeetan oinarritzen dira, eta badirudi gizonak ez direla ugaltzen (Figueroa, 1998). Horrek hainbat elkarrekotasun ditu gure kulturaren, seme-alaben zainketa "naturala" amari baitagokio ("amarenak dira"). Kairoko eta Pekingo batzarretan, gizonei ugalketa-osasunean parte hartzeko egindako deialdien ondorioz, Mexikon basektomia programa nazionala jarri zen abian, azken urtetan indarra galdu duen arren (Programa Nacional Hombres y Salud, 2002). (Texto Bronfman). Zergatik da ohikoagoa Zeelanda Berrian eta Herbeheretan gizonen basektomia egitea emakumeek tronpen lotura egitea baino? eta Mexikon, basektomia egiten duten gizonen zergatik osatzen dute behin betiko esterilizazioen %5? Data Mexfam. Latinoamerikako gizonen artean egindako ikerketa askok agerian utzi dute, basektomia zikiratzea dela uste dela; eta ondorioz, gizontasuna galtzen dela. Kontraesankorra dirudien arren, ez da hala, gizon askok basektomia egitea erabakitzen dute ugalketa-esparruan berdintasuna lortzeko ("orain nire txanda da ebakuntzarako" logikaren barne), eta beste askok, emakumeen sexualitatea/ugalkortasuna kontrolatzeko modu gisa ere onartzen dute (Viveros).

Beste latitudeetan, berriz, gizonen ugalketa-osasunean parte hartu dute, eta horri esker, erditzean emakumearekin egoteko eskubidea lortu dute, baita erditze ondo baimena eta seme-alabak gaixotzean lan-baimena legez xedatzea. Hori guztia oso ohikoa da Europan, baina Latinoamerikan oso arraroa da, Txilen ez ezik, bertan, ugalketan parte hartzeko eskubidea lege bihurtu baita.

Latinoamerikako gainontzeko herrialdetan, propagandak dioen bezala, ugalketa-osasuna "bien kontua" izateko egiten diren ahaleginak ez dira nahikoa.

Hirugarren munduan, esparru horretan aurrerapenak egiteko oztopo nagusia amen hilkortasun-tasa da. Fenomeno hori pobrezia egoerari, isolamendu geografikoari eta zerbitzu-gabeziari lotuta egoten da, eta batez ere, emakumeek, batez

ere landa-inguruneok eta erkidego indigenetakoek arazoan aurrean konponbideak aurkitzeko gaitasunari.

Ikerketek gai horren garrantzia agerian utzi duten arren, harreman ikuspegitik aztertuta, ez da behar bezala baloratu gizonen erabakiak emateko eta laguntza medikoa bilatzeko baliabideak esleitzeko orduan, ez da gizonen rola behar bezala aztertu, eta beraz, gizonen beraiei eta beren familiei eragiten dizkien arazoetan izan dezaketen paper potentziala ere ez. Argi dago, ez dela gizonen horretarako borondaterik ez dutelako, baizik eta beren kultura eta ezjakintasunaren ondorioz, haurdunaldian zantzu asaldagarriak gertatzen direnean, hilko direla pentsatzen baitute (nork hezi ditu?), eta ez dakite arazo horiek konpondu daitezkeela, eta ez dutela erditzean zertan hil behar.

Era horretan, emakumeen eta gizonen osasunaren esparruan, kulturaren ondorioz dauden sinesmen eta irudikapenetan, generoak inplikazio asko ditu.

Zenbat gizonen jasan dezakete prostata-minbizia izan daitekeen mina, eta tumorea hazten utzi, laguntza bilatu eta ondeste-ukipen bat egin baino lehen? (Bronfman / 2º cáncer) Erresuma Batuan egindako ikerketa baten arabera, Mexikon bezala, emakumeak askoz ere gehiago joaten dira ospitalera, eta gizonak emakumeak baino beranduago joaten dira, eta ondorioz, askoz ere gehiagotan egin behar zaizkie ebakuntzak (Seidler, 2001). CA Pulmón.

Maskulinitasunak emakumeen osasunean duen eragina minbizian berrindartzen da. Oraindik ere, emakume askok, batez ere landa-eremukoek eta indigenek, zerbitzuetara iristeko duten zailtasunaz gain, utero- eta bular-minbiziaren prebentziorako oztopoak izaten dituzte, bai gorputzari/sexualitateari buruzko irudikapenen ondorioz, baita arretaren kalitatearen edota kontrolaren ondorioz, baita senarrak erabat aurka daudelako ere.

Osasun mentala ere gizon eta emakumeen arteko sozializazioan eta egoeran dauden desoreken isla da. Historikoki, medikuntzak depresio emakumeen hormona-gorabeherekin lotu izan den arren, gaur egin, askoz ere ikuspegi psikosozialagoa dago, eta "emakumeen ondoeza" familia barnean eta handik kanpo duen egoerari lotzen zaio. Gehienetan, batez ere osasunaren esparruan, irtenbidea

botikak ematea izan da; hau da, Burinek duela hamarkada bat baino gehiago (1990) aipatutako "errezetapeko lasaitasuna".

Bestalde, askotan, gizonen depresioa adierazteko eta laguntza bilatzeko, generoari lotutako oztopoak izaten dituzte, eta horregatik, askotan atxikimenduren batean amaitzen dute (alkohola, drogak edo lana). Gazteen Integrazioarako Zentroetan egindako kalkuluen arabera, substantzia debekatuekiko atxikimendukasuetan, 7 gizon bakoitzeko emakume bakar bat dago; eta kasu gehienetan, gizonen 5 urte baino gehiago igaro ondoren bilatzen dute laguntza (CIJ, 2001). Ziur asko, esan daiteke, orokorrean, gizonen osasun mentala "eskaera" asegabea dela, baina aipatu behar da, gizonen beraiek ez dituztela zerbitzu horiek "eskatzeko", nahiz eta oso beharrezkoak izan.

Alkohol-kontsumoa hirietako emakume gazteen artean nabarmen areagotu den arren, egin berri diren inkesten arabera, arrisku-joeraren barneko kontsumoa (bost trago baino gehiago bakoitzean), sei bider handiagoa da gizonen artean. Bi sexuetan, lehen tragoa eta lehen zigarroa gero eta gazteago probatzen dituzte. Droga ilegaleko kontsumoan, emakumeen eta gizonen arteko aldea gutxitu egin da, baina hiru kasu bakoitzeko bat bakarrik da emakumea. Emakumeek gizonen baino gehiago kontsumitzen duten droga bakarra medikuak agindutakoak dira, Mabel Burinek aipatutako "errezetapeko lasaitasuna" (ENA 2002, CONADIC, Burin).

Generoak eragin gehien duen arazoetako bat suizidioa da: emakumeek batez ere suizidio-saiakera egiten duten bitartean (askotan laguntza eskatzeko azken baliabide etsitu gisa), gizonen alderantzizkoa egiten dute, hau da, suizidioa gauzatu egiten dute (ez dira laguntza eskatzeko gai ere) (INEGI, 2001).

Generoaren ikuspegiari eta emakumeen borrokari esker, indarkeria botere-harremant desorekatuen ondoriozko arazo gisa planteatu da, eta osasun publikoko arazotzat jotzea lortu da. Aintzatespen hori duela gutxi lortu zen, eta aipatu behar da, arazo horrek emakumeari eta seme-alabei erasaten diela gehien, eta mundu mailan, osasun publikoko zama epidemiologiko larrienetako bat dela, mundu mailako beste hainbat arazo gaindituz.

Emakumeen egoerari buruzko ikerketek indarkeria nola gauzatzen den aztertzen dute, baita emakumeen esparru fisiko, mental eta sexualen dituen eraginak ere. Duela gutxi arten, Mexikoko hainbat estatueta kode zibiletan, emazte eta alabekiko jokabide oldarkorrak justifikatzen ziren, besteak beste "zuzentzako esku-bidea", familiaren ikusmolde patriarkalean oinarritutakoak. Genero-ikuspegi horri esker, indarkeria harremanen ikuspuntutik aztertzeaz gain (gizon erasotzaileekin lan eginez), prebentzioa ere landu da, bi sexueta haur eta nerabeen sozializazioari arreta emanez. (Bonino eta mikromatxismoak).

Azkenik, baita ere interesgarria da Asuncion de Larak egiten duen adierazpena (testu originalaren aipamena). Izan ere, de Lararen arabera, genero-estereotipoen muturretan finkatutako pertsonak ez dute erdi-bideko ikusmoldea duten pertsonak bezain osasun mental ona, azken horiek antzeko ezaugarriak baitituzte (eta horiekin gozatzen dute), eta ezaugarri horiek gizakiengan berezkoak dira, gertatzen dena da kulturalki genero bati ala besteari esleitu zaizkio.

5.

Gizonak, erresistentzia eta aldaketa

Gero eta gehiago, Latinoamerikako testuinguruan "maskulinitasun berria", "aitatasun berria" edo "maskulinitasunari" buruz hitz egiten da. Gizonekin lan egiten dugun ikerlari gehienok, kontzeptu horretatik urrundu egin gara, ez baitugu bat-bateko maskulinitasun bakarren sinesten. Izan ere, gure ustez, behar dena hausnarketa-prozesu luzeagoa da, eta aldaketa sakonak egotea, bai maila subjektiboan baita esparru kultural eta politikoan. Guk nabaritu duguna da kontzientzia praktikoaren mailan eta bikotekideen arteko negoziazioan aldaketa-prozesua gertatzen ari dela (Schmuckler, 1989), feminismoari eta beste ekintzei emandako erantzun berantiar eta osatugabe gisa.

Batzuetan, aldaketa, batez ere generoaren esparruan, etorkizuneko elementu gisa ikusten dugu, eta batzuetan, historian zehar genero-berdintasuna gauzatzea lortu da hainbat sektoretan. Aldaketarako aukera agertzen da subjektuen bizitzan, bereziki trantsizio- edo krisi-garaian. Bizi-zikloko trantsizio aipagarrienak nerabe-zaroa, lan-mundura sartzea, bikote-harremanak, lehen haurdunaldi eta haurra, eta gero, erretiroa dira. Langabeziak, gaixotasunak, dibortzioak, atxikipenen batean hondoa jotzeak, indarkeriak eta antzeko krisiek aldaketa-prozesuan has-teko arrazoiak izan daitezke. Momentu oro, sozializazio-prozesuen ondorioz sor-tutako araukiko (genero-arauak eta bestelakoak) atxikimenduaren eta aldaketa-ren arteko dilema dago.

Ikerketa-lan kualitatibo batean, gizonen bizitzako aldaketa/erresistentziaren arte-ko dilema hori sakonki aztertu zen, indarkeriari edo maskulinitasunari buruzko prozesu orokorragoetan hausnarketa-prozesuak ezarriz.

Horretarako hiru galdera egin ziren:

- nola iritsi zaie aldaketa-aukera?
- zein arazoren ondorioz?
- eta zailena, nola gertatzen da aldaketa-prozesu hori?

Indarrean dauden genero-araukiko aldaketa edo ezberdintasuna gizonaren fami-lian eta eskolan ere agertu ohi da, eta ondorioz, askotan, esparru zabalagoekiko "moldatu gabeak" bihurtzen dira (sare sozialak, erakundeak). Gizonekin eginda-ko lanaren prozesuan, portzentaje txiki baina garrantzitsu batek familian harre-man estua dutela, indarkeriarik gabeko giroan bizitzearen esperientzia eta nola-baiteko genero-berdintasunean bizitzea nolako den azaldu ziguten. Oxfam Aldaketaren barne-barneko dialektikan gertatzen denari dagokionez, aipatu behar dugu esparru hori konplexuena dela, gorputzarena baino askoz ere gehia-go, baina hala ere, funtsezkoa da fenomeno eta aldaketa/erresistentzia dinami-ka ulertzeko. Atxikipen edo mendekotasunetan, indarkerian, sexualitatean eta bakoitzaren zainketan ezin da prebentzio-lanik imajinatu esparru hori kontuan hartu gabe eta genero-ikuspegia alde batera utzita.

Adibidez, gizonen emozio-esparruaren barne, premiak adierazteko zailtasuna dago. Sozializazio-prozesuez gain, gizonen sexualitateari, ugalketari eta aitatasunari buruz dituzten irudikapen eta ohiturak biltzen dituen esparru bat ere bada-go. Osasun mentalarari buruz ari naiz, gizonen subjektibotasunari eta hunkiberatasunari buruz. Maskulinotasuna eratzeko, ez dira irudikapenak eta ohitura edo praktikekin bakarrik sortzen, baizik eta beldurra, tristura eta askotan, samurtasunari buruzko sentazioak adierazteko muga eta presioekin ere bai.

6.

Osasun- eta aldaketa-politikak

Eskolak (eta osasun erakundeak) ez dira beren kabuz aldatuko; eta ez dira aldatuko, ezta ere, aldaketa-prozesua onartzen ez badute. Aldaketa-prozesuak kanpotik etorri behar du, baina barnean sortu behar da. Dialektika da kontua.

Paulo Freire

Erakundeetan eta politiketan aldaketak egitea oso prozesu zail eta luzea da, kontuan hartuta horretarako borondate politikoa dagoela. Horri buruz asko dakite emakumeek, hamarkadetan zehar aldaketen alde borroka egin baitute. Azken hamarkadetan aldaketa-prozesu horiek hainbat esparrutan ikusi ditugu. Askotan, aldaketa erakundeen esperientzien eta kanpo-eraginaren arteko dialektikaren emaitza da. Askotan, Kairoko eta Pekineko nazioarteko batzarrak eta antzeko bultzadak antolatzen dira, gobernuak bertako hitzarmenak sinatzen dituzte, eta askotan, horrek ez du inolako aldaketarik sortzen herrialde horietako barne-politikan. Askotan, alderantzizkoa gertatzen da, aldaketa bakarra itxurak egiteko diskurtso bat izaten da, gobernuak modernoak eta eguneratuak direla frogatzeko.

Instantzia batzuek lana era ezberdinetan inguratu eta gehiegi zehazten duten geruzak kendu dituzte. Adibide garbi bat IPPF da, familia-plangintzatik (ugalketa kontrolatzeko programetan oinarrituta jaino baitzen) ugalketa-osasunaren esparrura pasa baitira, eta osasun sexuala lantzeaz gain, sexualitatea bera ere landu dute, zaila izan arren. Hori guztia emakumeengan bideratutako genero-ikuspegian, eta baita gizonengan ere. Gaur egun, horrelako programak oso aktiboak dira, eta indarkeria eta antzeko arazoek ugalketa-osasunean eta GIBaren kutsapenean duten eragina aztertzen dute.

Horrelako prozesuak ere Mexikoko Gazteen Integraziorako Zentroetan ematen ari dira, atxikipen edo mendekotasunen bat duten gazteei arreta ematea baitute xedetzat, baina horrez gain, ikuspegia zabaltzen ari baitira, bai generora, familiara eta indarkeriarekin dituzten loturetar.

Mexikoko Osasunaren Idazkaritzan ere ahalegin handiak egiten ari dira heinean-heinean politika eta programetan parte hartzen hasteko (PROMSA, 2002). Izan ere, generoaren ikuspegia programa horietan sartzean, garrantzitsua da eragiketa hori egitean berdintasun handiagoko harremanak sortzea eta kontrako estereotipoak inkontzienteki ez indartzea. Mexikon alde aurretik familia-plangintzarako egindako programetan hori gertatu zen, gizonari honako lema lutzatzen baitzitzaizkien: " Horren matxoa bazara: planifikatu ezazu zure familia", edo Zimbabwen egindako programa batean ere, gizonentzako lema hau zen: "Zuk daukazu kontrola". Bi kasu horietan, gizonari antisorgailuak erabiltzeko gonbidapena egiten zaie, baina horretarako balore maskulino tradizionalak indartzen dira, eta bikote-harremanean desoreka sustatzen da.

Baina aldatzeko ez dira politiken esparruan bakarrik proposatu behar, politika horien onuradunetan ere pentsatu behar da. Zer gertatzen da osasun-esparruko langileekin?

Osasun-esparruko edozein karrera ikasteak (osasunari buruzko edukiak jorratzeaz gain, bakoitzak bere burua ez zaintzearen ondorioz sortutako emaitzak (askotan izugarriak) ere ikusten dira), zein eragin du pertsona bakoitzaren jakintzan, zaintzan eta osasunean? Izan ere, osasun-esparruko langileei, generoak ere era-

giten digu, ez langile gisa bakarrik, baizik eta sozializazio-prozesu berezien emaitza garen bezala ere bai.

Arenas (), Moreloseko Cuernava ospitaleko langileek zuten jakintza eta praktiken arteko kontraesanak aztertu ondoren, agerian geratu zen pertsona bakoitzaren zainketan eragin handiagoa zutela familiako sozializazioan ikasitakoak unibertsitatean ikasitakoak baino. Horrek esan nahi du, osasun-esparruko langile gisa, garrantzitsua dela gure irudikapen eta ohituretan generoak zenbateko garrantzia duen hausnartzea. Bakoitzaren bizitza benetan nolakoa den ikusteko ez bagara gai, osasun-zerbitzuetan ere ezingo ditugu benetako arazoak ikusi.

Illo hori sakonduz, generoak ere eragin handia izan du medikuntzaren historian, esaterako lanbideen antolaketan eta aintzatespenean. Izan ere, Erdi Aroko unibertsitateetan medikuntza lanbide gisa aintzatetsi zenean, ordura arte emakumeek egindako lan asko (emaginak, sendabelarrak erabiltzen zituztenak) medikuntzan bildu ziren, eta azkenean, emakume horiek Europako inkisizioak epaitu zituen, eta sorgin-ehizan erre zituzten (Ehrenreich, 1981 eta Burin, 1991). Aldaketa-prozesu horiek ez dira amaitu oraindik, osasuneko esparru askotan, psikologian gertatu zen bezala, medikuntzan, emakume asko sartzen ari direlako berriz ere, estamentu garrantzitsuenak gizonen esku jarraitzen duten arren.

Gure herrialdetan, gizonen premia bereziei arreta eskainiko dien osasun-politika behar dela eta eratu daitekeela pentsa al daiteke? Pentsamolde hori arriskutsua izan daiteke. Izan ere, gure herrialdeetako gobernuak generoaren ikuspegia emakumeentzako programetan aplikatzen hasi berri dira. Baina, hala ere, gizonen arazoei arreta emateko ikuspegia aplikatuz gero, gizonen osasunari mesede egiteaz gain, emakumeek ere onurak nabarituko lituzkete, esaterako, gizonak ez lirateke horren gazte hilko, eta osasun sexu- eta ugalketa-osasunean, alkoholaren eta beste drogen ondorioetan, eta indarkeriak dituen ondorio-mota ezberdinetan ere aurrerapenak egingo lirateke.

Mexikon, ia ez dago gizonentzako programarik. Basektomiarako Programa Nazionala nahiko berria da, eta bertan, harrigarria bada ere, beldur eta zantzak dituzten gizonei laguntza psikologikoa ematen zaie (emakumeentzako esterilizazio-programetan, berriz, ez da horrelako laguntzarik ematen). Duela hamar

urte, programa hori nahiko bultzatu (eta onartu zen - estatistikak), eta gaur egun, zerbitzu hori eskaintzen da, baina oso gutxi sustatzen da.

Prostatari buruzko arazoekiko interesa, eta arazo horiei buruzko informazioa nahiko fenomeno berriak dira. Hala eta guztiz ere, milaka gizon, poliki zabalitzen den minbizi horren ondorioz hilko dira, prostata-azterketa bat ez egiteagatik, gizon askok azterketa hori "birjinitatea galtzea" dela uste baitute. Eta andropausia, biropausia, klimaterioa nahiz gizonzkoen menopausia izenekin ezagutzen den prozesuari buruz are informazio gutxiago ematen da (Hill, 1993; Diamond, 1999; Arber & Ginn, s/f). Ikus Brofmann.

Duela urte batzuk, sozietate zibilean familia barneko eta gurasoen arteko indarkeriarekin zerikusia duten esperientziak sustatzeko ekimenak jarri dira abian, eta horretarako hausnarketa egiteko estrategiak eta gizonen zuzendutako publizitate-kanpainak egin dira. Esperientzia horietako batzuk herrialde mailan eta estatuetan abian jarri diren programa publikoetan islatu dira.

Eta osasun-esparruan abian jarri diren ekimen berrienak bereziki gizonentzat egin dira, sexu- eta ugalketa-osasuna baino gai gehiago jorratzeko asmoz. Batez ere Gizarte Segurantzako PrevenMSS testuinguruan hartutako neurriei eta emandako mezuei buruz ari naiz, baita Osasunaren Idazkaritzako "Los hombres estamos tomado medidas" (Gizonak neurriak hartzen ari gara) programari buruz ere, gizon eta emakumeen bizi-zikloan dituzten premiak jorratzeko abian jarritakoa. Batez ere gizonen atxikipenei buruz, gizartean gero eta alarma handiagoa dagoenez, tabako-kontsumoaren kontrako kanpainak egiten dira noizean behin, nahiz eta tabako-konpainien kontrako ezer gutxi egin, eta alkoholaren edarien botiletako legendak hizki txikitik idazten dira. Bien bitartean, nazioarteko konpainia handiek alkoholaren kontsumoa gaztetasunarekin, kirolarekin, arrakastarekin eta zorientasunarekin lotzen dute.

Laburbilduz, oraindik politika integraletik urrun gaude, baita sexu- eta ugalketa-prozesuko esparruetako politika integraletatik ere.

7.

Gizonekin lan egitea: prebentzioaren aldeko joera

Amerikako kontinentean ikuspegi nahiko berria izan arren, gizonen esperientziak aintzat hartzen dituzten gero eta programa gehiago daude, esaterako sexualitatearekin, ugalketarekin, aitatasunarekin, indarkeriarekin eta osasunarekin duten harremana kontuan hartzen dutenak. Gobernu-mailan, nazioarteko batzarretako hitzarmen eta proposamenak poliki-poliki kontuan hartzen ari dira. Gaur egun, familia-plangintzarako programei ugalketa-osasunerako programa izena ematen zaiei, eta programa horietako askok generoaren ikuspegia kontuan hartzea aipatzen dute. Hala ere, diskurtsoaren eta praktika integralaren arteko aldea nabaria da, baita emakumeentzako programetan ere. Kasu askotan, gizonekin lan egitean basektomiarako programa eta kondoiaren erabilera sustatzeko programak egitea esan nahi du.

Nazioarteko batzarretako proposamenak, eta esparruko ikerketa eta esperientzietatik ondorioztatzen dituen premiak lan praktikoan ondorioztatzen diren premien antzekoak dira. Argi dago, gizonekin lan egitearen ikuspegia azkar hedatzen ari dela, potentzial handia baitauka. Heinean-heinean, harremanetan eta sexualitatearen fenomenoan eragina duen genero-ikuspegia hedatzen ari da.

Ziur asko, lan interesgarriena erakunde zibiletan egiten ari dira. Izan ere, estaldura eta baliabide gutxiago izan arren, eragina duten populazio-sektoreetan, programa berritzaileak egiten ari dira. Esperientzia horietako batzuek gobernuaren laguntza dute, edo gobernuko erakundeekin egiten dira. Esperientzia aipagarrien artean, hasiera batean emakumeentzako soilik ziren sexu- eta ugalketa-herkuntzarako programetan, emakumeek hala eskatuta, senarrentzako, semeentzako eta haien agintarientzako atalak ere eratu dira. Esaterako, hori gertatu da ReproSalud proiektuan. Proiektu hori Andeetako landa-populazioarentzako sortu zen, eta gizon eta emakumeekin egindako lanari esker, emaitza oso interesgarriak lortzen ari dira (Rogow, 2000).

Adibide gisa, osasun-arazoak ia jorratzen ez dituzten populazio sektore bati (eta are gutxiago generoaren ikuspegiaren arabera egindakoa) zuzendutako proiektu bat aztertuko dut, hain zuzen ere gizon gazteekin egindakoa.

8.

H/M Programa: gizon eta emakume gazteekin lan egitea

Lan horrek prebentzio-potentzial handia dauka, eta eguneroko bizitzan, gizon eta emakume gazteek osasunean eta beste esparruetan bizi duten errealitate konplexuari buruzko ikuspegia zabaltzeko premia azpimarratzen du. Oinarrizko planteamendua da, ezin diegula gizon eta emakume gazteei arreta eman, baldin eta ez badugu osasun/gaixotasun/arreta-prozesu osoa kontuan hartzen, betiere generoaren ikuspegian oinarrituta eta gizon nahiz emakumeen berezitasunak kontuan hartuta-

Askotan, gazteak eta bereziki nerabeak talde berdin bat direla uste da, eta ez dira kontuan hartzen gizonen eta emakumeen arteko alde handiak, ezta klase sozialaren, etniaren edo orientazio sexualaren ondorioz sortzen diren berezitasunak ere. Emakume ala gizon gazte izateak arrisku espezifiko ezberdinak ditu, baina askotan, elkarren artean lotuta egoten dira. Gizon eta emakume gazteen osasuna, osasunaren esparruan ia azertu gabeko esparrua da, gehienetan haurtzaroan lantzen baita prebentzioa. Gazteak helduegiak dira pediatrarengana joateko, eta helduen espezialistek ez diete arreta integrala ematen.

Gizon eta emakume gazteak ulertu eta haiei beharrezko laguntza emateko, ezinbestekoa da ikuspegi integrala izatea, esaterako, sexualitatean oinarritutako ugalketa jorratzen duena. Ikuspegi integral horretan ere osasun mentala sartu behar da. Osasun mentalaren ikuspegiari esker, gazteen bizipen eta arazoak lotu daitezke, esaterako indarkeriak eta horren ondorioz sexu- edo ugalketa-osasunean

sortzen diren ondorioak; edota nahi gabeko haurduntzan substantzia jakin batzuk gehiegi kontsumitzeak dakartzan ondorioak ala GIB-IHESarekiko babesik ez izateak dakartzanak.

Horrelako diagnostikoetan oinarrituta, H/M Programara 1998. urteaz geroztik bi herrialdeen arteko lankidetzaren ondorioak aurkeztu ziren, bai osasunaren eta generoaren artekoak nahiz gazteekin lan egiten adituan diren hiru brasildar erakundeek ere (Instituto Profundo, Instituto Papai eta ECOS) (1). Lankidetzaren horren jatorri nagusia gizon gazteen osasunaren zainketa nahiz prebentziorako, genero-perspektiban oinarritutako eredu, programa eta material-gabezia izan zen. Gure kontinentean, gizon gazteak betiko moduan sozializatzen dira, eta ondorioz, arrisku-faktore bihurtzen dira bai beren buruarentzat, gainontzeko gizonentzat eta emakume gazteentzat.

Prozesu hori Mexikoko Querétaro hirian egin zen *Trabajando con hombres jóvenes: Salud, sexualidad, género y prevención de la violencia* izeneko Latinoamerikako lehen mintegian sortu zen, gobernuko, sozietate zibileko eta akademia-erakunde ezberdinen laguntzarekin. Mintegi horren ondoren, bi herrialdeen arteko ekimena jarri zen abian: *Programa H (2): Trabajando con hombres jóvenes* (2005). Programa horren barne, erakunde bakoitzaren eskarmentua eta jakintza aplikatu ziren eta gazteekin lantzeko lau eskuliburu osatu ziren, ondoko gaietaz buruz:

- Sexualitatea eta ugalketa-osasuna.
- Amatasuna, aitasuna eta zainketa.
- Osasun mentala eta emozio-bizitza.
- Indarkeriatik elkarbizitzara.

OPSeK hala eskatuta, eta gizon gazteek GIB-IHESaren kutsaduran duten papera aintzat hartuta, bosgarren eskuliburu bat ere diseinatu zen: *GIB-IHESarekin bizi*

(1) Lankidetzaren horrek IPDFren (Familia-Plangintzarako Nazioarteko Federazioa) eta Osasunerako Panamerikar Erakundearen laguntza eta diru-laguntza izan zuen.

(2) H hizkiak gizona esan nahi du (gaztelerazko hombre).

eta elkarbizitza (3). Ahalegin horiek izandako ondorio logikoei esker, 2004. urtean elkarlan horrez gain, World Education ere programan sartu da, eta M (4): *emakume gazteekin lanean* programa garatu da, osasunean, arriskuan eta jabe-kuntzan oinarritutako ikuspegiaren arabera, emakumeen harremanak lantzeko. Gaur egun, gizon gazteekin lan egiteko estrategiak Brasilen, Mexikon, Erdialdeko Amerikan, Asian (Nepalen, Indian eta Tailandian) eta Hegoafrikan garatzen ari dira. Programa horien eraginari buruzko ebaluazio-prozesu bat amaitzen ari gara, eta horri esker, hiru herrialdeen arteko konparaketa egin ahal izango da. Brasilen egindako azterketaren emaitza batzuen arabera, genero-berdintasunean eta bakoitzaren osasunaren zainketan aurrerapenak egin dira, nahiz eta homofobiari dagokionez, emaitzak oso etsigarriak izan.

Mexikon, programaren edukiak Genero eta Osasuneko diplomadunaren ardatza dira, erakunde akademikoen laguntzaz osatutakoa. Programa horren xedea osasun-esparruko langilean prestatu eta heztea da, beste langile-mota batzuetan ere aplikatu ahal izateko eta era horretan gazteei banakako eta taldeko arreta eman ahal izateko.

9.

Amaitzearen

Emakume eta gizonen arteko osasun/gaixotasun-prozesuetako ezberdintasunak aztertzeke esparru gisa proposatu dugu generoa. Halaber, esparru horretan osasunaren hezkuntza eta sustapenerako programen barne, sozializazioaren inguruko beharrezko prebentzio-elementuak ere zehazten dira. Genero-ikuspegiak ez digu dena azalduko, baina emakume eta gizonen berariazko premiei buruzko azterketa konplexuagoa eta sakonagoa emateaz gain, ezberdintasun eta desore-

(3) Mexikon, eskuliburu horien bigarren edizioa Osasun Idazkaritzak finantzatu zuen PNUDeko funtsekin.

(4) M hizkiak emakumea esan nahi du (gaztelarazko mujer)

ken ondorioen azterketa egiten lagunduko digu, baita horietako zein ondorioei arreta eman behar zaien erabakitzen lagunduko digu.

Azkenik, generoaren ikuspegia opari potentziala da gizonentzat, potentziala dela diot, gehienak ez baitaude prest opari hori jasotzeko. Generoaren ikuspegiaren arabera geure buruaren azterketa egitea erronka handia da, eta batez ere harreman berdinago eta atseginagoak sortzeko aukera ezin hobea.

Bibliografía

Amuchástegui, Ana (2001), *Virginidad e iniciación sexual en México*, EDAMEX eta Population Council, Mexiko.

Arber, S. & Ginn, J. (si f). *Relación entre género y envejecimiento. Enfoque sociológico*. Madril: Madril.

Barker, Gary (2000), *¿Qué ocurre con los muchachos?*, OME, Geneva.

Bonino, Luis (1995). "Micromachismos: la violencia invisible en la pareja" : Corsi J. *Violencia Masculina en la pareja*. Buenos Aires: Paidós.

Bronfman, Mario eta Rubin, Jane (1999), "Comportamiento sexual de los migrantes mexicanos temporales a Los Angeles: prácticas de riesgo para la infección por VIH", Figueroa C., Beatriz, México diverso y desigual: enfoques sociodemográficos, Colmex y Somede, Mexiko.

Burin, Mabel eta laguntzaileak (1990), *El malestar de las mujeres. La tranquilidad recetada*, Buenos Aires, Paidós.

Caine, W. & Garfinkel, P. (1996). *The male body: an owners manual*. Pennsylvania: Rodale Press.

Centros de Integración Juvenil (2001), Subdirección de Investigación, *Estudios epidemiológicos del uso de drogas entre pacientes de primer ingreso a tratamiento en CIJ, 1990-2000*, Mexiko, D.F.

Deutschendorf, H. (1996). *Of Work and Men*. Mlinneapolis: Fairview Press.

-
- de Keijzer, Benno (1998), "La masculinidad como factor de riesgo", Tuñón, Esperanza, *Género y salud en el Sureste de México*, ECOSUR eta U. A. de Tabasco, Villahermosa, Mexiko.
- de Keijzer, B. (2003) "Los hombres ante la salud sexual reproductiva: una relación contradictoria" en Bronfman, M. eta Denman, C (ed.) *Salud reproductiva. Tema y debates*. INSP, Mexiko.
- De Keijzer, *Masculinities, resistance and change*, OXFAM ()
- Diamond, J. (1999). *La menopausia masculina. Cambios físicos y psicológicos en la edad madura*. Madril: Paidós.
- Ehrenreich, B. eta T English, D. (1981), *Brujas comadronas y enfermeras*, Bartzelona, Ed. La Sal.
- Figueroa, Juan Guillermo (1998), "La presencia de los varones en los procesos reproductivos: algunas reflexiones", Susana Lerner (ed.), *Varones, Sexualidad y Reproducción*. El Colegio de México, Mexiko.
- Garduño, Ma. de los Angeles (2001), "Determinación genérica de la mortalidad masculina", *Salud problema*, UAM-Xochimilco, Mexiko.
- Heise L, Pitanguy J, Germaine A. (1994), *Violence against women: the hidden health burden*. World Bank Discussion Paper Nr. 255, Washington DC. 1994.
- Hernández Bringas, H. (1989). *Las muertes violentas en México*. Cuernavaca: CRIM-UNAM.
- Herrera, C. eta Campero, L. (2002) "La vulnerabilidad e invisibilidad de las mujeres ante el VIH/SIDA: constantes y cambios en el tema", *Salud Pública de México*. Vol. 44, no.6, azaroa-abendua.
- Hill, A. (1993). *Viropause/ Andropause, The Male Menopause, Emotional and Physical Changes Mid-Life Men Experience*. New Jersey: New Horizon Press.

- Hofbauer Balmori, H., Sánchez-Hidalgo, D., Zabadúa Yáñez, V. (2002) *Presupuestos sensibles al género. Conceptos y elementos básicos*. SSA, Mexiko, D.F.
- Huerta Rojas, F. (1999). *El juego del Hombre. Deporte y masculinidad entre obreros*. Mexiko: Plaza y Valdes/Benemérita Universidad Autónoma de Puebla.
- Huggins, A. K (1996). *A Report on Men's Health Westem Australia*. Curtin University of Technology;
- INEGI (2001), *Mujeres y hombres en México*, Aguascalientes.
- Kaufman, M. (1987) *Hombres, poder placer y cambio*. Dominicana: CIPAF.
- Kimmel, Michael (1992), "La producción teórica sobre la masculinidad: nuevos aportes", *Fin de siglo: género y cambio civilizatorio*, Ediciones de las Mujeres, no. 17, Isis Internacional, Santiago, Txile.
- Menéndez, E. (1990). *Morir de alcohol*. Mexiko: CNCA eta Grijalbo.
- Núñez, G. (1994). *Sexo entre varones. Poder y resistencia en el campo sexual*. Mexiko: El Colegio de Sonora.
- PROMSA(2002), *Programa de Acción. Mujer y Salud*, Secretaría de Salud. Mexiko, D.F.
- Rodríguez, G. & de Keijzer, B. (2001). *La noche se hizo para los hombres*. Mexiko: Edamex eta Population Council.
- Rogow, D. (2000). *Alone you are nobody, together we float: The Manuela Ramos Movement*, Serie Quality. New York: the Population Council.
- Sabo, D. & Gordon, F. (Ed.). (1995). *Men 's health and illness: gender power and the body*. Kalifornia: Sage.
- Schmuckler, B. (1989). "Negociaciones de género y estrategias femeninas en familias populares". *Revista Paraguaya de Sociología*, año 26(74).
- Seidler, V. (1992). *Los hombres heterosexuales y su vida emocional*. Debate Feminista, año 6, Mexiko, DF.

Secretaría de Salud (2002), *Programa Nacional Hombres y Salud*, Mexiko, D.F.
Viveros, M. (1997). "Pa' bravo... yo soy candela, palo y piedra. Los quibdose-
ños" : Valdés, T. & Olavarría, J. (Ed.). *Masculinidades*. Santiago: Txile.

LOLA FERREIRO DÍAZ

**Osasun Publikoko
programen arduraduna.
Galiziako Xuntako
Osasun Saila. Compostela**

Generoa,

osasun sexuala

eta jokabide

arriskutsuak

"Maskulinitasuna eta eguneroko bizitzari" buruzko hainbat alderdi jorratuko ziren SARE kongresuan parte hartzeko gonbidapena jaso nuenean, asko poztu nintzen. Lehenik eta behin, aldez aurretik Emakunderekin egindako elkarlanak oso atseginak izan baitira niretzat, beti ongietorri ezin hobea egin baitidate, bai antolatzaileek, publikoak eta parte-hartzaileek ere. Baita ere, aipatu behar dut, ekin-tzetako parte-hartzaileek oso erantzun ona eman izan dutela beti. Bigarren, gaia dela-eta. Izan ere, maskulinitasuna eta horrek generoaren dialektikan dituen inplikazioak aztertzea garrantzitsua, interesgarria eta argigarria iruditzen zait, maskulinitasuna zehazten duten gakoak beste giza harremanetan ere inplikaturik daudelako, esaterako feminitatea zehazten dutenetan. Beraz, gai horri buruzko hausnarketa egitea oso erakargarria iruditu zitzaidan... baina aldi berean oso zaila ere bai. Azkenik, baina horrekin ez dut esan nahi garrantzitsua ez denik, esker-rrak eman nahi dizkizuet berriz ere Euskadira etortzeko aukera emateagatik. Izan ere, duela urte asko herri honek liluratuta nauka, hainbat arrazoi direla-eta. Horregatik, niri dagokidan gaia aztertzen hasi baino lehen, eskerrak eman nahi dizkiot Emakunderi eta bereziki Ana Agirrerri: kongresu honetara gonbidatzeagatik, urte hauetan guztietan berdintasunaren alde egindako lanagatik eta maskulinitasuna topaketa honetako funtsezko elementu gisa aurkezteagatik.

1.

Sarrera

Pertsonen arteko loturen ezaugarri garrantzitsuenetako bat "batak bestea zaintzea" da, eta auto-estimua ezaugarri nagusienetako bat "bakoitzak bere burua zaintzea" da. Gainontzekoekin sortutako harreman bakoitzean "zaindu egiten dugu" eta "zaindu egiten gaituzte", eta geure buruarekin dugun harremanean ere, "geure burua zaintzen dugu". Baina hori guztia, harremanaren lotura-mota eta haren kalitatearen arabera, proportzio ezberdinetan, eta batez ere, modu ezberdinetan egiten dugu. Eta generoak bi elementu horiek bitarteko gisa erabiltzen ditu. Hala, sinbolikoki, alaba ez dugu ahizpa bezala zaintzen, eta ama ez dugu beste biak bezala zaintzen. Semea ere ez dugu anaia bezala zaintzen, eta aita

ere ez dugu beste biak bezala zaintzen. Bestalde, emakumeak ez ditugu gizonak bezala zaintzen... eta emakumeei eta gizonei ez diegu gu modu berean zaintzen uzten.

Harreman afektibo-sexualetan, gainontzeko guztietan bezala, genero-rolak eta autoritate-rolak eragin handia dute, eta ondorioz, eredu-komplexutasun hori eta zaintza-modu ezberdinak islatzen dira. Esan daiteke, bi pertsonen arteko harreman afektibo-sexualetan, elementu maskulinoak eta femeninoak elkarren artean lotzen direla, autoritate-rolen forma posible guztiekin batera elkartuz. Horrek guztiak ez dauka zerikusirik desioaren orientazioarekin edo loturaren egonkortasunarekin, baina funtsezkoa da harremanaren funtzionamendua hobetzeko, eta ondorioz, harremanak sortutako plazer eta poztasunerako. Bestalde, esparru horretan, osasun afektibo-sexualean kokatu behar dira jokatibide arriskutsuak, osasun horren sustapenarekin bakarrik lortzen baita erantzukizuna eta, ondorioz, gaitasunak ez transmititzea eta nahi gabe haurdun ez geratzea.

Hau da, gai konplexua da hori. Bertan, hainbat orientazio epistemologiko daude, eta ondorioz, kontzeptuak era askotan interpretatzeaz gain, kontzeptu bakoitzaren edukia ere aldakorra izan daiteke. Beraz, gure ustez, funtsezkoa da abiapuntua zehaztea, gutxienez pertsonen arteko eragiketen zaintzari, generoari, simetriari (edo asimetriari) dagokionez.

2.

Zaintza giza harremanen barne dago...

Zaintza lotura afektiboaren izate bereko ezaugarri bat da. Horri esker, emakumeok zaindu, mimatu egiten gaituztela sentitzen dugu, baita kontuan hartzen gaituztela eta lagundu egiten digutela ere. Sentimendu horrek segurtasuna eta konfiantza ematen digu. Garrantzitsuak eta maitatuak sentitzen gara, eta zaintzen

gaituen pertsonak aintzat hartzen gaituela sentitzen dugu. Lehen haurtzaroan zehar, atxikimendua eta oinarrizko konfiantza osatzen laguntzen digu. Geure burua maitatzen eta errespetatzen ikasten dugu, eta ondorioz, geure burua zaintzen.

Amak (eta *aitak*) (1), haurrari jaten ematen dionean, haurrari arropa beroak janztean, haurra besarkatzean, haurrari muxu bat ematean, haurra besoetan hartzen duenean, haurrari ondo lo egitea opa dionean, ipuin bat irakurtzen dionean, abesti bat abesten dionean, haurrari entzuten dionean, behar duenerako bere ondoan egongo dela esaten dionean, zein akats egin duen esaten dionean... haurrari hazten eta geure burua zaintzen laguntzen digunean, zaintzen ari da. *Alabak* (eta *semeak*), gurasoak besarkatu eta haiei muxu bat ematean, laztan batekin, begirada batekin, hitz batekin, amets batekin, zaintzak eskertzen dituztenean, zaintzen uzten duenean, bere burua zaintzen ikasten duenean eta bere autonomia sortzean ere, zaintzen ari da. *Ahizpak* (eta *anaiak*) ere, eskutik helztean, elkar begiratzean, lanak egitean elkarren artean laguntzen direnean, elkar besarkatzen direnean, sekretuak eta sopikuntzak konpartitzen dituztenean, geure burua zaintzera animatzen gaituztenean, zaintzen ari dira.

Zaintzea beroa ematea da, egun hotz eta euritsuan katilu bat txokolate bero hartzea bezala. Bustita gaudenean edo hotza dugunean, maite gaituen norbaitek guretzat apropos prestatutako txokolatea da. Behar dugunean, maite gaituen pertsona batek jartzen digun manta leuna da. Sorbalda guri eta eroso da. Baina, bero handia daukagunean, itsasoan bainu bat hartzea ere bada. Zaintza leuna, samurra, beroa edo freskoa da... eta pertsonak era guztietako zaintzak behar ditugu: *amarenak* (eta *aitarenak*), *ahizparenak* (eta *anaiarenak*) eta *alabarenak* (edo *semearenak*).

(1) Hemendik aurrera, termino hauek erabiliko ditugu (*ama-aita*, *ahizpa-anaia* eta *alaba-semea*) giza harremanetan paper hori duten pertsonen erreferentzia egiteko, lotura formala alde batera utzita eta generoaren ikuspuntutik begiratu. Esaterako, ama beste pertsona batekin paper hori jokatzen duena da, beste pertsona hori formalki seme edo alaba izan ez arren eta abar.

Zaintza-mota bakoitzak bere neurria du. Benetan osasungarria eta atsegina izan dadin, zaintzen duenarenak baino, zaintzen den pertsonaren premiak hartu behar dira kontuan... ez zaintzeak eta babesik ez izateak, gatazkak sortzen ditu, gogo-aldartea uzurtuta uzten du, eta oso minduta uzten gaitu, txokolate beroa ur hotz bihurtzen du, biluzik utzi eta aldatu egiten gaituen era berean, gehiegizko zainketek ere emozionalki ito egiten gaituzte, erre egiten gaituzte, eta horrek ere gatazka handiak sortzen ditu, bi muturrek ez baitigute hazten uzten.

Zaintza, batez ere kalitate-kontua da. Askotan zaintza fisikoek ez dute emozio-dimentsiorik, eta zaintza horiek jasotzen dituen pertsona umildu eta bakarrik sentiarazten dute. Zaintza batzuk ez dira behar eta ez dira eskatzen, eta orduan, presioa egiten hasten dira... manta leun eta beroa kortse bihurtzen da. Azken finean, zaintza batzuek gehiago asetzen dute zaintzak ematen dituen pertsona, horiek jasotzen dituen baina. Baina beste zaintza batzuk exijitu egiten dira, indarkeriaz eskatzen dira, kontuan hartu gabe zaintza horiek ematen dituenak ere horiek jasotzeko eskubidea duela, eta zaintza horiek behar dituela... Hau da, zaintza eta mimoak elkarren artekoak izan behar dira, eta sentikortasunean eta erantzukizunean oinarrituta egon behar dira. Orduan soilik izango dira onuragarriak gure osasun eta ongizaterako, orduan soilik pertsona gisa hazten lagunduko digute, eta geure burua maitatzen eta zaintzen lagunduko digute. Izan ere, geure burua zaintzea ezinbestekoa da gure osasuna mantendu eta hobetzeko.

3.

“Emakumearen”

generoaz eta
“gizonaren”

generoaz hitz egin
al dezakegu?

Genero-ezaugarritzat (maskulinitasuna eta feminitatea) bi ezaugarri pertsonal-sorta ezberdin jotzen ditugu, eta sorta horiek bi jokabide-sistema ezberdin eraten dituzte; sentitzeko, pentsatzeko eta jokatzeko bi modu, bai guregan, gainontze-koengan eta bizitza orokorrean. Sistema konplexuak izanik, pertsonak ezberdintzen dituen jokabide asko daude horien barne... baina jokabide horietako batzuk desorekatuak dira, emakumeekiko nagusitasuna inplikatzeko baitute.

Generoa garapen- edo bilakaera-prozesuan zehar eraten da. Beraz, ikasitako zerbait da, baina aldi berean bakoitzaren nortasunean eta nortasun kulturean oso errotuta dagoen elementua da. Arketipo bat da, eta haren oinarriak subkondiziente kolektiboan daude finkatuta. Generoaren bitartez, gizakiak bi taldetan sailkatu daitezke, eta sailkapen hori sakon aztertu beharreko fenomeno da.

Bestalde, generoa sexu biologikoaren arabera eraten da. Are gehiago, hasierahasieran, gizonak emakumearekiko jabekuntza eskuratu ondoren sortu ziren genero-sistemak, era horretan soilik lor zezakeen boterean betierekotzea. Horregatik dago neskak “femeninoan” eta mutilak “maskulinoan” hezteko joera, horregatik identifikatzen da emakumea elementu femeninoekin, eta gizona, berriz, elementu maskulinoekin.

Hala ere, azken hamarkadetan, emakumeengan aldaketa-prozesua egon da, berdintasuna lortzeko bidean. Ondorioz, gizonak ere aldaketa horretara egokitu behar izan dute, eta ondorioz, kontuan hartu beharreko aldaketak gertatu dira. Alde batetik, emakumeak esparru publikoan agertzen hasi dira. Ordura arte,

esparru hori gizonentzat zen soilik (eta boteretik gertuago zeuden lanpostuetan, gero eta maskulinoagoak). Beraz, rol horien funtzionamendurako eredu maskulinoa zegoen soilik. Ondorioz, emakumeek rol horren gako batzuk kopiatu ditu. Bestalde, gizonak (poliki-poliki) esparru pribatua lanean hasi dira; hau da, seme-laberen zaintzan parte-hartzen hasi dira. Horri esker, haurren hezkuntzan gehiago parte hartu dezakete, eta ondorioz, gizonen baloreak eta genero-estiloak ere haurrei erakusteko aukera dute.

Horren ondorioz, genero-rolak aldatu egin dira, eta batez ere, rol horiek biologikoki gizon edo emakumeekin identifikatzeko moduak aldatu dira. Ondorioz, hainbat galdera planteatu behar ditugu: egia esan, bakoitzaren berezitasun guztietan, maskulinitasuna "gizonaren" eta feminitatea "emakumearen" ezaugarri definitzaileak joan al daitezke?; hau da, gizonek genero maskulinoaren baldintza guztiak eta emakumeek genero femeninoaren baldintza guztiak betetzen al dituzte?... edo agian, gizon gehienek maskulinoan eta emakume gehienek femeninoan funtzionatzen dutela esan behar al dugu? Nire ustez, bigarren ideia egokiagoa da. Emakumeengan erabateko ezaugarri eta ezaugarri partzial maskulinoak eta gizonengan ezaugarri femeninoak identifikatzeko adierazle ugari daudela kontuan hartuta, eta zaintza eta harreman afektibo-sexualak gai horrekin oso baldintzatuak daudela; nahiago dugu genero-ezaugarriak sexuaren arabera maila gisa bakarrik jotzea, eta ondorioz, maskulinitasunari edo feminitateari buruz hitz egin gabe, baina horrekin derrigorrez emakume edo gizoni buruz hitz egin gabe.

4.

*Generoa gure
harreman guztietan
agertzen da...
eta zainketan
eragina dauka*

Generoaren ikuspuntuari esker, pertsonen arteko harremanak azter ditzakegu eta horiek oinarritzen dituzten maskulinitasunaren eta feminitatearen gakoak identifikatu ditzakegu: hau da, zein gako diren osagarriak, zein diren bereizleak, zein gakok sustatzen duten onura eta atsegina... edo ondoeza eta atsekabea. Azken horiek dira, hain zuzen ere, ezberdintasunaren sortzaileak, eta horregatik aztertuko ditugu.

Genero-rolak elementu sakonago baten proiektzioak dira, izaeran finkatutako kontrol-azpisistema bat da, elementu kontzientedun eta inkontzienteduna. Azpisistema hori jaiotzen garen momentutik aurrera (baita lehenago ere) sortzen hasten da. Funtsezko ideia da, azpisistema horren aurrean, bi kudeaketa-eredu daudela: FRUSTRAZIOA eta AGRESIBITATEA.

Eredu maskulinoan, helburua lortzean konpontzen da frustrazioaren arazoa, eta hala ez denean, horren ondorioz sortzen den agresibitatea agintarietako nahiko ongi onartutako jokabidea da. Momentu horretatik aurrera, *amak* (eta *aitak*) *semeari* ematen dizkioten zainketen eredu egoeran esku-hartzen hasten da. Beste era batean esanda, *semeari alabari* baino askoz ere gehiagotan asetzen zaizkio nahiak eta agresibitatea hobeto onartzen zaio. Semeei agresibitatea sustatu ere egiten zaie: haserretzen denean, edo borrokan ibiltzen denean, oso gutxitan egiten zaio errieta, eta mutilen jostailuek jokabide oldarkorrak sustatzen dituzte (gerra, eraso, suntsipena...) eta familian nahiz gizartean dituzten identifikazio-ereduak oldarkorrak dira. Gainera, probokazioen aurrean, modu oldarkorren

erantzutea espero da, norbaitek iraintzen duenean “bere burua defendatu dezala” edota *arreba* iraintzen dutenean, ere, hura defendatu dezala.

Eredu femeninoan, berriz, frustrazioa askoz ere gutxiagotan konpontzen da, eta agresibitatea erreprimitu egiten zaio, agintariak ez baitute hura onartzen. *Alabak*, jokabide oldarkorrak dituenen, errieta egiten zaio, borrokan ibiltzea debekatuta dauka, eta haserrealdiak ere ez zaizkio horren ongi onartzen. Nesken jostailuek ez dute oldarkortasunik irudikatzen, eta jolastean ez da inondik ere agresibitate-rik ageri. Familian eta gizartean dituzte identifikazio-ereduen arabera, emakumeak agresibitateari eutsi egin behar dio, ez du borroketan sartu behar, eta norbaitek iraintzen badu, “isilik geratu” edo *anaiari* laguntza eskatu behar dio.

Hori guztia *semeak* eta *alabak* ikasi egiten dute, horren modu eraginkorrean, non generoen kontrolerako azpizistemak sortu eta egituratzen ditu: alde batetik, errietak eta debekuak daude. Elementu horiek *amaren* maitasuna galtzeko arrisku gisa bizi dituzte haurrek, eta horrek ezinegon handia sortzen die. Bestalde, haurren gan jarritako itxaropenak daude, haurrek amodio gehiago lortzeko erreferentzia gisa bizi dituztenak. Horrela, esaterako, genero femeninoan, *alabak*, agresibitateari betoa jartzen dio, eta agresibitatea sentitzearekin soilik, errudun eta larri sentitzen baita. “Gaiztoa” dela iruditzen zaio, ez duela amaren amodioa merezi. Agresibitatea eta frustrazioa kontrolatzeak pertsona “ona” dela sentiarazten dio, baita amodio gehiago merezi dutela ere... eta kontrol edo beto horrek sortzen dion atsekabea bigarren mailako desabantaila gisa bizi du, alderantzizkoa eginez gero edukiko lituzkeen desabatailekin alderatuta.

Argi dago, prozesu hori nahiko inkontzientea dela, prozesu horiek eratzen diren diren garaian, horiek aztertzeko adinako gaitasun kognitiborik izaten ez dutelako. Gaitasun horiek erabat garatzen direnerako, prozesu horiek erabat barneratuta daude, eta funtsetan behar bezalako errepresioa sortzen dute.

Azken finean, haurren lehen urtetan generoen kontrolerako azpizistema sortzen da; hau da, generoaren izaera, bai maskulinoan edo femeninoan ere:

Maskulinoan, frustrazioa ez da ongi jasaten, eta ondorioz, agresibitatea edozein oztoporen aurrean askatzen da, bai helburua eskuratzeko oztopoa bada edo inguruko beste objektu bat bada ere. Izan ere, errepresioa eta agresibitateari eus-

tea da onartezina. Izan ere, *semean* eta "*ni idealean*" ezarritako itxaropenei erantzunik ez ematea bezala da. Ondorioz, gizonek beren "helburuak" askoz ere gehiagotan lortzen dituzte, eta emakumeek, berriz, ezin dituzte helburuak horrenbestetan eskuratu. Horrela, poliki-poliki, gizona bere nahiak legitimatzen doa, eta gainontzeko pertsonen nahien aurretik jartzen ditu, bereziki emakumeen nahien aurretik. Ondorioz, emakumeen nahien balioa galtzen doa.

Horrek guztiak proiektzio argi bat du genero maskulinoaren rolean; hain zuzen ere, **egozentrismoa**: bakoitzaren nahiak dira garrantzitsuenak, eta gainontzekoak (batez ere emakumeak), nahi horiek asetzerara behartuta daude, baita eskatu baino lehen igartzera ere... eta hori hala gertatzen ez denean, frustrazioa sortzen da. Frustrazio horren aurrean, gizonek modu oldarkorrean jokatzeko dute, generoaren beste berezitasun nabarmen bat agerraraziz: **autoritarismoa** mana-gaiztasun esplizitu (eskatutakoa ez betetzeagatik) edo inplizituen (nahiak ez igarzteagatik) aurrean.

Bestalde, genero femeninoan, frustrazioa askoz ere gehiago jasaten da, eta agresibitatea sortzen denean, hari eusten zaio, ez eusteak sortuko lukeen erruduntasuna aurreikusiz. Egoera horretan, frustrazioari eta agresibitateari eusteak sortzen duen tentsioa pilatzen doa, eta bien bitartean, gizonek frustrazioa konpontzen duela ikusten dute. Horrela, alabak, bere nahiak deslegitimatuz egiten ditu, eta bestearen nahiak asetzen sublimatzen ditu, gizonaren nahiak legitimoagozat jotzen baitira. Askatu gabeko agresibitatea, beraz, beregan aplikatzen du.

Horrek guztiak proiektzio argi bat du genero femeninoaren rolean, **pairamena**: emakumearen nahiak ez dira garrantzitsuak, eta gainontzekoei arreka emateko ezkutatu egiten dira. Azkenean, bakoitzaren eta besteen nahiak nahastu egiten dira. Besteen nahiak asetzeak bakoitzaren nahiak ez asetzearen atsekabea gutxitzen du, eta ondorioz, askotan, ahalegin handiak egiten dituzte nahi horiek adierazten ez direnean, igartzeko. Horrekin batera, agresibitatea autoagresibitate bihurtzen denez, generoko beste berezitasun bat agerrarazten da: gainontzekoen aginduen **mendean jartzea**, baita modu esplizituan adierazten ez direnean ere.

Egoera horretan, genero maskulinoaren eta femeninoaren arteko harremanetan ezberdintasun- eta menderaketa-harreman nabariak daude. Horren ondorioz, askotan, amodioa gogortasunarekin edo nahiak ez betetzeagatik sortzen den erruduntasunarekin nahasten da, estimua mespretxuarekin, errespetua beldurrarekin, eta leialtasuna erabateko fideltasunarekin.

Era horretan, genero maskulinoaren tonu emozionalaren ezaugarri nagusiak hauek dira: gizonek "beren burua" idealizatzen dute, eta gainontzekoek gehiegi aintzat hartzea nahi dute (aintzatespen edo onarpen egokitua lortu ordez), beren nahiak baitira garrantzitsuenak. Ondorioz, errua gainontzekoei botaz, asmo eta anbizioak sortzen dituzte, baita haserrea eta pozaren bitartez, eta harreman sozialei eta karrera profesionalari ematen zaien gehiegizko garrantziaren ondorioz.

Bestalde, tonu emozional femeninoaren ezaugarri bereziak hauek dira: emakumeek, nahiak erreprimiteagatik, "beren burua" gutxiesten dute (baloratu beharrean). Ondorioz, asmo eta anbizioak ere erreprimitu egiten dituzte, erruduntasuna, saminak eta atsekabeak eta harreman sozialetako inhibizioak eraginda. Horren ondorioz, poztasuna, gozamina eta plazera jartzen dira jokoan.

Horren ondorioz, genero maskulino eta femeninoen arteko harremanetan ezberdintasun eta desoreka handiak daude. Horrek pertsoneri atsekabea sortzen die, berdin dio zein genero-rol jokatzen duten. Izan ere, funtzionamendu batekin eta bestearekin ere ez da lortzen desiratutakoaren eta lortutakoaren arteko oreka, elementu idealen eta bideragarrien arteko oreka, eta hitz batean, garenaren eta izan nahi dugunaren arteko oreka.

Agian gehiegizkoa eta gezurra dirudi orain azalduko duguna, baina, puntuz puntu, gure kasuistikaren edukiaren gakoak dira. Femeninoan eta maskulinoan egindako biografien kontakizuna da. Egoera batzuetan, ageriko eta identifikatutako indarkeria da nagusi, beste batzuetan, ez dago horrelako indarkeriarik; beste batzuetan, berriz, indarkeria egoera subjektiboak ez dira identifikatzen. Izan ere, egozentrismoaren eta babes autoritarioaren arabeko harreman esplizitu edo inplizituagoak, zoritxarrez, berdintasun-egoera baino askoz ere ohikoagoak dira.

lido horretan, giza harremanetan, genero-kontraesanek eragin gehien duten esparruetako bat zaintzarena da, bai haren neurriari eta moduari dagokionez. Izan ere, erraza da ondorioztatzea pairamenaren rolaren ondorioz, *amaren* zaintza-eredua sortzen dela; eta egozentrismoaren rolaren ondorioz, berriz, *aita-seme-anai* paper bateratua sortzen dela, eta horrek harremanak are gehiago desorekatzen dituela.

Alde horretatik, egozentrismoan zaintzen duenak, hau da, maskulinitasunaren esparru negatibo eta dekadenteenetik beste pertsonak zaintzen dituen gizonak, haien ordez erabakiak hartzeko joera izango du, batez ere esparru "garrantzitsuenetan"; hau da, esparru publiko nahiz pribatuan boterearekin zerikusia dutenak. Aldi berean, horren garrantzitsuak ez diren esparruetan, gehienetan, esparru pribatukoetan, zaintzak exijitzen dituzte... eta exijentzia horiek eguneroko bizitzaren barne daude. Eta egia esan, exijentzia horiek noizean behin adierazitako (edo ez adierazitako) itxaropenak dira, premia eta nahiak buruzkoak. Itxaropen horiek adieraztean, noiz, zer, non eta nork igarri behar dituen adierazten dute. Izan ere, hori da gakoa: nahiak igartzea. Eguneroko bizitzan, nahi horiek aurreikustea, edozein keinu, hitzen, gorputzaren edo keinuen bidez eginga dakoak ikusita... *Aitak* espero du *alabak* hari buruz emandako ideiak, ekimenak eta erabakiak onartu eta aintzat hartzea (alabarentzat onena baita), baina aldi berean, *aita seme* ere bihurtzen da, eta *amak* besarkatzean, animatzen, entzutea eta bere balioa gogoraraztea nahi baitu. Azkenik, *senarrak* bere *emaztea emazte*... *ama*... edo *alaba* izatea espero du, bakoitza harremanaren esparru ezberdinetan. Esparru edo premia horiek ere emakumeak igarri behar ditu, emakumea intuitiboa izan behar baita... eta asmo horiek guztiak, gainera inkontzientek izan ohi dira, eta beraz, identifikatzen eta aldatzen zailak izan ohi dira.

Horri guztiari, emakumeen pairamenaren bitartez, erantzun "egokia" ematen zaionean, harremanean ez da arazorik sortzen, baina paper hori bere gain hartzen duen pertsonaren egoera emozional eta fisikoan ere eragin handia du, pertsona horrek egokitzeko gaitasun itzela eduki behar baitu, eta berezko premia eta nahiak erabat blokeatzeko gai izan behar baita, bestearen nahiekin talka egin baitezakete. Beraz, erantzun "egokia" emateak berezko nia etengabe ukatzea

esan nahi du, etengabeko frustrazioan bizitzea, eta ondorioz, pertsonalki izugarri sufritzea (bai kontzienteki nahiz inkontzienteki), eta era guztietako ondoezak agertzea esan nahi du... ondoez eta sufrimendu horiei ere ez zaie behar beste arreta ematen, gizonen zaintza-eredua ez baita berdina... eta pairamen eta gorgutz eta ariman aritzeko nahi hori ez da aintzat hartzen (askotan ez ezta baloratu ere egiten), emakumearen betebeharrak dela ulertzen baita, eta egoera zailetan, feminitatearen berezko ezaugarri banaezin gisa ulertzen baita.

Hala ere, denbora aurrera joan hala, horrelako funtzionamendu-eskemekiko lehen desadostasun-sintomak agertzen doaz. Kexek, gaitzespenek, sintoma fisikoek, zaintzak pixka bat alde batera uzteak, ondoeza esplizituki eta era antolatuan adierazteak, aldaketak eskatzeak, bikotekide batek jokabidez aldatzeak... horrek guztiak sistema desorekatzen du, maskulinitasunaren lasaitasuna nahasten du, haren eskemak desorekatzen du, frustrazioa sortzen du... eta indarkeria agertzen da: mespretxuz arretarik ez ematea, era nabarmenean mespretxatzea, neutraltasuna, umilazioa, irainak, eraso fisikoak, txantaje afektiboa, erruduntasunaren proiektzioa, edota indarra erabiltzea erresistentzia desagerrarazteko.

Horrelako harremanek ondoez handia sortzen dute bi alderdietan, eta ondorioz, harremanean hein batean edo bestean inplikaturako pertsonengan. Momentu horretan, ondoezak asko asaldatzen du: gizonak haserre, amorratuta edo suminduta daudenean, egoera horrek beldurra (edo ageriko larritasuna), erruduntasuna eta samintasuna sortzen du emakumeengan. Askotan, egoera horien ondorioak gogorik eza, etsipena edo depresioa sortzen dute; eta gogoaldate horiek jatorrizko lotura afektiboa alda dezakete, baita alderantzikatu ere. Ondorioz, erresuminaren ondorioz, maitasunaren ordez, gaitzuste nagusitzen da; konfiantzaren ordez, mesfidantza; samurtasunaren ordez, zakarkeria; amodioaren ordez, ezinikusia... baita gorrotoa ere. Baina batez ere, erruduntasuna sortzen da, eta sentimendu hori ikusten zaila denez, harremanak baldintza horietan finkatzen dira.

Ondorioz, harreman afektiboen helburua ongizatea, poztasuna, auto-estimua eta segurtasuna sortzea izan arren, azkenean aurkako efektua sortzen dute, eta horrela ere, oso zaila da horrelako harremanak aldatzea, eta are gehiago, etetea.

5.

Sexu-harremanek edo harreman afektibo-sexualek ezberdintasuna oso modu berezian islatzen dute...

Gure kultura eta antzekoetan, erlijioak eragin handia du. Batez ere moral katolikotik eratorritako kulturak direnez, sexualitatearen esparrua oso gai zigortua izan da, eta bertan era guztietako oztopoak jarri izan dira. Sekularki, sexualitatea gauza zikin, ilun, lotsagarri eta galgarritzat jotzen da. Iritzi horiek guztiak kalte handia eragin eta eragiten dute oraindik pertsonen osasun sexualean, subkontziente kolektiboan finkatuta baitaude... eta baita bakarkako subkontzientean ere. Hori dela eta, oso zaila da oztopo horiei modu eraginkorren aurre egitea, sexualitateaz behar bezala gozatu ahal izateko eta sexuak ongizatean dituen onurak agerian uzteko.

Izan ere, kristautasunaren hasiera-hasieratik, sexualitatearen adierazpen guztiak debekatu egin ziren, eta errepresio-prozesu luze eta konplexu bat ekin zitzaion, ordura arteko ikusi gabekoa. Izan ere, kristautasun aurreko kulturetan, sexualitatea askoz ere modu naturalagoan bizi zen, eta bertan lortzen zen plazera zilegi zen bai gizon nahiz emakumeentzat.

Errepresio-prozesu horren oinarria sexua galgarria, zikina eta lotsakorra zela zen. Historian zehar errepresio handitzen joan zen, Elizak botere politiko eta sozial handiagoa eskuratzen zuen heinean. Maila gorena Erdi Aroan bizi izan zen, "bekatu-irizpideak" gogorak ezarri baitziren, horien barne, ohiko erlijio-penitentziaz gain, eroskude-mekanismo penalak ere baitzeuden. Era horretan, edozein

sexu-asetze bekatua zen, eta sexu-organoak izatea ere gauza lizuna zela uste zen. Asteko egun jakin batzuetatik kanpo sexu-harremanak izatea, "misiolariaren" jarrera ez zen beste batean sexu-harremanak izatea edo emakumeak hilerokoa zuenean sexu-harremanak izatea, masturbatzea, ezkondu gabe sexu-harremanak izatea, hainbat urteko penintentziarekin zigor zitekeen, baita kartzela-zigorrekin edo heriotza-zigorrekin.

Edonola ere, garrantzitsua da kontuan hartzea, errepresio-eredu hori askoz ere onberagoa zela gizonekin emakumeekin baino. Hori frogatzeko, aipa dezakegu, gizonak etxetik kanpo epe luzeak pasa behar zituenean, emazteari kastitate-gerriko bat jartzen ziola emazteari, eta bien bitartean, beste emakumeekin sexu-harremanak izaten zituzten, eta batzuetan, "etsaiaren" emakumeak bortxatzen zituzten (esaterako, gurutzadetan). Bestalde, kontuan hartzen badugu, epe horretan heriotza-zigorren ondorioz hildakoen %85 emakumeak zirela, agerian geratzen da, doktrina bakar eta unibertsalaren atzean moral bikoitza zegoela, eta pertsona batzuk beste batzuk baino askoz ere gogorrago zigortzen zirela.

Zalantzarik gabe, herritarrak behartsuak zirenez, ez zuten baliabiderik sistema feudal eta erlijiosoaren esku zegoen egoera horri aurre egiteko, eta ondorioz, erraza zen herritarrek lurreko zigorraren beldur izatea, baina batez ere zeruko zigorraren beldur izatea... eta era horretan, erakundeek hasitako errepresio sexuala barneratzen joan zen, auto-errepresio bihurtu arte, batez ere emakumeen artean. Bizitzaren beste aspektu askotan gertatu zen bezala, errepresio sexuala, indarrean zegoen botereak herriaren menpekotasuna iraunarazteko erabili zuen, eta horrez gain, gizonen emakumeengan botere izateko ere erabili zen.

Tabu sexualak osatzen joan ziren heinean, gizonen eta emakumeen permitsibitatearen arteko ezberdintasunak areagotzen joan ziren. Beraz, gizonen prostitutekin sexu-harremanak izaten "utzi" zitzairen, txarrean onena balitz bezala. Aldi berean, prostitutak izaki mespretxagarritzat jotzen zituzten, eta sifilia eta antzeko gaixotasunak zabaltzen zituztela esaten zuten. Egia esan, sifilia Amerikatik inportatu zen, kontinentea aurkitu eta handik gutxira... gizonen gaixotasuna harrapatu eta emazte monogamoak kutsatzen zituzten bitartean, elizak praktika sexual biziotsu eta maltzurren ondorioz, jainkoak emandako zigorra zela zion.

XVII eta XVIII. mendeetan sexu-ohiturak pixka bat liberalizatu ziren arren, goi- eta erdi-klaseko emakumeek ez zuten aldaketa handirik sumatu, baina XIX. mendean, moral viktoriarrek, debeku berriak ezarri zituen, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasuna inoiz baino gehiago areagotuz: gizonak sexualki aseeginak izan zitezkeen, eta emakumeek (egia esan, damek) ezin zuten desio sexualik izan, edo kikitzapena sor ziezaiekeen ideia, fantasia edo egintzarik erabili. Gorputzari buruz hitz egitea ere ez zen egokia, bereziki gorputz-atal zehatz batzuei buruz, sexualitateari eta sexu-organoei lotuagoak baitzeuden.

XX. mendea izan zen, zalantzarik gabe, sexualitatearen esparruan benetako aldaketa-prozesua eragin zuena. Marxismoan oinarritutako ideologiek, "iraultza sexualik gabe iraultza sozialik ezin dela egon" aldarrikatzen zuten. Horrez gain, sexualitateari buruzko lehen ikerketen postulatuek (Ellis, Hirschfeld, Freud, Reich...) agerian jarri zuten funtsezkoa zela bizitzan garapen sexual ona izatea, pertsonak eta herriak zoriontsuak izateko. Gainera, lehen mugimendu feministek kontratzeptzioa eta hari buruzko informazioa izateko eskubidea aldarrikatu zituzten (Helene Stöcker, Margaret Sanger). Horiek dira, besteak beste, aldaketa handi horren adierazleak.

Hala ere, aldaketa nabariena 1960ko hamarkadan gertatu zen. Alde batetik, antisorgailu-pilulak merkaturatu ziren, eta horiei esker, sexu-harreman seguruak bermatu ziren, haurdun geratzeko arriskua (garai hartako kezka nagusia) desagerraraziz. Bestalde, Helen Kaplanek, eta aurrerago Masters eta Johnsonek egin-dako azterketek emakumeen sexualitateari buruzko ikerketaren hastapenak ezarri zituzten, eta koitoa emakumeen plazer-iturri nagusia ez zela frogatu zuten. Horrez gain, 1960ko hamarkadan, gizakien eskubide sexualak (bereziki emakumeenak) aldarrikatu ziren; eztabaiden bidez, mugimendu feminista antolatua hedatu egin zen, eta "emakume izateari" buruzko teoriak sortu ziren... baina horrenbeste mendetan errepresioa eta alienazioa jasan ondoren, kontraesanak ezin ziren egun batetik bestera konpondu, ezta, aldaketa prozesuari ekin bezain laster agerian jarri, ezta denbora gutxian benetako aldaketak egiten hasi ere.

Edonola ere, 1960ko hamarkadan gertatu ziren aldaketek aldaketa-prozesuaren oinarriak ezarri zituzten. Jokabide sexualak liberalizatzeak, antisorgailuak era-

biltzen hasteak, eta emakumeak objektu sexualtzat jotzeak aldaketa sustatu zuten. Hasiera batean, aldaketa kuantitatiboa zen batez ere: harreman sexualak ugari egin ziren, bai ezkontza barruan edo handik kanpo, bai bikote finkoetan eta haie-tatik kanpo. "Bizitza guztirako" bikotekide bakarra izan ordez, "bikotekide-segi-da" agertu zen. Baina, handik gutxira ere, aldaketa kualitatiboaren lehen zan-tzuak agertzen joan ziren: emakumeak sexu-harremanetan aurrea hartzen hasi ziren, beren plazera eskatzen hasi ziren, eta haurrak noiz izango zituzten eraba-kitzen hasi ziren... eta hori guztia, hasiera batean behintzat, gutxiengo "kon-tzientziatuetan" bakarrik gertatu zen, poliki-poliki gizartean hedatzen joan zen arren.

Hala ere, aldaketa-prozesua, luzea, neketsua eta zaila da askotan. Sexualitateari lotutako tabuek, mendetan zehar sortutakoak izanik, subkontzientean finkatuta jarraitzen dute. 1970eko hamarkadan, "aldaketaren" irakinaldian, Shere Hitek egindako ikerketa argitaratu zen. Ikerketa horren arabera, sexualitatea, bereziki emakumeena, ez zen batere ona, eta hori ezusteko handia izan zen gizartea-rentzat. Ikerketa hori, gaur egun ere erreferentzia garrantzitsua da.

Sexu-gatazkek edo arazo afektibo-sexualak konpontzeko laguntza-eskariaren tamaina ikusita, eta gatazken jatorriari berari begiratuta, agerian gelditzen da, gaur egun, desioak izugarri zigortzen direla, eta ondorioz, ez direla premiak behar bezala asetzen... osasun-elkarteetan eta gizartean entzuten diren adieraz-pen eta bertsioek ere ideia hori berresten dute. Sexu-harreman eta ohituren ingu-ruan beldur, inhibizio eta erru asko dago. Ondorioz, askotan nahi gabeko harre-manak edukitzen dira, eta ondorioz, ez da harreman horiekin gozatzen... horre-lako harremanak nahi direnak erreprimitzea bezainbesteko frustrazioa sortzen dute.

Beraz, gure ustez, esparru sexualean eta esparru afektibo-sexualean, oraindik kon-traesan asko daude konpontzeke, eta beraz, oraindik arazo asko konpondu behar dira sexualitatearekin era betean gozatzeko.

*Tabu sexualak,
generoaren
ikuspuntuaren
arabera*

Gizakientzat, sexualitatea plazer-iturria da. Sexualitatea askatzailea eta osasungarria da. Sexualitateak sortzen duen ongizateak gogo-aldartea hobetzen du, poztu egiten gaitu, eta ondorioz, mundua beste modu batean ikusten dugu. Erabakiak hartzen laguntzen digu, baita modu askeagoan jokatzeko ere. Auto-estimua areagotzen digu... eta lehen ikusi dugun bezala, hain zuzen ere horregatik erabili dute gutxiengoek errepresio sexuala, gehiengoarengan boterea izateko. Izan ere, gutxiengo autoritarioek menpeko gehiengoak behar dituzte, eta ez dago frustrazio kronikoa baino mendetasun handiagorik. Eta horrez gain, frustrazioaren jatorria ikusten uzten ez duen tabu bat ere badago... hori gertatu da mendetan zehar. Sexualitatea, pentsamenduarekin, hitzekin edo egintzekin gauzatzen denean, bekatu lotsagarria da. Hau da, ez dira sexu-harremanak soilik debekatzen. Sexualitatean pentsatzea, harekin amestea edo hari buruz hitz egitea ere debekatuta dago. Beraz, tentsio sexuala askatu eta plazerik eduki ezin denez, blokeoa sortzen da, eta blokeoak frustrazioa sortzen du. Sexualitateari buruz hitz eta pentsatu ezin denez, ezin da horrelako eraso baten aurrean erantzun eraginkor bat antolatu eta eman.

Era horretan, tabuak errepresioa betierekotzen du, eta askapen-prozesuari ekiten zaionean, hura asko oztopatzen du... tabuak hor jarraitzen baitu, eta ez baitigu ikusten, entzuten, partekatzen uzten... hau da, ez digu gure bizitza sexuala berre-raikitzekeko prozesuan aurrera egiten uzten.

Hala ere, kontuan hartu behar dugu, gizadiaren historian zehar, eta batez ere, gure aroan, boterea gizonen esku bidegabeki egon dela. Ondorioz, sexualitate maskulinoarekiko amore-emate bat egon da. Izan ere, "maskulinitasunaren" eta

“feminitatearen” arketipoek, esparru horretan, ezaugarri ezberdinak dituzte. Maskulinitasuna sexuduna eta sexuala da, ase beharreko premiak ditu, eta horiek asetzeko senak ditu. Horretarako, emakumeekin kopulatu behar du (kopulatu soilik), hau da, zakila baginan sartu gabe, ezin baitu plazerik eduki. Feminitatea, berriz, sexugabea da. Ez du premiarik, senik edo desiorik, harremanak haurrak edukitzeko eta gizonaren premiak asetzek bakarrik “onartzen” ditu.

Feminitatearen eduki sexualaren arabera, emakumeek plazerik eduki ezin duela zehazten du; eta maskulinitasunarenak, berriz, gizona koitora mugatzen du. Izan ere, esparru sexuala da maskulinitasuna gizonarekin eta feminitatea emakumeekin identifikatzeko esparru errazena. Biak beren generoan preso egon arren, zalantzarik gabe, gizonak, falozentrismoak ezartzen dizkion mugak izan arren, askoz ere errazago lor dezake gogobetetze sexuala, eta estatus horrek ematen dizkion pribilegioez gozatu dezake. Era horretan, esaterako, bikote kanpoko harremanak, homosexualitatea eta masturbazioa, debekatuta eta zigortuta egon arren, zigortu eta debekatzeko gai horiei buruz hitz egin daitekeen heinean, “existitzen” dira. Emakumeetan, berriz, bikote kanpoko harremanak erabat iraunduta daude, masturbazioa ezetsi egiten da, eta desio homosexuala ere bai, desioa bera ezetsi egiten delako, eta desiorik ez badago, ez baitago plazerik.

Edonola ere, emakume eta gizonak jokabide sexualen aurrean dituzten itxaropenetan horrenbeste faktore daude, non, askotan, plazera eskuratzeko oztopo ugari jartzen dira.

Azken hamarkadetan aldaketak egon arren, gizonentzat estilo falozentriko tradizionala oso garrantzitsua da oraindik. Emakumea izaki sexuduna eta sexuala dela, desio sexuala duela, kitzikatu egiten dela eta orgasmoak dituela formalki onartu arren, gizonaren desioak asetzeko jokabideak nagusi dira emakumeen artean: orgasmoa koitoaren ondoren iristen da, eta emakumeak horretarako denbora gehiago behar duenez, koittoa emakumea orgasmora iritsi arte luzatzen da. Egoera horretan, maskulinitasuna koitoan oinarritutako harremaneko alderdi aktiboena da oraindik, eta gizona “egoerak eskatzen duen mailara” egotea espero da, hau da, emakumeari, harremaneko subjektu pasiboari (edo askotan objektuari) plazera ematea... beraz, berriz ere generoan oinarritutako zaintza-eredua

agertzen da: egozentrismo maskulinoa, "bere modura" emakumeari plazera ematen saiatzen da, gizonari plazera ematen dioten mekanismoak erabiliz. Helburu hori lortzen ez badu, gizona erabat frustratua sentitzen da. Horregatik, askotan, emakumeak, bere zaintza-ereduaren ondorioz, gizonaren harrotasuna asetu nahi du, eta itxurak egiten ditu.

Jokabide hori gizon maskulino eta heterosexualek izaten dituzten elkarrizketetan argi eta garbi ikusten da. Txisteak, *zakil handien nork duen, nork irauten duen gehiago, nork egiten duen gehiagotan* eta antzeko ideien inguruan egiten dira. Bikoteen harreman sexualei buruz, askotan txantxak egiten dira, bereziki harremanen maiztasuna justifikatzeko, batez ere oso maiz gertatzen ez badira. Horregatik, oso ohikoa da *niri noizean behin bakarrik egiten uzten dit, edo, ea gaur oheratzen garenean ez duen buruko minik* eta antzeko esaldiak entzutea. Baina inoiz ez dute harremanei buruz hitz egiten, ez txantxetan eta are gutxiago benetan. Baina bestea, gau bateko emakumea, harreman baten hasierako neskalaguna ebaluatu egiten dute... hari buruz hitz egin daitekeenean, noski; hau da, desleialtasuna ez bada, edo ondokoa laguna denean, harekin konfiantza handia dagoenean... "kopuruari" eta "kalitateari" buruz hitz egiten dute, askotan exajeratuz... *izugarria da... hiru aldiz gau batean... ezin dut gehiago... dardarka utzi dut...*

Bien bitartean, emakumeak *besteak* gogobetetzea nahi izaten du, askotan berak plazerik eduki ez arren. Gai horri buruz hitz egiteko, sexualitatearen inguruko bizipen subjektiboak kontatzeko eta sexualitateari buruz orokorrean hitz egiteko intimitate handia behar izaten du. Oraindik oso arraroa da lehen pertsonan hitz egitea masturbazioari buruz edo bikotekidearekin dituen harremanek sortzen dioten plazerari buruz, eta ez da horren arraroa noizbehinkako harremanei edo harreman-hasierei buruz lehen pertsonan hitz egitea. Hala ere, emakumeen arreterako dispositiboetan (plangintza-, orientazio-, informazio-zentroetan eta abar), oso ohiko da emakumeek bikotekideekin dituzten harremanak, bere sexualitateari eta gizonarenari buruzko adierazpenak entzutea, eta adierazpen horiek kasu horietan duten jokabidea oso argi uzten dute: *esaterako, niri ez zait axola, ez baitut behar, baina gustatuko litzaidake arazoa konpontzea, badakidalako berak*

gaizki pasatzen duela...., edo ez zait batere gustatzen harremanak izatea, eta horregatik berak orgasmoa izan bezain laster, nik itxurak egiten ditut lehen bai lehen amaitzeko... eta abar.

Hori guztia oso arrunta da oraindik. Egia da (eta kontuan hartu behar dugu), Espainiako estatuan, sexualitatearen esparruan, generoen egoera nahiko atzeratuta dagoela, Europako beste herrialdeekin konparatuz. Izan ere, II. Errepublikan aurrerakuntzak egiteko testuinguru legala eratu zen arren, faxisten estatu-kolpearen eta berrogei urteko diktaduraren ondorioz, egoera 1931koa baino askoz okerrago geratu zen. Gogora dezagun estatu berriak urak ohiko bidera itzultzeko aplikatu zuen hezkuntza- (errepresio-) tresna. Errepresioa emakumeek pairatu zuten batez ere, II. Errepublikak aldarrikatutako askatasunak eta emantzipazio erlatiboak bizi izan zituztenek. Esaterako, aipagarriak dira Errepublika garaiko ama ezkongabeek (benetan ezkongabeak ziren, edo demokrazia-garaian ezkontza zibila izan zuten) jasan zuten jazarpena, edo FALANGEKO SEKZIO FEMENINOAK emazte, ama eta alaba ona izateko emandako irizpideak. Hau da, emakume ona izateko irizpideak ziren haiek... eta "sekzio maskulinoan" antzeko irizpideak ematen ziren gizonak beren seme-alaben ama izango zena behar bezala aukeratzeko... horrez gain, elizetako pulpituetatik, betirako nahigabearekin lotutako era guztietako mehatxuak ematen ziren, eta ordena publikoa bermatzeko dispositiboak *pistolaren mehatxupear* funtzionatzen zuten. Beraz, ez da zaila, horrelako tresnekin, sei urtetan (lurralde batzuetan bederatzi urtetan) egindako aurrerapenak deuseztatzea, hemeretzi mendetako errepresioaren ondoren. Beraz, presio horren ondorioz, gizarteko alderdi aurrerakoenak, erbestean, kartzelan, edo erailak, ia desagertu egin ziren, edo hamarkadetan zehar izoztuta egon ziren, benetako aldaketaren zain. Europako gainontzeko herrialdetan, berriz, aldaketek aurrera jarraitu zuten.

1960ko iraultzak Espainian eraginak izan zituen arren, gizarteko atal txikietara bakarrik iritsi ziren, batez ere ikasleen sektorerara eta langile-klase kontzientziatuenara, eta garai berean erregimenaren aurkako erresistentzia politiko eta sozialean inplikaturakoak baino askoz ere sektore txikiagoa zen. Baina, argi dago, mugimendu horrek, batez ere erakunde feminista hasiberriek antolatutakoak, aldaketa-

prozesuari ekitea lortu zuela, askotan oso baldintza txarretan eta, gehienetan, sufrimendu pertsonal handiarekin. Adibide gisa, nire lagun Mercèk duela hiru urte, foro publiko batean egindako hausnarketa aipatuko dut. Mercè, ezkerreko erakunde klandestino bateko ekinkide ohia, feminismoarekin konprometitua izan da beti. Garai hartan hau esan zigun: *lagunok, urte hauetan gure bikotekideek engainatuta eduki gaituzte, iraultza soziala iraultza sexualik gabe egin zitekeela sinestarazi baitigute... eta gezurra zen!*, beste solaskide batek hau erantzun zion: *nik uste dut ez zela gezurra, arazoa iraultza sexuala txortan asko egitea dela sinestarazi digutela da, eta ez zen hori, ongi txortan egitea baizik... eta ez genekien hori zer zen ere!*. Zalantzarik gabe, gai horren inguruan eztabaida bat ireki daiteke, eta badakigu, gai horri buruz eztabaidatuz, asko ikasiko genukeela. Laburbilduz, geurea eta antzeko kulturetan egungo egoera nolabait azaltzeko, aipatu behar dugu, sexualitatean orokorrean, eta bereziki sexu-harremanetan aspaldiko genero-ezberdintasunak eta tabuak nabariak direla oraindik. Beraz, maskulinitasunak, feminitateak, gizonak, emakumeak, oztopo handi bat daukagu oraindik, eta haren ondorioz ezin dugu sexualitateaz erabat gozatu, eta hori dela-eta, askotan osasun fisiko, psikiko eta sozialaren alderdi batzuk arriskuan jartzen ditugu.

7.

*Sexualitatearen
gozamena desio sexuala
gogobetetzearekin lotuta
egon beharke litzateke...*

Psikologia humanistaren arabera, bereziki Maslowek giza premiei buruz emandako teoriari buruz dagoen adostasuna oinarritzat hartuz, sexu-premiak pertsonen oinarrizko premiak dira, eta oinarrizko premiak asetzen diren heinean, pertsonak

desio "altuago" edo konplexuagoak garatzen ditugu. Sexu-premiak ez asetzeak, desio "altuagoak" baldintzatzen ditu.

Hala ere, kontuan hartu behar dugu, gizakien premia sexualak ez direla fisiologikoak soilik (Marlowen arabera, oinarrizko premiak horrelakoak dira soilik), afektiboak ere badira. Ildo horretan, piramideko "premia altuagoak" ere desio sexualean ere ager daitezke, hein batean behintzat... eta agian hor aurkituko ditugu sexualitate osasungarria zehazteko gakoak, baita hara iristeko bidea ere.

Lehenik eta behin, aipatu behar dugu, orokorrean onartzen dela gizakion premia sexualen helburua ez dela ugalketa, ezta helburu bakarra edo nagusia ere. Sexuaren helburu nagusia plazera da. Izan ere, pertsonen bilakaeran, haurtzaroran, premia sexualak era batean edo bestean adierazten dira, besteak beste xurgatuz, uzkia uzkertuz eta erlaxatuz eta abar. Haurren ohitura sexual horiek ez daude inola ere antolatuta, senaren arabera egiten dira, ez dira desioaren bitartez kontzientera proiektatzen, ez da helduen munduan bezala bizi; baina hala ere, beharrezkoa eta atsegina da, premia agertu eta hura asetzen den heinean. Pubertaroan, pertsonak fisikoki erabat garatzen direnean, eta aparatatu kognitiboren gaitasun guztiak garatzen direnean, sexualitatea heldutasunera iristen da, eta erabat irekitzen da.

Edonola ere, sena eta desio sexuala ez dira obulazioan hormona jakin batzuk agertu edo areagotzen direlako pizten. Horretarako, beste estimulu batzuk behar dira, era askotakoak, bai kanpokoak (ikusmenarekin, usaimenarekin, dastamenarekin, ukimenarekin zerikusia dutenak) bai barnekoak ere (fantasiak, irudi oroitarazleak eta abar).

Desio sexuala pizten denean, pertsona jakin batengana zuzendu daiteke, edo aurrerago pertsona horrekin identifikatu daiteke. Edonola ere, desio horrek sexua praktikatzera garamatza, bai beste pertsona batekin edo geurekin. Bi kasuetan, sexua praktikatzean gorputzeko atal jakin batzuk laztanduz, xurgatuz, masajea emanez... estimulatu dira, maila horretan oso sentiberak baitira (atal erogenoak); hau da, kontaktu fisikoaren bitartez, eta horrekin batera, fantasia autoebokatuak edo partekatuak egoten dira. Horren ondorioz, tentsio oso atsegina piltzen doa (kitzikapena), eta bat-batean askatu egiten da, behin, edo hainbat aldi-

tan (orgasmoa). Hori da sexu-harremanean plazer gehieneko momentua. Plazer sexuala sortzen duen estimulazioa egokia da bai pertsona bakar batentzat (masturbazioa) edo beste batentzat ala batzuentzat. Edozein kasu izanda ere, plazera sentitzeaz gain, gure atal erogenoak eta beste pertsonarenak ezagutzen laguntzen digu, eta (ia beti) beste pertsonarekin era askotako jario emozionalak bizi eta partekatzen dira. Hori ere oso sentsazio atsegina da, desio sexualarekin nahasten da, eta bukaeran, oso zaila da bi sentsazio- edo desio-motak bereiztea. Beraz, pertsona bakoitzak sexua praktikatzeko motibazioa osatzen du, horren bidez, subjektiboki gutxienez bi premia mota asetzen ditugula iruditzen zaigulako: premia sexualak, eta premia emozional batzuk.

Hala ere, sexua ez da beti eskema horren arabera praktikatzen; lortu nahi dugun helburua ezin baita beti sexuaren bidez lortu. Hau da, batzuetan sexua erabiltzen dugu desio ez-sexualak asetzeko (gehienetan desio afektiboak) edo desio asko asetzeko, horien artean, sexuala. Baina, horrelakoetan, nahiko ohikoa da, gogobetetze sexuala, afektiboa edo biak zapuztea, gehienetan prozesu hori ez baita kontzientea izaten. Ondorioz, asegabetasun handia sortzen da, eta zaila izaten da konpontzen.

8.

*Beste premiak
sexuaren bidez
asetzea, generoaren
ikuspegiaren arabera...*

Hausnarketa honetan aipatu dugun bezala, usadioz, sexualitatea tabuz eta ostrazismoz beteta egon da, eta hein batean behintzat arau, beto, baimen eta genero-arketipoetako protokolo-elementuek arautu dute. Beraz, sexualitate maskulinoaren ezaugarriak ez dira sexualitate femeninoarenak bezalakoak. Ezberdintasunak era

askotakoak dira, besteak beste desioaren aktibazioa, bukaerako gogobetetzea, kitzikapen-estiloa, eta horren bidez egiten den elkartrukea.

Sexuari lotutako topiko arruntenetako bat da gizonak sexua bakarrik eskatzen dutela, eta emakumeek, berriz maitasuna edo estimua eskatzen dugula soilik (edo batez ere)... eta ideia hori islatzen duten esapideek, sexualitate femeninoa onartu eta aintzat hartu baino lehenagokoek, ideologia konplexu bat gordetzen dute, eta komenigarria da hori berraztertzea.

Lehenik eta behin, maskulinitasunak, sexudunak, sexualak, falozentrikoak, koitoaren bidez tentsioa askatu eta horrekin plazera eskuratzeaz gain, desio sexual femeninoa ere ase behar du. Horrek esan nahi du, gizonak harremana bideratu behar duela, eta bera izan behar dela aktibo eta adituena. Gizonak helburu hori lortzen badu, arrakasta izan duela pentsatuko du, eta helburu horretatik pixka bat desbideratuz gero, porrot egin duela sentituko du... eta hori emakumeak ebaluatzen du. Era horretan, ebaluazioa bikainetik gertuago dagoen heinean, gizonak bere buruari buruzko itxaropenak gehiago bete dituela pentsatuko du, maskulinoagoa sentituko da, eta beraz, benetako auto-irudiaren eta "ni idealaren" arteko kongruentzia handiagoa izango denez, gizonaren auto-estimua areagotu egingo da. Ebaluazioa negatiboagoa bada, berriz, askoz ere frustratuagoa sentituko da. Gizona ez da horren maskulino sentituko, "ni idealaren" eredutik urrun dagoela pentsatuko du, eta auto-estimua gutxiago izango du... kontuan hartzen badugu, hain zuzen ere auto-estimua dela aparatua emozionalaren motorra, argi eta garbi ikusiko dugu sexualitate maskulinoaren helburuetako bat gogobetetze afektiboa ere badela, eta elementu hori funtsezkoa dela harremanean.

Bestalde, feminitatea, sexudun eta sexual bihurtu da. Hala ere, sexualitate horrek pairamentsua izaten jarraitzen du, eta helburu nagusietako bat gizonaren desioak bereak baino lehen gogobetetzea da... horrek esan nahi du "egoerak eskatzen duen mailan egotea", gizonak eskatzen duen paper pasibo eta trebatu gabekoa jokatzea dela (gutxienez, ez gizona bezain aditua izan), eta ahalik eta plazer gehien sentitzea, gizonak plazer hori ematen duela pentsa dezan. Hori lortuz gero, emakumea onartua eta baloratua sentitzen da, feminitateari buruzko itxaropenak bete dituela pentsatuko du, eta ondorioz, bere burua gehiago maiteko du.

Edonola ere, jokabide sexual arduratsuagoa, samurragoa, sentiberagoa edo konprometituagoa eskatzen badiote, huts egiteko arriskua du... eta ondorioz, baztertua izateko.

Beraz, sexuaren bidez premia-mota ezberdinak asetzen dira, baina gehienak beste pertsonarengan sor ditzakeen inpresioek baldintzatuta daude.

Bestalde, adierazi gabeko eskari-labirintoak, gizonak inplizituki eta emakumeek intuizioaren arabera asetakoak, oso zailak dira negoziatzen, tabuak oraindik oztopo handia baitira, eta gai horiei buruz hitz egitea zaila baita. Egoera horretan, pertsonak sexu-harremanei "aurre egin behar" diegunean, tentsio handia izaten dugu... batzuetan, tentsio horren ondorioz, berezotasun- eta naturalitate-gabezia edukitzen dugu, eta orduan, huts egiteko arriskua oso handia da. Sexualki huts egiteaz ari gara, harremanak lasaitasunez hartuz gero, oso atseginak izan baitaitezke, eta afektiboki ere huts egiten dugu, gure emozio guztiak gure gaitasunak baliozkotzean jarri baititugu jokoan... eta porrot egin dugu.

Laburbilduz, kontuan hartu behar dugu "desio sexualaren" barne, premia afektiboek ere beren garrantzia dutela, eta hori beti eduki behar da kontuan, batzuetan premia horiek premia sexualak baino handiagoa baitira... eta kasu horietan, ez dira plazera eta gogobetetzea bakarrik jokoan jartzen, baizik eta bikoteak sexu-harremanetan ondorioz ez-desiragarri guztiak edukitzeko arriskua ere badu.

9.

Jokabide arriskutsuak, generoaren ikuspegiaren arabera

Gaur egungo osasun-sistema publikoetako kezka nagusia giza jokabideen ondorioen prebentzioa da. Sexuari dagokionez, kezka hori areagotu egin da GIB-IHESAren transmisio-bide eta mekanismoak ezagutu direnetik. Eta are gehiago,

kontuan hartzen badugu, 1990eko hamarkadan birusaren transmisio heterosexuala dezente areagotu dela, duela bi urtetik hona infekzioa gutxitu den arren. Izan ere, sexua babesik gabe praktikatzeak, askotan ondorio kaltegarriak dakartzatza. 1970eko hamarkadatik aurrera, osasun-sistemaren kezka nagusia nahi gabeko haurduntzak ekiditea zen, bereziki nerabeen artean. Infekzioen transmisioa bigarren mailan zegoen, kasu larrienak kolektibo "marjinaletan" gertatzen baitziren, nahiz eta hori guztiz egia ez izan.

1980ko hamarkada bukaeran, baina batez ere 1990eko hamarkadan zehar, IHESA aurkitu zenean, GIB birusa isolatu zenean, eta transmisio-bideak identifikatu zirenean, kezka soziala areagotzen joan zen, eta osasunaren sustapenaren plangintza egiterakoan, infekzioen prebentzioari eman zitzaion lehentasuna. Lehentasun horri esker, sexu-transmisioko gaixotasunekiko babesari berriz ere garrantzia handia eman zitzaion (hemendik aurrera, STG)... horren ondorioz, babes-tresna seguru bakarra preserbatiboa zela zehaztu zen, bai gizonentzako bertsio klasikoan baita emakumeentzako bertsio modernoagoan ere. Babesteko modu seguru bakarra da, arrisku guztiak saihesten dituelako, baita haurdunaldia ere.

Beraz, informazio-kanpainak asko areagotu ziren, mezu hori gizarte osoari helarazteko... horrez gain, preserbatibo-mota berriak ere merkaturatu ziren: koloreta-koak, tamaina eta lodiera ezberdinetakoak (uzkiko sexu-harremanak hobeto babesteko), zaporetakoak... erakundeetan banatu ziren, gazteentzako ikastaro eta informazio-zentroetan oparitu ziren... baina bien bitartean, infekzioak hedatzen jarraitzen zuen.

1990eko hamarkada hasieran, sexu-harreman babesdunak sustatzeko beste metodo batzuk beharrezkoak zirela ikusi zen, informazioa soilik ez baitzen nahikoa. Horretarako, lehenbizi arazo larri bat konpondu behar zen: jendeak, eta bereziki, gazteek, zergatik praktikatzen dute babesik gabeko sexua, hori egitean dauken arriskuak ezagutu arren?...

Garai hartan, gure kasuistikatik, gazteek, "praktika arriskutsuetan" (2) kondoirik ez erabiltzeko ematen zituzten "arrazoi" batzuk jaso genituen, era guztietako

arrazoiak aurkitu genituen, baina neskenak eta mutilenak ezberdinak ziren. Esaterako, nesken artean horrelako arrazoiak ziren arruntenak: *momentuan, kondo bat eskura ez izateagatik, estua naizela pentsatuko du...*, *...ez dut kondoirik eramaten, "erraza" naizela pentsatuko duelako...*, *...edo berak baina eskarmentu handiagoa dudala...*, *... denekin nabilela pentsatuko du...* Mutilek, berriz, arrazoi hauek adierazten zituzten: *kondoia badaramat, sexu bila bakarrik nabilela pentsatuko du...*, *berarekin horretarako bakarrik nabilela pentsatuko du...*, *...eta kondoirik badaraman galdetzen badiot, esango dit, baina zuk zer uste duzu?...*, *...ez zaitu gustatzen, nahiago dut ezer gabe...*

Horrelako esaldiak aztertuz gero, ondorioztatu dezakegu, lehenik eta behin, sexu-jarduera generoak baldintzatzen duela, eta neskak nahiz mutilek, asmo eta praktiketan rol-ezaugarriak adierazten dituztela. Bestalde, sexualitateak tabu asko izaten jarraitzen du, eta ondorioz, desioak adieraztea eta hautabideak negoziatzea oso zaila da. Edonola ere, badirudi segurtasun-faltak eta kideak bera arbuizatze-ari buruzko beldurrak garrantzia handia dutela sexu-harremanetan edo harreman afektibo-sexualetan. Gainera, koittoa da plazera eskuratzeko modu bakarra, eta ideia hori bi alderdiek onartzen dute.

Esaldi horiei guztiei esker, ikus dezakegu, errealitatean, sexualitateak aparatua afektibo guztia mobilizatzen duela. Egia esan, ondorioekiko beldurra hor dago, baina askoz ere handiagoa da *bestearen* itxaropenak ez asetzea, horrek arbuioa eta desamodioa sortzen baititu, eta beldur hori onartezina da... *bestearen* itxaropenak bakoitzari buruz ditugun itxaropenen proiektzioak dira, batez ere generoaren ikuspuntuaren arabera eraturakoak.

Beraz, ondorio horiekiko beldurrari aurre egiteko, defentsa-mekanismoak erabiltzen dira, eta horri esker, *sexua "arazo handirik gabe" praktikatzen da (niri ez zait ezer gertatuko... behin bakarrik eginda, ez da ezer gertatzen... pertsona eza-*

(2) Ferreiro, L. eta Díaz, Ch.: "Osasun-hezkuntza", *Hezkidetza, zehar lerroen zerharkakoa?*. Gasteiz. Emakunde (Emakumearen Euskal Erakundea), 1996. (47-78 orr)

guna da, eta berarekin fidatu naiteke... zalantzarik badut, hurrengo eguneko pilula hartzera joango naiz...).

Hala ere, ondorio negatiboa gertatzen denean (STG edo haurdunaldia)... nork dauka erantzukizuna? Orokorrean, erantzukizuna inork ez du bere gain hartzen, erru bihurtzen baita, eta errua maskulinoan edo femeninoan kudeatzen baita. Errua irentsi edo beste pertsonarengan proiektatzen da (*nire errua da, merezidut... beregatik egin nuen... haurdun gelditzeko arriskua zegoela esan behar zidan... edo gaixotasun hori zuela...*). Erruak frustrazio eta ondoez handia sortzen ditu, baina ez du bermatzen etorkizunean babes-neurriak hartuko direnik, ez baita erantzukizunik hartu behar. Are gehiago esango nuke, kasu bakoitzean dagokion penitentzia egin eta barkamena eskuratu ondoren, aurreko egoera berdinerantz itzultzeko arriskua dago.

Benetan, badirudi esparru horretako presio-maila ia onartezina dela, eta era horretan, sexu-harremanen helburua plazera, gogobetetzea eta ongizatea izan arren, azkenean ezinegona eta errua sor ditzakeela, sexu-harremanak guztiz alderantzizko esperientzia bihurtuz. Orokorrean, sexu-harremanak aparatu afektibo guztia ebaluatzeko azterketa bihurtzen dira, eta bertan bikain atera behar da... presio hori nahikoa izan daiteke harreman horrek porrot egiteko. Horrela, batzuetan, bi ondorio negatibo sortzen dira: haurdunaldia, gaixotasuna edo frustrazioa desio sexuala, eta baita afektiboa, hura ez asetzeagatik.

10.

Ipuinaren amaiera...

eta amaiera

zoriontsuaren ipuina...

Scheherezadek Shahrar erregearen emazte izateko bere buruz aurkeztu zuenean, bazekien aurreko emazteei ezkontza-gaia bertan gertatu zitzaizena. Izan ere, erregeak, lehen emaztea desleial izan zelako erabat frustratua zegoenez,

ezkontza ospatu eta biharamunean emaztea hiltzea agintzen zuen. Zalantzarik gabe, basakeria hori amaitzeko aurkeztu zen Scherezade, bere estrategiak ondorio onak izango zituela baitzekien. Erregeari ipuin bat kontatzen zion gauero, bata bestearekin kontu handiz lotzen zuen, era horretan erregeak egun batetik bestera jakin-mina izan zezan. Horri esker, bera eta beste emakumeak ez hiltzea lortzen zuen, eta agian, erregea seduzitzeko aukera ere izango zuen... berriz ere, ekintza bakar batekin, hau da ipuin bat kontatzearekin, desio asko ase nahi zituen... eta heriotzaren mehatxupean, gainera. Agian, Scheherezadek bazekien ipuinak kontatzeko gaitasun handia zuela, horrek Shahriar txundituko zuela, eta hura seduzitzeko ere ahalmena zuela... bere gaitasunekin fidatzen zenez, presio eta mehatxupean egon arren, estrategia disimulatzeko gai zen... eta agian, Shahriar gizon sentibera zen, lehen emazteak umiliatu ondoren, mendeku-nahiek itsutua zegoena... eta agian, Scheherezadek bi gauza horiek zekizkien (edo susmatzen zituen)... bestela, nola ekin ziezaiokeen bere planari, porrot eginez gero hil egingo zutela baitzekien?... Baina MILA GAU ETA BAT GEHIAGO ekialdeko kultura zahar bateko ipuina da...

Gure kulturaren, ipuinak ez dira horrela bukatzen... printzesek eta emakume plebeioek ezin dute horrelako ekintzarik egin laguntzarik gabe... beti dago maitagarri bat, edo sorgin bat behintzat, hori bai, sorgin zintzo bat, neska egoera penagarritik ateratzeko, arropa zarpailak soineko eder eta espartinak kristalezko zapata bihurtzeko, printze eder bat lehen begiradan seduzitzeko... eta gero, amodioa betikotzeko, nahikoa da bihotz ona izatea... femeninoa, noski. Baina haurraren edo neskaren bizitza arriskuan dagoenean, printze ausart batek, edo gutxienez bihotz oneko egurgile batek edo bere bizia damarengatik arriskuan jartzeko prest dagoen basailu batek... printzesa erreskatatzen du. Bien bitartean, hura lotan, negarrez edo kezkatuta dago, arazoaren konponbidearen zain... Mari Errauskin gai izango ote zen printzea maitagarriaren laguntzarik gabe seduzitzeko? Edurne Zuri, Loti Ederra edo Txano Gorritxo heriotza seguru batetik ateratzeko gai izango ote ziren, baldin eta momentu egokian egurgilea, printzea edo ehiztaria agertu izan ez balira?... agian bai, Scheherezade ere gai izan zen, baina ipuin horien idazleek ez ziguten hori azaldu... izan ere, gure munduan,

emakume eder eta bihotz onekoek bakarrik dute arrakasta, maitagarriak dituzte, eta azkenean, printzeek haiekin maiteminduta amaitzen dute... gainontzeko emakumeek zorigaitzeko patu nekagarria dute soilik... Bihotz oneko emakumeak paimentsuak, otzanak eta pasiboak baitira, eta ondorioz, ederrak ere bai... gizonak, berriz, ausartak eta borrokalari oldarkorrek dira, emakumeak zorigaitzetik eta emakume maltzurren hatzaparretatik ateratzeko... azkenean emakume on horiekin maitemintzeko eta betirako (aberats) eta zoriontsu izateko, baina ez da azaltzen zoriontasun hori zer den. *Zoriontasun hori Victoriak, ipuinetan sinesten zuen printzesak* (3), bakarri ezagutu zuen. Horregatik, bere begiekin ikusi zuen, printze urdinaren ondoan zoriontasuna bilatzeak... baina ipuin hori modernoa da, feminista batek kontatua... eta ziur asko, ipuin klasiko eta erreferente bihurtzeko denbora asko igaro beharko da.

Zalantzarik gabe, emakume guztiok nahi dugu bukaera zoriontsua... eta horrenbeste desiratzen dugu bukaera hori, azkenean horretarako prozesu mingarri eta zail bat bizi dugula, menpekotasun eta ukamen askorekin. Askotan ez gara kontratzen bizitza bera prozesu bat dela, prozesu horren amaiera heriotza dela, eta ondorioz, prozesu hori, bukaera txikiz betea dagoena, ahalik eta zoriontsuena izaten saiatu behar dugula... eta horretarako, emakume guztiok parte hartu behar dugu.

11.

Osasuna sustatzeko,

(3) Grad, M.: *La princesa que creía en los cuentos de hadas*. Madril, Obelisco, 2002

*lehendabizi gizaki
guztien gogobetetzea
eta ongizatea lortu
behar dira...*

Gaur egun, onartuta dago (teorian behintzat), osasuna ongizate osoa dela (fisikoa, psikikoa eta soziala) (4) , prozesu horrek bizitza guztian jarraitzen duela, eta pertsonen arteko hartu-emanetan eta horiek ingurunearekin duten harremanean oinarritzen dela. Beraz, gobernuen helburuetako bat herritarren osasun-maila hobetzea izan beharko litzateke (5). Azkenik, 1986an, OMEk osasunaren sustapena zehaztasun handiagoz definitu zuen (6): **Osasuna sustatzea herritarrak beren osasunaren kontrola areagotu eta hobetzeko gaitze-prozesua da. Erabateko ongizate fisiko, mentala eta soziala lortzeko, pertsona edo talde bat bere **anbizioak identifikatu eta egiteko gai izan behar da, premiak asetzeko, giroz aldatzeko eta ingurunera egokitzeko gai izan behar da.** Osasuna sustatzeko bost jarduketa-ildo daude: osasun-politikak garatzea, ingurumen onuragarriekin osasuna sustatzen duten inguruneak sortzea, erkidego-ekintza indartzea, trebetasun personalak garatzea eta osasun-zerbitzuak birbideratzea.**

Beraz, badirudi, ezinbestekoa dela gobernuak gaitzeko tresna guztiak martxan jartzea, eta gaitasun hori baldintzatzen duten faktore guztiak kontuan hartzea. Hori guztia dakigula, ondorioztatu dezakegu, **osasuna sustatzeko**

(4) OMEren (1946) ERAKETAKO KARTA MAGNAN, OSASUN-KONTZEPTU gisa hau eman zuen: "erabateko ongizate fisiko, mental eta soziala, ez gaixotasunik ez izatea soilik".

(5) 1978an, OMEk, Alma-Atako batzarrean, proposatu zuen "osasuna sustatzea gobernu guztiek landu beharreko funtsezko gai bat da".

(6) OME (1986). Osasunaren Sustapenari Buruzko I. Nazioarteko Batzarra (Ottawa-Kanada).

esku-hartzea SAKONA, ERABATEKOA eta PROZESUALA izan behar dela. Sakona, osasuna osatzen duten elementuak sakonak baitira, asko bakarkako inkontzientean eta inkontziente kolektiboan kokatuta baitaude. Integrala, elementu batzuei bakarrik ekitea ez baita nahikoa, eta gainera, zapuzgarria ere izango bailitzekete: auto-estimua ezin da sustatu, baldin eta ez badira gure burua eta gainontzekoak gehiago onartu eta baloratzeko baliabideak (bakarkakoak eta taldekoak) eskaintzen ez badira; ezin dira baliabide horiek eratu, baldin eta, gaizki egokituta egon arren, ez badiegu orain arte erabiltzen direnen motibazioa galarazten; eta ezin dugu autonomia pertsonala areagotu (eta ondorioz, baita erantzukizuna ere), baldin eta beldurra gutxitzeko baliabiderik ez badugu edota momentu oro hartzen ditugun erabakiak ikertu eta neurtzeko baliabiderik ezartzen ez badugu. Prozesuala, bizitza prozesu bat delako, eta ongizatea eta gogobetetzea bizitzaren barne baitaude, baita bertan topatzen ditugun egoera eta oztopoetan ere.

Baina ezin dugu ahaztu, horrelako sistema bat martxan jartzeko ere, ezinbestekoa dela esku-hartzea sustatzeko testuingurua ezartzea. Horretarako gutxieneko baldintza objektiboak betetzen ez badira, ezin da hobekuntza-sistema subjektibo bat bermatu... eta gure galdera da: gutxieneko baldintza horiek betetzen al dira?... Aberastasuna ez da modu orekatuan banatzen, eta ondorioz, herrialde "aberatsak" eta "behartsuak" daude munduan. Ezberdintasun hori horma igarozina da "Hirugarren Munduko" herritarrentzat. Herritar horiek izugarritzko eskasian bizi dira, eta ia ezin dituzte oinarritzko premiak asetu. Ondorioz, ia joko kanpo geratzen dira. Baina ezberdintasunaren ondorioak herrialde "aberatsetan" ere agerian geratzen dira, bertan jende behartsu asko baitago.

Horren ondorioz, egoera erabat mingarria da. Munduko populazioaren gehien-goak gosea pasatzen du, ez du ez etxebizitza duinik, ur-korronterik, hondakinak husteko sistematik, ezta osasun-sistematik ere, ez da eskolara joaten, eta baldintza penagarritan egiten du lan... eta pertsona behartsu gehienak emakumeak dira... egoera horretan, erabateko ongizate fisiko, psikiko eta sozial lortzea posible al da? posible al da, kontzeptu horri edukia ematea?, ongizatearen eduki subjektiboa zehaztea posible al da, hori lortzeko gutxiengo baldintzarik eduki

gabe?... badirudi ezinezkoa dela. Beraz, lehenik eta behin aipatu behar dugu, osasuna sustatzeko, lehenbizi bizi-baldintzak hobetu behar direla: baldintza ekonomikoak, etxebizitzari, hezkuntzari eta azpiegiturei buruzkoak, eta beste eta abar luze bat. Hitz batean, paradigma berriak gobernuen ekintza guztiak urduri jartzen ditu, eta horren ondorioz, ez da erraza egoera horrek gobernuaren gaintzeko interesekin bat egitea.

Egoera horrelakoa dela ikusita, nire lagun Maria Jose Urruzola gogorarazi nahi dut. Duela bi urte hil zen, eta harekin ikasi nuen, emakumeek gobernatutako munduak aldaketa-potentzial handia izango lukeela. Izan ere, emakumeek, gizateriaren arazo nagusien aurrean, mundua askoz ere modu berdina goan, zuzenagoan eta sentiberagoan gobernatuko lukete. Hemendik, bere bizitzan egindako hausnarketak, ekarpenak eta borroka eskertu nahi dizkiot beste behin...

Gure borroka gizakien eskubide globalen aldekoa da, eta guretzat, osasuna sustatzeko proposamenak gauzatzea borroka horren barne dago... proposamen horietako bat esku-hartze estrategia orokorra da. Horretarako, nik parte hartzen dudana taldean, LÚA CRECENTEN, urtean daramazkigu praxiari buruzko hausnarketak, analisiak eta ebaluazioak egiten; eta hori baino lehen, Asociación Galega de Planeamento Familiar e Educación Sexual (AGASEX) elkarteko ikerketa- eta irakaskuntza-foroan.

12.

*Esparru
afektibo-sexualean,*

*osasuna sustatzeko
esku-hartzea konplexua
izan behar da, egoera
konplexua delako...*

Gai hori oso konplexua da. Ondorioz, badirudi osasun afektibo-sexualean ezin-go dela osasuna sustatu, baldin eta ez bada esparru horri eragiten dioten aspektu guztietan esku-hartzen, betiere generoaren ikuspuntuaren arabera hausnartutakoak. Are gehiago esango nuke, sexualitatean, afektibitatean eta generoan eragiten duten jokabideak aztertu gabe, badirudi ez direla STGen eta nahi gabeko haurduntzen oinarritzko prebentzio-helburuak lortuko.

Beraz, funtsezkoa da hezkuntza afektibo eta emozionalerako eta hezkuntza sexualerako programak diseinatzea, programa horien aplikazioa kolektibo bakoitzaren premien arabera egokitzea, eta programa horiek ahalik eta jende gazteenean aplikatzea.

13.

*Jokabideak eta
motibazioak baldintza*

*osasungarrien arabera
eraitki (edo berreraiki)
daitezke...*

Pertsonen jokabide-sistema gure ongizatearen (edo ondoezaren), gogobetearen nahiz zorientasunaren (edo asegabetasun nahiz zoritxarraren) sustatzailea dela kontuan hartuta, logikoa da osasuna sustatzeko esku-hartzean bertan erdiratzea. Aurreko hausnarketetan ikusi ahal izan dugun bezala, jarreraren aspektu nabariena aztertuz; hau da, jokabidea aztertuz, haren funtzionamenduaren gakoak zehaztu ditzakegula, eta jokaeren gainontzeko elementu kognitiboa eta afektiboak aztertuz... joeren egitura eta kontrol-azpizistemak kontrolatu ditzakegula. Ondorioz, aipatutako aldaketa-estrategiak testuinguru horretan kokatu behar ditugu, gure kasuan, **hezkidetzak afektibo-emozional eta sexualean**.

Beraz, esku-hartzearen estrategia orokorra jokabide- eta motibazio-jokabideetako elementuetan eragina izan dezaketen ekintzen diseinuan oinarritzen da. Horri esker, esku-hartze estrategia giza garapenaren eskema naturalera egokituko da, eta lehen ikusi dugun bezala, eskema hori esparru afektibo-emozional, sexual eta kognitiboaren nahiz jokabidearen esparruaren arteko elkarreaginaren emaitza da...

Azkenik, kontuan hartu behar dugu, horrelako estrategia bat martxan jartzen denean, plan hori adin, garapen-maila eta bizitza-esperientzia ezberdineko jendearentzat dela, eta ondorioz, egokitzapen eta osasun-kalitate ezberdina izango dutela. Horregatik, esku-hartze prozesuen helburua jokabide-sistema osasungarriak osatzea izan behar da, baita gabezia edo hutsune asko dituzten jokabide-sistemak berreraikitzea ere.

estrategiaren lau esparruak...

Osasuna sustatzeko esku-hartzearen gure proposamena zehazteko, aurreko ataletan hausnartutako premiak laburtuko ditugu, horiek baitira lau aldibereko ekin-tza-ildoen premia justifikatzen dutenak.

- a. Txiki-txikitatik ikasitako beto eta debekuetan oinarritutako bizi-esperientziak daude, eta horien ondorioz, beste kontrol-sistemak agertzen dira. Sistema horiek ERRUAN, LARRITASUNEAN eta BELDURRETAN oinarritutako esparru afektibo-emozionala baldintzatzen dute. Horrez gain, kontrol-sistema horiek antolatze behar diren desamodio-mezuen kopurua dela-eta, bizi-esperientzietan PREMIA AFEKTIBOAK EZ ASETZEA ekartzen du, eta ondorioz, pertsonak ez dira batere zoriontsu sentitzen. Horren ondorioz, AUTO-ESTIMUA lor-tzea askoz ere zailagoa da, eta aparatu emozionalean SAMINA, AMORRUA, NAHIGABEA eta TRISTURA nagusitzen dira.
- b. Testuinguru horretan, pertsonak bere burua babestu behar du, eta horretarako defentsa-mekanismoak ezartzen ditu, premiak erreprimituz. Ondorioz, DES-IOAK BETEBEHARREKIN nahasten dira, MOTIBAZIOAK ez dira ERDIESPE-NEN ARABERAKOAK, eta gero eta asegabetasun gehiago sortzen da... desio edo nahi batzuk identifikatu arren, BELDURRAK (batez ere gainontzekoen arbuioari buruzkoak), aukera-ASKATASUNA oztopatu edo galarazten du, eta ondorioz, ondorioak kontuan hartu gabe erabakitzen dira jokabideak... hori dela-eta, jokabide ARDURAGABEAK sortzen dira, pertsoneri eta haien inguru-koei kalte handia sortuz.
- c. Aldi berean, motibazio desdoituen ondorioz, premiak hein batean bakarrik asetzen dira, baina asegabetasuna erabatekoa ez denez, jokabideek bere horretan jarraitzen dute, eta batez ere, ez dira beste jokabide hobeak auke-ratzeko baliabiderik egoten... gehienetan, jokabide horien bidez, inguruko pertsonen arreta bilatzen da, era horretan MANIPULAZIOAN oinarritutako harremanak ezarriz. Horrelako harremanak ez dira batere atseginak implika-

tutako alderdientzat... eta gizonek, gainera, askoz ere modu oldarkorragoan ematen dute atentzioa.

- d. Bestalde, frustrazioaren aurrean erantzun oldarkorrak izatea askoz ere hobeto onartzen da gizonetan emakumeetan baino. Genero-ikuspuntuaren arabera, erreakzio horien bidez, giza harremanak egozentrismo-pairamen eta autoritarismo-mendetasuna bikotean oinarritzen dira, ezberdintasuna, desoreka, menderapen- eta indarkeria-egoerak sortuz; eta egoera horiek bi alderdientzat erabat kaltegarriak dira.
- e. Azkenik, frustrazioa hezigarria da, muga pertsonalak eta gainontzekoekiko errespetua eraikitzen (edo berreraikitzen) laguntzen duelako. Ondorioz, sozializazio-prozesuaren funtsa da. Horregatik, frustrazioa beste era batean ulertu behar dugu, pertsonen garapena oztopatu gabe, desamodio-mezurik sortu gabe eta indarkeria pilatu gabe.

Premisa horiek guztiak kontuan hartuta, ESTRATEGIA LAUKOITZA sortu eta antolatu dugu:

1. Esparru afektiboa eraikitzen (edo berreraikitzen) laguntzea:

AUTO-ESTIMUAREN testuingurua, pertsona bakoitzak bere buruarekiko duten funtsezko lotura gisa oinarritzat hartuta, eta ondorioz, gainontzeko jokabide eta motibazioetarako ere oinarri bera hartuta, esparru afektiboa eraiki (edo berreraikitzea) da helburua. Horretarako, esku-hartzeak pertsona bakoitzarekiko errespetua eta aintzatespena bermatu behar ditu, era horretan soilik ikasiko baitu pertsonak bere burua maitatzen, baloratzen eta errespetatzen.

Beste elementu garrantzitsu bat beldurra deuseztatu edo gutxitzea da, batez ere gainontzekoen estimua galtzearen BELDURRA eta horrek sortzen duen ERRUA. Hori guztia auto-estimari oso lotuta dago. Izan ere, pertsona batek bere burua gehiago maitatu eta baloratzen duen heinean, pertsona horrek gainontzekoek gehiago maite eta onartzen dutela sentituko du.

Bestalde, desioak, sentimenduak eta emozioak adieraztea bultzatzeak sexualitateari eta afektibotasunari buruzko tabuak desagerrarazten laguntzen du, eta

harremanen kalitatea baldintzatzen duten azpiulertu eta zentzugabekeriak konpontzen laguntzen du.

Bestalde, beldurrak gutxitzean, ASKATASUN handiagoz egin ditzakegu aukerak, eta ondorioz, desioak identifikatu eta asetzeko presiorik ez dagoenez, erabakiak ERANTZUKIZUN handiagoz har daitezke, ondorioak kontuan hartuz... horrek guztiak auto-estimua hobetzen du, pertsonen ongizatea eta gogobetetzea lortzeko gero eta gaitasun handiago dutela ikusiko baitute. Horretarako, esku-hartzeak autoritarismoa eta gehiegizko babesa baztertu behar ditu, aukera-askatasuna eta ekintzen ondorioak onartzea sustatuz.

Helburu horiek guztiak lortuz gero, pertsonen beren burua errespetatzea lortuko da, eta horri esker, gainontzekoekiko errespetu handiagoa izango dute, muga pertsonalak gainontzekoen askatasunak kontuan hartuta eraikiko (edo berreraikiko) baitituzte.

Horretarako, funtsezkoa da esku-hartzean giro atsegina sortzea, pertsonen beren beldurrak eta kezkek lasaitasunez eta konfiantzaz azaldu ahal izateko, eta era horretan, arazo horiek konpontzeko laguntza jaso dezaten.

2. Egokitu gabeko jokabidea geldiarazten ikasteko frustratzea, horrela motibazioa galtzeko.

Esku-hartzeak giro jakin bat sortu behar du. Bertan, ez dira komunikazio desdoituen bidez adierazitako eskaerak onartzen (atentzioa emanez edo edozein probokazio-moten bidez egindakoak). Beraz, horrelakorik gertatzen bada, ez da erantzun behar. Era horretan, komunikazio horiek egiten dituenak ikusiko du ez dutela emaitzarik, eta ondorioz, era horretan jokatzeko motibazioa galduko du. Hala ere, onarpen- eta errepestu-giroan egin behar da hori, mezu negatiborik eman gabe, bestela frustrazio gehiago sortuko bailitzateke, eta antzeko jokabideak sustatuko bailirateke.

Baita ere oso garrantzitsua da erabiltzaileei dagozkien erantzukizunak ez onartzea. Hau da, “babak eltzetik ez ateratzeak”, inplikaturako pertsonak edo ondorioaren erantzuleak konpondu beharko du arazoa, eta horri esker, handik aurrera, pertsona horrek, erabaki baino lehen ondorioak aztertuko ditu. Gainera, gai-

nontzekoen erantzukizunak onartzean, gaitzespen-mezuak jasotzen ditu (errietan, agirakak...), horrek ondoeza eta erruduntasuna sustatzen ditu, eta horrek ez ditu jokabide erantzuleak sustatzen.

Azkenik, ERRUAREN ordeztu ERANTZUKIZUNA ezartzea, erruari lotutako ondoeza eta frustrazioa desagerrarazteko. Horri esker, horrelako jokabideei lotutako erreakzio oldarkorrak gutxitu egiten dira, bakoitzarekiko eta gainontzeko pertsonerikiko errespetua sortzen da, eta genero-rolak kutsatzen dituen ezberdintasunak gutxituko dira, berdintasunean eta amodioan oinarritutako lotura afektiboak sustatuz.

3. Komunikaziorako eta harremanetarako baliabide eta trebetasunak ematea, emaitzak ikusi ondoren, motibazio egokituaren eraikitze-ko

Jokabide ez-egokituaren motibazioa desagerraraztea garrantzitsua iruditzen zaigu, baina aldi berean, iruditzen zaigu ez dela oso eraginkorra izango, baldin eta helburuak lortzeko baliabide alternatiboak eskaintzen ez baditugu. Ildo horretan, funtsezkoa da esku-hartzeko erabiltzaileentzako esparru eta epeak ezartzea, bertan komunikaziorako eta harremanetarako eskema positiboak eraikitze, eta era horretan, eskaerak modu argian eta errurik gabe adierazi ahal izateko. Aldi berean, frustrazioa sortzen bada, hori kudeatzen lagunduko zaie, eta onuragarria izango da pertsonen arteko harremanetarako, harreman horiek osasunean sortzen duten onuren kalitatea hobetzen baita.

4. Bakoitzaren bizitzan erabakiak hartzeko beharrezkoak diren trebetasun kognitiboak eraiki (edo berreraikitzea), eta hori egiteko beharrezko informazioa ematea.

Osasuna sustatzeko gaiak jorratzen ditugunean, "informazioa" ezin da alde batera utzi. Jokabide jakin batzuek sortzen dituzten onura eta kalteei buruzko informazioa, gaixotasunen prebentzio-metodoei buruzkoa... eta sexuari buruzko gaietan, metodo antisorgailuei eta infekzioen prebentzioari buruzko informazioa ematea nahiko joera hedatua da. Argi dago, informazioa ematea ezinbestekoa dela, batez ere, informazio hori ezagutzen ez bada.

Hala ere, informazioa emateko tresnak diseinatzerakoan, hainbat gai hartu behar dira kontuan:

- Lehenik eta behin, esku-hartzean parte hartuko duten erabiltzaileek zein informazio ezagutzen duten jakitea, eta ahal den heinean, gai horri buruz zein interes dituzten zehaztea.
- Esku-hartzearen partaideen sinesmen subjektiboak identifikatzea.
- Ordura arte ikusitakoa kontuan hartuta, informazioa aukeratzea.
- Beldurra edo erruduntasuna sortzen dute elementuak alde batera uztea.
- Informazioa emateko lengoaiia-mota populazio hartzailerara egokitzea.

Edonola ere, gure ustez, informazio onena jakin-mina pizten duena da, eta ondorioz, pertsona bakoitzak bere jakintza aurkitu eta eraikitzea sustatzen du. Horri esker, pertsonak erabakiak hartzeko behar duten informazioa bermatzeaz gain, pentsamendu eraginkorra ere sustatzen da.

15. *Arkenik, esku-hartzearen*

*prozesu eta emaitzak
ebaluatzeak estrategia
baliozkotzen laguntzen
digu, eta beharrezkoa
bada, hura hobetzen*

Esku-hartzearen programak, haien gaia edozein izanda ere, ebaluatzea garrantzitsua da, horri esker eraginkorrak ote diren egiaztatzen baita, eta beharrezkoa bada, horren eraginkorrak ez diren aspektuak, zailtasunak eta arazoak identifikatu daitezke.

Aipatu berri dugun eredu horretan oinarritutako programa bat lehen aldiz abian jarri zenez geroztik, oso garrantzitsua iruditu zaigu ebaluazioa, oso proposamen konplexu eta berritzailea baitzen, hura aurrera eramateko inbertsio handia egin behar baitzen, eta ondorioz, ezinbestekoa baitzen eraginkorra ote zen jakitea.

Kasu hartan, *Temas transversais e educación de actitudes* osasunaren hezkuntzarako programa ebaluatu zen. *Proposta para unha intervención integral a propósito da prevención da infección polo VIH-SIDA*, nerabeentzako programa, bigarren hezkuntzako ikastetxeetan garatutakoa (7). Fase bikoitzeko ikerketa bat da, talde ez-baliokidetarako diseinu ia esperimentalean oinarritutako. Esku-hartzearen aurretik eta ondoren adierazleak neurtu ziren, 1000 lagin-unitaterekin eta gehiezkoko errorea $\pm 2.5\%$ izanik.

(7) Godás, A.; Ferreiro, L.: Informe sobre a avaliación externa do programa "Temas transversais e educación de actitudes. Proposta para unha intervención integral a propósito da infección polo vih-sida". Santiago. Consellería de Sanidade. Dirección Xeral de Saúde Pública, 2002 (barne-dokumentua).

Ebaluazioaren plangintzan lau nerabe-talde antolatu ziren: talde batean esku-hartze osoa egin zen; hau da, irakasleek estrategia laukoitzeko elementu guztiak jorratu zituzten. Bigarren taldean, estrategia-elementu guztiak jorratu ziren, baina irakasleen laguntzarik gabe. Ikasleek, liburuxkaren laguntzarekin egin zituzten jarduera guztiak. Hirugarren taldean, gaiei buruzko informazioa eman zen soilik. Laugarren taldea kontrol-taldea zen, eta beraz, bertan ez zen esku-hartzerik burutu.

Ebaluazioa egiteko hainbat eskala egituratu eta estandarizatu erabili ziren, bai kezkei, beldurrei, ezagutzei, sinesmenei, egungo jokabide sexualei eta etorkizuneko jokabide-asmoei buruzkoak. Gainera, sei galdera irekiko galdeketa bat ere erabili zen, desioen kontzientzia-maila, tolerantzia eta frustrazioarekiko erreakzioak neurtzeko. Azkenik, tresna proiektibo bat ere erabili zen: Gaizki Fokatutako Aurpegien Testa, Kellyren erakile-pertsonalen teorian oinarritutakoa (8).

Ikerketaren ondorioen artean, aipagarria da, esku-hartze osoa egin zen taldean; hau da, estrategia laukoitzaren gai guztiak jorratu ziren taldean, ondorioztatu zela, eredu horrek sexu-harremanetarako babes-baliabide egokiak sustatzen zirela (beldurrak gutxitu ziren, sinesmenak zehaztu egin ziren, mito eta tabuak gutxitu egin ziren, baita jokabide arriskutsuak ere. Halaber, arazoarekiko sentsibilitatea ere areagotu egin zen). Bestalde, talde horretan bertan, esparru kognitiboa zabaldu egin zen (nahiak eta frustrazio-egoerak hobeto identifikatzen ziren), frustrazioarekiko tolerantzia handitu egin zen, eta frustrazioarekiko erreakzioak ez ziren horren zigorgarriak. Azkenik, auto-estimua hobetu eta bakoitzaren irudiaren egitura aldatu egin zen, autoritate pertsonala, empatia eta elkartasuna areagotuz. Ezaugarri oldarkorren barneratze-prozesua aldakorra da, zigor-ezaugarriak gutxitu egiten dira, eta ondorioz, jokaerak ez dira horren oldarkorrak, adierazpenekoak baizik.

(8) Rodríguez López, A. (1982): "Test de las caras desenfocadas (Repertory Grid Modificado)". *Rev. de Psiquiatr. y Psicol. Med.* XV/7, 411-420.

Azkenik, emaitza horiei esker, esku-hartzea garatzeko baldintza hobeak zehaztu genituen. Baldintza hobeek, batez ere programa jorratu eta zuzenduko duten profesionalen prestakuntza eta baliabideekin dute zerikusia. Era horretan, langileak alde aurretik trebatu behar dira estrategia eta jardueren erabileran, esku-hartzearen prozesu osoan babesa eta aholkularitza eduki (eta sentitu) behar dituzte, eta ereduari buruzko gida argi bat eduki behar dute. Beste egoera batzuetan, programan azaleko aspektuak gutxituko dira (batez ere informazioa), eraginkortasuna gutxituz.

Bibliografía

- ALONSO TEJADA, L.: *La represión sexual en la España de Franco*. Bartzelona, Luis de Caralt Editor, S.A., 1977
- ALTABLE, Ch.: *Penélope o las trampas del amor*. Madril, Mare Nostrum, 1991
- BARRAGÁN MEDERO, F.: *La educación sexual. Guía teórica y práctica*. Bartzelona, Paidós - Papeles de Pedagogía, 1991.
- BENJAMÍN, J.: *Los lazos del amor. Psicoanálisis, feminismo y el problema de la dominación*. Buenos Aires, Paidós, 1996.
- BOWLBY, J.: *El vínculo afectivo*. Bartzelona, Paidós - Psicología Profunda, 1993.
- BRANDEN, N.: *Los seis pilares de la autoestima*. Bartzelona, Paidós, 1995.
- DAVIS, F.: *La comunicación no verbal*. Madril, Alianza, 1989.
- CASTILLA DEL PINO, C.: *La culpa*. Madril, Alianza Editorial, 1973.
- CASTILLA DEL PINO, C.: *Teoría de los sentimientos*. Bartzelona, Tusquets Ensayo, 2000.
- DIO BLEICHMAR, E.: "La depresión en la mujer". *Rev. Asoc. Española de Neuropsiquiatría* XI:31. 1991 (p.p.: 283-287).

- FERREIRO, L.; MARTÍNEZ, F. Y ESTÉVEZ, A.: "A importancia do vínculo afectivo, na educación para a responsabilidade e para a liberdade". Santiago. Ponencia do *Curso de formación do Profesorado en Tutorías*. Centro de Formación Continuada do Profesorado de Santiago, 1994.
- FERREIRO, L. eta DÍAZ, CH.: "Osasun-hezkuntza", *Hezkidetza, zehar lerroen zeharkakoa?*. Gasteiz. Emakunde (Emakumearen Euskal Erakundea), 1996 (orr. 47-78)
- FERREIRO DÍAZ, M.D.; RODRÍGUEZ LÓPEZ, A.; DOMINGUEZ SANTOS, M.D.: *Adolescentes Galegos. Indicadores de risco de comportamento disocial*. Santiago de Compostela, Xunta de Galicia. Consellería de Sanidade. Col. Saúde Mental - Reforma Psiquiátrica, 1996.
- FERREIRO, L. (koord.): *Temas transversais e educación de actitudes. Proposta para unha intervención integral a propósito da prevención da infección polo VIH-SIDA*. Santiago, Consellería de Sanidade e Consellería de Educación e O.U., 2002.
- FERREIRO, L.; DÍAZ, CH.; DOCAMPO, G.; LOUZAO, M.J.: *Coeducación afectivo-emocional e sexual*. Santiago, 2005 (argitaratzeko prozesuan).
- FREUD, A.: *El Yo y sus mecanismos de defensa*. Bartzelona. Paidós - Psicología Profunda, 1993.
- FREUD, S.: *El "yo" y el "ello"*. Madril, Alianza Editorial, 1978.
- FROMM, E.: *El arte de escuchar*. Bartzelona, Paidós, 1993.
- FROMM, E.: *El arte de amar*. Bartzelona, Paidós, 1982.
- GIBERT, H.; ROCHE, C.: *Historia ilustrada de la sexualidad femenina*. Bartzelona, Grijalbo. 1989
- GRAD, M.: *La princesa que creía en los cuentos de hadas*. Madril, Obelisco, 2002

-
- HITE, S.: *El Informe Hite: estudio de la sexualidad femenina*. Bartzelona, Plaza & Janés, 1977.
- GODÁS OTERO, A.; FERREIRO DÍAZ, L.: "Informe sobre a avaliación externa do programa TEMAS TRANSVERSAIS E EDUCACIÓN DE ACTITUDES...". Santiago, Dirección Xeral de Saúde Pública. Consellería de Sanidade, 2002
- GRAD, M.: *La princesa que creía en los cuentos de hadas*. Madril, El Obelisco, 2002.
- HYDE, J. Sh.: *Psicología de la mujer. La otra mitad de la experiencia humana*. Madril. Morata, S.L., 1.995
- JUNG, C.G.: *Arquetipos e inconsciente colectivo*. Bartzelona, Paidós, 1981.
- LÓPEZ, F.; FUERTES, A.: *Para comprender la sexualidad*. Iruña, Verbo Divino, 1996.
- MASLOW, H.A.: *El hombre autorrealizado. Hacia una psicología del ser*. Bartzelona, Cairos, 2005
- MCKAY, M.; FANNING, P.: *Autoestima: evaluación y mejora*. Bartzelona, Martínez Roca, 1991.
- MILLER, A.: *El saber proscrito*. Bartzelona, Tusquets Ensayo, 1998.
- MARQUÉS, F.; SÁEZ, S.; GUAYTA, R.: *Métodos y medios en promoción y educación para la salud*. Bartzelona, Editorial UOC, 2004
- NORWOOD, R.: *Las mujeres que aman demasiado*. Buenos Aires, Ediciones B, 1986
- REICH, W.: *La revolución sexual*. Bartzelona, Barral, 1975
- RODRÍGUEZ LÓPEZ, A. (1982): Test de las caras desenfocadas (Repertory Grid Modificado). *Rev. de Psiquiatr. y Psicol. Med.* XV/7, 411-420.

-
- RODRÍGUEZ, A.; DOMÍNGUEZ, M.D. y FERREIRO, L.: "Conducta suicida en la adolescencia. Análisis epidemiológico", *Diagnóstico y tratamiento de los trastornos psíquicos en la edad juvenil*. (37-51 orr). Bartzelona. P.T.D., 1995
- ROGERS, C.R.: *El proceso de convertirse en persona*. Bartzelona, Paidós, 1996.
- SÁEZ BUENAVENTURA, C.: "Sobre mujer y salud mental", *Cuadernos inacabados*, nº 9. Bartzelona, LaSal - Edicions de Les Dones, 1988.
- SAU, V.; APARICI, E.; GUNTIN, M.; COLOM, J.; SÁNCHEZ, M.; NAVARRO, C.: *Otras lecciones de psicología*. Bilbo, Maite Canal, 1992.
- THE BOSTON WOMEN'S HEALTH BOOK COLLECTIVE: *Nuestros cuerpos, nuestras vidas*. Bartzelona, Plaza & Janés, 2000.
- URRUZOLA, M.J.: *Introducción a la filosofía coeducadora*. Bilbo, Maite Canal, 1995.
- VALS, C.: *Mujeres invisibles*. Madril, Suma de Letras, S.L., 2006
- WATZLAWICK, P.: *El arte de amargarse la vida*. Bartzelona, Herder, 1985.
- WOOLF, V.: *Una habitación propia*. Bartzelona, Seix Barral - Biblioteca Breve, 1980

**ÉLIDA ALFARO
GANDARILLAS**

**GHINKo "Emakumea eta
Kirola" mintegiko
zuzendaria. Madril**

**BENILDE VÁZQUEZ
GÓMEZ**

**GHINKo "Emakumea eta
Kirola" mintegiko
zuzendarikidea. Madril**

Gizon izaten

ikastea:

arisku-ereduak

eta jokabideak

1.

Sexuen arteko berdintasunaren aldeko borroka ez da atzo gaueko kontua. Hainbat hamarkadatik hona, aztertu eta hautsi egin dira emakumezkoen estereotipo nagusiak eta emakumeek gizartean izan duten rola. Nolanahi ere, azken urteotan emakumezkoek bultzatu dituzten aldaketak ez dira nahikoak izan berdintasuna lortzeko, beharrezkoa baita gizonezkoen estereotipoak ere aldatzea. Lehendabiziko fasean, mugimendu feministek, berdintasunaren xerka, gizonezkoen jokabide berbera hartu zuten. Taktika horren eraginez, paradoxikoki, gizartean aski erroturik zegoen maskulinitatea indartu egin zuten.

Gerora, ikerketa ugari jokabide horien balioez hausnartu dute. Ikerketa horiek sexuen arteko ezberdintasun biologikoak nahiz kulturalak aztertu dituzte zehaztasun handiz, eta emakumezkoak zaintzeko eta trebatzeko beharra hauteman dute; hori bai, gizonezkoa erreferentziazko parametrotzat hartuta. Korrante horrek ia biktimatzat hartzen zituen emakumezkoak. Hori dela eta, emakumezko andanak ikuspegi horren kontrako jarrera hartu du.

Gaur egun, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desberdintasunaren auzia ikuspegi bisexualetik lantzen da. Alde batetik, biongan eragin desberdina duten alderdi biologikoak nahiz kulturalak aintzat hartzen eta balioesten dira. Halaber, aipatutako alderdi horiek aztertzen dira, eta faktore biologikoekiko errespetua eta egokitzapen aldagaitzak proposatzen. Bestetik, emakumezkoen nahiz gizonezkoen jokabideak esleitu dizkien rola aldatzeko, aldakuntza sustatzen da bai hezkuntzan, bai lan munduan, baita gizartean eta kulturean ere.

Azken jarrera hori da guztietan zentzuzkoena berdintasunerako bidean gizonezkoak emakumezkoen bidaide izan daitezen. Gizarteak emakumezkoen rol-aldaketa onar dezan, gizonezkoek ezinbestean parte hartu behar dute. Zenbaitetan, gizonezkoek onartu egin behar dute emakumezkoen esleitutako funtzioetako asko nahiz emakumezkoen estereotipo soziala osatzen duten funtzioetako asko tradizionalak eta are gizartearen mimetismo hutsa direla. Besteetan, aldiz, gizonek beren jokabidea aldatu beharko dute, eta gizarteak gizonezkoen rol berriak josi.

Goian aipatutako bidea ibiltzeko, sakon aztertu behar dira historian barrena kultura nahiz gizarte ia guztietan gizonetzkoen balioen nagusitasuna errotu duten arrazoiak. Horrez gain, ikusi beharra dago emakumezkoek nola onartu duten edota nola aurre egin dioten gizonetzkoen nagusigoari.

Zer dago maskulinitatearen balio sozial nagusiaren oinarrian? Nola eraiki da gizonetzkoen balio fisiko nahiz mental handiagoa eman dien identitate maskulino menderatzailea? Zeintzuk dira nagusitasun hori historian barrena eraiki duten elementuak? Jokabide pertsonalaren eta sozialaren zein alorretan du eragina? Horiexek dira gaur egun buruan darabiltzagun galderetako batzuk.


Hitzaldi honetan, labor-labor, gizonetzkoaren nagusitasunaren garra piztu eta bizi-rik mantentzen duen bitarteko gisa aztertuko dugu kirola. Izan ere, kirol-jardueretan, gizonetzkoen identitate nagusiaren ezaugarri ugari baliatzen dira, hala nola indar fisikoa, oldarkortasuna, lehiakortasuna, protagonismoa, lidergoa, eta abar. Hedabideen eraginez eta kirolaren errendimendu politiko nahiz ekonomikoari esker, kirolak interes handia pizten du egungo gure gizartean. Horrez gain, kirolak sekulako indarra du estereotipoak erreproduzitzeko edota banakako nahiz taldekako eredu berriak sortzeko. Horrenbestez, gizonetzkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunaren beiratik begiratu behar diogu.

2.

Genero-estereotipoak eta kirola

Gizonetzkoen eta emakumezkoen arteko desberdintasun biologikoak genero-estereotipoen oinarri izan dira, emakumezkoaren gorputza haurrak edukitzeko prest egotea batez ere. Ezaugarri biologikoak abiaburu, gizonetzkoen nahiz emakumezkoen estereotipo sozialek funtzio desberdinak esleitu dizkiete batzuei nahiz besteei. Gizonetzkoek, nagusiki, produzitzeko funtzioa dute; emakumezkoek, aldiz, ugaltzekoa. Egiteko horiek, bidenabar, gizonetzkoen gorputza funtzional

eta emakumezkoena estetiko bihurtu dute. Jarraian, gizon eta emakumeen gorputzei buruzko eskema funtzionala ikusiko dugu.



Antzina-antzinatik lotura handia dago jarduera fisikoen eta kirolaren, eta maskulinitatearen eta feminitatearen artean. Hasiera-hasierako herrialdeetan, gizonzkoek eta emakumezkoek, jarduera fisikoen eta gorputz-jolasen bitartez, eginkizun pertsonaletarako eta sozialetarako zuten gaitasuna erakusten zuten, hau da, produzitzeko eta ugaltzeko zuten ahalmena neurtzen zuten. Gizonek beren indarra erakutsi behar zuten, baita ehizan trebeak zirela eta lurraldea nahiz seme-alabak babesteko gai zirela ere. Emakumeek, aitzitik, beren edertasuna nabarmendu ohi zuten; beren jantzirik ederrenak soinean, taldeko gizonik indartsuenak, osasuntsuenak eta trebeenak erakartzen saiatzen ziren (Blanchard, K. eta A. Chesca, 1986).

Hain agerikoa ez bazen ere, kirol prehelenikoan eta Greziako kirol-jardueretan, arestian aipatutako funtzioen nahiz posizioen banaketak beren horretan zirauten. Kirolak identitate maskulinoa zuen, eta gizonzkoek lotutako ideien balioak goesten zituen: indarra, boterea eta ospea.



Durantez, C. Greziako Olinpiadak

Antzinako Joko Olinpikoetan, soilik gizonetako parte har zezaketen. Emakumezkoak ikustera joan zitezkeen, baina aparteko harmaila batean eseri behar izaten zuten, eta XXXII. Jokoetatik aurrera emakume ezkonduak debekatuta zeukaten sartzeari, gizonetako biluzik egiten zutelako korrika. Hainbat irudi historiografikotan, emakume apaizak ageri dira su sakratua pizten edo garaileei koroak jartzen. Irudi horiek argi erakusten dute emakumezkoek zein lotura zuten kirolarekin Grezia klasikoan.

Antzinako zenbait idatziren arabera, hasieran emakume gazteek ere joko publikoetan parte har zezaketen. Denborak aurrera egin ahala, Jokoak gizonetako arlo eskusibo bilakatu ziren. Emakumezkoek, nolana ere, bazituzten beren joko propioak: Heraeak. Hera jaingosaren omenez egiten ziren, gizonetako jokoetatik aparte. Gainerakoan, ez dago Joko Olinpikoetan parte hartu zuten emakumezkoen buruzko informaziorik, ezta emakume garaileei buruzkorik ere. Emakumezkoen erreferentzia bakan batzuk baditugu. Horietako bat da Pausanias historialari eta geografo greziarrak egindakoa. Hari esker, badakigu Cyniska izeneko emakumezko espartar batek Jokoetan parte hartu zuela eta emakumezkoek ez zutela parte hartzerik Joko Olinpikoetan. Ondoren ikusiko dugun aipua Olinpiako harrietan ageri da idatzirik, eta honelaxe dio: *"Nik, Cyniskak, Espartako errege-erreginen ondorengo naizen honek, harri hau jarri dut nire oin arinekin irabazi nuen lasterketaren oroigarri gisa, eta berresten dut Grezia osoan irabazi duen emakumezko bakarra izan naizela"*.

Haatik, Jokoetan garaile izandako gizonetako askoren izenak jaso dira antzinako idatzietan. Greziako Olinpiaden liburuan (DURANTEZ, C. 1977), antzinako Jokoetatiko probak irabazi zituzten izenak datoz. Horietako bat bera ere ez da emakumezkoa.

Joko Olinpiko modernoak aurrekoen antzera sortu ziren. Nolanahi ere, kirolak gizonezkoen kontua izaten jarraitu zuen. Pierre de Coubertin jaunak Joko Olinpikoei berrekin zien XIX. mendearen atarian. Coubertienek ez zien emakumezkoei Jokoetan parte hartzen utzi. Handik zenbait urtetara, aipatutako erabakiaz galdetu ziotenean, hauxe erantzun zuen:

Emakumeak Joko Olinpikoetan? ...

"Ez da bideragarria, ez du interesik, antiestetikoa da, eta ez da zuzena. Jokoeak atletismoa goratu behar dute batik bat. Leialtasunez jokatu beharra dago, artea bidaide harturik, eta emakumezkoen txaloak garaileen saria izango dira".

3.

Gizonek eta emakumeek kirola nota ikusten duten egun


Kirola egungo gizarte guztietan ageri den fenomeno soziokulturala da. Hala eta guztiz ere, gizonek eta emakumeek jarduera fisiko desberdinetan parte hartzen dute, eta kirolarekiko duten jarrera oso bestelakoa izan daiteke. Are gehiago, giza taldeek jarduera fisikoei edo kirol-jarduerekin zer nolako lotura duten aztertzen badugu, desberdintasunak badirela ikusiko dugu: emakumeek eta gizonek gizarteak ezarri dituen genero-estereotipoei jarraituz egiten dute kirola.

Lehenik, kirolarekiko interesa eta lotura desberdinak dira: batzuek kirola ikustea dute atsegin; besteek, aldiz, jarduera fisikoa praktikatzen dute. Bestalde, bada-go aldea kirola egitea hautatzen dutenen artean. Gizonezkoek eta emakumezkoek arrazoi desberdinengatik egiten dute kirola. Pertsonak garrantzi gehiago edo gutxiago eman diezaiokete jarduera fisikoari, edo kirol-eredu bat ala bestea hautatu. Emakume Espainiarrek gauzatzen dituzten Kirol Jardueren eta Jarrerren gaineko lerketa (1900-2005) plazaratu zuen Emakumearen Institutuak 2005. urtean. Txosten horretan jasotako datuak aztertuta, hainbat desberdintasun antzematen dira.

Hasteko, 2.4 grafikoa, Espainiako gizartean kirolak zer garrantzi duen ageri da. Grafikoa aztertuta ikus dezakegu gizonezkoek eta emakumezkoek antzeko inte-


resa dutela kirolarekiko. Oro har, gizonetako egiten duten kirolak interes handiagoa pizten du, baita emakumezkoentzat ere.

2.4 Grafikoa: Kirolak Espainiako gizartean duen garrantzia: orokorrean, emakumezkoek egindakoa, gizonetako egindakoa



Iturria: *Estudio sobre Actitudes y Prácticas Deportivas de las Mujeres Españolas (1900-2005)*. Base 6.125. Telecyl Estudios, 2005.

4.1 Grafikoa: Kirol-praktikaren bilakaera Espainian




Iturria: *Las Infraestructuras en el Censo Nacional de Instalaciones Deportivas*, Santiago Ibáñez Ruiz eta *Estudio sobre Actitudes y Prácticas Deportivas de las Mujeres Españolas (1900-2005)*. Base 6.125. Telecyl Estudios, 2005.

Kirola egiteari dagokionez, 4.1 grafikoa ikus dezakegu gizonetako emakumezkoek baino jarduera fisiko edo kirol-jarduera gehiago egiten dutela, nahiz aldea gero


eta txikiagoa den. Nolanahi ere, aipatu beharra dago herritarren %37k baino ez duela kirola egiten.

2.3 Grafikoa: Kirolari buruzko ondorengo estereotipoekiko adostasun-mailaren konparazio-taula



Iturria: *Estudio sobre Actitudes y Prácticas Deportivas de las Mujeres Españolas (1900-2005)*. Base 6.125. Teceyl Estudios, 2005 eta 1990ko egindako ikerketarekin konparazioa.

4.8 Grafikoa: Egiten diren jarduera fisikoak edo kirolak



Iturria: *Estudio sobre Actitudes y Prácticas Deportivas de las Mujeres Españolas (1900-2005)*. Base 6.125. Teceyl Estudios, 2005.

Era berean, kirol-jarduerei lotutako topikoak edo estereotipoak sakon aztertu nahi ditugu (2.3 grafikoa). Hasteko, azpimarratu beharra dago ikerketak aztergai dituen 15 urteetan aldaketa gutxi izan dela topikoei dagokienez. Are gehiago, zenbait kasutan, topikoak finkatu egin dira, edo ez dira batere aldatu. Honako topiko hauek nabarmendu ditzakegu: *Kirola gizonezkoen kontua da*; eta *Kirola praktikatzeko amatasunari kalte egiten dio*.

4.8 grafikoa, bestalde, praktikatzen diren kirolak edo jarduera fisikoak islatu dira. Irudi horretan ere argi ikus daiteke generoen rol sozialek eragin handia dutela kirol bat edo beste bat hautatzeko orduan. Emakumezkoen, tradizioz, hainbat kirol-jardura esleitu zaizkie: esate baterako, gimnastika, edo estereotipo femeninoa hausten ez dutenak (ibiltzea, mendira joatea, eta abar). Bi modalitate horietan parte hartzen dute emakumezko gehienek. Nolanahi ere, baloiari lotutako kirolak, boxeoa, ehiza eta arrantza praktikatzeko orduan, alde handia dago gizon eta emakumeen artean, kirol horiek gizonezkoen estereotipo sozialei baitagozkie.

Gaztaroen, mutilek eta neskek desberdin praktikatzen dute kirola. Beraz, esan genezake genero-estereotipoak gazte-gaztetik sartzen direla jokoan. Madrilgo Udaleko Kirol Jokoetan parte hartu duten lagunen datuak aztertuko ditugu. Datuei erreparatuta, argi ikusiko dugu neskek mutilek baino askoz gutxiago parte hartu dutela kirol-jokoetan. Bestalde, taldekako kirolean are alde handiagoa dago mutil eta nesken artean. Gainera, aztertu ditugun lau urteetan barrena, datuak egonkor mantendu dira; ez da ia aldaketarik egon.

KIROLAK	2000-01		2001-02		2002-03		2003-04	
	GIZ	EM	GIZ	EM	GIZ	EM	GIZ	EM
BANAKAKOAK	17.905 %58,6	12.668 %41,4	17.577 %58,2	12.668 %41,8	18.838 %59,2	13.033 %40,8	17.312 %62,3	10.490 %37,7
TALDEKOAK	62.120 %91,1	6.100 %8,9	68.929 %91,3	6.100 %8,7	71.056 %91,8	6.401 %8,2	73.826 %91,9	6.521 %8,1
GUZTIRAKO PARTZIALA	80.065	18.768	86.502	18.768	89.894	19.434	91.138	17.011
GUZTIRA	98.833		105.275		109.328		108.149	

Azkenik, kirola egiteko motibazioari buruz, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko aldeak ikus daitezke. Erantzun guztietatik, estereotipo maskulinoarekin eta femeninoarekin lotura handiena duten erantzunak nabarmendu ditugu: gizonezkoek dibertitzeko eta denbora pasatzeko, kirola atsegin dutelako eta lagunekin egoteko egiten dute kirola; emakumezkoek, aldiz, lirain egoteko eta osasuntsu egoteko.

4.

Kirol-nortasuna eta sexua/generoa aldagaia

Azken urteotan, beste ikerketa-ildo bat garatu da, kirol-nortasunak aztertzeko eta ezagutzeko parada ematen duena. Aipatutako ildoak talde-nortasuna lantzen du gehienbat; izan ere, kirola egitearekin eta kirol-ikuskitzunez zerikusia duten jokabideen artean dago talde-nortasuna. Talde batean partaide sentitzeak segurtasuna ematen digu, eta horrek denboran luze iraun ohi du, gainera. Horrez gain, banakoen identitateak ere ikertzen dira, hein handi batean jokabide pertsonalak baldintzatzen dituzte-eta.

Norberak bere buruaz duen irudiarekin lotu ohi da identitatea. Gainera, pertsonak beren nortasuna kontuan hartuta definitzeko joera dugu. Identitatearen kontzeptuak hainbat esanahi izan ditu historian barrena, batez ere pertzepzioak denboran irauteari dagokiona.

Parmenides jakitun greziarraren aburuz, izatea behin betikoa da, egonkorra, eta ez du funtsik galtzen denboran zehar. Heraklitok, aitzitik, izatea aldakorra dela adierazi zuen. Ideia hori irudikatzeko, sona handia lortu zuen esaldi hau bota zuen: "*Inork ezin du bi aldiz ur beretan bainua hartu*". Aipatutako bi ideia horiek oso bestelakoak diren teoria filosofikoen oinarri izan dira. Teoria horien eraginez zabaldu da *identitatea aldakorra eta askotarikoa* ez delako ideia.

Bizi osoa eman dezakegu geure identitate pertsonala finkatzen. Beste sentimendu gizatiar batzuekin gertatzen den bezala, nortasun jakinik gabe jaiotzen gara. Are gehiago: identitatea gutxika-gutxika lantzen dugu, etapaz etapa garatzen dugu. Lehenengo etapa funtsezkoa da gizakiaren nortasuna definitzeko. Une horretan, amarengandik banandu egin dela konturatu ohi da haurra. Etapa horretan, halaber, niaz kontziente da lehen aldiz. Bizipen hori, nolana ere, ez da modu kognitiboan gauzatzen. Niaren hasierako pertzepzio horrek gorputza izan ohi du oinarri.

Bada garrantzi handiko beste une bat: haurrak bere izatea bere egin, eta ni hitza erabiltzen hasten denean. Garai horretan, bere burua "besteengandik" bereizteko gai da. Etapa horretan, oraindik ere, niaren pertzepzioak gorputzari loturik jarraitzen du. Nolanahi ere, "ni pertsonalaren" oinarria osatzen da, baita norberaren ideiarekin –sexu- eta genero-identitatearekin, gehienbat– loturik dauden eta aurrerantzean gauzatuko diren ikaste-prozesuen oinarria ere.

Nerabezaroan, behin betiko nortasuna garatu ohi du gizakiak, bai fisikoa bai pertsonala ere. Une horretan, intimitatea nahiz autonomia pertsonala sortzen dira, eta, berriz ere, ni korporalak lehen mailako garrantzia berreskuratzen du. Aurreko faseetan gutxi gorabehera finkatu den identitatearen sentimendua mila zatitan apurtu ohi da, gure gorputza aldatu egiten baita, eta ez baikara ez haur ezta pertsona heldu ere. Prozesu hori funtsezkoa da nerabeak bere nortasun propioa eraiki dezan behin betiko.

Gaur egun, gizarte postmodernoan, taldeko eredu eta balioak desagertu egin dira. Gehiengoak gizabanakoak irentsi ditu. Norbanakoak, beraz, gauzak neurtzeko unitate bilakatu dira. Galdu egin dira, beraz, antzina nortasuna eraikitzeko hain garrantzitsuak ziren erreferenteak: familia, erlijioa, ideologiak, eta abar. Gainera, pertsonak aldaketa ugari jasaten dituzte, azkar eta etenik gabe. Horrek norberaren nia kinka larrian jartzen du. Horregatik, lehentasun osoa duen auzia da norberaren identitatea finkatzea.

Pertsonak, autosufizienteak ez direnez, ingurukoek beren identitatea hautematea behar dute. Ondorioz, gizabanakoek taldearen identitatea hartzen dute erreferente gisa. Musika, moda, kirolak eta hainbat alderdi oinarri hartuta, beren nortasuna eraikitzen dute. Esan dezakegu, beraz, pertsonen identitatea ez dela soil-soilik norberak egindako sorkuntza. Gizarteak badu zeresanik horretan; gizarteak baino gehiago, "besteek", alegia, gurasoek, familiak, eskolak, lagunek, eta abar. MEAD, G.H.-ren aburuz, inguruko pertsona horiek guztiek badute eragina gizartearen balio propioak barneratzeko prozesuan. Horrenbestez, norbanakoak talde sozialaren balio berberak baldin baditu, kolektibo horren partaide sentituko da. Orduan sortzen da talde-identitatea.

Azkenik, identitate pertsonala norbanakoaren nortasun propiozat har daiteke; talde-identitatea, aldiz, talde jakin bateko kide sentitzen den norbanakoaren identitatea da.

Kontzeptu horiek kirolarekin lotzen direnean, kirol-identitatearen kontzeptua sortzen da. Azken hamarkadetan, kirol-identitatea garatu egin da, eta identitate kolektiboari nahiz indibidualari aplikatu dakiok.

Jarraian, kirol-identitate indibiduala nola eraikitzen den ezagutuko dugu. Aurrerantzean ikusiko dugun moduan, kirol-identitatea kirolarien sexuari lotuta eraiki ohi da.

Kirol-identitatea zera da: pertsona batek kirolarekin duen lotura. BROCK eta KLEIBER (1994) nahiz WIECHMAN eta WILLIAMS (1997) adituek honako definizio hau proposatu dute: *Kirol-identitatea zera da, pertsonak zein mailatan identifikatzen duten beren burua kirolariaren rolaekin.*

Arestian aipatu bezala, mintzagai dugun identifikazioa norbanakoaren nahiz taldearen ikuspegitik azter daiteke.

Talde-identitateen kasuan, jendea sinbolo jakin batekin identifikaturik sentiarazteko gaitasuna du kirolak –kirol-lehiakortasunak nagusiki–.

Hasteko, taldekideak, zaleak, ikusleak, eta abar, modu afektiboan inplikatzan dira. Horren eraginez, talde baten edo beste baten alde egon ohi dira.

Hortxe hasten da talde bateko kide izateko sentimendua. "Irabazi dugu" edo "partida eskuetatik kendu digute" esaldiak aipatu berri dugun sentimenduaren isla dira. LAGARDERAREN (1999) aburuz, esaldi horiek argi erakusten dute kirol-lehiakortasunak sekulako indarra duela nortasuna besterentzeko.

Kirolari lotutako talde-identitate horiek kirol-gertakarietatik haraindi doaz. Beren esanahia zabalduta egiten da, eta kirolaz bestelako eremuak hartzen dituzte. Honako esaldi hau dugu aipatutakoaren erakusle: "Bartzelona Futbol Taldea talde bat baino askoz gehiago da".

Kirol-ikusketaren bidez, tokian tokiko identitateak, identitate nazionalak eta autonomikoak indartu daitezke, baita arrazazkoak ere. Identitate horiek guztiak ikergai dira. Bada, dagoeneko, horren inguruko ikerketa eta informazio andana. Hala eta guztiz ere, guk ez dugu kirolari lotutako talde-identitatea aztertuko, kirolari lotutako identitate indibiduala baizik (nola eraikitzen den, nola garatzen den eta zein ondorio dituen).

Geure hitzaldian, hain zuzen, kirol-identitatea nola eraikitzen den aztertuko dugu; zergatik sentitzen diren pertsona batzuk kirolarekin identifikatuago beste batzuk baino. Azkenik, gizonetakoak eta emakumeetakoak kirolarekin maila berean identifikatzen diren ala ez ikusiko dugu, eta zergatik.

Autokontzeptua da identitatearen sorburu. Autokontzeptua honako alderdi hauen eragin-trukearen ondorio da: norberaren bizipenak, pertsonen arteko harremanak eta erlazio sozialak. Horrenbestez, norberaren kontzeptua eraikitzeko, bi habe nagusi baliatu dira: batetik, norberak ikusten duena, eta, bestetik, besteek geure buruaz duten irudia.

Autokontzeptu fisikoa autokontzeptuaren aldagai bat da. FOXen arabera (1990), honako hauek osatzen dute autokontzeptu fisikoa: kirol-lehiakortasuna, gorputzaren erakargarritasuna, egoera fisikoa eta indar fisikoa.

Kirol-lehietan geure buruaz dugun ikuspegiak edo kirol egiteko geure buruaren gaitasunaz dugun ikuspegiak lotura hertsia dute kirola egiten jarraitzearekin. Halaxe agertzen dute, bederen, oraindik orain eztabaidagarriak diren datu ugari. Argi dago autokontzeptua eta lehiakortasuna edo errendimendua ez direla aldagai independenteak; aitzitik, elkarren artean eragin-trukean aritzen dira.

Kirol-identitatearen eta gorputzaren arteko lotura egun interes handiz ikertzen den gaietako bat da. Heziketa Fisikoaren eta Kirolaren alorrean, tradizioz, gorputza alde batera utzi eta mugimendua nahiz trebeziak landu dira sakontasunez (VÁZQUEZ, 2001). Hala, oro har, ez gara gure gorputzaz kezkatzen. Geure gorputzean zerbait gaizki doanean, ordea, arreta osoa eskaintzen diogu gorputzari, eta zera galdetzen diogu geure buruari: zer doa gaizki, bada? Badira gure gorputzaz kontzientzia hartzera bultzatzen gaituzten zenbait gertakizun: gaixotasunak, lesioak, itxura fisikoarekin izan ditzakegun gatazkak eta mugikortasuna, besteak beste. Alderdi horiek guztiek, beraz, niaren eta gorputzaren artean dagoen lotura nahasten dute. Egoera horietan, gorputzarekiko jarrera kontzienteak sortu ohi dira. Horrelakoetan, "ez naiz heltzen", "ezin dut", "hau ez da niretzako egina", eta gisa horretako hainbat esaldi bota ohi ditugu.

Niaz dugun irudiak gorputzarekin lotura handia badu ere, norbanakoek ez dute beti horrela ikusten.

Kirolariek, kirol-errendimendu handikoek bereziki, ondo baino hobeto ikusten dute gorputzarekiko lotura hori. Are gehiago, gorputza beren nortasunaren oinarri bilakatzen da.

Kirolari horientzat, "ni korporalak" garrantzi berezia du; izan ere, beren gorputzaren mende daude, eta konfiantza osoa dute beren gorputzarengan.

Horrez gain, kirolariaren "ni korporal" hori ni korporal goretsia da (ADLER & ADLER. 1989).

Ospea bizi ahal izateak kirolarien gogoia pizten du. Horri esker, niaren gaineko beren pertzepzioaren hainbat alderdi zabaldu ditzakete.

Nolanahi ere, goretsitako ni hori gutziatsua da, eta mendekotasuna sor dezake. Gora egin nahi du etengabe. Zenbaitetan, gainera, niaren beste dimentsio garrantzitsu batzuk ezerezten ditu. Horixe da, hain zuzen, ospe-unetxo bat bizi-tzeagatik lesio larriei jaramon egiten ez dieten kirolarien kasua.

Kirolariak goretsitako ni korporala oso suspergarria da, eta kirolariak gero eta arreta handiagoa ematen dio kirolari izate hutsari. Kirolari horiek, epe luze nahiz ertainean, beste rol sozial batzuk gutxiesten dituzte. Pertsona horiek kirolari rolari eskaintzen diote beren energia guztia, ahalik eta arrakasta handiena lortu nahi baitute.

Goretsitako ni horren eraginez, luzera garrantzitsuak izango diren beste bide eta proiektu batzuk gal ditzake kirolariak. Kirolariek kirola egiteari uzten diotenean ikusten da hori argi. Era berean, kirolariak lesio garrantzitsuren bat edo kirola egitea galarazten dion gaixotasun bat pairatzen duenean, "goretsitako ni korporala" hautsi eta beraren nortasunaren hein handi bat gal dezake.

Mintzagai ditugun auziak ez dira hutsalak. Hori dela eta, kirolariak trebatzeko planak garatzeko orduan kontuan hartu beharko lirakekeela uste dugu. FASTING K.-k eta beste batzuek Europako emakumeen eta kirolaren inguruko ikerketa plazaratu zuten 2000. urtean. Azterlan horren arabera, kirola egiten duten emakumeek eta egiten ez dutenek ezberdin bizi dute beren gorputza. Kiroliek egiten ez duten emakumeek, esaterako, modu funtzionalean ikusten dute beren gorputza, eta mina eta eginahalak aiseago jasan ditzaketela pentsatzen dute.

Badira azken lerrootan mintzagai izan ditugun alderdiak bezain garrantzitsuak diren beste batzuk. Arlo kognitiboarekin loturik daude. Hona hemen genero-este-reotipoekin lotutako zenbait alderdi: atributu-estiloak, autokonfiantza, arrakasta lortzeko motibazioa, afiliazioa eta boterea, herstura, herstura kontrolatzea eta kontzentrazioa.

4.3 KIROL-IDENTITATEA ETA GENEROA: ERAGINA DUTEN FAKTOREAK

Atal honetan, hainbat gauza azaltzen saiatuko gara: genero-rolek nesken eta mutilen kirol-identitatea eraikitzeke orduan duten eragina, neskek eta mutilek nola eraikitzen duten identitate hori, prozesu horretan gizarteko zein agentek parte hartzen duten, eta abar.

Neskek zein mutilek haurtzaroan jasotzen dute generoei esleitutako rol sozialen eraginik handiena. Familiarengandik datorkie eragin hori. Eragin horrek, nolana-hi ere, nerabezaroan behera egiten du, eta, helduaroan, berriz ere agertu ohi da. Familiaren barruan, aitak eta amak ez dute eragin bera haurrengan. Gizonezkoek emakumezkoek baino kirol gehiago egiten dute. Gainera, kirol horietako gehienak gizonezkoen rolari dagozkionak izan ohi dira. Horregatik guztiagatik, aita izan ohi da familia barruko kirol-eredua.

Idatzi autobiografikoak erabiliz, SPARKEsek eta beste batzuek (1990), Heziketa Fisikoko ikasleen datuak bildu zituzten: haurtzaroan zein kirol egiten zuten, haurtzaroan zein harreman zuten gurasoekin, beren identitate maskulino edo femeni-noa nola sortu zen, eta abar. Mutilek, esaterako, kirola egitate lehiakor eta sakratu gisa ikusten dute txiki-txikitatik. Mutilentzat, konpromiso handiko mundua da kirola, eta fanatismoarekin lotzen dute. Aitarekin batera kirola eginda, hor ikasten zuten mutilek gizona izatea zer zen. Hau da, maskulinitatearekin lotutako jarduera da kirola. Gazte-gaztetatik, halaber, kirola nortasun maskulinoaren atributuz hartu ohi da. Argi dagoenez, gero ere kirola eginez gero, gizonezkoen

gorputz-ezaugarriak nahiz ezaugarri sozialak indartzen dira: indarra, erresistentzia, nagusitasuna, oldarkortasuna, lehiakortasuna, eta abar. Beraz, esan genezake gizonezkoen estereotipoa etengabe indartzen dela, bai kirol-ikuskizunetan bai praktikan ere.

Emakumeak, aldiz, bizitzaren beste alderdi batzuetan oinarritzen dira beren feminitatea eraikitzeko. Arestian aipatutako datu autobiografikoen arabera, aita bereganatu eta aitaren konfiantza irabazi nahi duten neskek kirola egiten dute. Etxean kirolari buruz hitz egiten denean, amaren iritzia ez da kontuan hartzen. Halaxe gertatu ohi da bai nesken baita mutilen kasuan ere. Ama, beraz, etxekoak zaindu eta eguneroko gauzak prestatzen dituena da. Etxean erreparo asko egon ohi da neskek kirola egiteko orduan. Zenbait neskek aitortu zuten moduan, itzulinguru horiek gaindituta, "aitatxo dirudunaren alabatzat" zuten euren burua. "Quiero ser como Beckham" pelikulak argi erakusten du hori.

Antza denez, emakumezkoek amak irudikatutako eredu femeninoa apurto egin behar dute kirola egin nahi badute. Izan ere, hainbat ikerketatan –FASTING eta beste batzuek 2000. urtean plazaratutakoan, adibidez–, emakume kirolari askok agertu dute txikitari mutil izan nahi zutela. Hori agertu dutenek gizonezkoen rola-ekin lotutako kirolen bat praktikatzeko dute; futbola, esaterako. Emakume horiek, halaber, beren lagunetako asko baino aktiboagoak direla aitortu dute, eta hainbat kirol praktikatzeko dituztela. Hori dela eta, gaztaroan asaldaturik egon ohi dira. Laburbilduz, esan genezake neska horien motrizitatea mutilen motrizitatearekin gertuago dagoela neskenarengandik baino.

Arestian aipatutako bizipenak eta mintzagai dugun gaiaren inguruan egindako hainbat ikerketa kontuan hartuta, esan genezake mutilek gazte-gaztetatik modu naturalean bizi dutela kirola. Neskek, aldiz, kirolarekin harreman gatazkatsua dute txiki-txikitatik.

Nerabezaroan, lagunek dute pertsonarengan haurtzaroan familiak zuen eragina. Garai horretan, halaber, generoen arteko aldeak bere horretan dirau. Horren erakusgarri dira honako aipu hauek (Heziketa Fisikoko ikasleenak dira, MARTTY SILVENNOINENek 2001. urtean jasotak):

EMAKUMEZKO IKASLEAK

- *Gaztetan, mutilen jolasak nahiago izaten nituen.*
- *Arropa zabalak janzten nituen, eta gimnastika egiteko uniformea gorroto nuen.*
- *Bizi erdia eman dut boleibolean jokatzen. Gainera, pilota erabiltzen den beste jolasetan ere ibili naiz. Sutan jartzen naiz norbaitek esaten badit izerdi egitea gorroto duen neskatxa pinpirina naizela.*
- *Gogor entrenatu nuen, saioetan lan handia eginda, eta, konfiantza handia hartu nuen nigan. Inoren laguntzarik behar ez nuela sentitzen nuen.*
- *Nire nahia hain zen handia ezen nire lagunak ere ikaritzen baitziren. Lagun horiek rol femenino ahula hartu zuten. Ez nintzen emakume bat, atleta asexuala baizik; burdinazko emakumea.*
- *Mutilek ere alde egiten zuten nigandik; agian, independenteegi eta indartsuegi ikusten nindutelako.*

GIZONEZKO IKASLEAK

- *Emakumezkoek, nahiz eta kirola egin, ez lukete beren emetasuna galdu behar.*
- *Emakumezkoek gainditu ezin dituzten mugak egon beharko lirateke.*
- *Duela milaka urte, gizonezkoen eta emakumezkoen artean banatu zen lana. Munduan bada egitate hori aldatzea baino gauza garrantzitsuagorik.*
- *Emakume batek gizonezkoen rola bere egiten duenean, gizonezkoen kontra bere "arma" guztiak galtzen ditu eta, nolabait, gizonezkoen irteera-marra berberean jartzen da.*
- *Ez dut ulertzen norbaitek alde horiek ezabatu nahi izatea.*

Gorputz-ereduak eta kirola

Geure ezagutza enpirikoari eta hainbat autoreri esker, badakigu “ni korporala” eraikuntza bat dela; alegia, jaiotzetiko egitura biologiko baten zimenduen gainean guk geuk eraikitzen dugun etxea.

Egitura biologiko hori eraikitzeko prozesuan, geneez gain, badira esku hartzen duten hainbat aldagai. Aldagai horietako batzuk fisikoak dira: elikadura, zaintzak, klimaren eragina, gorputzak egiten dituen lanak, eta abar. Beste batzuk, aldiz, sozialak dira, eta sozializatzeko-prozesuaren bidez helarazten ditugu: medikuntza, kode sozialak, erlijiosoak edo moralak.

Duda-mudarik gabe, esan dezakegu horren guztiaren ondorio dela geure “ni korporala”. Antzina, gorputza jainkoaren opari bat zela uste zen. Egun, ordea, beste pentsamolde bat zabaldu da; alegia, “gorputzaren ezaugarriak ez daudela zoriaren edo oinordetzan hartutakoaren mende, baizik eta gorputza zaintzeko bakoitzak egiten duenaren esku” (KUNZLE, 1992).

Gorputza sozialki eraikitzen denean, bistako alderdiez gain –gorputzaren morfologia, esaterako– badira esku hartzen duten alderdi sakonagoak: gorputz-identitatea edo norberak bere buruarekin ezartzen duen harremana, esaterako.

Bestalde, haurren gorputzean inkontzienteki ageri dira ordena soziala, morala eta estetikoa, eta indarra nahiz legezketasuna hartzen dute. Horrela, sexu genetikoaz gain, badira gure maskulinitatea edo feminitatea eraikitzen laguntzen duten hainbat alderdi: gizarteak sexu bakoitzari esleitu dizkion kimuak, sentsibilitate forma jakinak eta harremanean egoteko modu jakinak. Horiek guztiak biltzen ditugun heinean, gure nortasuna eraikitzen joango gara.

Sozializatzeko prozesu horretaz gain, zenbait erakundek eragina izan dute gorputzean. Erlijioa, medikuntza eta milizia aritu ziren hasieran zeregin horretan. Hezkuntzak haien lekukoa hartu du, eta heziketa fisikoaren nahiz kirolaren bitartez lantzen du gorputza.

Gaur egun, horietako batzuk gorputzean duten eragina ez da hain zuzena. Beste batzuek, ordea, esku-hartze handiagoa dute azken boladan: medikuntza, kirola eta, azken aldian, moda.

Bestetik, emakumezkoek zenbat eta kirol gehiago egin, orduan eta pisu handiagoa du jarduera fisikoak beren "ni korporala" eraikitzeko orduan.

Heziketa fisikoari eta kirolari dagokienez, XX. mendearen hasieran mokoka ibili ziren profesionalak eta teorialariak. Gatazka hori generoen arteko desberdintasunetan zetzan.

Jakin badakigu garai hartako emakumeek errazago zeukatela gimnastikan aritzea kirolean ibiltzea baino, nahiz eta gimnastikako sistemetako asko militarista izan eta emakumezkoak baztertu. Emakumezkoek garai hartan gehien praktikatzen zuten gimnastika hezitzailea zen. Gorputza menderatzea eta gorputzaren harmoniari eustea zuten helburu, eta metodologia gimnastiko jakin batzuk baliatzen zituzten horretarako. Horiek guztiak bat zetozen garai hartako emakumezkoen estereotipoarekin: gorputza xede estetikoak atxikitzeko trebatzea, mugimendu dotoreak gauzatzea, harmoniazko jarrera, eta abar. Gainera, mintzagai ditugun jardueretan emakumezkoek baliatzen zuten metodologiak agintariekin beren mendekotasuna bermatzen zuten, eta taldeari egokitzea ahalbidetzen.

Horregatik guztiagatik, XX. mendearen lehen herenean, emakumezkoek kirol jakin batzuetan baino ezin zuten parte hartu. Banaka eta taldean egindako gimnastika estereotipatutako mugimenduez josita zegoen. Mugimendu horiek garbiak ziren oso, eta emakumezkoen gorputz-estetika mantentzeko eginak ziren. Gimnastikak, horrenbestez, emakumezkoen rol sozialari eusten laguntzen zuten. Garai hartan, emakumezkoen kirol-eredua zera zen: "ni korporal kirolzalea" gorputz estetiko gisa lantzea.

Arestian aipatutako etaparekin batera, zenbait emakume –oso gutxi, egia esanbeste kirol mota batzuetan hasi ziren. Kirol mota berri horiek modu jakin batean gauzatu ohi zirenez, gizarteak rol sozial moduan ezarritako irudi korporala nahiz janzkera zaindu zitzaizkien emakumeek.

Horregatik guztiagatik, emakumezko horien "ni korporal kirolaria" funtzionalagoa bilakatu zen. Emakumezkoentzat, gorputza egitate fisiko hutsa baino zerbait

gehiago da; gizonen miretsi dezaketen zerbaite da. Gorputza hainbat keinu egiteko balia dezakete, eta, keinu horiei esker, kirolari lotutako hainbat helburu lortzeko: lehian aritzea, irabaztea, gozatzea, parte hartzea, eta abar. "Ni korporal kirolaria", beraz, gorputz funtzional bilakatu da.

Emakumezkoen ni korporal kirolaria adigaiaren barruan, gorputza funtzionala den aldetik, beste fenomeno bat gertatu zen hirurogeiko eta laurogeiko hamarkadaren artean: goi mailako lehian aritzen ziren emakumezkoek bere egin zuten gizonen rola.

Funtzionalitateak eta eraginkor izan nahiak bultzatuta, kirola egiten zuten emakumezkoak gizonen antzera jantzen ziren, eta haien gisara ziharduten. Emakumezkoak, gainera, Joko Olinpikoetan ordura arte gizonen soilik egin zitezkeen kirol-jarduerak praktikatzeko hasi ziren: atletismoko erresistentzia eta jaurtitze-probak, esate baterako.

Ni korporal kirolariaren eredu horrek inpaktu handia izan zuen emakumezkoen goi mailako kirol-jardueretan. Ondorioz, lehiaketa handietan, partaideen sexua kontrolatzeko zenbait neurri hartu ziren. Izan ere, zenbait kirolari ez zuten, inondik inora, garai hartako emakumezkoen itxurarik, eta, zenbait kasutan, gizontzat hartu zituzten.

Gero eta emakumezko gehiagok parte hartzen zuten Joko Olinpikoetan eta kirol txapelketa handietan. Emakumezkoak ia kirol-modalitate guztietan ibiltzen ziren. Horren ondorioz, laurogeiko hamarkadaren amaieran, kirolariak emakumezkoen nortasunaren zeinu diren arau estetikoak berreskuratu nahi izan zituzten. Zenbait kirolari makillatzen hasi ziren, eta kirola egiteko jantziak gero eta estetikoagoak eta deigarriagoak ziren.

Florence Griffith atleta, esaterako, ederto makillatuta agertu zen Tokioko Joko Olinpikoetako pistan, koloretako azkazal luze-luzeak zituela eta kapeladun mailot deigarri-deigarria soinean. Hala jantzita ere, hainbat domina eskuratu eta zenbait errekor ondu zituen.

Ikusi dugun moduan, emakumezkoen "ni korporal kirolaria" nabarmen aldatu da. Hori gizonen ereduaren eta arau estetikoaren artean kokatzen da.

Alde batetik, emakumezkoak gizonezkoen besteko eraginkortasunaz eta parte-hartze mailaz aritzen dira, ia-ia proba eta kirol guztietan. Emakumezkoak, bestalde, beren rol sozialaren nortasun-zeinu estetikoari eusten saiatzen dira.

Laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera, kirola produktu komertzial bihurtzen hasi zen. Gainera, mendebaldeko kulturetan, emakumeak gero eta askeago dira. Horregatik guztiagatik, hamaika produktuk emakumezko kirolariak hautatu zituzten beren publizitate-kanpainen iruditzat. Fenomeno horri esker, emakumezko kirolarien gorputza erotizatu egin zen, eta, behin ere, emakumezkoen estereotipo tradizionala indartu. Irudi estetiko zaindua duten zenbait kirolaririk milioi askoko kontratuak sinatu zituzten hainbat motatako produktuak iragartzeko. Produktu horiek ezagutzera emateko, halaber, aipatutako emakumezkoen kirol-irudiaz gain, kirolarien estereotipo hiperfemeninoa ere nabarmentzen zen. Horrenbestez, kirolariak emakumezkoen berezko atributuak nabarmentzen eta agerian uzten zituzten arropak janzten hasi ziren, enpresen atentzioa deitu eta beren produktuen irudi bilakatzeko.

Une horretan emakumezko kirolarien identitate berria agertu zela esan genezake. Eboluzio horretan, kirola egiten duten emakumezkoen gorputzen ereduak daude. Alde batetik, eredu maskulinoa dago: sendoa, askea, lehiakorra, gizonezkoen parekide izateko gai dena eta gizonezkoen pareko izatera hel daitekeena. Gizarteak, gizonezkoak barne, ez du onartzen emakumezkoen eredu hori. Horren erakusle da, hain zuzen, emakumezkoek egindako kirolak gizartean duen garrantzi xumea (ez da ikusten, ez da irakurtzen, ez da entzuten). Adituen arabera, emakume kirolarienganako isiltasun edo deuseztasun horrek erregulatu egiten ditu emakumezkoek kirol-kontuetan egin dituzten gehiegikeriak. Egoera horrek lekuz kanpo uzten ditu emakume kirolariak: ez daude ez gizonezkoen multzoan ezta emakumezkoen multzoan ere.

Egun, bada emakume kirolarien gaineko beste ikuspegi bat: gauza guztien gaitetik, emakume kirolariak emakumezko femenino moduan ikustea. Horren adibide da aldizkariak nola hitz egiten duten emakume kirolariek. Aldizkarien ikuspegia, bidenabar, bat dator emakumezkoen estereotipo klasikoarekin.

Kirol-aldizkariak dira, zalantzarik gabe, emakume kirolarien gorputzaz gehien mintzo direnak. Aldizkari horietan, argi ikus daiteke gizonetzkoek zein irudi duten emakume horiei buruz.

Oraindik orain, egungo emakume kirolariaren identitatea eraiki gabe dago. Agian, emakumezkoek beren kirolari-identitate propioa definituko dute.

6. *Kirola: emakumezkoen
eta gizonetzkoen
arteko berdintasun-
ereduen sortzaile
edo birsortzaile*

Kirola balio aseptikoa da. Hori dela eta, eremu pertsonalean, sozialean, ekonomikoan eta politikoan hainbat helburu betetzeko balia daiteke. Ondorioz, tresna horrek gizarte-ereduak nahiz eredu pertsonalak sortzeko eta birsortzeko balio dezake. Helburua bat ala beste izan, kirolaren eragina bata ala bestea izango da; eredu ezberdinak hautatuko dira; eredu horiek helarazten dituzten mezuak ezberdinak izango dira, eta eragin kuantitatibo nahiz kualitatibo desberdina izango dute.

Egungo geure gizartean, eragin hori argi ikus dezakegu hedabideetan (telebista, irratia eta aldizkariak). Komunikabideak, kirolari dagokionez, genero-joera jakin batekoak dira, eta, kirolaren ikuspegitik, hainbat estereotipo sozial birsortzen eta indartzen dituzte. Alde batetik, askoz denbora gehiago eskaintzen zaie gizonetzkoen kirol-jarduerei emakumezkoenei baino; bai kirol-albistegietan eskaintitako denbora tarteari dagokionez bai kirol emanaldiei dagokienez ere. Bestetik, esan genezake eskaintzen den kirol-informazioa gizartean finkatutako genero-estereoti-

poen mende dagoela. Hala, emakume kirolarien kasuan, emakumeen ereduaren gertuko aldea erakusten da: estetikoak edota erotizatua. Gizonezkoen kasuan, aldiz, tradizioz gizonezkoek esleitu izan zaizkien balioak sustatu ohi dira.

Bestalde, Heziketa Fisikoak mutilen maskulinitatea goratzen du. Emakumezkoen kasuan, aitzitik, jarduera fisikoak eta kirola beren gorputzaren alderdi maskulinoarekin lotzen dira. BARBERO (2002).

Kirola gorputz gihartsuekin eta, bide batez, maskulinitatearekin lotu ohi da. Beraz, ikuspegi horrek emakume kirolarien kontra talka egiten du, eta gisa honetako esapide gutxiesgarriak sortzen dira: "mutila dirudi". Emakume horiek, antzaz, emakumezkoen estereotipoa hautsi egiten dute. PAECHTER, C. (2000). Haatik, kirola eta gorputz gihartsuak lotzea oso positiboa da gizonentzako, gizonezkoen estereotipoarekin lotutako ezaugarrietako bat gailentzen baita: indarra.

Kirol-jarduerak gizartearen estereotipoen isla dira. Kirolak, gizartearen estereotipoak birsortzeaz gain, gizarteak ezarritako rolak eta estereotipoak alda ditzakeen sozializazioa bultzatu dezake.

Guk uste dugu kirola tresna eraginkorra izan daitekeela gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasun pertsonala eta soziala lortzeko; izan daiteke, eta bada. Horrez gain, kirolak gizartea nabarmen eralda dezake. Kirolak, esaterako genero-estereotipoak alda ditzake.

Kirolak, bestalde, pertsonen nortasuna eraikitzen laguntzen du; eragin handia du guk geure buruarekin dugun harremanean; eragina du indartze fisikoaren eta osasunaren egoeran; gorputzaren gaineko ikuspegi funtzionala indartu dezake; auto-konfiantza sortzen du; pertsonen arteko harreman parekideak ahalbidetzen ditu, eta oldarkortasuna kontrolatzen laguntzen du.

Gizarte mailan, kirola masen fenomenoak dela esan dezakegu; taldeko ereduak eta eredu pertsonalak eskaintzen ditu; jarrerak eta iritziak sortzen ditu; interes komertzialak eta ekonomikoak sortzen ditu; jarrera politikoak pizten ditu; hierarkiak eta balioak ezartzeko orduan eragin handia du, eta gizartea demokratizatzen laguntzen du.

Beraz, kirolaren erabilera arautzeko politika positiboak sortu behar dira, bidezkoak diren eredu sozialak sor baititzake kirolak. Horrenbestez, aipatu berri dugun

helburua lortze aldera, ezinbestekoak diren estrategiak ezarri behar dituzte hezkuntza- nahiz kirol-administrazioek.

Genero-berdintasuna oinarritzkoa da garapenarentzat. Mundu zabalean, eskubi-de zibil, kultural, ekonomiko, politiko eta sozialetako bat da, gainera, berdintasuna. Hori dela eta, kirolean genero-politika bat garatu beharko genuke. Politika horrek bermatu egingo luke gizonek nahiz emakumeek kirolaz berdin gozatzeko duten aukera.

Bibliografia

BLANCHARD, K. eta A. CHESKA (1986) *Antropología del Deporte*. Bartzelona: Ediciones Bellaterra, S.A.

BROCK eta KLEIBER (1994) Narrative in Medicine: The Stories of Elite College Athletes' Career-Ending Injuries. *Qual Health Res.*1994; 4: 411-430

DURANTEZ, C. (1977). *Las olimpiadas griegas*. Madril: Kirolen Ordezkaritza Nazionala- Espainiako Batzorde Olinpikoa.

FASTING, K. eta beste batzuk. (2000) *Experiencia y significado del deporte y del ejercicio físico en la vida de las mujeres de algunos países europeos*. Madril: Emakumearen Erakundea. II: Human Kinetics.

EMAKUMEAREN ERAKUNDEA (2005) *Estudio sobre Actitudes y prácticas Deportivas de las Mujeres Españolas (1990-2005)*. Madril: Gizarte Gaien Ministerioa

KUNZLE (1992). ÁGORA aldizkaria, 1. zenbakia

LAGARDERA, F. (1999) "La lógica deportiva y las emociones. Sus implicaciones en la enseñanza", *APUNTS* aldizkaria, 56. zenbakia. Bartzelona, INEFC.

-
- MARTTY SILVENNOINEN (2001). *La educación Física y la salud*. Udako Ikastaroa. Valentziako Unibertsitatea.
- MEAD, G.H. (1968) *Espíritu, persona y sociedad*. Buenos Aires: Paidós.
- PAECHTER, C. (2000) *Power, bodies and identity: how different forms of physical education construct varying masculinities and feminities in schools*. Paper presented at the British Educational Research Association Annual Conference.
- SPARKES eta beste batzuk. (1990). Reflections on the socially constructed physical self. En K.R. Fox (Ed.): *The physical self: From motivation to well-being*. Champaign,
- VÁZQUEZ, B. (2001) Nuevos retos para el deporte y las mujeres en el siglo XXI.
- WIECHMAN, A. eta WILLIAMS, J. (1997). *Relation of Athletic Identity to Injury and Mood Disturbance*, en *Journal of Sport Behavior*, 20. zenbakia

BEATRIZ MORAL LEDESMA

**FARAPI Antropologia
Aplikatuko Aholkularia.
Donostia-San Sebastián**

*Errepidetako
ezbehar-tasa
eta maskulino-
tasuna*

Txosten hau Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Lurralde-Antolaketa Saileko Lur eta Garraio Zuzendaritzarako egindako ikerketa batean, “Errepidetako Ezbehar-Tasa eta Maskulinitasuna” izenekoan, oinarritu da.

Ikerketa horren xedea modu ausartian gidatzea eragiten duten faktore soziokulturalak zehaztea zen: maskulinitasunaren eta jokabide arriskutsuen arteko lotura. Ildo horretan, gizon gazteen ezbehar-tasa altuagoa azaltzeko arrazoiak ikusi/ulertu nahi ditugu.

Ikerketa hau egiteko, bi alderdi nagusi hartu ditugu oinarri gisa:

- estatistika datuak. Datu horiek argi eta garbi adierazten dute gizonen ezbehar-tasa altuagoa dutela (bereziki gazteek);
- maskulinitasunari buruzko ikerketak. Ikerketa horien bitartez, arriskuaren eta maskulinitasunaren arteko harremana azter dezakegu.


Emakume eta gizonen errepedean duten jokabideen arteko ezberdintasunen ikerketa bat izanik, lehenik eta behin, zerbait argitu nahi dugu jarraian aztertuko dugunari buruz, aurrerago txosten honi buruzko “gehiegizko interpretaziorik” egin ez dadin. Argi eta garbi utzi nahi dugu, hemen aztertuko dugun jokaera gizon batzuen delat soilik, ez gizon guztien. Baina, identifikazio hori eredu nagusian dago oinarrituta. Gizon-eredu hori orokorrean onartu eta hedatuta dago. Ondorioz, errepidetan arrisku-egoerak sortzen dira, eta egoera horiek ez dute larritasunaren araberako erreakziorik sortzen, gizonen jokabide “naturalizat” jotzen denez, ez baitute atentziorik ematen. Eta eredu hori da, hain zuzen ere, hemen aztertuko duguna. Gainera, gizon guztiak modu ausartegian gidatu ez arren, egia da gidari ausartegi guztiak gizonen artean direla, eta horregatik, gai horri buruzko galdera batzuk proposatu behar ditugu.

1. *Estatistika-datu batzuk*


Ondoko grafiko hauetan emakumeen eta gizonen ezbehar-tasa ageri da, errepedekoa (ezkerreko zutabea) eta hirikoa (eskuineko zutabea). Datuak 2003. urte-

koak dira, eta emakumeen nahiz gizonen gida-baimenen kopuru osoa hartuta kalkulatu dira.


8. grafikoa: Biktimadun errepede-istripuetan inplikaturako ziklomotor-gidariak, sexuaren arabera, sexu eta adina bakoitzeko gidabaime-kopuru osoan ponderatutako datuak, 2003 (DGTren datuetan oinarrituta, taldeak berak egindako estatistikak)




10. grafikoa: Biktimadun errepede-istripuetan inplikaturako motor-gidariak, sexuaren arabera, sexu eta adina bakoitzeko gidabaime-kopuru osoan ponderatutako datuak, 2003 (DGTren datuetan oinarrituta, taldeak berak egindako estatistikak)




12. grafikoa: Biktimadun errepede-istripuetan inplikaturako auto-gidariak, sexuaren arabera, sexu eta adina bakoitzeko gidabaime-kopuru osoan ponderatutako datuak, 2003 (DGTren datuetan oinarrituta, taldeak berak egindako estatistikak)




14. grafikoa: Hiri barneko biktimadun errepide-istripuetan inplikaturako ziklomotor-gidariak, sexua-ren arabera, sexu eta adina bakoitzeko gidabaime-kopuru osoan ponderaturako datuak, 2003 (DGTren datuetan oinarrituta, taldeak berak egindako estatistikak)



16. grafikoa: Hiri barneko biktimadun errepide-istripuetan inplikaturako motor-gidariak, sexua-ren arabera, sexu eta adina bakoitzeko gidabaime-kopuru osoan ponderaturako datuak, 2003 (DGTren datuetan oinarrituta, taldeak berak egindako estatistikak)



18. grafikoa: Hiri barneko biktimadun errepide-istripuetan inplikaturako auto-gidariak, sexua-ren arabera, sexu eta adina bakoitzeko gidabaime-kopuru osoan ponderaturako datuak, 2003 (DGTren datuetan oinarrituta, taldeak berak egindako estatistikak)



Kasu guztietan, hiriko motozikleta gidarien kasuan ez ezik, argi dago gizonen portzentajea askoz ere handiagoa dela, bereziki gazteena. Kontuan hartu behar da, batez beste, gizonek emakumeek baino kilometro gehiago gidatzen dutela. Hala ere, datu horrek ez ditu aipatu berri ditugun proportzioak baliogabetzen, bestela, ezberdintasun hori adin guztietan agertuko bailitzateke. Beraz, grafikoa guztietan, gizon gazteen mailan ageri den igoera horrek txosten honetan aztertuko dugun gizon-ereduari dagokio.

Identitate maskulinoaren eraketa

Gure lana soziobiologia eta antzeko zientzien irizpideetan oinarrituko bagenu, maskulinitasunaren eta errepidetako ezbehar-tasaren arteko harremana azalpen eboluzionista baten bidez arrazoituko genuke (hau da, eboluzioaren teorian oinarrituko litzateke, eta teorian horren arabera, gorputzak biologikoki ingurunera egokitzen dira). Azkenik, teoria horren arabera, gizon gazteek errepidetan ezbehar-tasa handiagoa izateko funtsezko arrazoa testosterona dela esango genuke, gehienetan agresibitatearekin lotzen den hormona. Beraz, teoria horren arabera, aukera edo irtenbide bakarra gazteak errepidetan hiltzen uztea da.

Baina gure proposamenak ez dauka irizpide horrekin zerikusi handirik. Guretzat, oinarritzko ideia da gizonen eta emakumeen izaera (haien gorputzak, identitateak, jokabideak eta sexualitatea) eta kultura lotuta daudela. Ez dugu uste gizonen testosteronaren edo beste ezaugarri biologiko baten ondorioz errepide-istripu gehiago dituztenik. Aitzitik, gure ustez, gizonen errepidean duten jokabide oldarkorra eta arriskutsuak zerikusi handiagoa dute gizonen berriarazko balore kultural jakin batzuekin. Horrez gain, gizon gazteek biologikoki alde aurretiko eraso-jarrera izango balute, orduan, zergatik ez dira gidari gehienak errepidean hiltzen?

Hori argi utzi ondoren, eta gai horri buruzko bibliografia aztertu eta gero, garrantzitsua iruditzen zaigu gure lanaren oinarriak azaltzea, egungo genero-ikerketen eta teoria feministaren arabera egindakoa baita. Ikuspuntu horren arabera:

- Adimen-gaitasunari, izaerari, trebetasunei edo beste ezaugarrirei dagokienez, sexu bereko pertsonen arteko ezberdintasunak kontuan hartzen baditugu, sexuen arteko ezberdintasunek ez dute garrantzirik. Hala ere, emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak ez dira nahikoa indarrean dauden ezberdintasun sozialak justifikatzeko, ezta sexuen arteko ezberdintasunei buruz dau-

den sinesmenak frogatzeko ere (esaterako, gidatzeko trebetasuna). Paradoxa bada ere, sexuen arteko berdintasunak bilatu beharrean, sexuen arteko ezberdintasunak azpimarratzen dira.

- Historian zehar, mundu osoko kulturetan egon diren antolaketa sozial ezberdinek argi eta garbi uzten dute, biologiak gizartea baldintzatu dezakeela, baina ezer ez duela behin betiko zehazten.
- Gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun biologikoak oso era nabarmenean jarri dira zalantzan, ezberdintasun horiek erlatibizatzen dituzten ikerketak egin baitira (sexu-organoen arteko aldeak, burmuinekoak, hormonak eta guruinetakoak) (ikus Grosz, 1994; eta Fausto-Sterling, 2000).
- Azkenik, azpimarratu nahi dugu, jokabide oldarkor jakin batzuk justifikatzeko testosteronaren teoria erabiliko bagenu ere (modu arriskutsuan gidatzea, adibidez), testosteronak pertsona bakoitzean oso ondorio ezberdinak sortzen dituela, eta ez duela zertan oldarkortasuna areagotu behar (batzuetan arreta handitu dezake, bestetan, lasaitasuna edo arreta areagotzen ditu (1)).

Hala eta guztiz ere, badakigu gizakien jokaera ez dela kulturaren bitartez bakarrik azaltzen, eta gorputzak (hau da, elementu biologikoek) ere paper garrantzitsua duela. Ildo horretan, gaur egungo joerekin bat gatoz. Ikuspuntu-joera horien arabera, gorputz biologikoaren eta kulturaren artean harreman estua dago, eta gure ustez, ikuspuntu hori da interesgarriena, gai horri buruz egindako ikerketetan nagusiena baita.

Biologiaren eta kulturaren arteko elkarreraginak aldagarritasun-tarte handia dauka, gizonaren izaera, gizonen ezaugarri zehatzak, haien jokaerak (edo ustezkoak behintzat) oso aldakorrek baitira, bai kulturaren, momentu historikoaren edo klase sozialaren arabera. Maskulinitasunaren definizio garrantzitsu eta ukaezina, funts natural, biologiko eta ukaezinean oinarritutakoa, aurkitzeko, momentu historiko zehatz bateko fenomeno sozial bat hartu behar da kontuan.

(1) Bordo, 1999. Testosteronaren eraginaren erlatibizazio hori interesgarria da, askotan agresibitatearekin ia zuzenean lotzen baita.

Laburbilduz: gure ustez, maskulinitasuna ez da gizonen gorputzaren ezaugarri biologikoetan oinarritzen, eta askoz ere egokiagoa da azterketa soziokulturala egitea. Gure iritziz, gizonek errepidean duten jarrera oldarkorra identitate maskulinoari lotutako sinesmen eta balore sozialei lotuta egon daiteke (hau da, gizon baten izaera zehazten duten elementuekin dauka zerikusia).

3.

Maskulinitasunak

Azken hamarkadetan, generoari buruzko ikerketetan, eta bereziki, maskulinitasunei buruzkoetan, aurrerakuntza handiak egin dira, eta horri esker, gizarte-egiturak, genero arteko harremanak eta genero-identitateak (pertsona bakoitzaren izaeraren funtsa) askoz ere hobeto ezagutzen ditugu.

Ikerketa honetan, maskulinitasunaren ikerketen esparruan orokorrean adostutako elementuak hartu ditugu oinarritzat, identitate maskulinoa eratzeko prozesu amai-gabea ulertzeko gakoak eman baitizkigute (2). Ez dugu xehetasun handirik eman-gu, baina gako horiek oso era laburrean azalduko ditugu:

- Ez dago maskulinitasun eredu bat soilik, hainbat eredu daude. Hala ere, maskulinitasun hegemoniko bat dago (ereduzkoa, orokorrean onartutakoa)
- Identitate maskulinoa gorputzaren egintza fisikoen bidez sortu eta adierazten da (umetatik mina jasatea, "gogorrago" bihurtzeko prozesuak, keinuak, gorputz-jarrerak, jarduera fisikoa eta abar).
- Gizona izatea boterea edukitzea da, eta beraz, maskulinitasuna menderapenaren *performance* bihurtzen da.
- Askotan, indarkeria gizontasunaren ezaugarri nabarmenena, eta batez ere, eskuraerazena da. Indarkeria arriskua, erronka eta antzeko kontzeptuekin lotzen da.

(2) Breines, Connell, eta Eide, [2000]; Connell [1995]; Conway-Long [1994]; Kaufman [1994]; Kimmel (1994); Welzer-Lang [2000] hartzen ditugu oinarritzat.

- Beraz, funtsean behintzat, gizon izatea emakume ez izatea da. Hau da, nolakoa izan behar den zehaztu ordeztu, nolakoa izan behar ez den azpimarratzen da (gizontasun-ezaugarriak ez duten gizonak emakumetzat edo horien balio-kide sinbolikotzat jotzen dira: homosexualtzat.)
- Identitate maskulinoak etengabeko adierazpenak behar ditu. Beste gizonen onarpena behar du, eta ondorioz, etengabeko azterketa bat gaitu behar da, ekintza gogoangarriak egin behar dira, arriskuan jartzea (Marquesek "laguntaldeko terrorismo" gisa definitzen duena [1997]; horren adibide garbia da "Rebel without a cause", gazteleraz rebelde sin causa, filma).

Hori guztia aipatu ondoren, osasunaren ikuspegitik, gizontasunaren eta arriskua-
ren arteko harremana aztertuko dugu.

4.

Maskulinitasuna, osasuna eta arriskua


Identitate maskulinoa eratzean, arriskua oso garrantzitsua da. Hainbat egoeratan arriskuan egotea, gizon askok beren gizontasuna frogatu eta berresteko erabiltzen duten modua da. Arrisku horietako bat modu arriskutsuan gidatzea da.

Gai hori ikuspuntu ezberdinen arabera aztertu daiteke, eta guk osasunarena aukeratu dugu. Jokabide arriskutsuak (bakoitzaren eta gainontzekoen) osasunari kalte egiten dioten arazoak dira, eta osasuna (zehazki) nahiz gorputza (orokorrean) ulertzeko modu jakin baten arabera dira. Beraz, ez da harriztekoa Osasunaren Mundu Erakundea gizonen ezbehar-tasa (ez errepidetan soilik) izugarri areagotu izanagatik kezkatzea, eta argitaratutako txosten batean "maskulinitasuna osasunarentzat kaltegarria izan daitekeela" esatea.

Osasunaren Mundu Erakundea (OME) gai horrekin kezkatuta dago. Erakunde horren arabera, nahigabe egindako zaurien ondorioz gertatutako heriotza-tasa askoz ere handiagoa da gizonetan emakumeetan baino (ikus 1. grafikoa), eta errepide-istripuen kasuan, gizon-kopuruak emakume-kopurua ia hirukoizten du

(2,7). Halaber, trafiko-istripuetan, gizon eta mutiko gehiago daude (esaterako, gidari edo oinezko ausartegiak).

1. Grafikoa: nahi gabe sortutako zaurien ondorioz hildakoak



Iturria: OME [1999] Injury. A leading cause of the global burden of disease, Geneva, OME).

Zalantzarik gabe, jokabide arriskutsu askok gorputza ulertzeko moduari daude lotuta: pertsona bat ahula dela gehiago konturatzen den heinean, ez da arrisku fisikoetan horrenbeste jarriko, gehiago zainduko da; eta alderantziz. Gizonek istripu asko izaten dituzte, eta istripu gehienak jokabide arriskutsuaren ondorio dira, arriskua onartzen baitute eta ez baitiote beldurrik min eta zauriei. Gure ustez, ikuspuntu hori gizonen gorputza zauriezintzat jotzen delako sortzen da (gizonen gorputza *horrelakoa da*, edo horrelakoa *izan behar da*). Ikuspuntu hori gizon askoren jokabidean, baita gizarte-antolaketa osoan ere, islatzen da. Beraz, horren errua ez diegu gizoni bakarrik egotzi behar (3).

(3) Osasuna arriskuan jartzen duten jokabideen artean, alkohol eta droga gehiegi kontsumitzea, jarrera oldarkorrak (borrokak) eta ausartegi gidatzea daude, besteak beste.

Errepidetako ezbeharrak ohitura horien eta osasunerako jarrera kaltegarrien ondorio dira (eta gai honetan, bai bakoitzaren nahi gainontzekoen osasunerako kaltegarria ere: errepidetan emakume gazteak baino gizon gazte gehiago hiltzen dira, baina beste pertsonak askoz ere hein handiagoan hiltzen dituzte; Connell: 1995): modu arriskutsuan gidatzea.

Emakumeek eta gizonak osasunarekiko dituzten ohitura eta jarrerei dagokienez, Courtenayren lana oso interesgarria da. Egile horrek gizonen osasuna generoaren ikuspuntuaren arabera aztertzen du. Era horretan, gizonak bizitza motzagoa zergatik duten azaltzeko, azalpen soziokulturala ematen du, orain arte nagusitu diren arrazoi biologikoak zalantzan jarritz. Ikuspuntu "naturalaren" arabera, gizonak bizitza motzagoa izatea saihestezina da, eta beraz, eztabaidaezina (Courtenay, 2000: 1.387); ikuspuntu soziokulturalaren arabera, berriz, ideia hori eztabaidagarria da, eta ondorioz, esku-hartzea sustatzen hasteko aukera dago.

Genero-identitatea hainbat ohituen arabera eta horiek egiteko moduen arabera eratu eta berreratzen da. Ohitura horien artean aipagarriak dira bai janzkera edota sexu-ohiturak, keinuak, lanbide-aukeraketa eta beste hainbat zaletasun ere. Gizonen eta emakumeen ereduak ohitura batzuei edo besteei egozten zaizkie. Ondorioz, askotan entzuten dugu gizon jakin bat "ez dela benetako gizona" edo emakume jakin bat "ez dela benetako emakumea" bere sexuan berezkoak ez diren jarduerak egiten ari delako, edo jarduera horiek ez dituelako modu jakin batean egiten. Genero-identitatea osasunean islatu eta adierazten da. Modu horretan, Courtenayren ustez, "osasunari lotutako ohiturak generoa osatzeko modu bat dira" (4)

Osasunarekin zerikusia duten jarreretan, gero eta frogia gehiago ditugu, eta frogia horien arabera, emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasun nagusienetako bat gizonak osasuna askoz ere gehiago arriskuan jartzen dutela da (Courtenay, 2000: 1.836). Arriskuak "gizon izateari" lotutakoak dira, hau da, boterea dutela

(4) "The doing of health is a form of doing gender" originalean (itzulpena guk egindakoa da).

frogatzeko jarrera eta testuinguruekin lotutakoak: izan ere, gizon askok, botere-ezaugarri horiek eskuratzeko, beren burua arriskuan jartzen dute, askotan, inolako beharrik gabe.

Horrelako jarrerak gizonen gorputza zauriezintzat jotzen delako agertzen dira. Ideia hori premiak ezeztatzeko ohituren bidez indartzen da; hau da, mina eta gorputzaren zaurikortasuna ukatuz eta indartsuaren itxurak eginez (Courtenay, 2000: 1.389). Jokabide eta ohitura horien bidez, sinesmen kultural jakin batzuk finkatu egiten dira. Sinesmen horien arabera, gizonak emakumeak baino boteretsuagoak eta indartsuagoak dira, gizonen gorputza emakumeena baino eraginkorragoa da, eta beraz, emakumeak baino hobekak dira. Ondorioz, laguntza eskatzea eta gorputza zaintzea emakumeen ohiturak dira, eta gizon indartsuenentzat, osasunak eta segurtasunak ez dute batere garrantzirik (Courtenay, 2000: 1.389). Ildo horretan, askotan, maskulinitasuna jarrera osasungarrien kontrako ikuspegi gisa ulertu ohi da (Courtenay, 2000: 1.389), premiak eta zainketak ez baitira gizonentzat beharrezko ikusten.

Osasunarentzako jokaera kaltegarri horien artean, arrisku egoerak onartu edo bilatzen dira, eta besteak beste, ekintza horiek gizonen zauriezintasuna azpimarratzen dute. Izan ere, gizon batek, modu arriskutsuan gidatuz, kirol arriskutsuak eginez, jokabide horiek edota horien ondorioak (zauriak) domina gisa jendaurrean erakutsiz, maskulinitasun maila neurtu dezake. Horrez gain, aipatu behar dugu, jokabide arriskutsu horiek askotan sozialki zigortuta egoten direla. Beraz, gizartearen indarra funtsezkoa da jokabide arriskutsuak ez desagerrarazteko, bereziki errepidekoak, eta batez ere indar hori beste gizonak ematen dutenean. Beste arazo bat da jarrera eta ohitura osasungarriak emakumeei dagozkiela uste dela. Horregatik, gizon askok, jarrera osasungarriak izateak emakumeago bihurtzen dituztela uste dute, eta lehen ikusi dugun bezala, horri aurre egin behar diote, gizona izateak batez ere emakume ez izatea (edo haren edozein baliokide: haur edo homosexual) esan nahi baitu. Guretzat gai interesgarria dena; hau da, modu zuhurrean gidatzea, gizon askok alde batera uzten dituzten jokabideetako bat da, emakume bihurtzen dituztela uste baitute. Gizon gazteek emakume ez direla

frogatu behar dute "eta horretarako baliabide kultural bat gidatzeko jokaera da" (5).

Adierazpen horrek (emakumeen gizonen baino era zuhurragoan gidatzen dutela) errealitatea islatzen duen ala ez alde batera utzita, egia esan, zuhur gidatzea emakumeen gidatzeko modua denez, jokabide horrek arbuioa sor dezake gizonen artean. Ikerketa honetako landa-lanean egindako elkarrizketetan ondorioztatzen da, askotan, emakumeek gidatzerako orduan "gehiegizko" zuhurtzia dutela interpretatzen dela, eta zuhurtasuna hori gaizki gidatzen dutelako daukatela. Halaber, emakumeek ere zuhurtzia hori beldur edo baldartasunarekin lotzen duela ere ikusiko dugu.

Lehen aipatu dugun bezala, gizonen hainbat baliabide erabiltzen dituzte identitate maskulinoa sortu eta adierazteko. Arazo nagusia da indarkeria eta nagusitasun fisikoa oso baliabide eskuragarriak direla, jokabide osasungarriak ukatzea bezala (beharrezkoak ez diren arriskuetan jarriz eta ausardia erakutsiz), eta botere-ezaugarri eskuragarriagoak, esaterako aberastasuna, karrera profesionala eta bestelako estatus-markak ez bezala. Arriskua (indarkeria bezala) ez da alde batera uzten (hori izango litzateke logikoena (6)), baizik eta gizontasuna berresteko baliabide egokia delako bilatzen da, baita oso eskuragarria delako eta emaitza "bermatuak" dituelako: zoritxarrez, badirudi bere bizitza arriskuan jartzen duen gizon baten gizontasuna ezin dela zalantzan jarri. Jokabide oldarkorraren ondorioz, hain zuzen ere, gizon askorentzat jarduera jakin batzuk ez dira batere erakargarriak: modu arriskutsuan gidatzea gogortasuna, ausardia, kontrola, indarra eta bestelako ezaugarriak frogatzeko modu erraza da.

Argi dago maskulinitasun guztiek ez dituztela jokabide horiek onartzen. Egia esan, Courtenayk aipatzen duen bezala, osasunari kalte gehien egiten dioten

(5) R. Conellek lan honetarako egin genion elkarrizketan.

(6) Argumentu eboluzionistak erabiliko bagenitu, bidezkoa izango litzateke esatea biziraupena gainontzeko guztiaren gaintik dagoen sena dela esatea; baina, orainoan, badirudi gizontasuna bizirik jarraitzeko nahiaren gaintik dagoela.

maskulinitasunak eredu hedatuenak dira, beren maskulinitasuna era ezberdina-
go batean adierazten duten gizonenak ez bezala (Courtenay, 2000: 1.392).
Ideia horretan bat dator Javier Rocarekin, Valentziako Unibertsitateko Instituto
Universitario de Tráfico y Seguridad Vialeko teknikariarekin. Izan ere, Javier Roca
ikerketa honetarako elkarrizketatu genuen, eta haren hitzetan “pertsonek bizi eta
pentsatzen duten moduaren arabera gidatzen dute. Ondorioz, rol maskulino
indartsu hori onartuta daukaten gizonak, beren autoa gidatzean, baita autoa eros-
tean ere, rol hori nolabait adieraziko dute. Horren rol maskulino tradizionala ez
duten gizonak, berriz, gidatzean oso jarrera ezberdina izango dute”.

Aipatu berri dugun guztia kontuan hartuta, bi ideia azpimarratu behar ditugu: 1)
jokabide osasuntsuak dituzten gizonak (emakumeagoak direla uste da) eta egoe-
ra arriskutsuak (maskulinitzat jotzen direnak) onartzen ez dituzten gizonak beste
gizon batzuen mendean aurki daitezke, beren gizontasuna zalantzan dagoela
ikusten baitute (Courtenay, 2000: 1.390); eta 2) errepidea da gizon askok beren
gizontasuna berresteko erabiltzen duten eszenatokia, betiere, jokabide arriskut-
suen bidez. Jarraian, gizontasuna frogatzeko, errepidea horren egokia nola
bihurtzen duten ezaugarri batzuk aipatuko ditugu.

5.

Autoak, motorrak eta gizonak

Autoak eta motoak bat-egite puntu garrantzitsua dira, gizontasunaren ezaugarri
garrantzitsuak biltzen baitituzte: Teknologia, arriskua, oldarkortasuna, nabarmen-
keria eta abar. Genero-identitatea zehazteko faktoreak dira, identitate maskulino-
aren kasuan, modu positiboan; eta emakumeen kasuan, espero den bezala, modu
negatiboan.

Teknologiari eta generoari dagokionez, Judith Wajcmanek oso ekarpen interes-
garriak egin ditu. Wajcmanen arabera, teknologia ez da elementu neutroa, pro-

duktu kultural bat baizik, eta gainera, ezagutza-mota bati, ohitura sozial batzuei eta balore jakin batzuei lotuta dago.

Teknologia beti egon da maskulinitasunari oso lotuta, eta feminitatearen aurka. Izan ere, gizona arrazionala eta indartsua dela uste da (teknologiak erabiltzeko batzuetan beharrezkoak diren ezaugarriak). Ideia hori argi eta garbi islatzen da lan-merkatuan, gizonak indartsuagoak eta eskuekin abilagoak direla uste da, baita teknikoki trebakuntza hobea dutela ere. Emakumeak, berriz, fisikoki eta teknikoki ezgaiak direla uste da (eta hain zuzen ere, horregatik, emakumeak gidari txarrak direla sustatzen da).

Teknologia eta generoari dagokionez, gizonentzako harreman positiboa eta emakumeentzako harreman negatiboa izatea horrenbesteraino dago errotuta, non genero-identitatearen funtsezko elementu bihurtu da. Abilezia teknikorik ez izatea, Wajcmanen ustez, feminitatearen berezitasun bihurtu da, abilezia teknikoa maskulinitasunaren berezitasuna bihurtu den era berean. Ondorioz, abilezia tekniko eta mekanikoa maskulinitasuna neurtzeko modu bihurtu da.

Errepideen eta autoen mundua bertako makinek; hau da, autoek eta motorrek zehazten dute, eta beste makina batzuek bezala, teknologiarekiko genero-ezberdintasuna agerian jartzeko balio dute. Makinekin harreman negatiboa dutenez, emakumeak errepidetatik kanpo uzten dira, eta ondorioz, mundu hori gizonen esparrua da soilik.

Makina eta gizonen arteko lotura hori Espainiako Estatuan gazteek duten kontsumoan islatzen da. Felix Ortegaren arabera (1993), 1990eko hamarkada erdialdera, Espainiako mutil gazteek gehien kontsumitzen zituzten objektuak, autoekin, motorrekin edo abiadurarekin zuten zerikusia (kontsumoaren %90. Emakume gazteen artean, berriz %10 osatzen zuen kontsumo horrek).

Gainontzekoen onarpena (bereziki beste gizonena) funtsezkoa da gizontasuna berresteko. Horrek esan nahi du, lehen aipatu dugun bezala, erakuskeria-dosia behar dela. Horretarako, gizontasuna adierazpen publikoen bidez berresten da, bereziki, boterean ez dauden gizonen kasuan, besteak beste, gazteen kasuan. Ildo horretan, errepidea, oso eskuragarria izateaz gain, eszenatoki ezin hobea da. Baina errepidea, zertarako da eszenatoki?

Jose Maria Espadak (s.d) egindako ikerketa baten arabera, motozaleen munduko erakuskeria indar-elementu gisa ulertzen da. Autore horren arabera "motozaleen erakuskeriari eta gidatzean duten trebetasunari esker, motorrak ibilgailuak baino zerbait gehiago bihurtzen dira. Motorrek independentzia, arriskua, ausardia, estatusa eta boterea islatzen dituzte. Mundu sinboliko hori bakartasunari, heroitasunari eta oldarkortasunari dago lotuta (Espada, s.d: 9). Izan ere, errepidea horrelako baloreak adierazteko; hau da, oldarkortasuna eta arriskua adierazteko leku ezin hobea da. Horrez gain, autoak edo motorrak boterearekin zerikusia duten baloreak islatzen ditu, eta ondorioz, maskulinitasunaren eredu hegemonikoa islatzen du: ospea, potentzia, indarra, bakartasuna eta abar, publizitate-agentziek behar bezala ustiatzen dutena.

Auto eta motoen iragarkietan, gizon-eredu jakin bat osatzen duten faktoreak indartzen dituen mitologia oso boteretsua sustatzen da. Beraz, autoen iragarkietan arreta berezia jarri behar da, maskulinitasunari eta gidatzeari lotutako kontzeptu okerrak erabiltzen diren ikusteko, eta ondorioz, errepidetan jokabide arrakatsuak sustatzen ote diren ikusteko.

6.

Arriskuaren alderdi batzuk

Arriskua ez bezala (zoriaren eta kanpo-baldintzen arabera), galzoria erabaki kontzienteen ondorioa da. "erabaki edo jokabide baten arrakasta-aukerak islatzen dituen zalantza-neurria" dela esan daiteke Sánchez Martín, 2003: 256). Hau da, zerbait frogatu eta emaitza jakin bat lortuko dela aurreikustea. Giddensek, galzoria "emaitzak bermatzeko baliabide gisa, etorkizuna kolonizatze modu gisa" ulertzen du (Giddens, 1995: 171).

Galzoriak kontzienteki bilatzea bakoitzaren ahalmenetan daukagun konfiantza probatzea da, kontrola gauzatzeko modu bat, bereziki identitate maskulinoa eratzeari eragin handia duena.

Arrisku-kiroletan bezala, modu arriskutsuan gidatzea muturreko egoerak probatzeko modu bat da, eta Sanchez Martinek kirol horiei buruz adierazi zuen bezala "kirolariak egoera horri aurre egiteko, ahalmen guztiak probatzen dituzten arrisku eta galzoriei aurre egiteko, eta ahalik eta kontrol emozional handiena izateko" (Sánchez Martín, 2003: 267).

Ildo horretan, Sánchez Martínen proposamena aipatuko dugu; hau da, galzoria nork bere buruaren aurka egitea, eta etengabe gainditu beharreko oztopoak gainditzea da (batez ere pertsonaren barneko oztopoak), eta zerikusi handia dauka pertsona horren indar, trebetasun, kontrol, erresistentzia eta oztopoak gainditzeko ahalmenarekin. Baldintza horien guztien ondorioz, galzoria erakargarria da gizon askorentzat, horri aurre egiteak sortzen duen plazerra "erronka bat irabazi ondoren eskuratzen dena bezalakoa baita" (Sánchez Martín 2003: 269). Zalantzarik gabe, galzoria oso faktore garrantzitsua da identitate maskulinoa finkatu eta adierazteko. Izan ere, identitate horrek etengabeko adierazpenak behar ditu bai bakoitzak bere buruarekin nahiz gainontzeko gizonekin.

Luis Boninoren arabera (maskulinitasunetan aditua, eta ikerketa honetarako elkarriketatu genuena), kontuan hartu behar da gizon gazteek etengabe gizon direla frogatzeko premia dutela, bai beren aurrean baita gainontzekoen aurrean ere. Beraz, Boninok bezala, modu arriskutsuan gidatzea sarbidapen-erritu gisa uler daiteke. "Gauza horietako asko errepidetan bertan ikusten ditugu. Gazte asko aurkako norabideko bidean sartzen dira, orpoz orpoko lasterketetan jolasten dute. Jokabide horiek lehiarekin dute zerikusia, baina beren ospea dago jokoan". Ospe edo balorazioa, gehienetan, gogortasun-prozesuei lotuta egon ohi da, eta prozesu horiek ezinbestekoak dira gizon "bihurtzeko". Horrez gain, beste arazo larri bat da, ez dela nahikoa horrelako frogak gainditzea. Izan ere, "gizonen" mailan mantendu beharra dago, eta horretarako, gizonen frogak gainditu behar dituzte behin eta berriz, edozein "ahulezia" adieraziz gero, aurretik frogatutako guztia ezetsita geratuko bailitzateke.

Galzoriari buruz kontuan eduki beharreko beste elementu bat haren hautematea da. Izan ere, ezbehar-tasei buruzko ikerketetan, elementu horrek sortzen du interes gehien. Gure ikerketa-ildoak beste esparru batzuk aztertzen ditu. Izan ere,

gure ustez, arriskua hautemateko modu ezberdinak daudela frogatu arren, gizon gazte askorentzat, garrantzitsuena ez da galzoria nola hautematen den, haren erakargarritasuna baizik. Gure ustez, irtenbidea ez da gazteen galzori horien benetako arriskua zein den ulertzea; hain zuzen ere, haientzat arriskua baita erakargarria.

Hala eta guztiz ere, beste elementu batean arreta jarri behar dugu: galzoria bakoitzaren gorputza zauriezina dela edo benetan dena baino indartsuagoa eta boteretsuagoa dela pentsatzeak sortzen duen arriskua gutxiestea. Rocak dio "jokabide ausartegiak edo arriskutsuak segurtasunari eta arriskuari buruzko uste ala ideia faltsuek sorrarazitakoak izan daitezke, edo arriskua gaizki hautemateagatik sortutakoak, besteak beste". Horrez gain, guk aipatu behar dugu jokabide ausartegi horiek bakoitzaren gaitasunak gaizki ulertzeagatik ere sor daitezkeela; hau da, benetan baino gaitasun gehiago dituztela pentsatzeagatik; eta Courtenayren arabera, akatsa hori askoz ere ohikoagoa da gizonen artean, gorputza maskulinoaren zauriezintasunari balio handiegia ematen baitaio.

7. *Lagunarte ezegokiak*

Gainontzeko gizonak baino gehiago (edo behintzat berdinak) direla frogatzeak gidatzeko moduan eragin handia du. Ildo horretan, baita ere ikusi dugu, bakarrik edo norbaitekin gidatzea (autoan norbaitekin batera joatea edo beste auto batzuekin batera taldean gidatzea) gidatzeko modua, eta ondorioz, arrisku-maila baldintzatzen duen faktore bat izan daitekeela.

Bakarrik edo lagun batekin gidatzeak ere gidatzeko modua baldintzatzen du. Gazteek beste gazte batzuekin batera gidatzen dutenean, jarrera ausartegiak edo arriskutsuak areagotu daitezke, gidatzean duten ausardia ala abilezia frogatu nahi izaten baitute.

Rocaren arabera "lagun-taldearekin gidatzea distrazio eta jarrera arriskutsuekin lotuagoa dago (besteak beste, abiadura handiagoa)" eta "lagun-taldeak bide-segurtasunerako kalteak ekar ditzake, bereziki ongi pasatzeko gidatzen badute".

Gizonentzat, gizontasuna berresteko, gainontzeko gizonen onspena izatea oso garrantzitsua da.

Izan ere, gazteen artean, lagunek istripu-tasetan duten eraginari buruzko ikerketa asko egin dira. AEBtan egindako ikerketa baten emaitzek (Williams, 2001) hori berresten dute. Ikerketa horretan, ibilgailuko bidaiari-kopuruaren arabera gidarien hilkortasun-tasa jaso zen. Ikerketa horren arabera, gizonezko bidaiari bat izatean, 1.000 istripuko heriotza-tasa ia bikoiztu egiten zen, gidaria gizon ala emakume izan. Ibilgailuan gizonezko bi bidaiari edo bi baino gehiago doazenean, portzentaje hori ia bikoiztu egiten zen (Chen eta l. 2000). Ingalaterran egindako beste ikerketa baten arabera, gizonezko bidaiariekin gidatzen duten gazteek (ustez, gizonek emakumeek baino gehiago), bakarrik baino modu arriskutsuagotan gidatzen dute; hau da, azkarrago gidatzen dute, eta bidegurutzetan ez dute horrenbeste denbora itxaroten (McKenna eta al. 1998).

Williamsen arabera, gidari gazteen ibilgailuetan bidaiari-kopurua mugatuko balitz, gauetan gidatzeari buruzko mugekin baino heriotza gehiago saihestuko lirateke, bereziki bi murrizketa horiek konbinatuko balira. Zelanda Berrian, adibidez, murrizketa-mota hori indarrean dago.

Beraz, puntu honeta Josep Vicent Marquesek asmatutako kontzeptu bat aipatuko dugu: kuadrilako terrorismoa. Gizon askok beren buruari eta gainontzekoei ekin-tza kaltegarriak eta/edo iraingarriak gauzatzeko egiten duten presioa da, era horretan beren gizontasuna frogatzeko eta gizon-taldera sartu edo bertatik ez ateratzeko. "Terrorismo" hori gizonek errepidetan duten jarreraren eta muturreko jarretan nahiz jarrera arriskutsuetan islatzen da.

8.

Epilogo

Txosten honetan ez diogu gizon gazteen gidatzeko moduari kritika soil bat egin nahi izan, bi zentzutan arazo horri buruz ohartarazi nahi izan dugu. Alde bate-tik, gure ustez funtsezkoa da istripu-tasei buruzko azterketetan generoaren aldagarria kontuan hartzea, errealitatea ulertzeko orduan informazio baliagarria ema-

ten baitigu, eta informazio hori ezinbestekoa baita prebentzio-neurriak hartzerako orduan. Sexuaren arabera bereizitako datuak aurkitzeko arazo handiak izan ditugu, eta horrelako datuek gure lana askoz ere gehiago zehazten lagunduko ligukete. Bestetik, txosten honek gure gizarteak gizonezko gazteekiko duen jarrrari eta haurrak hezi eta sozializatzen dituen moduari buruz ohartarazi nahi du, gizarteak bultzatzen baititu gazteak arriskua bilatzera, minaren aurka anestesia-tzera, zauriezintasuna, kontrola eta indarra adieraztera. Ildo horretan, indarkeriazko ekintza gehienetan gizon gehiago egoteak gure mutilak nola sozializatzen ditugun pentsarazi beharko liguke.

Gai hau jorratzerakoan daukagun arazo nagusia da fenomeno ikusezina dela, bi arrazoi direla-eta: egoera hala izatera ohituta gaude; eta beraz, ez gara arazoa hautemateko gai (indarkeriaren ondoriozko heriotza gehienak gizonezkoenak izaten dira, eta normala edo "naturala" iruditzen zaigu); eta halaber, indarkeria gizonen jarrera naturalaren barne dagoela jotzen da.

Izan ere, gizonek hiltzen jarraitzea horren normala iruditzen zaigu, non arriskuan bagaude, hau esango dugu: "lehenbizi emakumeak eta haurrak".

Bibliografía

- Bordo, S. (1999). *The Male Body. A new look at men in public and in private*, New York, Farrar, Strons and Giroux.
- Breines, I.; Connell, R.; eta Eide, I. (2000). *Male roles, masculinity and violence. A culture of peace perspective*, Par's, UNESCO.
- Chen, L.; Braver, E.R.; Baker, S.P.; eta Li, G. (2000) "Carrying passengers as a risk factor for crashes fatal to 16- and 17-years-old drivers". *Journal of American Medical Association*, 283:1578-82.
- Connell, R. (1995). *Masculinities*, Berkeley, University of California Press.
- Conway-Long, D. (1994). "Ethnographies and Masculinities", Brod and Kaufman (ed.), *Theorizing masculinities*, Thousand Oaks, Sage, 61-81 orr.
- Courtenay, W. H. (2000). "Constructions of masculinity and their influence on men's well-being: a theory of gender and health", *Social Science & Medicine* 50 (2000), 1.385-1.401 orr. [on-line ikusgai: <<http://www.elsevier.com/locate/soscimed/>>].
- Espada Calpe, J. M. (n.d.). *Hombres, motos y riesgo: androcentrismo y sexismo en el mundo de las motos*, [on-line ikusgai: <<http://www.telefonia.net/web2/sword/>>].
- Fausto-Sterling, A. (2000). *Sexing the body. Gender Politics and the construction of sexuality*, New York, Basic Books.
- Giddens, A. (1995). *Modernidad e identidad del yo. El yo en la sociedad en la Época contemporánea*, Península, Bartzelona.
- Grosz, E. (1994). *Volatile bodies: Towards a corporeal feminism*, Bloomington (Indiana), University Press.
- Kaufman, M. (1994). "Men, Feminism, and Men's Contradictory Experiences of Power", Brod and Kaufman (ed.), *Theorizing masculinities*, Thousand Oaks, Sage, 142-164 orr.

-
- Kimmel, M. S. (1994) "Masculinity as Homophobia: Fear, Shame, and Silence in the Construction of Gender Identity", Brod and Kaufman (ed.), *Theorizing masculinities*, Thousand Oaks, Sage 119-141 orr.
- Marqués, J. P. (1997). "Nueva identidad masculina o el olvido de toda identidad", *Archivos Hispanoamericanos de sexología*, n.^{1/4} 2, 143-154 orr.
- McKenna, A.P.; Waylen, A.E.; eta Burkes, M.E. (1998) *Male and female drivers: how diferente are they?* Berkshire, Erresuma Batua: The University of Reading Foundation for Road Safety Research.
- OME (1999) *Injury. A leading cause of the global burden of disease*, Geneva, OME
- Ortega, F. (1993). "Masculino y femenino en la identidad personal de la juventud española", Ortega, F. (comp.), *La flotante identidad sexual: la construcción del género en la vida cotidiana de la juventud*, Madril, Instituto de Investigaciones Feministas (UCM), Emakumearen Zuzendaritza Nagusia, Madrilgo Autonomia Erkidegoa.
- Sánchez Martín, R. (2003). "Los usos sociales del riesgo: el deporte de aventura como configurador de una ética de la contingencia", Medina, X.; eta Sánchez Martín, R., *Culturas en juego. Ensayos de antropología del deporte en España*, Icaria, Bartzelona.
- Wajcman, J. (1991). *Feminism confronts technology*, Pennsylvania, Pennsylvania University Press.
- Welzer-Lang, D. (2000). *Nouvelles approches des hommes et du masculin*, Toulouse, Press Universitaires du Mirail.
- Williams, A.F. (2001) *Teenage Passangers in Motor Vehicle Crashes: A summary of Current Research*. Insurance Institute for Highway Safety. Arlington, Va. <http://www.highwaysafety.org>

RICHARD DE VISSER
Psikologiako Saila.
Sussex-eko
Unibertsitatea.
Britainia Handia

Garzteak,

maskulinitasu-

na eta

alkohola:

ikerketa

kuantitatiboaren

hautemateak

1. Diapositiba

Gaur egun, alkoholaren kontsumoak gizartean eta osasunean dituen ondorioei buruzko kezka handia dago. (1) Epe motzera, alkohol gehiegi edatearen ondorioz, pertsonak pozoitu egin daitezke, istripu edo zauriak izateko aukerak areagotu egiten dira, baita indarkeria-ekintza baten biktima edo erantzule izateko aukerak ere.

Gehienetan, gazteen alkohol-kontsumoari arreta eman diogunean, noizbehinkako eta gehiegizko kontsumoa edo mozkorraldiak aztertu izan ditugu gehienbat. Mutil gazteak ez dira alkohol gehiegi edaten duten bakarrak, baina bai Erresuma Batuan eta mendebaldeko beste herrialdetan ere, gizon helduak dira mozkortzeko probabilitate gehiena dutenak. (2-4) Hori dela eta, gaur egun mutil gazteen arteko gehiegizko alkohol-kontsumoa ulertzeko, beste mutil batzuek modu zentzudunean edan edo edaten ez duten bitartean, mutil gazte jakin batek alkohol gehiegi zergatik edaten duen ulertzea beharrezkoa da. Informazio horri esker, alkohol-kontsumoak sortutako kalteak gutxitzeko ekintzak sustatzea erraztuko litzateke.

2. Diapositiba

Faktore demografiko eta sozial nahiz jokabide-baldintza jakin batzuek alkohol gehiegi edan ondorengo jarrera baldintzatzen dute. Adibidez, Erresuma Batuko gazte zuriak asiar gazteek baino aukera gehiago izaten dute alkohola noizean behin edo aldizka edateko. (5) Alkohol-kontsumoa ezberdina da etnia eta erlijioaren arabera. Hala ere, bi baldintza horien elkarreragina funtsezkoa da: gutxiengo etnikoetan, gazteek, lagunak badituzte, alkohola edateko aukera gehiago izango dute, bai beren taldean bertan edo handik kanpo ere.

Orokorrean, alkohol gehiegi edatea estatus sozioekonomiko apaleko populazioari lotuta egon ohi da (SES), (7-8) eta langabeziak ere alkoholarekin lotutako arazoak gaiztotzen dituela frogatu da. (9) Hala ere, gizon gazteen artean, estatus edo maila sozioekonomikoaren eta gehiegizko alkohol-kontsumoaren arteko lotura ez da horren frogatuta geratu. (2, 10, 11) Ziur asko, mutil gazte horiek

trantsizio-epean daudelako gertatzen da, haien maila sozioekonomikoa aldatzen ari baita.

Generoa ere ikerketa-ildo garrantzitsua da, eta banakako nahiz taldeko esparruetan kontzeptualizatu daiteke. Ikerketak egiteko orduan, alkohol-kontsumorako, sexu arteko bereizketa hartzen da kontuan (gizona/emakumea), eta ez genero arteko bereizketa (maskulinoa/femeninoa). Ikerketa horrek ezin du zehaztu maskulinitasuna mutil gazteek alkohola edateko (eta beste batzuek ez edateko) funtsezko arrazoi bat denik. Hala ere, informazio hori beharrezkoa da. Izan ere, generoak osasunari lotutako jokabideetan zerikusi handia duen arren, ohiko maskulinitasun-eredu batzuk osasun-urriko jokaera batzuei lotuta daude.

3. Diapositiba

Maskulinitasunari buruzko hainbat diskurtso dauden arren, gizon askok "maskulinitasun hegemonikoa" onartu eta lortu nahi dute. Diskurtso horretan maskulinitasuna da nagusi, eta haren ezaugarri nagusiak erresistentzia fisiko eta emozionala, arriskuak, heterosexualitate harraparia, familiaren sostengua izatea eta antzekoak dira. (13-14) Maskulinitasun hegemonikoaren elementuek horien hautabideekiko oposizio bitar gisa zehazten dira. Hori dela eta, maskulinitasun hegemonikoarekin zerikusirik ez duten alderdiek ez dute maskulinitasunarekin inolako loturarik. Maskulino ala ez-maskulino gisa neurtzen diren jokabide sozialen barne, genero-estereotipo argiak dituzten jarrerak daude (adibidez: lan ordaindua izatea, etxean laguntzea), baina osasunarekin lotutako jarrerak ere badaude. Beraz, gizon batek bereziki osasunari lotutako jokabide sozialak izateak edo ez izateak (oraingoan, alkohola edateak), identitate maskulinoan inplikazioak ditu. Ondorioz, mutil gazteek alkohola edatea jarrera maskulino gisa ikus dezakete, eta haientzat maskulinoa izatea garrantzitsua denez, baldintza horrek eragina izan dezake alkohola edaterako orduan. Hala ere, maskulinitasun ez-hegemonikoko ereduak ere badaude, eta horrek agerian uzten du maskulinitasun-eredu ezberdinak eta alkoholaren kontsumo-eredu ezberdinak ere badaudela.

4. *Diapositiba*

Orain aurkeztuko dugun ikerketarako lagina Londresen (Ingalaterran) bizi diren 18 eta 21 urte arteko gizonek osatu dute. Hainbat klase sozial eta talde etnikotan nahitako laginketa geruzatua egin zen. Londreseko erdialdeko unibertsitate-eremuetan, egoera sozioekonomiko eta aukera-maila handiagoko gizonak kontratatu ziren. Egoera sozioekonomiko eta aukera-maila txikiagoko gizonak, aitzitik, lan-bulegoetan eta Londreseko esparru jakin bateko egunkarietako iragarkien bidez kontratatu ziren. Izan ere, Londreseko eremu horietan, desabantaila sozioekonomikoak dira nagusi (haurren heriotza, gazte eta helduen langabezia, gobernu-laguntzak populazioaren zati batentzat), eta populazioaren zati handi bat ez da zuria. Lagin horretan, ikasle-kopurua eta subenplegatu-nahiz langabe-kopurua oso antzekoa zen. Lagin horretarako aukeratutako gizonak ez ziren alkoholaren kontsumoari buruzko ikerketa baterako kontratatu, harreman sozial eta osasunari buruzko ikerketa baterako baizik. Beraz, ez dago arrazoi garbirik alkohol-kontsumoari edo maskulinitasun hegemonikoari buruzko ezohizko jarrerak zituztela esateko.

Banakako elkarrizketa erdi-egituratu sakonak egin zitzaizkien 31 gizoni. Elkarrizketa horien helburua maskulinitasunaren eta alkohol-kontsumoaren arteko loturaren esperientzia subjektiboak aztertzea zen.

5. *Diapositiba*

Banakako elkarrizketen eta taldeko eztabaiden bidez eskuratutako informazioa aztertu zen. Bi jarduera horien bidez, informazio gehigarria jaso zen: ikerketako gai nagusi guztiak bi jardueren transkripzioetan ageri ziren.

Hiru gai nagusi zehaztu ziren: "alkohol-kontsumoaren eta maskulinitasunaren arteko ekuazioa", "gaitasun komertzial maskulinoa" eta "maskulinitasunaren eta alkohol-kontsumoaren arteko lotura-eza".

6. Diapositiba: Maskulinitasunaren eta alkohol-kontsumoaren arteko ekuarzioa

Inkestatu gehienek onartu zuten alkohol-kontsumoa eta gehiegizko alkohol-kontsumoa, gehienetan maskulinitasunarekin alderatzen dela. Taldeko eztabaidetako parte-hartzaileei eskatu zitzaient, mutil gazte izanik, maskulinitasuna zehaztea. Asiar ikasle talde batek emandako erantzun hauek beste talde batzuetan esandakoa ere laburtzen dute:

7. Diapositiba

Arjuna: *Nire ustez, maskulinitasuna... unibertsitatera bazoaz, ba edatea, noizean behineko sexua eta drogak dira, kultura hori da, nire ustez.*

Adi: *Bai.*

Rahul: *Hau da, kultura herrikoia da soilik, horrelako gauzak, filmak eta hori guztia. Pertsonaia jakin batzuk hartzen badituzu, ba ez dakit nola ikusten direnak...*

Arjuna: *-Ikono gisa.*

Rahul: *-Bai, maskulinitasunaren benetako ikonoak dira, parrandan irteten dira, asko edaten dute, borrokan ibiltzen dira, emakume asko lortzen dituzte... eta noski, ba gizontasunaren eredu perfektutzat jotzen dira.*

Arjuna: *Ikusi, adibidez nola eusten dituzten edariak, nolako jokaera duten emakumeekin daudenean, zenbat droga hartzen dituzten... mailak ezberdinak zehaztu daitezke.*

Parte-hartzaileek maskulinitasunaren ikerketan funtsezko elementu gisa, alkohol eta droga kontsumoa, sexua eta borroka aipatu dituzte. Mutil gazteak esparru

horietan adituak dira, eta egintza horiek sailkatzeko gai dira: gehiago edaten duten heinean, ospe hobea dute. Banakako elkarrizketa batean, Timek (ikasle zuri batek) azaldu zuen "edari alkoholdunen kontsumoan matxismo handia dago", eta azpimarratu zuen asko edaten duten gizonak gizonago sentitzen direla, eta gaintzeko gizonak baino gizonago bezala ikusten direla.

Gizon langabetu batek ere maskulinitasunean alkohol-kontsumoak duen garrantzia aipatu zuen. Lesterrek (beltz langabetu batek), aipatu zuen, gizonak, edateko gai izateaz gain, ez mozkortzeko gai izan behar direla. Lesterrek azpimarratu zuen alkohola edatea eta ongi pasatzea zuzenean lotuta zeudela, eta beraz, ekintza hori ez zela oka eta zorabioekin hondatu behar. Edale gisa eskarmenturik ez izanez gero, barregarri geratzen da bat.

8. Diapositiba

Lester: *Edan eta mozkortzearen edota edan eta ongi pasatzearen inguruan itxaropen handiak daude. Agian ez erabat mozkortuta tabernako izkina batean egozterari edo antzeko zerbaiti buruz; baina bai, asko edan eta ez mozkortzeari buruz itxaropen handiak daude.*

Elk: *Bai. Orduan, ez mozkortzea ...*

Lester: *- garrantzitsua da.*

Elk: *Zer gertatuko litzateke, edan eta berehala mozkortuko bazina? Zein erreakzio-mota sortuko litzateke, zure ustez?*

Lester: *Iseka egiten dizut oka egin duzulako, lo geratu zarela edo beste edozein gauza dela-eta.*

Gizon batzuek ardoa eta bestelako edari alkoholdunak edaten zituztela onartu arren, gizonezko gehienek garagardoa edaten zutela adierazi zuten. Andrewk (ikasle zuri batek) adierazi zuen "Nik, "trago bat" eskatzen dudanean, pinta bat garagardo esan nahi dut", eta Charlesek (beltz langabetu batek) aipatu zuen, "Trago bat esaten dudanean, pinta bat... pinta batzuei buruz ari naiz". Edaten

zuten gizon gehienek ikusi zuten kontsumo gehiena garagardoa zela, eta beste edari alkoholduak garagardoa baino gutxiagotan kontsumitzen zituztela. Garagardoa edatea funtsezkoa izan zen maskulinitasunaren hautematean:

9. Diapositiba

Tim: *Lehen mailan garagardorik edaten ez duen tipo bat balego, ba ez dakit, gay dela edo antzeko zerbait pentsatuko nuke.*

Marco: *-Ba bai.*

Jack: *-Ziur asko.*

Charlie: *Atzo "The Unionen" egon ginen, ezta? eta ardoa merkeagoa zenez, ardoa edan genuen.*

Jack: *Bai, ardoa edan genuen.*

Charlie: *Baina bazirudien... ez zela maskulinoa.*

Ez da soilik ardoa edatea maskulinoa ez izatea, baizik eta jokabide horren ondorioz, maskulinitasuna beste esparru batzuetan ere zalantzan jartzea: garagardorik edaten ez duten gizonak homosexualak izateaz akusatu daitezke. Horrek esan nahi du, esparru askotan gaitasun maskulinoa agerian uzten den arren, esparru zehatz batean jarrera ez-maskulinoa izateak, maskulinitasun ezaren hautemate sor dezakeela. Beraz, sarreran aipatu dugun bezala, gizonek, alkohola edatean duten jarrerak eragina du haien identitate maskulinoan. Hala ere, ikerketan parte hartu zuten gizon batzuek ikusi zuten, ez edateagatik horren maskulino ikusten zen gizon bati buruzko hautemate edo iritzia beste esparruetan adibide gisa aplikatu zitekeela. Hurrengo atalean gaitasun komertzial maskulinoa aztertuko dugu.

10. Diapositiba: *Gaitasun komertzial maskulinoa*

11. Diapositiba

Taldeko eztabaidetako partaideei iragarki bat erakutsi zitzaien. Iragarkia kirolari-erentzako edari ez alkoholdun bati buruzkoa zen, eta bertan Jonny Wilkinson, Ingalaterrako errugbi-selekzioko errugbilari izarra ageri zen, edari hori edaten. Iragarkiko esaldia oso ironikoa zen “Errugbilari gehienak bezala, Jonny Wilkinson ere edale handia da”. Esaldia ironikoa da, Wilkinsonek ez baitu alkoholik edaten, eta beraz, ez duelako gizonezko errugbilari garagardoza learen estereotipoa betetzen. Ikerketako partaideek Wilkinsonek ez edateak haren maskulinitasuna gutxitzen ote zuen eztabaidatu zuten:

12. Diapositiba

Will: *Baina, zuk uste duzu Jonny Wilkinson ez dela horren gizona garagardorik edaten ez duelako? Baina, Ingalaterrako heroia da eta!*

Jack: *Oraingoz errugbian bakarrik da ona.*

Will: *Munduko kopa irabazi ondoren, ez zuen ezta pinta bakar bat ere edan.*

Tim: *Bai, nik uste dut ez zuela erabat ongi jokatu.*

Charlie: *Baina bere neskalaguna ere oso sasoi onean dago.*

Tim: *Bai, baina bere lekuan jartzeko beste gauzak ere baditu.*

Willek adierazi zuen, Wilkinsonek, Munduko Kopa irabazi ostean, ospatzeko taldekideekin garagardo bat ere ez edateak ez duela haren maskulinitasunean era-

ginik, kiroletako izarra baita. Charliek adierazi zuen, neskalagun eder bat izateak Wilkinsonen maskulinitasuna are gehiago azpimarratzen duela, eta horri esker, maskulinitasuna gutxitzen duen edozein esames uxatzen duela. Hala ere, Timen bigarren adierazpenak argi uzten du Wilkisonen alkoholik ez edatea ez dela maskulinoa, baina gabezia hori beste esparruetan duen gaitasun maskulinoari esker orekatzen dela (errugbi-zelaiak, neskalagun ederra edukitzeak, horrek guztiak "bere lekuan" jartzen du). Era horretan, gaitasun maskulino horrek beste jokaera ez-maskulinoak edota gaitasun-erakundeak orekatzen dituela dirudi. Gaitasun komertzial horren prozesua Rahulek (asiar ikasle batek) ere aipatu zuen; berak ere, Wilkisonen bezala, kirolean duen trebetasuna alkoholik ez edatearen jokabide ez-maskulinoa orekatzeko erabiltzen baitzuen.

13. Diapositiba

Rahul: ... *ni gainontzeko jokalaria baino hobea nintzen, horregatik ez ninduten edatera behartzen, izan ere... badakizu, "utzi bakean" edo antzeko zerbait esan niezaieken. Horrelakoa naiz ni, baina nire lagun batzuek ez zuten horrenbesteko eskarmenturik jockeyan, eta taldean sartu ahal izateko, ba nik uste horretan parte hartu behar dutela uste dutela.*

Elk: *Beraz... zure trebetasunari esker, eta jockey-jokalaria ona izateagatik... eta ez zenuen presio handirik?*

Rahul: *Bai, nahikoa.*

Raulek adierazi zuen, kiroletan duen gaitasun maskulinoari esker, gainontzekoek, alkoholik ez edatea maskulinitasun-erakundearen frogaz bezala ikusteko aukerak gutxitzen direla. Hala ere, ikusi zuen, horren kirolari onak ez diren gizonek gaitasun hori tabernan onarpen handiago lortuz orekatu nahi izaten dutela.

14. Diapositiba

Gaitasun komertzial maskulinoa askoz ere xehetasun handiagoz aztertu zen, taldeko partaideek Will Youngen argazkia ikusi zutenean. Will Youngek Erresuma Batuko musika reality-show telebista-programa irabazi zuen, eta argi eta garbi adierazi du homosexuala dela. Argazkia moda-aldizkari batekoa zen, eta bertan, Youngek 190 liberako kamiseta eta 215 liberako galtzak zeramatzan jantzita. Horrez gain, txanpan botila garesti eta erdi-huts bati eusten zion. Talde gehiengotik, lehen erreakzioa bere sexualitatea aipatzea izan zen, eta maskulino edo gizona ez zela adierazi zen, gay zelako.

Hala ere, gizon batzuek adierazi zuten, Young gay zela jakin izan ez balute, maskulinitasun heterosexual eta sofistikatua zuela pentsatuko zuketela; hau da, limurtzailearena:

15. Diapositiba

Arjuna: *Ez zenekien nor zen ere...*

Adi: *-emakume-itxura dauka.*

Arjuna: *-Bai, emakume-itxura duela pentsa dezakezu. Gertatzen dena da, telebistatik agertzen denean maritxua dela argi ikusten dela. Agian ez dakizu gay dela, baina argi dago maritxua dela, eta horrek maskulinitasuna gutxitzen du.*

Beraz, argazkiaren interpretazio horren arabera, maskulinitasuna diruarekin eta gaitasun heterosexualarekin dago lotuta. Era horretan, irudi hori potentzialki maskulinoa izan arren, partaide gehienek Young homosexuala zela aipatzean, adierazi zuten itxura eta xanpaina (eta ez garagardoa) edaten zuela ikustean, horrek guztiak maskulinitasuna kentzen ziola adierazi zuten.

Tim: *Nahiko gay da hor botila bat xanpaina duela azaltzea. Hau da, eskuan pinta bat garagardo edukiko balu, orduan irudi ezberdina emango luke.*

Charlie: *Bai. Egia da.*

Partaideek Youngen benetako sexualitatea eta haren ospearen jatorria ezagutzen zuten (pop musika rap, rock, kirol edo zinemaren ordezt). Ziur asko, horrek eragina izan zuen haren maskulinitasuna hautemateko eran. Gainera, partaideei eskatu zitzaizkien argazki bera imajinatzea, baina Youngen buruarekin ordezt, David Beckhamenarekin (Ingalaterrako futbol-selekzioko burua). Beckhamek kirol-munduan duen talentuari esker, glamourrez betetako bizimodua izan dezake. Youngek bezala, Beckhamek ere asko zaintzen du bere itxura, eta estilo-aldaketak egiten ditu (orrazkera, pareoak, azkazalak margotu) komunikabideen arreta erakartzeko:

16. Diapositiba

Elk: *Eta zer gertatuko litzateke, argazki horretan, gainontzekoa berdina izanik, David Beckhamen aurpegia azalduko balitz?*

Adi: *Ez litzateke gauza bera izango.*

Rahul: *-Bai, baina horregatik uste dut ez dela hala. Ikusi David Beckham. Gona janzten du, eta ilean txirikordak eta horrelako gauzak egiten ditu. Eta Young baino maskulinoagoa al da?*

Adi: *Beno, ez da, baina berriz ere aipatu behar dugu bera...*

Rahul: *horrela pentsatzen du berak...*

Adi: *David Beckhamek futboleko jolasten duelako.*

David Beckhamen ospearen arrazoia futbola da (maskulinoa), eta elementu hori heterosexuala denez (maskulinoa), itxura ez-maskulino izatea alde batera utzi daiteke. Pop kantari gay izatea, aitzitik, ez da maskulino gisa ikusten. Jonny Wilkinson, Will Young eta David Beckhami buruzko eztabaida eta Rahulek bere buruaren jokabideari buruz emandako azalpena kontuan hartuta, argi dago usadioz maskulinoa den gaitasun bat beste esparruetan jokabide ez-maskulino bat desenkusatzeko aitzaki gisa erabili daitekeela. Hala ere, erabateko jokabide ez-maskulinoak; esaterako, homosexualitatea, ezin dira gaitasun horrekin desenku-

satu. Baita ere aipagarria da, "gaitasun komertzial maskulinoari" lotutako jokabideetan, alkoholaren kontsumoa maskulinitasunari lotuta dagoela onartzen dela.

17. Diapositiba

Alkoholari uko egitea / hautabide aipagarriak

Hiru gai nagusien artea desberdindu zen ideia identitate maskulinoa izateko alkohola edatearen garrantziari uko egitea da.

Hainbat gizonek (batzuek alkohola edaten zuten, baina gehienek ez) maskulinitasunaren eredu alternatiboa proposatu zuten. Eredu horretan, alkoholaren kontsumoari ez zitzaion garrantzirik ematen, eta maskulinitasunaren elementu garrantzitsuenak banakotasuna, arrazionaltasuna eta osotasuna ziren. Esaterako, ondoko taldeko eztabaidan, Emekak banakotasuna eta independentzia aipatzen ditu identitate maskulinoaren funtsezko elementu gisa:

18. Diapositiba

Elk: ... Zure ustez, Wilkinsonek alkoholik ez edateak haren maskulinitasunari buruz duzun ideian eraginik al du?

Emeka: Ez. Nik ere ez dut edaten, eta bera bezain maskulino sentitzen naiz. Agian bera baino maskulinoagoa sentitzen naiz, presioa jasateko gai bainaiz.

Patrick: Bai.

Emeka: Ni independentea naiz, eta gainontzekoek joerak kopiatu besterik ez dituzte egiten. Nik, berriz, jarrera jakin bat har dezaket, eta "Ez, ez dut edaten" esan. Beraz, alkoholik edan gabe maskulinoagoa senti naiteke.

Hala ere, Emekak (ikasle beltza) Rahulek esandakoa eta Jonny Wilkinsoni buruz egindako adierazpenak errepikatu zituen. Bere ustez, alkoholik ez edatea ez litzateke horren desenkusagarria izango, baldin eta gainontzekoak baino errugbilarari hobea ez balitz. Banakako elkarrizketa batean, Emekak aipatu zuen osotasuna eta gainontzekoek egindako presioa jasatea funtsezkoak zirela identitate maskulinorako.

19. Diapositiba

Emeka: *Unibertsitatera joaten hasi baino lehen, nire lagunak ez zuen alkoholik edaten. Behin, bisita egitera joan nintzaion... eta garagardoa zurrutada bat edaten ari zen, profesional bat bezala. Eta galdetu nion "Zer?, orain edan egiten al duzu? Eta baietz esan zidan. Nik zergatia galdetu nion, eta berak esan zidan "beno, nire inguruko guztiek edan egiten dute, eta ni baztertua sentitzen nintzen. Beraz, horregatik hasi omen zen edaten. Eta nik "ze inozoa den!" pentsatu nuen.*

Emekak aipatu zuen heldugabeko maskulinitasuna edo maskulinitasun zalantzatsua gehiegizko alkohol-kontsumoari lotuta dagoela. Najibek (asiar ikasle batek) ere ez du alkoholik edaten, eta haren ustez, banakotasuna eta osotasuna, baita begirune publikoa dira maskulinitasunaren funtsezko elementuak, gizonak eta haurrak elkarren artean bereizten dituenak:

20. Diapositiba

Najib: *Zergatik izan behar zara ardi bat bezalakoa? zergatik egin behar duzu gainontzekoek egiten duten guztia? zergatik izan behar da horrela? Badakit... ez dut ezberdina izan nahi, nik uste dut.... gauzak modu ezberdinean ikusten ditudala. Ez dut uste hori arau bat denik, nire ustez parrandan atera eta mozkortzea ez da itxurazkoa. Ez zait egokia iruditzen.*

Hala ere, Najibek adierazi zuen, alkoholari dion errespetuagatik kritikak jaso izan dituela gizartean. Haren hitzetan, lagun berriei alkoholik edaten ez zuela esaten badie "modu arraroan begiratuko dizute", "ez duzu edaten, gay al zara?" esan nahiko balute bezala. Era horretan, esperientzia pertsonal hori alde zurretik aipatutako adierazpenekin bat datorrenez, ondorioztatzen dugu, alkoholik ez edateak maskulinitasunaren beste esparru batzuk zalantzan jartzen dituela, bereziki sexualitatearena.

Islamiar familia batekoa izan arren, Najib ez da musulman sutsua. Azimek (langabe beltzak) islamiar sinesmenek bere jokoeretan zuen eraginak aipatu zituen, baina garrantzia handiago eman zion fedeari, eta ez zuen alkoholik edaten:

21. Diapositiba

Azim: Musulmana naiz, eta badakizu, musulmana bazara ezin duzu alkoholik edan. Otoitz egiten dut. Otoitz egiten dut, eta beraz, ez dut edaten. Inoiz ez naiz saiatu ere egin.

Emekak eta Azimek, biak musulmanak izanik, bakoitzaren aukeratzeko eskubidea eta egintzekiko erantzukizuna azpimarratu zituzten. Erljio-sinesmenek jokabidean eraginak izan arren, azkenean Azimek (gizon heldu, zintzoa, arrazionala; eta ez umea) bere jokabidearen erantzukizuna bere gain hartzen du.

*Azim: Izan ere, zerbait egin nahi baduzu, inork ez zaitu geldiaraziko. Ulertzen al didazu? Zuk erabakitzen duzu. Gainontzekoek, ba horrek zuri kalte egiten badi-
zu ere, beraiei ez die kalte egiten, badakizu.*

Aipatu berri duguna, gazteek maskulinitasunaren hautabide bat bezala azaldu zuten. Eredu hori ohiko ezaugarri "maskulinoetan"; hau da, arrazionaltasunean eta independentzian dago oinarrituta. Gazteek alkohol-kontsumoaren eta maskulinitasunaren arteko lotura ezetsi zuten: guztiek ez zuten alkoholik edaten, edo

bestela gutxi edaten zuten, eta beste ezaugarri "maskulino" eta jokaeren garrantzia azpimarratu zuten.

22. *Diapositiba*

Maskulinitasunari eta jokaera sozialei buruzko azken ikerketek iradoki dute osasunari lotutako jokabideak, esaterako, alkohola edatea, identitate maskulinoa sozialki eratzeko tresna garrantzitsuak direla. (12-14) Ikerketa honek alkoholaren kontsumoari eta maskulinitasunari buruzko hiru gai nagusi eman zituen ezagutzera.

Lehen gaian, "alkohol-kontsumoaren eta maskulinitasunaren arteko ekuazioa" izenekoan, maskulinitasuna alkohol-kontsumo eredu jakin batzuekin zenbat gizonen parekatzen zuten azaldu zen, esaterako: garagardoa edatea eta asko edateko gaitasuna.

Bigarren gaia, "gaitasun komertzial maskulinoa", lehen gaiarekin lotu zen, maskulinitasuna alkohol-kontsumoarekin lotzen baitzuen. Horrez gain, alkohol-kontsumoa beste esparru "maskulinoekin" nola lotzen den ere aipatu zen. Gaitasun komertzial maskulinoaren gaia bereziki garrantzitsua da, osasun-hezkuntzan eta osasunaren sustapenean eragina baitu. Rahul eta Emekak azpimarratu zuten, kirolari onak izanik, auto-estimua handiago izatean errazagoa zela alkohola edateko presioari aurre egitea, eta aldi berean, identitate maskulinoari eusten zitzaiola. Azken ideia horren ondorio bat da gizon batzuek, estatus maskulinoa handitzeko, gehiegizko alkohol-kontsumoa erabiltzen dutela. Prozesu horretan alde aurreko ikerketetako ondorioak islatzen dira. Izan ere, ikerketa horien arabera, onarpen "maskulinoa" eskuratzeko gainontzeko metodoak eskura ez badiuzte, gizonen ez dituzte jarrera horren osasuntsu eta/edo gizartekoiak. (15, 16) Gizonen, kirola eta antzeko esparruetan, gaitasun maskulinoa alkohola ukatzeko aitzakia gisa erabiltzeak agerian uzten du jokabide maskulino osasuntsuak sustatzeak onura osasungarriak dakartzala, eta, gainera, osasunari kalte egiten dioten jarreraren ondorioak; hau da, identitate maskulinoan eraikitzeak erabiltzen dire-

nenak, gutxitu egin daitezkeela. Hala ere, aipatu behar da, horrelako ikuspuntu batek, gizonen osasuna hobetzeko talde-ekintzak bultzatu beharrean, bakartasuna eta lehiakortasuna sustatzen dituela. Halaber, azpimarratu behar da, ikuspuntu horrek, osasunari lotutako jokabide maskulinoak, gutxitu ordez, indartu egiten dituela.

23. Diapositiba

Hirugarren gaia, "maskulinitasunaren eta alkohol-kontsumoaren arteko lotura-eza" izenekoa, beste bi gaiengandik bereizten da, maskulinitasunaren eta alkohol-kontsumoaren arteko lotura sortzeari nolabait uko egiten zaiolako, eta maskulinitasunaren gainontzeko ezaugarrietan jartzen baita arreta.

Ikerketa honetako gizon batzuek maskulinitasun eta alkohol-kontsumoaren arteko loturari uko egin zioten, eta horren ordez, arrazionaltasunean, osasunean, osotasunean, pentsamendu-askatasunean eta presio sozialarekiko erresistentzian oinarritutako maskulinitasunaren alde azaldu ziren. Beste testuinguru soziokulturaletan egindako ikerketek agerian uzten dute, mutil gazteek identitate maskulino gogorra izan dezaketela, eta aldi berean ohiko jokabide "maskulinoei"; hau da, alkohol gehiegi edateari, drogak hartzeari eta heterosexualitate harrapariari uko egin diezaieketela. Esaterako, Ipar Amerikako gazteen azpikulturak arrazionaltasuna eta kontrola sustatzen ditu ezaugarri "maskulino" gisa, eta aldi berean, alkohola edateari, drogak hartzeari, tabakoa erretzeari eta sexu promiskuoa izateari uko egiten dio.(17)

Maskulinitasun hegemonikoaren eta gehiegizko alkohol-kontsumoaren arteko loturen ondorioz, maskulinitasuna arazo gisa ikus badaiteke ere, maskulinitasun (gaztea) eta gehiegizko alkohol-kontsumoa ez genituzke parekatu behar. Ikerketa honek argi uzten du, maskulinitasun-eredu jakin batzuk gehiegizko alkohol-kontsumoari lotuta egon arren, beste maskulinitasun-eredu batzuek alkohol gutxi edatea edo ez edatea sustatzen dutela.

lkerketa honetan ondorioztatzen da, maskulinitasunaren eta osasunari lotutako jokabide sozialen (esaterako alkohola edatea) arteko loturak ez direla gertaera hutsak. Maskulinitasuna hainbat modutan zehaztu eta adierazi daiteke. Ez da zertan osasunarentzako jokabide kaltegarri bati lotuta egon behar. Gainera, maskulinitasunaren eta alkoholaren arteko parekotasuna zehaztu daiteke. Alkohola, behar bezala kontsumitzen bada, onuragarria da. (18) Alkohol gehiegi edateak edo modu ezegokian edateak ondorio kaltegarri garrantzitsuak sortzen ditu. (1) Era berean, mutil gazteek beren maskulinitasuna zehaztu eta erabiltzeko moduak (eta ez hura sentitzeko moduak), zehaztuko du osasunerako onuragarri edo kaltegarria izango den. Kalteak gutxitzeko irizpideen erronka talde sozial eta kultural ezberdinetako gizonei osasunari kalte egiten ez dioten jarrerak (adibidez, alkoholik ez edatea) sustatzen laguntzea da.

Erreferentziak

(1) Rehm, N., et al. (2001) Alcohol in the European region: consumption, harm and policies. Geneva: Osasunaren Munduko Erakundea.

(2) de Visser, R., et al. (2006). Sociodemographic correlates of smoking, drinking, injecting drug use, and sexual risk behaviour in a representative sample of Australian young people. *International Journal of Behavioral Medicine*, 13, 153-162.

(3) The Information Centre. (2007) *Statistics on Alcohol: Ingalaterra, 2007*. Londres: The Information Centre.

(4) Kuntsche, E., et al. (2004) Characteristics of binge drinkers in Europe. *Social Science & Medicine*, 59, 113-127.

(5) Best, D., et al. (2001) Ethnic and gender differences in drinking and smoking among London adolescents. *Ethnicity & Health*, 6, 51-57.

-
- (6) Heim, D., et al. (2004) Alcohol consumption, perceptions of community responses and attitudes to service provision: Results from a survey of Indian, Chinese and Pakistani young people in greater Glasgow, Eskozia, Erresuma Batua. *Alcohol & Alcoholism*, 39, 220–226.
-
- (7) Droomers, M., et al. (1999) Educational differences in excessive alcohol consumption: the role of psychosocial and material stressors. *Preventive Medicine*, 29, 1-10.
-
- (8) Moore, L., et al. (1994) Binge drinking: Prevalence, patterns and policy. *Health Education Research*, 9, 497-505.
-
- (9) Claussen, B. (1999) Alcohol disorders and re-employment in a 5-year follow-up of long-term unemployed. *Addiction*, 94, 133-138.
-
- (11) Muthén, B. & Muthén, L. (2000) The development of heavy drinking and alcohol-related problems from ages 18 to 37 in a US national sample. *Journal of Studies on Alcohol*, 61, 290-300.
-
- (12) Courtenay, W. (2000) Constructions of masculinity and their influence on men's well-being: a theory of gender and health. *Social Science & Medicine*, 50, 1385-1401.
-
- (13) Connell, R. (1987) *Gender & Power*. Cambridge: Polity.
-
- (14) Connell, R. (1995) *Masculinities*. Sydney: Allen & Unwin.
-
- (15) Messerschmidt, J. (2000) Becoming 'real men': Adolescent masculinity challenges and sexual violence. *Men and Masculinities*, 2, 286-307.
-
- (16) Willott, S. & Griffin, C. (1999) 'Building you own lifeboat': Working class male offenders talk about economic crime. *British Journal of Social Psychology*, 38, 445-460.
-
- (17) Wood, R. (2003) The straightedge youth subculture: Observations on the complexity of sub-cultural identity. *Journal of Youth Studies*, 6, 33-52.
-
- (18) White, I. (1999) The level of alcohol consumption at which all-cause mortality is least. *Journal of Clinical Epidemiology*, 52, 967-75

**CAPITOLINA DÍAZ
MARTÍNEZ**

**Ekonomia Aplikatuko
Saila. Oviedoko
Unibertsitatea**

Diruaren

trudeaketa

bikote-

harremanetan:

aldaketak

jokabide-

ereduetan eta

identitateetan,

generoaren

arabera

Lehenik eta behin, hartz bati buruzko istorio bat azaldu nahi dizuet (hartz eme bat ere izan daiteke... baina gaurkoan hartz arra da). Hartz hori kaiola batean sartuta zegoen, eta soilik bi metro karratuko espazioa zeukan mugitzeko. Gaur egun, horrelako praktikak onartezinak dira, baina garai batean gizarteak erabat onartzen zituen halakoak.

Kultura jakin batzuen bilakaerari esker, egun batean, hartz horri kaiola kendu zioten. Urte asko zeramatzan esparru mugatu horretan... eta kaiola kendu ondoren, parke natural babestu handi batean askoz ere libreago utzi zuten; azkenean, hartzak esploratzeko esparru handi bat zeukan. Hala ere, kaiola kendu ziotenetik denbora igaro arren, zoritxarrez, hartzak kaiolaren esparru berean mugitzen jarraitzen zuen: bere "kaiola mentalaren" barruan. Esparru txiki horretara horren ongi egokitu zenez... ez zuen esparru horretatik harago ikusten, eta egunak igaro arren... hor jarraitzen zuen, kaiolan zegoenean bezalako ibilbidea eginez, bi metro alde batera, bi metro bestera.

Ikerketa honetako funtsezko galdera da ea bikote-harremanetan aldaketak ikusten ote ditugun diruaren eta baliabideen kudeaketan, roletan eta etxeko lanetan, edo, aitzitik, ohiko "genero-sozializazioen" barne kokatzen diren ohiko senar-emazteen harremanek irauten ote duten. Beraz, guk bi elementu nagusi aztertuko ditugu: alde batetik, familia- eta bikote-harremanen alderdi afektiboan gertatu daitezkeen aldaketak; eta bestetik, horien barneko elementu materialetan, baliabide horniketan, rolen balorazioetan eta baliabideen kudeaketan izan daitezkeen aldaketak. Zehazkiago, aztertuko dugu ea gizonek bikote-harremanetan gertatutako aldaketak onartu dituzten ala ez; edo mutilagun/bikote/senar gisa, harremana haute-mateko modua aldatu ote duten.

Nondik gatorz eta nora goaz?

Trantsizio politikoa gertatu zenetik, gauza asko aldatu dira. Demokraziaren azken 30 urte hauetan, generoen arteko harremanei buruzko legetan, eta identitate sexualak eta genero-rolak osatzeko moduetan aldaketa nabarmenak egin dira. Aldi berean, aldaketa nabarmenak gertatu dira lekuko, herrialdeko eta munduko merkatu ekonomikoetan, eta, halaber, mugimendu demografiko handiak gertatu dira, baita informazioa, etxebizitza edo lana eskuratzeko moduetan ere.

Hala ere, gure ikerketak ohiko genero-rolari dagokienez, indibidualizazioa eta autonomia sortzeko aukera gutxi daudela nabarmentzen du. Horren ondorioz, pertsonen potentziala mugatu egiten da, eta bikoteetan nahiz elkarbizitzan gatazkak edo ezkutuko erresumina sortzen dira.

Alderdi materialez gain, aspaldidanik datozen balio kulturalak ere aintzat hartzen ditugu, gizarte-harremanen muinean familia-harreman mota jakin batzuk lehenesten dituztenak, hain zuzen. Izan ere, ohiko genero-rolak bizirauteko, "familiartasun" antzeko zerbait erabiltzen da, batzuetan besteetan baino agerikoagoa izan ohi dena. Espainian, familia da ospitaletan zainketa emateko baliabide nagusia, baita iturri ekonomiko garrantzitsua ere, nahiz banku-bermeak lortzeko modu eskuragarria ere. Espainian, "seme-alaba emantzipatuak eta bikote gazteak birkokatu egin dira, jatorrizko familiarik ez baitute gehiegi urrundu nahi". (Díaz Martínez, Díaz Méndez, Dema Moreno, Ibáñez Pascual; 2004-48).

Askotan, Espainia beste herrialde industrializatuekin konparatzen denean, seme-alaba emantzipatuek amen, amonen eta beste senideen zainketak jasotzea Espainiako berezitasun kulturaltzat jotzen da: "izan ere, amek jatekoa prestatu, ontzietan sartu eta emantzipatutako seme-alabei eramaten diete" (Ibid), "familiarren barne, harremanak oso ohikoak izaten dira, eta aisialdia familiarekin igarotzea (...) espainiarren lehenetsunetako bat da". (Pepa Cruz, 1995). Joera hori zein heinetaraino esleitu diezaiokegu gizonei pribilegioa ematen dieten jokabideei? edo bestela, emakumearen ohiko balorazio kulturalaren barne kokatu al

daiteke, "errazle-zaintzaile" gisa baloratzen delako (eta "zainketa" horiek emate-ari utziz gero, baloraziorik gabe geratuko litzatekeelako)? Bestalde, aipagarria da, Cristina Carrasco ekonomialariak proposatutakoaren arabera, gure merkatu-ekonomia bideragarria izango ote litzatekeen, horren azpiko "zainketaren ekonomiarik" gabe.

Dela kultura hautapenagatik, dela premia ekonomikoagatik, emakumeak lan-merkatura sartu dira, eta aldaketa hori izan da, hain zuzen ere, azken hamarkadetakoa aipagarriena. Gaur egun, lan, hezkuntza eta ekintza sozialen esparruan, inoiz baino berdintasun handiagoa sustatzen duten legeak daude, eta horiei esker, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartu egin da. Nolanahi ere den, eremu pribatua aztertzea askoz ere zailagoa izan arren, frogatuta geratu da bizirik direla oraindik ohiko lagapenak, emakumeek etxean laguntzerakoan hartu izan dituzten rol gutxietsietan. Halaber, gizonak botere jakin batzuk erabiltzerakoan halako berrespen maskulino «ezinbestekoak» ere bizirik jarraitzen dira, gizarte-onarpenaren esparrutik hedatu eta sustengaturik, dela familiaren edo lagunaren artean, dela lurraldean hedatutako botere performatiboak dituzten talde edo diskurtso sozialetan. (John Austin; 1955 eta John Searle; 1970)

2.

“Dirua, amodiva eta indibidualizazioa”

Gaur egungo bikote eta familietako harreman ekonomikoei buruzko ikerketa batean parte izan nintzelarik (1), alde handiak aurkitu genituen bikote tipologiaren

(1) Artikulu honetako ikerketa Deutsche Forschungsgemeinschaftek finantzatutako proiektua izan zen lehenbizi, gero Asturiaseko Emakumearen Erakundeak finantzatu zuen, eta azkenik Espainiako Emakumearen Institutuaren finantzaketari esker amaitu zen, I+G+B programaren barne.

arabera (2), diru-sarrerak familia-sistemaren barruan baloratzeko garaian; erabaki ekonomikoak administratu, kudeatu eta emateko garaian; eta genero-harremanen autonomia/parekotasun maila desberdinei dagokienez.

Pertsonen harreman ekonomiko, sozial eta afektiboetako auto-pertzepzioari buruzko ikerketak oinarritzat hartuta, eta besteak beste, Foucault, Guiddens, Goffman, Hiller eta Philliberren teoriak kontuan hartuta, tokiko esparru eta lan teorikoak ere integratu genituen; besteak beste Adolfo García Martínezek Asturiaseko landa-eremuko familiari buruz egindakoa; ekonomia jakin batzuetako lan-banaketari eta bikote-ereduei buruzko ikerketak, baita María Ángeles Durán, Clara Coria eta Pepar Cruz Canteraren lanak, besteak beste. Ikerketa eta eguneratze teoriko ugari egin ondoren, ikerketa kualitatiborako metodologia garatu zen, eta banakako elkarrizketa sakonak diseinatu ziren (3). Elkarrizketa horiek alemaniar, espainiar, estatubatuar eta suediar bikoteei egin zitzaizkien, aipatu berri ditugun esparruetan dauden ezberdintasunak ebaluatzeko.

Diskurtso maskulinoak xehetasun handiz aztertuz, bikotekideen diskurtsoak haute-mateko moduaren eta haien esanahiaren arteko harreman nahiz lotura ezberdina aztertuz, eta elkarrizketak bikoteari eta bikotekide bakoitzari banan-banan eginez, ikusi dugu, esparru pribatu jakin batzuetan, indibidualizazio eta autonomia handiagoak lortu direla, baina horrek ez du esan nahi rolak eta etxeko lanak, erantzukizunak eta boterea berdintasun handiagoz banatzen denik.

(2) Bikote-motak zehazteko, bikotekide bakoitzaren irabaziak hartu ziren kontuan. Bikote-mota hauek zehaztu ziren: i) gizonak emakumeak baino gehiago irabazten duen bikotea, ii) biek berdin irabazten duten bikotea eta iii) emakumeak gizonak baino gehiago irabazten duen bikotea.

(3) Erabilitako metodologiaren xehetasunen berri nahi izanez gero, ikus Janet Stocks, Capitolina Diaz eta Björn Halleröd (2007) *Modern Couples Sharing Money, Sharing Life*. Houndmills eta New York: Palgrave, kap. 2.

3.

“Genero-identitate” kontzeptu klasikoa berraztertuz

Gizonen, emakumeen nahiz bikoteen jokabideak behatu ondoren, gure ustez, agian komenigarria izango litzateke “genero-identitateetatik” urrundu eta genero-harremanen osaketaren epistemologiara jotzea. Izan ere, gure ikerketan argi geratu zen, harreman-lotura garrantzitsuei eustearren, balorazio oso bereziak estaltzen zirela, bai ekarpen materialei buruz, baita etxe barruko edo kanpoko ekintzei buruz ere.

Gure ikerketari esker, genero-roletan ikasitako/esperotako jokabide-ereduak mantentzeak zein kostu pertsonal duen ulertu dugu, kostu horiek izan ezean gatazka gordina sortuko balitzateke, etxean nahiz kanpoan bakoitzaren jokabidea zein izan behar den «espero» denari buruz ikasitako/esperotako jokabideekin.

Ikerketarako egindako bikote-moten sailkapena oso garrantzitsua izan zen horretarako, bikotekide bakoitzaren familiaren hezkuntza-aldagaien eta egoera sozio-ekonomikoaren arabera. Aipagarria da, banakako elkarrizketak egin genituenean, jatorriko familia bakoitzaren egoera ekonomikoaren arabera agertu ziren aipamenak, botere eta nagusitasun harremanei buruz, eta harreman horien inpaktuak bikotean nahiz bikotekideen auto-pertzepzioan islatzen direla oraindik.

Alabaina, eredu batzuk bizirik jarraitzen dira:

- i) gizonek “familia-buruaren” rola edukitzen jarraitzen dute, behintzat gertaera edo ospakizun sozialen kudeaketan (gonbidapenak ordaindu, familia-harremanak... ondareari buruzko erabaki garrantzitsuak).
- ii) emakumeek, gizonek baino gehiago irabazten dutenean, ezberdintasun horri garrantzia kentzen diote; ondasun-erkidego tradizionalaren ereduak ere bere horretan jarraitzen du, nahiz eta gastuak egin edo erabakiak emateko orduan, autonomia apur bat gehiago izan. Hala ere, “bakoitzaren esparrua/bikotearen ekarpen-esparrua” gaia aipatzean, balorazioek ez dute

aurrekoarekin zerikusirik, emakumeek familiaren ongizatearen zaintzaile-rola izaten jarraitzen baitute.

- iii) gizonek beren buruarekiko, gastuekiko eta erabaki pertsonalekiko autonomia handiagoa dutela dirudi, elementu horiei "naturalki" lehentasuna ematen baitiete, bikotearen ekarpen-esparruarekiko lehentasuna emanaz; hala ere, bikoteen eta bikotekideen hezkuntza eta egoera sozio-ekonomikoa kontuan hartuta, aldaketak eta trantsizioak ikusi dira.

4. *Trantsizioaren eraginak... trantsizioan al gaude?*

Parte-hartze erlatibo batekin estalitako sozializazio patriarkal eta tradizionala duten gizonen ikuspuntutik, eragin onak ala txarrak al ditu aldaketarako trantsizioak?

Kasu honetan, sozializazio-eredu horietan, genero-rol tradizionalak ageri dira, gaur egun eskaera sozial, kultural eta ekonomiko berrien barne daudenak. Argi dago egoera horiek tentsio eta gatazkak sortzen dituztela, eta gure galdera da nola jasaten dituzten gatazka horiek bikotekideek, eta kasu askotan, zein den bikotearen itxurazko harmonia mantentzeko prezioa, batez ere harreman ekonomikoetan gertatzen diren aldaketei dagokienez.

Antzeko soldata irabazten duten bikoteen kasuan, bikotekideen harremana etxetik kanpo gizonek bakarrik lan egiten duten bikoteetan baino berdina da eta simetrikoagoa ote den aztertzen saiatu gara. Baita ere jakin nahi izan dugu, zer gertatzen den emakumeek gizonek baino gehiago irabazi edo prestakuntza gehiago duten bikoteetan, zer gertatzen den, ea bikotearen ohiko asimetria alde-rantzizkoa den ala ez. Hau da, bikote horietan berdintasuna ote den nagusi, edo gizonek boterea izaten jarraitzen duten.

Rol-banaketaren eredu tradizionala, gizona duena hornitzaile, desagertzen ari den arren, familietako harreman ekonomikoetan, baita elkartruke material eta sin-

bolikoetan, oraindik genero-ezberdintasun handia dago emakumeen eta gizonen artean. Familia gehienetan, bikotekideen arteko berdintasunaren eta balorazio nahiz ekintzen simetriaren ideala askoz ere nabariagoa izan arren, ohiturek agerian uzten dute, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzea oso urrun dagoela oraindik.

Gizonek eta emakumeek diruari ematen dioten balioa familia barruko rol-banaketaren arabera da: ezkutuko elementu bat dago, familia menderatzen duena, familia-buruak ondasunei buruz eta haien kokapenari buruz ematen dituen erabakien eta antzeko aginpide-faktoreen aurrean; ondorioz, botere horrek, lanean eta ohiko etxebizitzan, gizonari pribilegioak ematen dizkie, aldi berean gizonak bere burua "etxeko lan batzuetan laguntzeko boluntariorzat" jotzen duelarik, eta "gehienetan" berak duelarik askatasun gehiago eta "lotura" gutxiago.

Batzuetan, bikotekide bakoitzak banku-kontu bereziak izan arren, ondasunen eta erabakien "erkidago" bat dagoela ulertzen da (gutxienez, kontsultak egiteko), beti betetzen ez den arren, eta ondorioz, erresumina sortzen den arren, nahiko ezkutu bikoteka egindako elkarrizketetan, baina agerikoa banakakoetan.

Lan-banaketari dagokionez, eredu tradizionalari eusten zaio: gizonak ekoiztu, emakumeak ugaltu, nahiz eta emakumeak etxetik kanpo ekoizpen lanari gizonak beste ordu ematen dion.

Aipagarria da gizonek emakumeen "esku" uzten dutela, ia eskusiboki, etxerako diruaren kudeaketa; baina, trukean, emakumeek, etxerako diru-ekarpenak eginez, autonomia galtzen dutela, kontsumo pertsonala bigarren mailan utziz.

Gizonek, berriz, maskulinitasun eredu tradizionalak ematen dien segurtasunean oinarrituta kudeatzen dute dirua. Horrenbestera, non gizonak eta emakumeak etxetik kanpo lan egiten duten bikoteetan, gizonak, botereari eusteko, irizpideak aldatzen dituen, emakumea hornitzaile bihurtzeko aukerak ia desagerrarazteko. Aurrerago aipatuko dugun bezala, eskura diru-kopuru txikiagoa dagoen heinean, haren kudeaketa emakumearen esku askoz errazago uzten da, batez ere diru hori eguneroko bizitzarako bada. Diru-kopurua edo soldata handiagoa bada, eta gehienetan, gizonek familiaren ondarea kudeatzeko erantzukizuna izaten dute.

5.

Diskurtso eta rol bereiziak, esparru publikoaren eta pribatuaren arabera

Esparru politikoan, gero eta gehiago, hedabideen eta zientzia-erakundeen diskurtsoetan, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna gero eta hedatuagoa dago, nahiz eta oraindik nahiko mugatua izan. Esparru publikoko harremanen aldean, bikote-harremanak beste era bateko harremanak dira: kontratu-harremanak, harreman ekonomikoak, botere berak dituzten pertsonen artean hitzartutakoak izaten dira; aldiz, esparru pribatuko harreman afektibo eta sozialak, baita familia eta lagunartean ere, oso ezberdinak dira, eta beste testuinguru kulturetan kokatzen dira, tradizioaren indarrez eratzen baitira.

Esparru pribatua ez da esparru publikoa bezalakoa; izan ere, familiaren antolakuntza patriarkalak edo bikoteen intimitate-esparruak, botere-ezberdintasunak eta gizonen agintea eratzen dituzte, eta, askotan, bi bikotekideek, era ezkutuan bada ere, ezberdintasun horiek sustatzen dituzte, eredu sozial ikasien bitartez. Agian, ondorengo belaunaldien “birkokapenak”, eta lehen aipatutako itxurazko “emantzipazioak”, ekintza zehatzen esparruan gutxitan gauzatzen direnak, Espainiako genero-ezaugarriak eta horien arabera harremanak aldatzeko kontrol sozial espontaneoak sortzen lagunduko dute.

Hori ere gai garrantzitsua da, rol-aldaketa baten aurrean ager daitezkeen “gatazketan”, amodioa erabiltzen baita beste bikoteen bizitzan, “maitasun” asko gal daiteke: maitatutako pertsona, seme-alabekiko guraso-agintea, irudikapen sozial bermatuak, eta banakako irudikapen nahiz auto-pertzepzioetan duten eragina, maila edo estatus ekonomikoa, eta abar.

Esparru pribatuetan eta intimitatean, harreman afektiboak eta familia-irudikapenak jartzen direnez jokoan, askoz ere zailagoa da berdintasuna eta simetria irabaztea botere orekan, erabakietan, edo etxeko lanak eta erantzukizunak banatzerakoan.

Inori ez zaio gustatzen eskuratutako onuren kontrola galtzea, eta onartu behar genuke gizonaren rol tradizionalari esker, etengabe familia zabaleko edozein emakumeren zainketaren mende egonik, mendekotasun elementu ezkutuez gain, era guztietako arretaz eta esfortzuz osatutako ekonomia eskuratzen duela gizonak, eta horri esker, askoz ere denbora gehiago duela lanean aurrera egiteko, kirola edo gizarte-jarduerak egiteko, edota pertsonalki garatzeko.

6.

Diruaren esanahia eta bikoteen botere-harremanak

Diruak eta haren kudeaketak bikotearentzat eta bikotekide bakoitzarentzat duen esanahiaren arabera aztertu ditugu bikote-harremanak, banakako elkarrizketen bitartez. Azterketa horretan ikusi dugu, emakumeekin alderatuta, gizonek autopertzepzio berezituak dituztela, bai bikoteen dinamika ekonomikoari buruz, bai autonomia-faktoreei buruz ere. Faktore horiek agerian uzten dute gaur egun oraindik genero-ezberdintasunak daudela gizartean.

Txosten honek oinarrian duen nazioarteko ikerketaren espainiar ikerlariok lau bikote-mota sailkatu ditugu (4):

(4) Capitolina Díaz Martínez, Cecilia Díaz Méndez, Sandra Dema Moreno eta Marta Ibañez Pascual (2004) *Dinero, amor e individualización: las relaciones económicas en las parejas/familias contemporáneas*. Oviedo: KRK.

1. Gizona etxeko hornitzaile ekonomiko bakarra da.
2. Ekarpen ekonomiko bereizia (gizonak gehiago irabazten du)
3. Gizonak emakumeak baino ekarpen ekonomiko txikiagoa egiten du.
4. Emakumeak eta gizonak ekarpen ekonomiko bera eta maila profesional bera dute.

Bi soldata dituzten bikoteetan, bikote-harremanak kontraesan batean oinarritzen dira. Izan ere, (batez ere emakumeen aldetik) berdintasuna lortu nahi da, baina aldi berean, rol-bereizketarako ereduak oso barneratuak daude oraindik (bai gizon nahiz emakumeetan). Beraz, bi hornitzaileek genero-ezberdintasunerako jokabideak izaten jarraitzen dute.

Simetriaren ideia diskurtso askotan ageri da, eta gizon gehienek onartzen duten elementu bat da, baina emakumeek, eguneroko bizitzan simetria hori gauzatzeko, oztopo ugari aurkitzen dituzte. Simetria hori lortzeko, zaila da gatazka edo zalantza potentzialen testuinguruan aldaketak egitea, aldaketa horien kostu afektiboak zein izango diren jakin gabe; izan ere, hor oso barneratutako menpekotasun-harremanak daude, esparru pribatuaren armonia zedarritzen duten zutoinak balira bezala.

Beraz, sozializazio primarioak duen garrantzia nabarmena da. Hau da, helduek munduari buruz duten ikuspegian, txiki-txikitatik bizi eta ikasitako ohitura eta ereduak duen garrantzia funtsezkoa da. Beraz, gure familietan, gure lagunen familietan, eskolan, liburuetan, zineman, komunikabideetan agertzen diren eredu nagusiek garrantzi handia izaten jarraitzen dute.

Sozializazio primarioagatik ez balitz, emakumeak gizonak baino gehiago irabazten duten bikoteetan, genero-rolen ezberdintasunak ez lirateke indarrean egongo. Botere sinbolikoa ez da modu orekatuan banatzen: gizonak (hornitzaile bakarra, nagusia, simetrikoa edo ahula izanik) ditu aukera gehien harremanaren testuinguruan identitate pertsonala garatzeko.

Bi ezkontideek diru-kopuru bera irabazteak ez du esan nahi bikote-harremana simetrikoa izango denik. Beraz, engainagarria izango litzateke, diruak, berez, familia orekatu eta berdinak sortzen dituela esatea. Hala ere, diruari esker, emakumeek bikotekideekiko berdintasun handiagoa dutela sentitzen dute.

Baina diruaren kudeaketan sortzen dira genero-ezberdintasuna gehien. Ikerketan aztertutako bikote guztietan, diruaren kontrol eta administrazioan, espezializazioak aurkitu ditugu. Oro har, gizonak ondare-gastu handiak kontrolatzen ditu, eta emakumeak, berriz, familiaren eguneroko gastuak administratu eta kudeatzen ditu. Espezializazio hori ez da orekatua, baina hala ere bi bikotekideek modu egokiena dela uste dute. Espezialitate asimetrico hori esplizituki onartzen duten bikoteak gizonak bakarrik dirua irabazten dutenak izan arren, berdintasunaren ideiak etengabe egiten du talka rol berezituekin. Berdintasuneko ikuspegi postmodernoa duten bikoteen kasuan soilik, rola desagertu egiten dira, eta bikoteen arteko elkarbizitza bat sortzen dela esan daiteke.

Diruaren jabetza ondasun-erkidegoa da ikertu ditugun bikote guztietan. Dirua erki-dea dela onartzeak, hau da, familiaren premiak asetzeko balio duela onartzeak, esan nahi du gizonak eta emakumeak ezin dutela diru hori gastu pertsonaletarako libreki erabili. Oro har, gizonak berentzako diru gehiago izaten dute emakumeak baino, berdin dio hornitzaile bakarrak edo hornitzaile ahulak izan.

Kontsumoan ere, gizonak baldintza hobekitu ditu. Emakumeak gizonak baino diru gehiago irabazten duen kasuetan izan ezik (familiaren premiak ase ondoren, autonomia nahiko zabala dutela baitirudi), gainontzeko familietan, gizonak gastu askoz ere bereziagoak dituzte: esaterako, familiaren kanpo-harremanetan, "sake-lako dirua" kontrolatuz.

7.

Botere ekonomikoa biltzea: gizonaren rola legitimatzea

Botere ekonomikoa gizonaren esku egonda, alde bakarreko erabakiak zilegiztatu dituzte. Puntu horretan sortzen dira gatazkak. Emakumeak badaki gastuak erabakitzeke orduan gizonaren mendean dagoela, baina ez dago prest etxeko eko-

nomiaren administrazioetik erabat baztertuta gelditzeko. Emakumeak, paper afektiboa hornitzaile bakarraren nahien mende dagoela sentitzen du. Kudeaketa-eredua rol-banaketaren arabera da. Botere ekonomiko desorekatua bada, emakumeak, etxeko lanetan duen erantzukizunaren arabera, etxeko ekonomia kudeatzeko lana esleitzen zaio. Horrela soilik lortzen da oreka ideala.

Idealki, gizonak bere papera betetzen du, aurreikusitako kontsumoa eta familieren segurtasun-mailak mantentzen ditu, eta diru-mugimendu garrantzitsuak egin behar baditu, emazteari galdetuko dio. Familia-unitatea ekonomikoki arriskuan jartzen bada, bikotea ere arriskuan jartzen da, eta kontraesanak agertzen dira.

Bi bikotekideek diru irabazten dutenean, baina gizonak emakumeak baino gehiago irabazten duenean, emakumea, hornitzaile kide gisa ahula da. Egoera horren ondorioz, gizonak botere ekonomiko handiagoa du, eta emakumea ez da eroso sentitzen, ez baitu mendekotasun hori onartzen. Erabakiak negoziaketaren bitartez hartu arren, bikotekide bakoitzak diru-kopuru ezberdina ekartzen duenez, ados jartzen ez direnean, gizonaren irizpideak onartzen dira. Eredu hori espezializazio desorekatuarena da. Bertan, gizonak, boterea eskuratzen du, emakumearen kalterako, kapital ekonomiko administratzen baitu soilik.

Bi bikotekideek dirua irabazten duten kasuetan, baina emakumeak gizonak baino gehiago irabazten badu, simetria idealaren aurka doan harremana sortzen da. Dirua kudeatzeko eta erabakiak emateko eredu ideal horren arabera izan arren, bikotekideen arteko harremanetan ezin zaio genero-desoreka horri ihes egin, isilean sartzen baita familian, gizonak emakumeak baino kapital ekonomiko txikiagoa izan arren.

Emakumeek, kontu handiz, ez dute senarrak baino gehiago irabazten duela esan nahi izaten. Ez dute alde bakarreko erabakirik hartzen; aitzitik, gastu higiezinak edo antzekoak daudenean, senarrak ordaintzea uzten dute, eta bien bitartean, beren dirua etxeko eguneroko gastuak ordaintzeko erabiltzen da, azukre-koskor bat uretan dagoenean bezala, diru hori arrastorik utzi gabe desagertzen delako. Ikertutako bikote guztietan, badirudi emakume guztiak konturatzen direla, gizonak hornitzeko duten ahalmenari aurre egitea arriskutsua dela.

Bestalde, bi bikotekideek diru-kopuru bera irabazten badute, harreman ekonomikoan nahiko berdintasuna eskuratzen da, berdintasunaren testuinguru horretan independentzia-sentimendu handia egoten baita. Bikote horien kasuan, gizonak emakumearen berdintasuna eta autonomia-premia onartzen ditu; nahiz eta, xehetasun handiagoz aztertuz gero, sozializazio primarioaren eta genero-rolen onarpenaren zantzuak agertu.

Erabakiak emateko, adostasuna eta berdintasuna dira nagusi, eta familia simetrikoetan, bi kideen autonomia- eta independentzia-nahiak errespetatzen dira, botere ekonomikoa era desorekatuan ez biltzeko neurriak hartuz.

Hala ere, emakumeek etxeko eguneroko gastuak kudeatzen jarraitzen dute, eta gizonak ez dute eguneroko premia horietan parte hartzen. Rol-espezializazio hori estatus sozial apaleko bikoteetan agertzen da modu nabarmenean; izan ere, bikote horietan, gizonak oraindik "jornala eramaten du etxera" da, gaur egun bi bikotekideek "jornalak" irabazi arren.

8.

*“Erkidegoko”
irabazietan, onurak
gizonarentzat*

Kasu guztietan, emakumeak “gure” diruari buruz hitz egiten du; hau da, administrari gisa, ez jabe gisa. Gizona, berriz, hornitzaile bakarra denean (joera nagusia 30 urtetik gorako bikoteetan eta ikerketatik kanpo utzi ditugun mutur soziale-tan), haren bakartasuna eta jabetza-zentzua indartu egiten da, etxeko ekonomian erabakiak emateko boterea berak duela berresten baita. Askotan, diruari buruz hitz egitean, lehen pertsona singularrean hitz egiten du. Posesiboa “nire” izan ohi da.

Gizonak autonomia- eta bakartasun-maila handiagoak ditu gastu pertsonaletan, eta emakumeek, berriz, beren gastu pertsonalen aurretik familiaren premiak jar-

itzen dituzte. Gizona hornitzaile bakarra den bikoteetan, emakumeen gastu pertsonalak gizonaren izaera "hornitzailea" indartzen du, kontsumoa gizonaren soldata-mailak zehazten baitu, eta ahal denean, "kontsumo nabarmena" egiten baita. Duela mende bat baino gehiago, Thorstein Veblenek joera hori azpimarratu zuen.

Bi bikotekideek dirua irabazten duten bikoteetan, gizonak gehiago irabazten badu, etxeko ekonomia bakartu edo komunitarizatzeko tentsioak konpontzeko, gizonak ematen ditu erabakiak, diru gehiago irabazten baitu. Emakumeak bere bakartasunaren zati bat galtzen du familiaren interes komunen alde. Hori argi eta garbi ikusten da, bikotekide bakoitzak dirua nola erabiltzen duen aztertzen badugu.

Gizonek askoz ere diru gehiago gastatzen dute nahi eta premia pertsonaletan, eta ahal dutenean, agerian uzten dute familiaren sostengu nagusia direla eta nagusitasuna dutela; besteak beste, dirua etxetik kanpo gastatzen dutenean, amaztearekin batera. Jokabide horiek sozialki "aurreikusitako" jarreraren barne sar daitezke. Guztion lana da jarrera edo eredu horiek indargabetzeko mekanismoak eratzea, hezkuntzaren, informazioaren, komunikazio eta dibulgazio sozialaren bidez, gutxienez. Guztion lana da, emakume nahiz gizon.

Arreta eta kezka gehien ematen digu, genero-eredu horietan, "erkidegoko" irabaziak izan arren, emakumeak gizonak baino gehiago irabazten duen kasuetan, gizonek ez bezala, emakumeek ez dutela horregatik inolako onurarik izaten.

Dirua erabiltzean, gizonek erabakitzen dute gastu bat komuna edo pertsonala den, emakumeak familiarekiko kezka izan behar duela azpimarratuz, eta gastu pertsonalik egin ez dezan.

Diru-kopuru berdina edo antzekoa irabazten duten bikoteen kasuan, dirua askoz ere modu komunagoan erabiltzen da, horrek harremana sendotu egiten du, eta diruari zentzu afektibo handia ematen zaio, harremana mantentzeko.

Ikusi berri dugun bezala, genero-rolak diruaren kudeatze edo administrazioan ageri dira, baita hura erabiltzeko garaian ere. Ikerketarako aztertutako familien ekonomian, diruak, merkatu-ekonomiako hartu-emanetan, berezko zentzua baino askoz ere esanahi zabalagoa du.

Bikote-harremanetan, diruaren garrantziak esanahi ezberdina du gizonentzat eta emakumeentzat. Dirua ondasun komun gisa ikusten da, eta horregatik, harremana finkatzeko, afektibitatea bideratzeko eta bizitza-proiektu partekatua mantentzeko balio du.

Gizon hornitzailearentzat, dirua maskulinitasunari lotuta dago, boterearen eta estatus materialaren sinbolo da. Bi bikotekideek dirua irabazten dutenean, gizonak irabazitako dirua neurritz kanpo baloratzera iritsi daiteke, ondare-gastuetarako erabiltzen baita. Irabazi-kopuru orekatua duten bikoteentzat, dirua interes-erkidegoaren ardatz nagusia da. Erkidegoaren zentzu horrek diruaren esanahi indibidualizatzaila ahultzen du.

Lehen aipatu dugun bezala, emakumeek etxetik kanpo lan egitea funtsezkoa eta garrantzitsua da, besteak beste, emakumeen desirak betetzeaz gain, lanak independentzia ematen dielako. Hala eta guztiz ere, egindako ikerketak argi uzten du, bikoteetan, boterearen asimetria ez dela diruan oinarritzen, ez baita nahikoa emakumeak gizonak bezainbeste edo gizonak baino gehiago irabaztea, modu horretan harreman simetrikoak eratzeko.

Gizonak irabazitako diruak (hark bakarrik edo emakumeak baino gehiago irabazitakoak), gizonen nagusitasunari eusten laguntzen du. Baina emakumeak gizonak baino gehiago irabazten badu, kontzienteki edo ez-kontzienteki, bikote harremanean emakumearen garrantzia gutxitzeko eta bakartasunik ez sortzeko formulak bilatzen dira.

9.

Ondorioak

Behar bezala frogatu dugu, oraindik trantsizio-epean gaudela, eta esparru jakin batzuetan, nahiz eta beraien artean lotuta egon, genero-harremanak zehazten dituen eredu tradizionalak alde batera uzten ari garela: "aita babesle, jaun eta jabe" eta "emakume zaintzaile-administrari" izatetik, beste era bateko elkarlana, diruaren kudeaketa eta erabakiak emateko autonomia sustatzen ari dira, baita esparru pribatuan lanak banatzekoa ere.

Halaber, "famiartasunean" oinarritutako ohiturei eusten zaiela ikusi dugu; hau da, belaunaldiz belaunaldi genero-rolak eskualdatzen direla, ikertutako bikoteetan, autonomia- eta bakartasun-eredu berriak gauzatzea oztopatuz.

Aldaketa-nahi horien ondorioz sortutako tentsioen esparruetan, status quo ez galtzeko saiakerak, eta homeostasi modu ezkutuago edo ageriagoak erabili dira bikoteen funtzionaltasuna bermatzeko; ondorioz, gatazkak ez dira horren gardanak, eta ez dira horren "negoziagarriak". Beraz, metodologia eta tresna berriak xehetasun handiagoz ikertu behar dira, horrela arazo horiek jorratzeko modu onena zein den zehazteko eta emakumeek nahiz gizonak prestakuntza-baliabide eta tresnak edo elementu materialak eskuragarri izan ditzaten, era horretan bikoteak garatzen laguntzeko, baita bikotekideen bakartasunak ere.

Etorkizunean, harremanak "parekoak" izatea nahi badugu, etxebizitza eta bizitza-proiektua (bai bateratua nahiz banakakoa) partekatzea, baliabideak batera kudeatu eta hitzartzea, bikote gisa eta pertsona gisa bizitza hobetzeko erabakiak ematea nahi badugu, zitur asko sozializazio-oinarri gisa, hezkuntza-esparrua, esparru materiala eta gizarte-ekintzaren esparrua berrikusi beharko ditugu; eta beste alde batetik, horretarako baliabide materialak eta zerbitzu sozialak berrikusi beharko ditugu. Beraz, "gizonaren identitatea" edota "emakumearen identitatea", identitate horiek sortzen dituzten harremanetatik kanpo aztertzen baditugu, konpromisoa uste genuena baino askoz ere zabalagoa da.

MARÍA PAZOS MORÁN

**Azerlan Fiskaletako
Institutuko ikerketa-
burua. Madril**

Genero-rolak:

jokabide

pribatuak eta

politika

publikoak

1.

Ikerketa feministan, arreta handiz aztertzen da emakumeen eta gizonen jokabidearen arteko ezberdintasunak. Ikerketa askok agerian utzi dute, baldintza materialen egoerak aldatzen direnean ere (esaterako, emakumeek gizonek baino soldata hobea irabazten dutenean), emakumeen eta gizonen jokabideek genero-rol tradizionalen arabera izaten jarraitzen dutela. Fenomeno hori garrantzitsua da, eta haren zabalkuntza, sakontasuna eta aldakortasuna ezagutu behar dira. Ikusitakoaren arabera, badirudi, herrialde, garai eta baldintza ezberdinak egon arren, joera horrek bere horretan jarraitzen duela. Eraitza horiek interes handia pizten dute, batez ere arazo oraindik ukapen-fasean dagoen inguru edo giroetan. Espainian, oraindik ez da eztabaida amaitu, eta ez da zehaztu emakumeek diskriminaziorik jasaten zuten ala ez, edo genero-indarkeriarik bazegoen ala ez. Aldi berean, jende askok dio feminismoa modaz pasatako fenomeno dela “dagoeneko berdina garelako” (gainera, harrigarria bada ere, hori diotenen ezberdintasunik ez zegoela zioten). Behin eta berriz errepikatzen den ukapen hori aldaketan aurkako oinarritzko oztipoetako bat da. Testuinguru horretan, nahiko arazoizkoa da, feminista askok arazoak hor jarraitzen duela azpimarratzea (hainbat alderdi ezberdinen arteko eztabaidan; alde batetik betiko joerak daude, eta bestetik, joera feminista berriak, patriarkatua biziraupena zalantzan jartzen dutenak... edo alderdi beraren barne al daude denak?).

Baina antolaketa sexualak bere horretan jarraitu edo aldatzeak, Bordieuk “La domination masculine” lanean eragiketa antzua zela esan arren, bi arrisku handi ditu: lehenik eta behin, aldaketak gertatu eta aldaketa horiek interesgarriak diren heinean, eztabaida hori faltsua da. Izan ere, aldaketa-zantzu argi bat da eztabaida hori gainditzea: hain zuzen ere, emakumeek estatus hobea duten herrialdeetan, esaterako, Suedian, alderdi politiko gehienek feministak direla diote. Horrek esan nahi du, alderdi politikoek patriarkatuaren nagusitasuna onartzen dutela, nahiz eta fenomeno horri beste izen bat eman. Bestalde, Suediako mugimendu feministak ez dira nagusitasun hori frogatzen saiatu behar, baizik eta aldarrikapen politikoetan aurrera egiten saiatzen dira. Baina genero-ezberdintasun

handiagoak dauden herrialdeetan, jarrerak askoz ere muturrekoagoak dira. Pentsamendu horien arabera, emakumeak zapalduta bizi dira, eta ezin dira mundu androzentrikoan integratu. Horrelako jokabideen ondorioz, askotan errebindikazio politikoak alde batera uzten dira (irtenbide bakarra "paradigma aldatzea" izango litzateke), horren ordean, bakarkako ekintzak egiten dira soilik, eta batzuetan nolabait ghetto antzekoetan biltzen dira. Haustura heroiko horiek, bakoitzaren aukera gisa errespetagarriak izan arren, emaitza txikiegia eta eze-gonkorregia lotzeko gehiegi eskatzen du (Bordieu, aipamena).

Bigarren arriskua da, bere horretan jarraitu edo aldatzeari buruzko eztabaidan, denbora eta energia alferrik galtzeaz gain, bere horretan gelditzen saiatzen bagara, egoera bidegabe bat egoera saihestezin bat bezala auzer dezakegula, Bourdieuk sexu-banaketaren egituren eta hari dagozkion banaketa-printzipioei buruz, *"bidegabekariaren naturalizazioa"* edo *"deshistorizazioa eta betikotze erlatiboak"* kontzeptupean zehaztutako fenomenoak. Hau da, emakumeak "ezberdinak" direla azpimarratuko litzateke, eta beraz, ez dagoela erremediorik.

Gaia garrantzitsua da, patriarkatua ez baita "naturala", eraikuntza sozial arbitrario edo bidegabea baizik, eta bidegabekeria horren oinarrietako bat itxurazko "naturaltasun" hori da, sistema betikotzen baitu. Galdera horrek bi atal bereizi ditu: lehenik eta behin, zein elementuk oztopatzen duten ezarritako ordena aldatzea, eta zein elementu diren aldaketaren indartzaileak. Bigarren, erakunde eta politika publikoek (eta ondorioz, aurrekontu publikoek) prozesu horietan zein paper duten. Edonola ere, errealitatea eta irudikapen engainagarria kontu handiz bereiziz, helburua fenomenoaren jatorria eta izaera ulertzea da: ezin dugu ahaztu, emakumeen jokabideari dagokionez, askotan funsgabeko adierazpenak egiten direla egintza objektiboak balira bezala. Hori dela eta, adierazpen horiek eta haien ondorioetako batzuk aztertzeak merezi du. Azterketa hori hurrengo atalean egingo dugu. Hirugarren atalean iraunkortasuna bermatzen duten baldintza instituzionalak aztertuko ditugu, batez ere zerga- eta prestazio-sistemak familia-eremuan duen eragina, gizona baita familiako elementu sostengatzailea, eta emakumea, berriz, menpekoa. Laugarren atalean, eredu tradizionalen hautabide-gabeziaren ondorioz, emakumeek zein erantzun ematen duten aztertuko dugu, baita

baldintza beretako sostengatzaile/zaintzaile gizarte-eredua dela lan- eta familia-bizitza bateratzeko modu onena, emakumeek aukera gehiago izan eta bikotean bitarteko botere handiagoa lor dezaten. Azkenik, bosgarren atalean ondorioak azalduko ditugu, eta berdintasunean oinarritutako sostengatzaile/zaintzaile-eredurantz aurrera egiteko, Espainian egin beharreko berrikuntzen zerrenda (laburra) ere aipatuko dugu.

2.

Azalpen interesatuak eta horrek dakartzan ariskuak

Egia da, egoera batzuetan emakumeak gizonen boterepean jartzen direla, eta beren interes materialen aurkako jokabideak izaten dituztela. Hala ere, fenomenoaren beraren azalpena elementu eta balio-judizio gehigarriekin kutsatuta dago. Azalpen horietako batzuk, deskribapen moduan azaltzen dira, eta emakumeak era batekoak edo bestekoak direla diote, edota gauza bat arrazoi batengatik edo besteagatik egiten dutela. Lehenik eta behin, gehiegi orokortzen da; eta bigarren, adierazpen horien aurkako frogatu bada ere, adierazpen horiek egiaztatutako egintzat hartzen dira.

2.1

NOLAKOAK “DIRA” EMAKUMEAK, ETA ZER “NAHI” DUTE: AUKERATZEA ETA AMORE EMATEA

Banakako diskurtsoetan eta politika publikoetako diskurtsoetan ere, funtsezko balia bidea “aukera-askatasuna” da. Boninok (2007) elementu hori banakako

esparruetan aztertzen du (mikromatxismoak), Bordieuren sistemarekiko adostasun bidezko edo "patriarkatu leun" bidezko sistema gogoraraziz; hau da, menpekota menderatzea, baina menderatzaileak espero duena aukeratu egiten duela sinestarakiz. Sistema horren bertsio traketsenetan, emakumeei menpean egotea gus-tatzen zaiela esaten da, eta bertsio horiek oraindik bizirik jarraitzen dute emaku-meak menpean dauden inguruetan (baina ez zaio menpekotasuna esaten, noski). Duela gutxi, Brasileran egindako bidaian, gau batean genero-indarkeria nire begie-z ikusi nuen, eta horrenbestekoa zen, non bizilagunak esnatu ere egin ziren. Bizilagunek adierazi zuten ez zitzaiola poliziari deitu behar "emakumeari gusta-tu egiten zitzaiolako". Horretarako arrazoi bakarra zen egoera horretan urte asko zeramatzala, eta ondorioz, gustatzen zitzaiolako izan behar zela. Gertakari hark duela ez horrenbeste denbora Espainian bizi ziren egoerak ekarri zizkidan gogo-ra. Horrelako adierazpenak susmatu egiten dira, albisteetan, urruntze-ordenak dituzten emakumeek erasotzaileei gerturatzen uzten dietela "jakinarazten" dene-an, emakumeei bete betean joz, Espainian, gaur egun horrelako interpretazioak ezin baitira modu esplizituan azaldu.

Bikote-harremanei dagokionez, behin eta berriz aipatzen da emakumeei harre-man desorekatuak edukitzea "gustatzen zaiela" edo horrelako harremanak "nahi dituztela". Askotan aipatzen da, emakumeek gizonen nagusitasunaren mitoari eusteko beharra dutela, "gaineke" gizon bat behar dutela, hori gabe, gizonek erakargarritasuna galtzen baitute eta emakumeek gizona ez bailukete maitasun-objektu gisa ikusiko (Coria, 1991). Gehiegi orokortu gabe (Clara Coriak arrisku-tsua dela baitio), aipatu behar dugu, emakume askok, beren gogobetetzea alde batera uzten dutela, eta beren bikotekideenari ematen dietela garrantzia. Eta noski, diruari dagokionez, badirudi, askotan, emakumeek beren hilobiaren zuloa egiten dutela. Baina, horregatik, emakumeek harreman orekatuak baino gehiago, harreman desorekatuak nahiago dituztela ondorioztatu behar al dugu? Edo badaude egoera horietan mantentzen dituzten faktore objektibogarriak, emaku-meek beste egoeran egotea nahi izan arren? Zein egoerekin alderatuta nahiago dituzte harreman desorekatuak?

Funtsezko elementu bat hautabide-gabezia da (eta bereziki, ez dago harreman orekatuak izateko prest dagoen gizonik). Ez da nire asmoa gizakien funtzionamenduari buruz gehiegi suposatzea, baina oinarriztat jotzen dut, pobrezia-atalasearen gaintetik behintzat, pertsonak gogobetetze materialez gain, beste premiak ere ase nahi dituztela. Askotan ahaztu egiten zait (Amelia Valcarcelek dioen bezala), emakumeak gizakiak direla soilik (eta horregatik esaten da, "emakumeak ez direla ogiari esker soilik bizi"). Gizakiek beste faktoreak ere nahi dituzte bizitzan; esaterako, ingurukoek maitatu, onartu eta baloratzea; gizartean integratzea (batez ere lan-esparruan), eta munduan bakarrik ez daudela sentitzea. Gauzak horrelakoak izango balira, lehenik eta behin emakumeek egoera horietatik ez ateratzeko jasaten dituzten presio sozialak hartu beharko dira kontuan. Emakume ezkongabe eta dibortziatuek giro atzerakoietan jasaten duten estatus apala eta zigor sozialari buruz dezente idatzi den arren, ez da nahikoa. Ezin dugu ahaztu, bakarrik bizi diren emakumeak gaizki ikusita daudela.

Bigarren, amodioari dagokionez, emakume heterosexualek ez dituzte harreman orekatuak izaten, eta are gutxiago jokabide maskulino tradizionalak nagusi diren herrialdeetan, besteak beste, Espainian. Lidia Falconek, bere autobiografian kontatu zuen, bere belaunaldiko feministak senarrik gabe geratzen joan zirela. Beraz, emakumei harreman orekatuak edukitzea gustatuko balitzaieke ere, badirudi ez dutela horrelako harremanak lortzeko aukera handirik (1). Beraz, nola dakigu "ez zaizkiela gustatzen"? Noski, ni ere ados nago "hobe bakarrik beste inorekin gaizki egon baino", baina emakumeek bikotekideak aurkitzeko duten nahia ez da emakumeen jokabide gisa soilik ulertu behar, ez jokabide "femenino" gisa ere (izan ere, gizartean bikotea amodio-mota ohikoena izatea, desiratuena dena ere esango nuke, ez dakigu fenomeno naturala edo soziala den). Era horretan, gaur egungo emakumeen kasuan, haien bikotekideek diruarekiko dituzten jokabideak ulergarriak dira (esaterako, Dema et al 2004 eta Coria, 1991k azaldukoak),

(1) Beste nobela askoren artean, Josefina Aldecoaren *El Enigma*k, emakume batek berdintasuneko bikotearen bila sentitzen duen frustrazioa azaltzen du.

nahiz eta desesperagarriak iruditu. Baina, hala ere, emakume horiek tentsio psikologiko handiak jasaten dituzten zantzuak daude (besteak beste, ikus Dema, 2005; Coria, 1996; Freixas, 2005), baita horietako askok egoera alienatu horietatik ihes egiten dutela ere (esaterako, dibortzio gehienak emakumeek eskatzen dituzte; eta gero eta emakume profesional ezkongabe gehiago daude).

Prozesu horiek ez dira behar bezala ulertzen, eta horren arrazoi nagusia da emakumeekin zerikusia duen guztia ez dela arrasera berberaz neurtzen, eta ez dela analisi-metodo berberekin aztertzen. Ezberdintasun horien ondorioz, ez dira emakumeen (giza) premiak onartzen, eta horrek erruduntasuna areagotzen du. Izan ere, emakumeei buruzko fenomenoak aztertzerakoan, sistematikoki, soziologiari, ekonomiari eta abarri buruz dakigun guztia ahaztu egiten zaigu. Emaitza: emakumeei jokatibide "ideala" exijitzen zaie, eragile sozialak ikusezin bihurtzen dituzte, eta hitz batean, emakumeek beraiek jasaten dute jokatibide ideal horretatik desbideratzearen ondorioak (2) (ikus Celia Amorósek botererik ez duenari erantzukizuna eskatzeari buruz azaltzen duena).

Emakumeek gizon menderatzaileekiko duten menpekotasuna aipatzeko, zergatik ez erabili Stockholm-sindromearen kontzeptua? Horrelakoetan, kartzela ez litzateke fisikoa izango, baizik eta hainbat elementuz osatua egongo litzateke, bereziki hautabide-gabeziak. Oztopo horiek gainditzea, kasu heroiko goresgarrietan ezik, prozesu kolektiboa da, oztopo instituzional ugari baititu bidean. Hala ere, gaur egun, mendebaldeko herrialdeetan oztopo horiek ez dira debekuetan islatzen, beste elementu askoz ere sotilagoetan baizik, eta ondorioz, ez dira horren ageri-

(2) Egia esan, emakumeei beraiei egotzen zaie gertatzen zaienaren erantzukizun edo errua, edo bestela beste emakumeei ala feministei, eta askotan hirurei aldi berean. Adibide bat Hirsi Ali da. Giroaren arabera, arrazoi ezberdinak zirela-eta zigortu zuten. Emakume bakar bati (ministro gaiztoari) egotzi zioten Herbeheretatik bota izanaren errua, baita feministei ere, ez zutelako horren aurka ezer egin. Edo Dolores Vázquez. Bere aurkako lintxamendu soziala desegitea lortu zenean, begirada akusatzailea Alicia Hornosengana zuzendu zen, hura guztiaren erantzulea balitz bezala.

koak. Aldaketa-prozesu horren barne, noski, gizonen pentsamoldea aldatu behar dute, eta horretarako, baldintza sozial batzuk ere bete behar dira. Beste hautabideak, esaterako, lesbianismoa; eta hitz batean gizonetikiko menpekotasun emozionalik ez izatea, , sozialki zigortuta daude, feministak poliki-poliki lortzen ari diren aurrerapenen arabera, hein batean ala bestean.

2.2

USTEZKO AUKEA- ASKATASUNA FAMILIARRA POLITIKA PUBLIKOETAN

Gizarte-politikan, "aukera-askatasunari" buruzko diskurtsoak gezurrez beteta daude. Izan ere, kontzeptu hori behin eta berriz aipatzen da, emakumeek, lanbide batean aritu beharrean, etxeko lanetan eta pertsonak zaintzen aritzea nahia-go dutela azpimarratu nahi denean. Askotan esaten da "ezberdinak dira, eta lehenetsun ezberdinak dituzte" (eta hori feministek emakumeak beren borondatearen aurka jokatzerara behartzen dituztela esateko erabiltzen dute). Baina egia esan, emakumeak gizonen jokabideak izateko eta gizonen emakumeen jokabideak programatutako egongo balira ere, ezingo lukete era horretan jokatu.

Argumentu biologikoak baliagarri ez direnez, (emakumeen eta familiarren) aukera-askatasuna lanaren bereizketa sexuala betikotzeko panazea berria da. Oraindik ageriko diskriminazio asko badago ere, politika publikoek, bikoteetan, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasuna berretsi eta areagotzeko bide berriak erabiltzen dituzte. Orain, horretarako hautabide nagusia eskubide sozial bateratuak dira. Nahiko hautabide berria da, iraganean, familia-eskubideak familia-buruarenak baitziren, eta gainera zerga-onurak eta laguntza sozialak eskuratzeko zituen "bere ardurapeko emaztea" edukitzeagatik. Feminista-mugimenduek betidanik aldarrikatu izan duten bezala, eskubideak banakatu beharrean, "aukerako" eskubideak eta eskubide "bateratuak" ezarri dira.

Joera berri horren adibide garbiena, Europan, amatasun-baimenen inguruan egin diren berrikuntzak dira; hau da "guraso-baimenak" izenekoak. Baimen horien

bitartez, haurra zaintzeko baimena amak edo aitak har dezake, edo bestela, bien artean partekatu dezakete baimena. Estatuak ezin du bikotearen erabakietan esku hartu, eta beraz, bikotearen aukera-askatasun hori gorde beharreko ondare absolutuzat jotzen da. Baina esperientziak dio, errealitatean, eskubide bateratu horiek gehienetan emakumeek “gozaten” dituztela, baina beren aukera izan dela esanez justifikatzen da, eta horrela eztabaida eten egiten da. Baina, harrigarria bada ere, emakumeek zaintza-lanak aukeratu behar dituztenean, ez dira eskubide bateratuak edo aukera-askatasuna aipatzen (3). Emakumeak laneratzea eta lan-eskarmentua galdu ondoren, nork gogoratzen du kalitateko lanpostu bat aukeratzeko eta miseriatik kanpoko bizitza izateko eskubiderik duenik? Bestalde, Gizarte Segurantzako beste eskubideak ez dira bateragarriak, eta beste kasuetan ez da aukera-askatasuna aipatu ere egiten. Beste behin, emakumei buruzko gaietan, salbuespena egiten da, baldintzak kontuan hartu gabe. Beraz, paradoxikoa izan arren, menpekotasun-harremanak mantentzeko politikak babesteko aipatzen da askatasuna.

Ustezko familia-aukeraketa prozesu bat da, baina bertan, gizonak eta emakumeak ez dituzte aukera berdinak. Esaterako, guraso-baimenak eskubide bateratu gisa aurkezten dira; baina aldi berean, emakumeek izugarritzko presioa jasaten dute zaintzaile-rola eskusibotasunean beren gain hartzeko. Hala ere, presioa ez da berdina herrialde guztietan, eta ondorioz, herrialde guztietan ez da hein berean sinesten emakumeek beraiek nahi dituztela eskusiboki zaintzaile-lanak egin. Herrialdeen arabera, mugimendu feministen aldarrikapenak ere ezberdinak dira.

(3) Prestazioen diseinuari begiratzen badiegu, fenomeno hori argi ikusiko dugu. Adibidez, Frantzian, “hautazko jarduerako osagarria” (JHO) izeneko prestazioa haurrak zaindu ahal izateko soldatapeko jarduera zati batean edo erabat uztean jasotzen da; eta “hautazko jarduerako aukerako osagarria” (HJAO) jarduera erabat uzten denean, eta guztira 3 haur direnean. Beste osagarri bat, “haur-zaintzarako motaren hautaketa librea” izenekoa da, eta haur hezkuntza publikoari uko egiten zaionean jasotzen da.

Europako hegoaldeko herrialde batzuetan, mugimendu feministek amatasun-baimena luzatzea eta emakumeentzako erraztasuna handitzea eskatzen da, haiek haurrak zaindu ditzaten. Suedian, berriz, aldarrikapena ia ahobatezkoa da, eta baimen horiek guztiak bereizi egin behar direla eskatzen da (4).

Horretarako ematen den azalpena da emakumeek hartu nahi izaten dituztela baimen horiek. Gero, espainiar gizonei, lanak banatzen dituztela aipatzen dutenean, amatasun-baimen hori partekatu ez izana erantzun horrekin bateragarria ote den galdetzen zaienean, eta bikotekide bakoitzaren lan-mota kontuan hartu gabe emakumeek eszedentziak, lanaldi-laburtzeak eta abar zergatik hartzen dituzten galdetzen zaienean, baimen horiek emakumeek hartu nahi izaten dituztela esaten dute (titulartasuna emakumeena da, baina senarrei ia 10 aste emateko aukera dute). Eta emakume askok adierazi dute, ados eta pozik daudela baimen bateratuak beraiek hartzearekin. Baina, oraingoan ere, emakumeei zein mekanismok presio egiten dien eta zein hautabide dituzten galdetzen zaienean, haiek emandako erantzunak kontuan hartu behar dira.

Suedian, 1974an, amatasun-baimenaren ordean, berdintasunezko amatasun/aitatasun-baimena ezarri zen. Eskubide bateratua izan arren, ikerketa askok frogatu dute guraso-baimenaren banaketa bikotekideen arteko negoziazio baten emaitza dela, eta emakumeek negoziazio-gaitasun handiagoa duten heinean, gizonak askoz ere gehiago parte hartzen dutela. Emakumeen gaitasun hori aldagai sozioekonomikoen sorta baten arabera da (Castro eta Pazos, 2007).

Azkenik, gizarte-eredu ezberdinei buruzko ikerketa konparatuek agerian utzi dute, herrialde bakoitzean, bikotekideen arteko negoziazioa ezberdina dela. Esaterako, Brodman, Esping Andersen eta Guellek (2007), bikoteetan, emakume-

(4) Adibide garbia da emakume sozialdemokratek, beren alderdiaren hierarkian baimenak banakotzeari buruz izandako gatazkak. Bestalde, 2006ko hauteskundeetarako kandidaturan, Feminist Initiativek honako goiburua zuen: 'soldataren %100, guraso-baimenen %50 eta %0 indarkeria' (informazio gehiago nahi izanez gero, ikus <http://www.infopolis.es/web/IniciativaFI/index.html>)

ek bigarren seme-alabak edukitzea erabakitzerako orduan, erabaki horretan gizonen jokabideak zenbaterako eragina duen aztertu zuten, bai Danimarkan, baita Espainian ere. Eredu ezberdinak aztertu zituzten, azkenean, ondorioztatu zuten, espainiar emakumeek daniarrek baino askoz ere zailtasun handiagoa zutela gizonak seme-alaben zaintzan inplikatzeko.

2.3

AZKENEAN, EZ AL DA EGIA IZANGO GOZOKIAK DENOI GUSTATZEN ZAIZKIGULA?

Zantzu eta froga batzuen arabera, jende askori, emakumeei barne, gauza onak gustatzen zaizkie. Indiako braman batek kontatu zidan, ez zuela emakume batekin maitemindu eta haren kide izan nahi; nahiago zuen emaztea bere gurasoek aukeratzea. Arrazoiak: gizonak horrelako akatsa egitean, emazteek ez dute senarraren familian bizi nahi izaten, ezta bertan lan egin ere; senarrarekin bakarrik bizi nahi izaten dute eta abar.

Soledad Murillok, duela gutxi emandako hitzaldi batean aipatu zuen, emakumeoi asko gustatzen zaigula norbaitek gu zaintzea. Izan ere, askotan ikusi izan dugu, gizonak etxeko lanak egiten laguntzea; esaterako, haurrak gauetan negarrez hasten direnean, ohetik jaikitzea asko gustatzen zaiela. Etxetik kanpo lan egiten duten emakume askok isilean gordetzen dute beren bikotekideek ez dutela haurren zaintzan parte hartzen, eta bikotekideen artean berdintasuna dagoela pentsarazten dute. Agian gauzak horrela izatea gustatuko litzaikeelako? Eta emakumeek beren bikotekideek baino diru gehiago irabazten badute, edo zerbaitetan haiek baino hobeak direnean, hori ere isilpean gordetzen badute, ez al da izango jokaera hori izatea exijitzen zaielako? Agian jokabide hori onartuko dute, baina horrek gatazkak sortzen ditu. Hain zuzen ere, datuen arabera, etxetik kanpo lan egiten duten emakumeen kasuan, bikotekideen gatazka eta banatzeen arrazoi nagusietako bat jokabide matxistak dira.

Laburbilduz, emakumeak egoera desorekatuetatik ez ateratzeko arrazoi asko daude. Arrazoi horien artean, aipagarriak dira sozializazioa eta ikaskuntza; hau da, gutxiagotasuna barneratzea (Bordieuk "emakumeen gorputzetan idatzitako indarkeria sinboliko" gisa azaltzen du). Baina aldi berean, egoera hori ez da aldaezina. Bakoitzak duen bizitzarekin konformatzen saiatzeko onargarria izan arren, emakumeek hautabideak (bai materialak nahiz/edo banakakoak eta sozialak) dituzten heinean, bizitza aldatzen doa. Ildo horretan, masa kritikoa teoria feminista aipa dezakegu, ordezkari politikorako erabilitakoa: banakotasun isolatuak ez dira nahikoa.

Historiako etapa guztietan, emakume batzuek, modu heroikoan ordena patriarkala apurtu dute, gainontzeko emakumeen egoera hobetuz, baina benetako aldaketa handiak egiteko, prozesu sozial kolektiboen bidez egiten dira, baita prozesu horietan eskuratutako eskubideen ondorioz ere. Zenbat emakumeri esan digu geure amak: "zuk asko ikasi, horrela gizon baten mende ez egoteko"? Emakumeen hezkuntza, gaur arte asko hedatutako joera, izan da munduko egoera aldatzeko lehen lorpen nagusia (ELGA, 2007). Emakumeek lan ordaindua izateko aukera izatea da aldaketa horretako bigarren aspektu garrantzitsua. Eta beste aldaketa asko ere badaude, bai orain arte eskuratutakoak eta oraindik eskuratzeko daudenak ere. Egoera ez da berdina guretzat edo gure amonentzat, eta ez da berdina suediar emakumeentzat edo marokoar emakumeentzat. Beraz, azter ditzagun aldaketa horietan eragina izan duten ezberdintasun eta faktoreak, era horretan aldaketa horiek ulertu eta askatasunerantz bidean aurrera egiteko.

3.

*Fraupen eta
aldaketarako faktore
instituzionalak:
politika publikoen
garrantzia*

Historikoki, familia-esparruan, emakumeak gizonen menpe jartzeko baliabide eraginkorrena legearen indarra izan da. Egoera hori "naturala" edo "biologikoa" zela esan arren, naturaltasun hori lege hertsatzaileen bidez indartzen zen, edozein desbideratzeari aurrea hartzeko. Gainera, familian geratzen zena gai pribatua zela esaten zen, baina badaezpada ere, legeek behar bezala xedatzen zuten esparru pribatua. Mendebaldeko herrialdeetan dagoeneko gainditutako garai horri buruzko xehetasun gehiegi eman gabe, aipagarria da, 1970eko hamarkada bukaerako eta 1980ko hamarkada hasierako erreformak egin arte, espainiar emakume ezkonduak beren senarren esklaboak zirela. Izan ere, ezin ziren dibortziatu, etxez aldatu, ezin zuten erabaki zenbat seme-alaba izan, ezin zuten lanpostu bat hartu edo senarraren baimenik gabe diruarekin eragiketarik egin.

Emakumeek, hezkuntza-eskubidea, lan ordaindua, dibortzioa, antisorgailuak eta abortua (gaur egungo mugatua izan arren) eskuratu dituzte; eta kode zibilean gizonetikiko berdintasuna lortu dute. Aro berri honetan "berdintasun formala" edo, okerra bada ere "Legearen aurrean berdintasuna", da nagusi. Hala ere, argi dago esparru publikoan eta pribatuan aukera-berdintasun hori lortzeko, oraindik bide luzea egin behar dela. Baina nondik datoz ezberdintasun horiek? Arrazoi biologikoak alde batera utzita, azalpen bat da agian, ezberdintasun eta desoreka horiek gizartean errotuta daudela, eta pertsonen eta egitura pribatuen artean belaualdiz belaualdi transmititzen dela, iraganeko inertzia bat balitz bezala,

edo are okerrago, zuzendu ezin den desoreka bat balitz bezala. Azalpen horren arabera, politika publikoak (Legea) neutralak dira, baina aldi berean onartzen da neutralak izan arren, ekintza positiboa bultzatu beharko luketela gizartearen berezko desoreka edo ezberdintasuna orekatzeko. Azken hamarkadetan ikuspuntu hori izan da nagusi. Horrek ez du kontuan hartzen legeak ez direla neutralak, gizarteko arau, balore, eta egitura sozial jakin batzuk indartzen dituztela (eta ez beste batzuk), nahiz eta arau horiek inplizituak izan, eta haien existentzia ez onartu. Legeak, politika publikoak, eskubide batzuk edo beste batzuk ematen dituzte, eta jokabide batzuk edo beste batzuk indartzen dituzte. Legeak gizartearen eskaeren arabera aldatzen dira; baina aldi berean legeak aldatzean, aldaketa sozialak bultzatu eta areagotzen dira. Oinarrizko arau horren adibide garbi bat Espainian egindako azken lege-erreformak dira: tabakoari buruzko legea, ezkontza homosexuali buruzko legea, zirkulazio-arau berriak eta abar. Baita ere aplikagarria da gizon eta emakumeen jokabidean eragiten duten lege guztietan ere.

3.1

ERAKUNDEAK ETA HEZKUNTZA-LEGEAK

Genero-rolen transmisioan, hezkuntza-sistemak duen eragina bi faktoretan laburbildu daiteke: 1) Haurrentzako hainbat ekintza sustatzea (bai hezkuntza- eta aisialdiekintzak); eta 2) orientazio kurrrikular ezberdina, emakumeak letretako espezialitateetara eta emakumezkoen lanbideetara bultzatuz; eta gizonak zientzietara eta gizonezkoen lanbideetara bultzatuz.

Esparru horretan, zeharkakotasun-premia, beste eremuetan baino are argiago ageri da: Emakumearen Erakundeak, urtero, Gabonetan kanpaina berezi bat egin du, gurasoek jostailuak erostean seme eta alaben artean bereizketarik egin ez dezaten. Hala ere, hezkuntza arautuan, ekintza eta curriculum-aukeraketetan, ez zaio behar bezalako garrantzirik ematen sexu arteko bereizketarik ez egoteari. Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoan ez dira datu horiek esplizituki ematen. II. tituluko I. kapituluak (Ekitatea hezkuntzan) "hezkuntza-laguntzaren

berariazko premia duten ikasleak” izena du, eta titulu bereko II. kapituluak ‘Hezkuntzako desberdintasunen konpentsazioa’. Ba, kapitulu horietan, eta II. kapitulu osoan ez da genero-ezberdintasuna aipatzen. Bestalde, bigarren hezkuntzaren helburuen artean (23.c artikulua) aipatzen da, “Sexuen arteko desberdintasuna eta horien arteko eskubide-berdintasuna eta aukera-berdintasuna balioestea eta errespetatzea. Gizonen eta emakumeen arteko diskriminazioa eragiten duten estereotipoak baztertea”. Nerabe batean, eta zehatzago esanda, neska nerabeen artean “sexuen arteko ezberdintasuna nola baloratuko” den galdetzeaz gain, baita ere ikusi behar dugu diskriminazioa sortzen duten estereotiporik ote dagoen, eta beraz, ukatu egin behar ote diren. Ez al litzateke hobe izango “*personen arteko ezberdintasunak eta sexuen arteko berdintasuna errespetatzea, eta aldi berean estereotipoak ukatzea?*” Argiagoa izateaz gain, esaldia motzagoa izango litzateke.

Hezkuntzari buruzko estatistiketan ere ez dira kezka horiek islatu. Hezkuntza Adierazleen Estatu-Sistema <http://www.mec.es/mecd/jsp/plantilla.jsp?id=317&area=estadisticas>), iturri ezin hobea da Espainiako hezkuntza-egoera eta haren emaitzak ezagutzeko, baina ez du kontuan hartzen hezkuntza-sistemak genero-ezberdintasunean eraginik duen ala ez. Esaterako, “jokabide eta baloreen esku-rapenei” buruzko kapituluak, “ikasleen jokabideen adierazpenak” zehazten dira, eta ez dira generoari buruzko jokabideak islatzen. Espezializazio-ezberdintasunei buruzko arazoa ere ez da aztertzen (gehienezko ikasketa-mailaren itzaropenei bakarrik ematen zaie garrantzia), ezta emakumezko ikasleei ere. Gaitasun teknikoa areagotu eta aukera horiekiko zaletasuna handitzeko eman beharreko arreta berezia ere ez da aipatzen. (Estatu mailan behintzat), ez dago ikerketa zehatzik, haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan neskek eta mutilek jostailu ezberdinekin jolastea sustatzen jarraitzen ote den ikusteko, ezta kirol-ekintzetan bereizketak egiten jarraitzen den ikusteko, askotan gorpuzkera fisikoarekin zerikusirik ez duten arren.

Egia da, poliki-poliki, hezkuntzan berdintasunari garrantzia handiagoa ematen zaiola. Ekintza zehatzak egiten dira, gehienetan berdintasunaren aldeko erakundeek lagunduta, baina ohiko ekintzetatik kanpoko jarduerak dira, eta horietarako

aurrekontua sinbolikoa da gainera. Beraz, sistema osoaren norabidea aldatzeko, horrelako ekintzen eragina oso mugatua da. Adibidez, Gabonetan jostailuen berdintasunaren aldeko iragarkiak ematen dira, baina jostailu arrunt baten publizitate-kanpaina batekin konparatuta, oso gutxitan. Beraz, xedea ona izan arren, zenbaterainoko eragina dute horrelako kanpaineek? Jostailuak erostean berdintasuna sustatu nahi bada, horretarako baliabide ekonomikoak bideratu eta bestelako ekintzak egin behar dira (irakasleak prestatu), baita irizpideak eman eta horiek betearazi ere.

Hau da, hezkuntza-politika berdintasunaren aldera bideratzeko, *pertsonen arteko ezberdintasunak eta sexuen arteko berdintasuna errespetatzeko* xedea askoz ere gehiago nabarmendu behar da. Horretarako, jostailuak eta hezkuntza-materialak ez dira sexuaren arabera bereizi behar; mutilak etxeko-lanetan trebatu behar dira, eta neskek, berriz, lan teknikoetan. Horrez gain, nesken curriculum- eta lan-orientazioa adar tekniko eta zientifikoetara gehiago bideratu behar da. Politika publikoetan, eskola funtsezko pieza bat da, bertako aukerak oso garrantzitsuak baitira. Bereizketa egitea aukeratzen bada, errealitatean ere bereizketa izango da nagusi.

3.2

GENERO-ROLAK TRANSMITITZEKO BESTE TRESNAK: KOMUNIKABIDEAK, MODA, KIROLAK

Duela gutxi, Espainiak Eurovision Junior lehiaketan parte hartzeari utzi dio, Gobernuak adierazi zuen bezala "ez baitituzte geure herrialdeko balore berak sustatzen". Oso datu itxaropentsua da. Horretarako, bertako abestien letrak ikus-tea besterik ez dago; adibidez "antes muerta que sencilla" (lehenago hil xume jantzi baino), Espainiak lehiaketa horretako azken edizioetako batean aurkeztutakoa, diru publikoarekin neskaten artean rol "femeninoa" nola sustatzen den

ikusteko. Komunikabideetan, baita publikoetan ere, genero-ezberdintasunaren transmisioaren beste adibide asko aurki daitezke. Moda ere diru publikoarekin sustatzen den fenomeno bat da, eta emakumeen auto-estimua eta osasunean ondorio katastrofikoak ditu. Bereziki fenomeno edo izurrite berrietan jarri behar da arreta, besteak beste kirurgia estetikoaren ez-konpontzailean eta anorexian. Zaila da bi arazo horietan pentsatzea, “modaren industriaren” (boteretik sustatu eta legitimatu), eta komunikabide publikoen esku-hartze aktiboa kontuan hartu gabe. Fenomeno horien larritasuna eta agintarien pasibotasuna emakumeen estatus apalarekin daude lotuta. Duela gutxi, Espainian anorexiari buruzko eztabaida sortzen hasi da, baita industria horri jarri beharko litzaizkioken baldintzei buruzkoa ere. Komunikabideetako edukiei buruzko eztabaida ere piztu da. Seinaleak, hasiberriak izan arren, onak dira, eta arazo horiek benetan eta seriozki jorratzen hasi direla pentsarazi dezakete.

Kirola oso garrantzitsua da genero-rolen erakuntzan. Emakumeak kirolek kanporatzeko hainbat modu daude. Modu horiek berdintasun-mailaren araberakoak dira: debeku garbia, bereizketa, eskoletan emakumeen kirola ez sustatzea, eta orokorrean, emakumezkoen kirolari laguntzarik ez ematea. Era horretan, emakumei kirolaren onurak kentzeaz gain, emakumeak sozialki ere baztertu egiten dira. Gizonezkoen kirola, zehazki, gizonezkoen futbola (futbola soilik esaten zaiona), rol maskulino nagusia (eta hari lotutako indarkeria-fenomenoak) sortzeko tresna da. Hori guztia diru publikoarekin babesten da, bai zuzeneko diruarekin baita telebista eta irrati publikoen bitartez. Genero-ezberdintasun handiagoa dagoen herrialdeetan (esaterako Espainian), Europako beste herrialdeekin alderatuta, gizonezkoen kirolak askoz ere garrantzia handiagoa du komunikabide publikoetan. Horren aurkako presioak egongo balira, egoera aldatu egingo litzaiteke, eta berez, aldatu egiten da. Andaluzian, Andaluziako Futbol Federazioaren Araudi Orokorra aldatu egin da, eta hemendik aurrera, gizonezko taldeek ezin dituzte emakumeak baztertu. Beste erakunde batzuek, besteak beste, Bizkaiko Foru Aldundiak, arazo horretan arreta berezia jarri du, eta konpontzeko neurri zehatzak hartzea espero da. Araudien esparruan eta aurrekontu publikoaren orientazioan, oraindik bide luze bat dago egiteke.

Laburbilduz, lehen hezkuntzan neskek paper "naturala" ikasten dute; panpina eta etxetxoetan jolastea; eta bien bitartean, mutikoez kamioian, mekanoan eta baloian jolasten dute. Hau da, neskatxek nahiago dituzte etxeko lanak eta zain-tza-lanak, eta mutikoez lanbide teknikoak eta kirolak ikasten dituzte. Bigarren hezkuntzan, neskek ekintza eta lanbide "femeninoetarantz" orientatzen dira; eta aldi berean, mutilak kirolerantz eta lanbide "maskulinoetarantz". Hori guztia modari, erlijio-erakundeei, kultura-ekintza bereiziei eta abarrei esker indartzen da, eta hori guztia botere publikoetatik sustatzen da, besteak beste, diru-laguntzen bidez. Komunikabideek, ideologia tradizionala ahuldu beharrean, hura finkatu eta sustatzen dute. Baina hori ez da guztia. Ikus dezagun politika sozialek lan-banaketa eta rol-generoak nola indartzen dituzten.

3.3

FAMILIA-POLITIKAK ETA GIZARTE-EREDUAK: LAN-BANAKETAREN ALDEKO PIZGARRIAK

Politika publikoek bi bide ezberdinen bitartez dute eragina populazioan: Lehenbizi, helburu zehatz bat lortzeko bide zuzena erabiltzen dute. Adibidez, langabezia-prestazioak langabeen bizi-maila mantentzeko dira, era horretan, gizarte-bazterkerian erori gabe lan-merkatuan berriz ere sartu ahal izateko; gizarte-laguntzako diru-laguntzak pobrezian bizi diren pertsonen laguntzeko dira, eta abar. Bigarren, politika publikoek pertsona eta entitateetan jokabide ekonomiko jakin batzuei pizgarriak ematen dizkiete, berdin dio pizgarri horiek zuzenak diren ala ez. Esaterako, zergen helburua dirua biltzea da. Zergen bidez emakume ezkonduak lan-merkatura sartzea edo handik ateratzea sustatu daiteke; baita lan-mota (erregular edo irregular) edo lanaldi-mota jakin bat bultzatu, zergaren xede nagusia hori izan ez arren. Beraz, zerga edo neurri bakoitzaren ondorio zuzenak eta zeharkako ondorioak hartu behar dira kontuan, baita epe motzeko ondorioak eta epe luzeak ere (bizi-zikloaren ikuspuntutik).

Familia-politikaren (pertsoneen bizitza pribatuarekin lotutako zerga eta prestazioen araudiaren) egituraren arabera, gizarte-eredu bat ala bestea sustatu daiteke. Hasiera-hasieran, Gizarte Segurantza eta beste zerga-sistemen helburua gizon sostengatzaile batean oinarritutako familien gizartea sustatzen zen. Bertan, gizonak egiten zuen lan soldata baten truke, emaztea ekonomikoki menpekoa zen, eta etxeko lanetan aritzen zen. Era horretan, Gizarte Segurantzaren, soldata galtzera eramanez dezaketen egoeren arriskuei aurre egiteko, hau da, langabeziari, gaixotasunari, ezintasunari eta zahartzaroari aurre egiteko kotizazioak kentzen dira "langilearen" nominatik. Langilearen emazteak, bere bizitzako iturri ekonomikoa galduz gero, ez du eskubiderik pobretasun-arriskuari aurre egiteko, besteak beste bananduz gero (eta gainera, langilea babestuta dagoen beste baldintzen ondorioz, hau da, gaixotasunen, ezintasunaren eta zahartzaroaren ondorioz, emakume horien egoera askoz ere okerragoa izan daiteke). Beraz, etxeko andre batek arrazoi ekonomiko garrantzitsuak ditu ezkondu jarraitzeko. Iraganean, gainera, legearen arabera, iheslaria zen. Orain etxetik alde egin dezake, baina baliabide ekonomikorik gabe geratzen da. "Langilea" hiltzen bada, haren alargunari (Indian bezala, ez bada senarrarekin batera errausten), alarguntasun-pentsio eskas bat ematen zaio, eta noski, hura jasotzeko ezin du berriz ere ezkondu (salbuespen jakin batzuetan ezik).

Emakumeak lan ordainduaren munduan sartzen joan ziren heinean, eta aurrerago Konstituzioan berdintasun-deklarazioa egin eta EEE 78/7 europar irizpideari esker, gauzak aldatzen joan dira. Hizkuntzari dagokionez, "gizona", "emakumea", eta "emaztea" ordez, "langilea" eta "ezkontidea" erabiltzen da, eta gaztelarazko terminologia guztia maskulino eta generiko bihurtu da. Adibidez, garai bateko "Etxeko langileen" erregimena, gaztelaraz "Empleadas de Hogar", maskulinoa da orain; hau da, "Empleados de Hogar", bertako afiliatuen %85 emakumeak izan arren. Alarguntasun-pentsioa emakumeentzako eta ezgaitasuna edo baliabide-gabezia frogatzen zuten gizonentzat zen. Orain, orokortu egin da, eta denak dira "alargunak", hau da "viudos", nahiz eta "alargunen" %93 emakumeak izan). Ildo horretan egin diren egokitzapen garrantzitsuenak (zaintzari lotutakoaz gain), alarguntasun-pentsioak gizonari ere ematea (ikus horri buruzko kritika

Pazos, 2006), eta menpeko ezkontideagatik prestazioa kentzea izan dira. Gainera, Gizarte Segurantzak-Sistemak "langilea" babesteko balio du, kotizazioari hutsunerik utzi gabe (5). Ezin dugu esan sistema horrek seme-alabarik gabeko lan ordaindua gutxitzen duenik, sistema erabat bereizia baita. Baina beste gai bat da seme-alaben eta menpeko pertsonen premiak nola erantsi diren, hori atal honetan bertan aztertuko dugu, baina pixka bat aurrerago.

PFEZ zerga-sistema pertsonala ere gizonezko langilean eta menpeko emaztearen eremuan pentsatuta sortu zen. Hasiera batean, familia-burua zen zerga-erakundeekin harreman zuzena zuen bakarra, "zergaduna" izeneko. Zergadunak "ardurapeko ezkontide eta seme-alabengatik" onurak zituen (1978ko erreforma baino lehen "zergadunaren emaztea" zen, eta haren soldata senarrari esleitzen zitzaion, baldin eta ezindua ez bazen). Auzitegi Konstituzionalak 1989an eman dako epaira arte, senar-emazte guztiek derrigorrez modu bateratuan ordaindu behar zituzten zergak. Handik aurrera, zergak batera ordaintzea aukerakoa da, baina beste mekanismo berri asko ezarri dira, senar-emazteek zergak batera ordaintzen jarrai dezaten. Joera horri eusten zaio, batez ere emaztearen soldata oso txikia bada, eta senarrarena, berriz handia bada. Zerga-ordainketa bateratuan, emaztearen soldata senarraren soldatari gehitzen zaio, haren soldata-igoera bat balitz bezala. Errenta-pilaketa horren ondorioz (zerga progresiboa baita), emakumearen soldata senarraren tasa marjinalarekin zergapetzen da. Hau da, ezkontutako emakume batek etxetik kanpo lan egiten duenean, bere soldataren zati handi batek zergak ordaintzeko balio duela ikusiko du. Horrekin batera, etxeko lanen aukera-kostua kontuan hartuta, emakumea etxean geratzera bultzatuko da. Mekanismo hori seme-alabarik eduki gabe ere eman daiteke. Ardurapean haurrak edo mendeko pertsonak badaude, etxeko lanen aukera-kostua handiagoa

(5) Gaur egun, aldez aurreko kotizaziorik eduki gabe, bi banakako egoera babesten dira soilik: preso ohiak, eta (Indarkeriari buruzko Legea onartu zenez geroztik), genero-indarkeriaren biktimak. Gainera, aipagarria da, preso ohiak bigarrenak baino babestuagoak daudela (ikus Del Río et al, 2005).

izango da, eta ondorioz, emakumeak lan ordaindua alde batera uzteko arrazoi gehiago izango ditu (zerga-ordainketa bateratuari buruzko analisi sakonagoa egiteko, ikus Pazos, 2005).

Aurreko paragrafoetan azaldutako egoera ulertzeko, kontuan hartu behar da Gizarte Segurantzako sistemak beste garai batean asmatu zirela, emakumeak oraindik pertsona heldu independentetzat jotzen ez zirenean. Espainian, esaterako, Gizarte Segurantzako Oinarriei buruzko legea 1963koa da, eta gaur egungo PFEZak, 1978ko Erreforma Legearekin sortutakoak, ez du aldaketa handirik sartzen familiaren tratamenduari dagokionez. Gizartean eredu hori nagusituko balitz; hau da, gizon sostengatzaile eta menpeko emaztearena (garai hartan ez zen erabat nagusitzen), ez legoke kontraesanik. Gizartean, gizon sostengatzaile eta menpeko emazteez (seme-alabadunak edo haurrik gabekoak) gain, seme-alabarik gabeko gizonezko eta emakumezko ezkongabe-sektore bat balego ere (emakumezko ezkongabeak gizonezko ezkongabeen parekideak dira Gizarte Segurantzaren araudian eta PFEZen), Gizarte Segurantza eta PFEZaren araudi tradizionala koherentea izango litzateke. Baina gauza askoz ere konplexuagoa da. Izan ere, emakume ezkondu askok, emazte izateaz gain, etxetik kanpo lan egiten dute, eta gainera, seme-alabak dituzte (edo edukitzea gustatuko litzaike). Ondorioz, premia berriak sortzen dira, emakumeek ez baitituzte lanpostuak uzten, eta hori gertatzen bada eta aurrerago dibortziatu egiten badira, inolako babesik gabe geratzen dira, ez baitute kotizaziorik pilatu. Bestela, bikote batzuk dibortziatu egiten dira, edo ez dira ezkontzen, eta hala eta guztiz ere seme-alabak dituzte. Kasu horietan aurreikusi gabeko familia-mota berriak sortzen dira. Are gehiago, gaur egun, senar-emazte askok ez dute seme-alabarik izan nahi, eta hori ere ez zegoen aurreikusita. Egia esan, aurreikusitako familia-eredu bakarra patriarkala izan zen, "behar bezalakoa". Gainontzeko egoera guztiak ez ziren kontuan hartzen; hau da, ez ziren babesten. Joera hori koherentea zen dibortzioaren debekuekin, ama ezkongabeak zigortzearekin eta abar. Eredu tradizionalan, emakumeek bi bide zituzten: bakarrik egotea edo menpekoa izatea. Egun, teorian behintzat, beste aukera batzuk ere badituzte, baina errealitatean, beste bi bide horien antzekoak dira.

Berdinketa-politika izenekoan bitartez, sistema familia tradizionaletik kanpoko seme-alabak kontuan hartzen joan da. Berdinketa-politika horien barne daude amatasun- eta guraso-baimenak, zaintzarako eszedentziak, lanaldi-laburtzeak eta lanaldi-malgutasuna. Mekanismo horiei esker, etxetik kanpo lan egiten duten emakumeek, lanpostua aldi baterako utzi dezakete, seme-alabak zaintzeko. Formalki, amatasun-baimenaz gain, baliabide horiek guztiak gizon eta emakumeentzat izan daitezke. Gainera, gurasoek, baimen horiek "nahi duten bezala" bana ditzakete. Beraz, era horretan, genero-eraketa neutraltasuna lortzen da, eta familiei aukera askatasuna ematen zaie. Horrez gain, Berdintasunaren Legeko IV. Tituluak (39. artikuluan) xedatzen du *"bizitza pertsonalki, eta familia- eta lan-bizitzako eskubi-deak berdintzeko, langileei eskatuko zaie familia-erantzukizunak modu orekatuan banatzea, horrela eskubide horien erabileran, diskriminaziorik sor ez dadin"*. Ezer gehiago eskatu al daiteke? Hala ere, errealitatea ez da horren erraza.

Errealitatean, Espainian haur bat jaiotzen denean, bikoteak ikusten duen lehen gauza da Gizarte Segurantzak 16 aste ematen dizkiola amari (horietatik 6 derri-gorrezkoak dira), eta aitari hautazko 2 aste ematen zaizkio. Emazteak senarrari bere 16 astetik 10 pasa diezazkioke, baina mezu nagusia da aste horiek emaztearenak direla. Mezu horrez gain, txiki-txikitatik ikasitakoa eta presio sozialak kontuan hartu behar ditugu, baita aitak, txikitatik ikasitakoaren, presio sozialen eta interes materialen ondorioz, ez dutela baimenik hartu ohi izaten. Baimen-epaiek ongi kalkulaturik daude: itxuraz, aitari haurra zaintzeko aukera ematen zaio; eta amari, berriz, erdizetik errekuperatzeko eta, hala erabakiz gero, edoskitzaroa gauzatzeko denbora ematen zaio. Hala ere, familiari dagokionez, emazteari eta senarrari ematen zaion tratua bien arteko tratua ezberdintasuna zehazten du, hain zuzen ere zaintzarako rol bereiziak zehazteko momentu garrantzitsuenean. Arazoak baimen bateratuekin jarraitzen du. Enpresak ordaindutako edoskitze-asteak, eszedentziak eta lanaldi-laburtzeak eta antzeko baimenak ez daude ordainduta, baina kontingentzia batzuetarako (ez langabeziarako) kotizatu eta onartuak daude, zati batean behintzat, eta lanpostua gordetzeko eskubidea daukate emakumeek. Baimen horiek guztiak emakumeak hartzen ditu, beste herrialdeetan baimen bateratu guztiak emakumeak hartzen dituela frogatu baita

(Europako Batzordea, 2004). Gizonek, gehienetan, haiei soilik egozten zaizkien baimenak hartzen dituzte; hau da, Espainian, Gizarte Segurantzak ordaindutako 13 egun, eta enpresak ordaindutako 2 egun.

Sistema horri esker, emakumea ez da lan-merkatutik erabat ateratzen. Baina beste era batean ikusita, gure ustez, lan-merkatuan atzera pauso bat ematea da. Eta lan-merkatuko ezegonkortasuna, emakumezkoen lanen behin-betikotasunaren tasa eta gizonezko eskulana askoz ere baliagarriagoa dela kontuan hartuta, emakumeak oso egoera ezegonkorrean geratzen dira. Lanetik ez botatzeko babesak eduki arren eta zaintza-epeak kotizatutzat jo arren, lan-merkatua epe baterako uzteak ekartzen dizkien ondorioak ez dira konpentsatzen: lanetik ez botatzeko babesak ez dira betirako, eta kotizatutzat jotzen diren zaintza-epeak ez dira arrisku guztietarako (esaterako, ez dute langabezia-prestaziorako balio, eta hori da, hain zuzen ere, emakume horien arrisku nagusia). Neurri horiek, gainera, ez dituzte kontratu finkoa duten emakumeak babesten, eta egoera horretan emakume asko daude. Azkenik, sistema horrek, baimen horiek eskuratzen dituzten emakumeak kaltetzeaz gain, beste emakume guztiei ere ondorio negatiboak ekartzen dizkie, enpresariak gizon edo emakume bat kontratatzerako orduan, eta erantzukizun-lan-postu batean jartzeko orduan, hori guztia kontuan hartzen baitute. Hori da, "diskriminazio estatistikoa" izenekoa (Thoursie, 2007).

"Zainketengatik konpentsazio-estrategiaren" beste aldean (Sainsbury, 1999), "berdintasuna berdinkatzeko" estrategia dago. Gizonek etxeko lanetan eta haurren zaintzan %50ean parte hartuko balute, eta haur hezkuntzarako zerbitzu-sare on bat edukiz gero, emakumeek ez lukete ondorio negatiborik izango ez bizitza pertsonalean ezta lan-bizitzan ere. Haurrek aitaren eta amaren zaintzak jasoko lituzkete, eta hasiera-hasieratik familiako roletan berdintasunaren printzipioa ikasiko lukete, orain ezberdintasuna ikasten duten modu berean. Gizonek zaintzan parte hartzea sustatzeko, politika publikoetan oso neurri zehatzak hartu behar dira, horien artean amatasun- eta aitatasun-baimen berdinak eta besterezinak. Horretarako, gizarte-eredu berri bat imajinatu behar da, sostengatzaile/zaintzaile berdinez osatutakoa (ikus 4.2 atala). Horrelako politika publikoek, eta ez siste-

ma tradizionalari jarritako adabakiek, lortuko dute emakumeek lan-bizitzaren eta familia-bizitzaren artean ez aukeratu beharra.

4.

Erantzun pribatuak eta publikoak: gizarte-ereduak

Historian zehar, emakumeek esleitu zaien paperaren kontra borroka egin dute, bai bakarka nahiz kolektiboki ere. Kolektiboki, mugimendu feministak aldarrikapenak lortzen joan dira, eta horri esker, legeak eta banakako jokabideak aldatzea lortu dute. Ekintza kolektiborik gabe, aldaketa horiek ezin ziren lortuko, baina horretarako baldintza mesedegarri jakin batzuk ere behar dira. Gaur egun bizi dugun momentu historikoan, beharrezko aldaketa sakonak egiteko oinarri sozial, ekonomiko eta politikoa badugu. Aldaketarako egoera apropos horren funtsezko elementu bat da, emakumeek, beren independentzia berresteko banakako erantzunak ematen dituztela. Emakumeek prestakuntza-maila altua dute, lan-merkatura sartu dira, eta batez ere, horretarako baldintza egokirik ez dutenean, ez dute haurrik izaten. Horren ondorioz, aldaketak ezinbestekoak dira, eta ez justiziagatik bakarrik.


Emakumeek argi eta garbi adierazi dute askeak direla: txiki-txikitatik bestelako mezuak jaso arren, erakusten zaizkien rolet dituzten arriskuei buruz ohartarazi ez arren, eta era guztietako oztopoak jarri arren, emakumeek gizonen baino emaitza hobekak lortzen dituzte eskolan, eta masiboki lan-merkaturan sartzen dira. Herrialde guztietan, emakumeak soldatapeko lan-sistemara sartu dira sistemaren laguntzarik gabe; doikuntzak aurrerago egin dira. Espainian, 20 eta 30 urteko pertsonen artean, emakumeen jarduera-tasa ia gizonena bezalakoa da. Hala ere, oztopo handiena amatasuna da. Edo hobe esanda, indarrean dauden egitura sozialek eta politika publikoek haurren zaintza ia emakumeen esku uzten dute soi-

lik, eta gainera joera hori sustatzen dute. Herralde guztietan, emakumeek erantzun argia eman dute: ez dute berriz ere etxean geratu nahi.

4.1 UGALKORTASUN-GREBA: LAN ORDAINDUAREN ETA AMATASUNAREN ARTEAN AUKERATU BEHARRA?

Emakumeak era masiboan hezkuntza eta lan ordainduetara iristean, antolaketa sozialean aldaketa sakona gertatu da. Horrekin batera, ugalkortasun-tasak nabarmen gutxitu dira, bereziki Espainian eta Italian. Bereziki, Espainia, ugalkortasun-tasa gehien gutxitu den herrialdea izan da, gaur egun, Europako tasa txikiena bertakoa baita. 1. Grafikoak, egoera hori zehazten du adinaren arabera antolatuta, eta Europako hainbat herrialde alderatzen ditu.

1. Grafikoa: Populazioaren egitura, adin-taldeen arabera



Iturria: Esping Andersen (2004)

Seme-alabarik gabeko emakume-proporzioa izugarri areagotzen ari da: Espainian, 1955ean jaiotako belaunaldian, proportzioa %11koa da; 1965ean

jaiotakoen artean, %14ko, eta 1990ean jaiotakoen artean, proportzioa %16-18koa izango dela aurreikusi da (Gonzalez eta Jurado-Guerrero, 2006).

Lehen seme-alaba edukitzeko adina bereziki altua da Espainian, batez ere hezkuntza-maila altuko emakumeetan (1. taula), eta gero eta gehiago berandutzen ari da.

1. Taula. Lehen seme-alaba izateko adina

EMAKUMEAREN HEZKUNTZA-MAILA	ESPAINA A) 1998	SUEDIA B) 1990-98
Altua	32.9	29.8
Ertaina	29.8	26.1
Baxua	26.0	25.5

Iturria: a) De la Rica eta Iza (2006), b) Kenjoh (2004). Gustafsson (2007).

Gainera, Espainian eta gainontzeko europar herrialdeetan (eskandinaviar herrialdeetan ezik), emakumeek, prestakuntza-maila hobea eta lan-maila hobea duten heinean, seme-alaba kopuru gutxiago dituzte. Esan daiteke, etxetik kanpo bizi diren espainiar emakume gehienek, batez ere goi-hezkuntza dutenek, haur bat izaten dutela, edo bestela, bat ere ez (2. taula).

2. Taula. Bi seme-alaba baino gehiago edukitzeko probabilitatea, emakumeen ikasketa-mailaren eta lan egoeraren arabera (%)

	DANIMARKA	ALEMANIA	ITALIA	ESPAINIA	ERRESUMA BATUA
Bigarren hezkuntza <	22	30	52	62	40
Bigarren hezkuntza	37	53	39	20	40
Hirugarren ≠hezkuntza	41	17	9	18	20
Enplegatua	77	41	42	32	48

Iturria: Esping Andersen (2004)

Zergatik gertatu da "ugalkortasun-greba" delakoa? Inkesten arabera, herrialde batetik bestera, desiratutako seme-alaba kopurua ez da asko aldatzen: gutxi gora-behera 2,2, bai emakumeen nahiz gizonen aldetik (Europako Batzordea, 2007). Beraz, emakumeek seme-alabak eduki nahi dituztela esaten badute, zergatik gertatzen da fenomeno hori? Erantzuna argia da: ugalkortasun-krisia emakumeek seme-alabak berdintasunean izateko aukerei (edo aukera-gabeziari) oso lotuta dago. Izan ere, Europar batasunean, gizartea tradizionalagoa den heinean (Mörtvik eta Spant, 2005), eta emakumeen lan-tasa txikiagoa den heinean (Somestad, 2002), ugalkortasun-tasa txikiagoa da. Beraz, bi aldagai horiek herrialde bakoitzeko gizarte-ereduei lotuta daude.

Gizarte-eredua eta politika publikoak "gizon sostengatzailean eta menpeko emaztean" oinarritzen badira (adibide garbiena Alemania da), ez dira haur hezkuntzako zerbitzuak sustatzen, ezta gizonek etxeko lanetan eta haurren zaintzan parte hartzea bultzatzen. Egia da, emakumeak soldatapeko lan-merkatuan sartu direla, baina lana bigarren mailakoa dela jotzen da, eta emakumeek beren karriera profesionala alde batera utziko dutela ama izateko. Hala ere, emakumeen jokabidea ikusita, badirudi ez dutela berdin pentsatzen. Askok, lana alde batera utzi beharrean, haurrak izateko baldintza egokirik ez dagoela ikusten dutenean, beranduago ezkontzen dira, eta haurrak ere beranduago izaten dituzte. Horren ondorioz, jaiotza-kopurua gutxitu egiten da, adin helduagoetan ugalkortasun biologikoa txikiagoa baita, eta epe "baliagarria" motzagoa baita (Gustafsson, 2001). Horrekin batera, rolen arteko ezberdintasunek sortutako gatazkak daude, dibortzio- eta banantze-arrazoi garrantzitsuak baita. Hau da, emakume batzuek ez dute seme-alabarik izateko momentua aurkitzen; beste batzuek, berriz, haur bakar bat izaten dute, eta lan-merkatu bakarrak dauden ama gisa itzultzen dira, eta egoera askoz ere ezegonkorragoa jasan behar izaten dute.

Demografo, ekonomialari eta gobernuentzat, ugalkortasun-krisia arazo larria da, baina ez dira horri aurre egiteko neurri egokiak hartzen. Adibidez, Alemanian, diru asko gastatzen da haurrak etxean zaintzeko baimen eta pizgarriak emateko, baina ustezko "natalitate-politika" horiek (emakumeak etxera itzultzeko prestakuntzak), ez dute beren xedea betetzen. Populazioa berriro ahal izateko moduko

ugalkortasun-tasak errekuperatzeko (mendebaldeko herrialdeetan, 2,1 haur emakumeko), emakume askok bi, hiru eta lau seme-alaba eduki beharko lituzkete. Eta horretarako, emakumeek baldintza eta ingurune egokia behar dituzte. Horretarako, hiru funtsezko baldintza bete behar dira: lehenengoa; haur hezkuntza sistema ona edukitzea, haur guztientzako lekuarekin eta populazioaren gehiengoarentzako prezio eskuragarriekin. Halaber, eskoletako ordutegiak luzeak eta malguak izan behar dira. Bigarrena, gizonek etxeko lanetan eta haurren zaintzan parte hartu behar dute. Horretarako, aitatasun-eta amatasun-baimen berdinak eman behar dira, besterenezinak. Horrez gain, hezkuntza-kanpainak egin eta bestelako pizgarriak eman behar dira. Azkenik, ama ezkongabeei, eta bakarrik daudenei laguntza eman behar zaie, ez baita justizia-arazoa bakarrik, arazo demografikoa ere bada eta (ama ezkongabeen seme-alabak ere beharrezkoak dira, eta haurren pobrezia ere gainditu behar da; gaur egun, Espainian haurren pobrezia-tasa %25ekoa da, Europako tasa altuenetako bat).

4.2

BANAKAKO SOSTENGATZAILE / ZAINZAILE BERDINEN EREDUA

Suediako kasua adibide ezin hobea da. XX. mende hasieran, herrialde hori behartsua zen, industrializazio berantiarra izan zuen, eta Espainian beranduago gertatutako fenomenoak gertatu ziren: hasieran, emigrazio masiboa, eta aurrerago, jaiotza-tasa gutxitzea. 1930eko hamarkadan, krisi ekonomiko handi batean sartuta eta ugalkortasun-tasak izugarri jaitsi zirenean, Alva Myrdalek ete bere senar Gunnarrek, "Populazioaren arazoaren krisia" izeneko liburu garrantzitsu bat idatzi zuten. Bertan, politika publikoak iraultzea proposatzen zen. Beren tesia zen, amen lanpostuak "egintza sozial" gisa ulertu behar zirela, eta beraz, benetako natalitate-politikak etxetik kanpo lan egiten zuten emakumeei ama izateko aukera ematen zietenak zirela. Horretarako, konponbidea sostengatzaile/zain-

tzaille berdinen eredu zen, hain zuzen ere Suedian 1960ko eta 1970eko hamarkadan egin ziren erreforma erradikalen oinarria.

Sostengatzaile/zaintzaile berdinen familia-eredua, generoarekiko herritar neutralen kontzeptuan oinarritzen da. Eredu hori sustatzeko, senar sostengatzaile eta haren menpeko emaztearen eredu tradizionalaren ordeztu, eskubide sozial "eratarri" guztiak kendu ziren; hau da, emakumeei etxekoandre edo langabe izateagatik emandako diru-laguntza guztiak. Errenta Pertsonalaren gaineko Zerga banakatu zen, ordura arte hautazkoa zen zerga-ordainketa bateratua kenduz (1971). Haur hezkuntza sistema nazionala eraiki zen, gaur egun arteko hedadura lortu arte, hau da, haurrak urte bat duenetik aurrera, ia erabateko estaldura du. Amatasun-baimenaren ondoren, amatasun/aitatasun-baimen berdina ezarri zen, aitek eta amek eskubide berdinak izateko (1974). Hala ere, gurasoen artean baimena eskualdatzeko aukerak erantzukizuna partekatzeko bide asko oztopatu du (6). Gainera, menpeko pertsonen arretarako zerbitzu onak jarri ziren indarrean, baita ama ezkongabeentzako eta haurren nahiz emakumeen pobrezia aurre egiteko diru-laguntzak ere. Horrekin batera, pentsamoldea aldatzeko hezkuntza- eta kultura-politikak eratu ziren.

Eskandinaviako beste herrialdeetan ere antzeko erreformak egin ziren, amek kalitateko lanpostuak izaten jarraitzeko eta aitak etxeko lanetan nahiz haurren zaintzan inplikatzeko. Oraindik ez da erantzukizun partekatu lortu, baina aurrerapean nabariak dira. Suedian, haurrak zaintzeko baimenetan, gizonak guztira emandako egunen %20 hartzen dituzte. Zifra ez da oso altua, baina Espainiako zero egunekin konparatuta, lorpen handia da. Estatistikek agerian utzi dute, Eskandinaviako herrialdeetan, seme-alabadun emakumeen enplegu-tasa askoz handiagoa dela, emakumeen ez dutela beren karrera profesionala horrenbeste eteten, eta aitak, eguneko ordu gehiago aritzen direla etxeko lanetan. 2001ean Suedian egindako inkesta batean, elkarriketatutako emakumeen %90ak adiera-

(6) Poliki-poliki, egoera hori aldatzen joan da, eta gaur egun, guraso bakoitzak dituen sei aste eta erditik, bi besterezinak dira.

zi zuen, aitaren erantzukizuna kontuan hartu gabe, ezin zutela seme-alabak edukitzea pentsatu ere egin. Herrialde horietan, bikoteetan, emakumeek rol-genero tradizionalerako herrialdeetan baino negozio-gaitasun handiagoa dute (Brodman et al, 2007).

Inon ez da lortu sostengatzaile/zaintzaile berdinen ereduak erabat aplikatzea, baina Eskandinaviako herrialdeen adibideak ikusita, erabateko berdintasuna lortzeko xedeak, tresna eta aukera politikoak eta legegileak zein diren argiago ikusten dugu. Herrialde horietako mugimendu feministek, literatura akademiko feministak eta politikako emakume askok diote, erreforma horiek are gehiago sakondu behar direla. Esparru pribatuko jokabide-aldaketei dagokienez, Eskandinaviako herrialdeetan geratutako aldaketa kulturala ere gizonen eta emakumeen arteko beste harremanetan islatzen da, eta populazioak onartutako lege-erreformetan argi eta garbi ikusten da hori. Adibide argi bat prostituzioaren aurkako legea da. Lege horren arabera, sexua erostea genero-indarkeriako delitu bat da, eta lege hori populazioaren %80ak onartzen du. Argi dago, suediar gizonen sexua erosi ezin den elementutzat jotzen badute, emakumeen duintasuna gehiago errespetatzeaz gain, emakumeek aukera gehiago izango dutela berdintasuneko harreman sexual eta afektiboak izateko.

Helburu ekonomikoei dagokienez, erreformen ondorioz, Suediako ugalkortasun-tasa Europako apalenetako bat izatetik Europako altuenetako bat izatera pasa zen. Izan ere, Eskandinaviako herrialdeak izan dira azken hamarkadetan emakume ez-etorkinen jaiotza-tasa mantentzea lortu duten bakarrak. Lehiakortasunaren rankingean ere, lehenengo postuetan daude. Herrialde horietan, genero-berdintasunaren esparruko lorpenek bertan gertatutako aldaketa ekonomikoekin duten lotura aztertzea funtsezkoa da. Suediako egile askok aipatzen dute, genero-berdintasunean oinarritutako xede demografikoak ezartzea funtsezkoa izan zela aldaketak sustatzeko (Somme stad, 2002, Gustafsson, 2007). Beste egile askok diote, herrialde guztientzat, haur-zaintzarako egindako inbertsioak oso errentagarriak direla (Esping Andersen, 2007). Genero-berdintasuna, ondorio ekonomikoez gain lortu beharreko helburua izan arren, ekonomikoko errentagarria eta bideragarria bada, politikoki bideragarriagoa da. Aldaketen aurrean

oztopoak jartzeko arrazoi bakarra gizonen banakako nagusitasuna eta nagusitasun kolektiboa mantentzea da.

5.

Ondorioak eta ekintza- proposamenak

Emakumeak antolaketa patriarkalean mantentzeko, hainbat mekanismo erabiltzen dira; besteak beste txiki-txikitatik genero-roletan oinarritutako sozializazioa, hezkuntza-erakundeak, komunikabideak, modaren industria, zerga- eta prestazio-sistemak, botere publikoek gizonen kirolari, prostituzioari, kultura-ekintzei ematen dioten trataera eta abar.

Testuinguru horretan, emakume eta gizonen jokabide pribatuak ez dira egoera ekonomikoaren, sozializazioaren eta desio pertsonalen arabekoak soilik, esku- ra dituzten hautabideek ere zerikusi handia dute. Politika publikoek pertsonen erabakietan eragin handia dute, jokabide batzuetarako pizgarriak edota aukera gehiago eskaintzen baitituzte. Gainera, eragin hori ez da egoera bakoitzerako loturarik gabeko sustapen eta pizgarri-sorta bat bakarrik, neurri horien eraginak kasu bakoitzeko egoera eta populazio-eremua baino askoz harago doaz. Adibidez, pertsona homosexualak ezkontzeko legea garrantzitsua da ezkondu nahi duten gay eta lesbianentzat (askok ezkondu nahiko dute, hori egitean abantaila ekonomikoak izateaz gain, beren egoera gizartean integratuko baitute eta abar). Baina, aldi berean, lege hori garrantzitsua da gay eta lesbiana guztientzat, inoiz ezkonduko ez diren arren, beren bizitzan normalizazio sozial garrantzitsu bat gertatu baita. Politika sozialean, lanaren banaketa sexuala sustatzen duten neurriek emakume guztiei egiten diete kalte, enpresari, gizon eta emakume guztien jokabidean eragina baitu, arau horien bitartez emakume burujabeak sozialki zigortutako berezitasun bihurtzen baitituzte.

Orain arteko aipatutako ikusi ondoren, frogatuta geratzen da gizarte-ereduak emakumeen negoziazio-gaitasuna zehazten dutela. Gizon sostengatzailearen eta menpeko emaztearen gizarte-eredua dagoen herrialdeetan, modabiko banaketa gertatzen da: alde batetik, emakume ezkongabeak eta seme-alabarik gabek daude (edo seme-alaba bakar bat duten emakume dibortziatuak); eta bestetik, jokabide tradizionaletan oinarritutako seme-alabadun familiak. Gizarte horietan, oso zaila da berdintasunezko jokabideak dituzten gizonak aurkitzea. Hala ere, sostengatzaile/zaintzaile berdinen eruditik gertuago dauden herrialdeetan, adibidez Suedian eta Danimarkan, emakumeek gizonen inplikazioa askoz ere errazago lortzen dute, eta ondorioz, ez daude gizonen horren menpean. Hau da, ez da emakumeek berdintasuna irabazi nahi izatea soilik, baizik eta berdintasuna praktikatu ahal izateko aukerak izatea ere bai.

Hori guztia dela-eta, aipatu beha dugu, banakako erantzunak eta erreakzioak garrantzitsuak izan arren, ez direla nahikoa. Gaur egun arte izandako esperientziek argi utzi dute, gizarte-eredua aldatzeko, zein aldaketa egin behar diren politika publikoetan. Badakigu politika sozialeko zein neurrik sustatzen duten berdintasunezko jokabidea gizonen artean, eta baita ere, badakigu, zein politika publikok sustatzen duten desoreka. Hala ere, aldaketen aurrean ezartzen diren oztopoak, askotan aukera-askatasun gisa mozorrotuta aurkezten dira. Funtsezkoa da argumentu horiek indargabetzea. Bestalde, baita ere garrantzitsua da aipatzea, nazioarteko agintariek dioten bezala, berdintasuna ekonomikoki bideragarria izateaz gain, faktore horrek eraginkortasun ekonomikoa ere hobetzen duela, eta bereziki, berdintasuna ugalkortasunaren krisi garrantzitsuari aurre egiteko ezinbesteko tresna dela. Zorionez, berdintasuna lortzeko helburuak eraginkortasun ekonomikoaren arabera dira (ikus Pazos, 2007), eta Sommestad (2002) nahiz beste eskandinaviar egileek, argumentu horietaz baliatzea gomendatzen digute.

Suedian, gizarte-eredua aldatzea lortu zuten erreformak egiteko, baldintza sozial eta politiko egokiak zeuden. Diane Sainsburyk (1999) baldintza horiek aztertu zituen, eta mugimendu feministaren garrantzia azpimarratu zuen. Izan ere, Suedian, erreformak sakonagoak izan ziren, mugimendu feminista berdintasuna-

ren oso aldekoa baitzen, eta gainontzeko eskandinaviar herrialdeetan, ezberdintasunaren aldeko feminismo gehiago baitzegoen. Espainian, aldaketa sozial handiak gertatzen ari dira momentu historiko honetan, eta ez dago argi zein norabide hartu behar duten politika publikoek. Oraindik ez da eredu bat ezarri, eta horregatik, oraindik pentsa dezakegu, gure sistema sozialean ere, genero-berdintasunaren aldeko erreforma irmoak egingo direla. Horretarako, gastu publikoaren lehenetsunaren norabidea aldatu beharko litzateke. Berdintasuneko sostengatzaile/zaintzaile eredurantz joateko, politika sozialean egin beharreko erreforma garrantzitsuenak hauek dira:

- Haurrak zaintzeko baimenetan erreformak egitea eta bikotekide bakoitzarentzat jaiotza edo adopzioagatik banakako baimen besterezinak ezartzea, betebeharrak eta iraupen berekoak. Erreforma hori poliki-poliki aplikatzen joateko, lehenbizi aintzat sei asteko derrigorrezko baimen besterezina ezarri daiteke, gaur egun amek dutena bezalakoa. Derrigorrezkoa izatea funtsezkoa da, gizonak eskubide hori enpresarien presiorik gabe erabil dezaten. Erreforma hori aurrerapen handia izango litzateke gizonak haurren zaintzan gehiago inplikatzeko, emakumeek lan-merkatuan duten egoera hobetzeko (ez ama diren emakumeen egoera soilik, etxetik kanpo lan egiten duten emakume guztiena baizik), eta berdintasuneranzko aldaketa kulturala sustatzeko. Erreforma horren aurka ez dago argumentu arrazionalik, ezta aurrekontu nahiz ekonomiari buruzko kontrako argumenturik ere (informazio gehiago nahi izanez gero, ikus <http://www.nodo50.org/plataformapaternidad/>).
- PFEZa erabat banakotzea, gaur egungo sistematik edo beste sistemetatik (zerga-ordainketa bateratutik), mendeko emazteagatik kenkari guztiak erabat kenduz. Gaur egun, zerga-aitorpen bateratuak 2.311 milioi euroko gastua sortzen du urtero, eta diru hori aitatasun-baimena eta haur hezkuntza-sistema zati batean finantzatzeko erabili daiteke.
- Zaintzarako prestazio eta/edo kenkariak zaintzailearen jardueraz ezairekin baldintzatuta ez egotea. Horrek esan nahi du, menpekotasunari buruzko lege-proiektuaren 18. artikulua kendu egin behar dela, baita berdintasunaren aldeko legean, zaintzarako eszedentziei buruz emandako xedapenak ere.

- Menpekotasunerako arreta-zerbitzu publikoa.
- 0 eta 3 urteko benetako haur hezkuntza sistema publikoa eraikitzea, haur guztientzako leku-eskaintza subjektiboa betez, eta populazio guztiak, errenta-mailaren arabera ordaindu ditzakeen prezioen truke arreta bermatzea. Ikastetxeek lanaldien araberrako ordutegiak izan behar dituzte; hau da, luzeak eta malguak; eta baliabide bereziak eduki behar dituzte lanaldi bereziertarako eta noizbehinkako lan-larrialdietarako. Hori guztia dagoeneko badute Suedian, beraz, aurreko eskarmentuetan oinarrituta, erraza da beste lekuetan garatzea. Nazioarteko erakunde guztiek haur hezkuntza sistemak lehentasuna duela diote (Europar Batasunak, Bartzelonan egindako goi-bileran, 2010erako %33ko estaldura emateko helburua ezarri zuen; gau egun, Espainian, haur hezkuntzaren estaldura %10ekoa da, eta are larriagoa dena, ez dago horri buruzko zifra ofizialik). Bestalde, inbertsio publiko horren epe ertain/luzera duen errentagarritasuna frogatzen duten koste-onura analisiak ere badaude.
- Emakumeak baztertzen dituzten edo berdintasunaren kontrako ekintzen finantzaketarako kontusail guztiak aurrekontu publikoetatik kentzea.

Hemen ez ditugu beharrezko erreforma guztiak xehetasun handiz aztertu nahi, baizik eta sostengatzaile/zaintzaile berdinen eremuan oinarritutako eredu osatzeko, politika sozialean egin beharrekofuntsezko neurri batzuk aipatu nahi ditugu soilik. Eredu hori ez da guztiz lortu herrialde batean ere, baina desiragarria izango litzatekeela aipatzen duten gobernuen herrialdeetan ere, gizonak ez dira etxeko lanetan %50 inplikatzera iritsi ere egiten. Gaur egun, ezin dugu esan lana sexuaren arabera bereizten dela, emakumeek soldatapeko lanaren zati bat beren gain hartu baitute (baina ez soldata). Arazo nagusia etxeko lanak ez banatzea da. Beraz, XXI. mendeko feminismoaren erronka nagusia gizonen jokabidea aldatzea da.

Helburutzat erantzukizun partekatua izatea aipatu arren, ez dira horretarako neurri egokiak hartzen. Izan ere, aldaketak lortzeko bultzada ez da indarrean dagoen boteretik etorriko, bertan gizonak baitira nagusi. Gizon gehienek ez dute inte-

resik erreforma horietan, eta nahiko ulergarria da (7). Horregatik, berdintasuna ezinbestekoa da. Baina baita ere ezinbestekoa da gizarteak berak eskatzea aldaketa kultural horiek sakontzea. Aldaketa horretako faktore garrantzitsu bat izango da mugimendu feminista osoan berdintasunaren aldeko xedea onartzea, itxuraz emakume guztiei (baina benetan zaintzaile gisa) onurak ekartzen dizkien neurrien iruzurra onartu gabe; eta zaintza-lanetan, emakumeen aukera gisa mozorrotzen diren tranpetan erori gabe, errealitatean gizonak ez baitute zaintza-lanetan parte hartu nahi.

Espanian, erakundeetan aldaketa asko eztabaidatzen eta egiten ari dira. Gaur egun, Espainiako gizarteak berdintasunaren aukera antzematen du, eta horren alde dago, baina horretarako norabide egokian egin behar dira aurrerapenak, ez norabide okerrean. Ezberdintasunak jalkitzen direnean, eta ezberdintasun-eredu bat finkatzen denean, askoz ere zailagoa da hura berritzea. Asko ikas dezakegu Espainian bezalako egoera sozialak bizi izan dituzten Europako beste herrialdeetan izandako arrakasta eta porrotekin, kasu bakoitzean hartutako erabaki politikoen ondorioz, gizarte-eredu ezberdinak sortu baitira.

(7) Duela gutxi, Espainiako parlamentuan aitatasun-baimenari buruz egindako eztabaida-prozesuak adibide garbi bat ematen du. Izan ere, ez zen eztabaidarik egon, ez baitzen lau aste horiek ukatzeko arrazoi edo argumenturik eman. Azken momentura arte, alderdi politiko guztietako emakume bozemaileak ados zeuden, eta gizonak, berriz, ez ziren bilkuretara agertu ere egiten (esaterako, agertzeetara). Azkenean, zuzenketak eskatu zituzten alderdi guztiek, horiek kendu egin zituzten, eta eztabaida ez zen Kongresuko osoko batzarrera iritsi.

Bibliografía

- Amorós, Celia: *La gran diferencia y sus pequeñas consecuencias... para la lucha de las mujeres*. Cátedra, 2005
- Bonino, Luis (2007) 'Micromachismos –el poder masculino en la pareja moderna' *Escrituras masculinas*. Espainian (prentsan) argitaratua
- Bourdieu, Pierre: *La dominación masculina*. Espainiar edizioa : Anagrama, 2000.
- Brodmann, Stefanie, Gosta Esping-Andersen eta Maia Guell (2007): 'When Fertility is Bargained: Second Births in Denmark and Spain'. *European Sociological Review*.
- Castro García, Carmen. eta María Pazos Morán (2007): 'Permisos parentales: una crítica feminista de las tendencias actuales en Europa'. *Ekonomia Feministari buruzko II Kongresuan emandako txostena*.
- Europako Batzordea (2004): 'Europeans' attitudes to parental leave'. Special Eurobarometer 189/Wave 59.1.- European Opinion Research Group EEIG. Ikus http://ec.europa.eu/employment_social/news/2004/sep/EB59_1_parental_leave_rev1_july_en.pdf
- Europako Batzordea (2007): 'Promover la solidaridad entre las generaciones'. COM(2007) 244 final. Ikus http://ec.europa.eu/employment_social/social_situation/docs/com_2007_0_244_es.pdf
- Coria, Clara (1991): *El dinero en la pareja*. Paidós.
- Coria, Clara (1996): *Las negociaciones nuestras de cada día*. Paidós.
- De la Rica Sara. eta A. Iza 2006. 'Career Planning in Spain: Do Fixed-term Contracts Delay Marriage and Parenthood?', Gustafsson, S. eta Kalwij, A. (ed.), *Education and Postponement of Maternity. Economic Analysis of Industrialized Countries*, 147-174, Dordrecht: Springer.

-
- Del Río Otero, Coral, Concha Artola Menendez eta María Pazos Morán (2005):
¿Derechos económicos de las víctimas de violencia de género: un caso para la reflexión. Ikus
http://webs.uvigo.es/pmayobre/master/textos/maria_pazos/ley_violencia_medidas.doc
- Dema Moreno, Sandra (2005): *'Entre la tradición y la modernidad: las parejas españolas de doble ingreso'*.
Ikus <http://ddd.uab.es/pub/papers/02102862n77p135.pdf>
- Díaz Martínez, Capitolina; Sandra Dema Moreno eta Marta Ibáñez Pascual (2005): "El papel del dinero en las relaciones de pareja y familia", *Viejas sociedades, nueva sociología*. Juan Monreal, Capitolina Díaz Martínez eta Juan José García Escribano (ed). CIS
- Esping Andersen, Gosta (2004): *'La política familiar y la nueva demografía'* ICE.
- Esping Andersen, Gosta (2007): 'Un nuevo contrato de género'. *Economía e igualdad de género: retos de la Hacienda Pública en el siglo XXI*. mintegian aurkeztutako txostena, Azterlan Fiskaletako Institutua, Madril (oraindik argitaratu gabea)
- Falcon, Lidia: *La vida arrebatada*. Anagrama, 2003.
- Freixas, Anna (2005): 'La edad escrita en el cuerpo y en el carné de identidad'.
Coria, Clara, Anna Freixas y Susana Covas: *Los cambios en la vida de las mujeres*. Paidós.
- Gonzalez, M y T Jurado-Guerrero (2006): 'Remaining childless in affluent economies'. *European Journal of Population*
- Gustafsson, Siv (2001) 'Optimal age at motherhood. Theoretical and empirical considerations on postponement of maternity in Europe'. *Journal of Population Economics*.

Gustafsson, Siv (2007): 'Economic restrictions on starting a family'. *Economía e igualdad de género: retos de la Hacienda Pública en el siglo XXI*. mintegian aurkeztutako txostena, Azterlan Fiskaletako Institutua, Madril (oraindik argitaratu gabea)

Ikus

http://www.ief.es/Investigacion/Recursos/Seminarios/Genero/2007_PoliticaFiscal_Madrid.htm

Kenjoh, E. 2004. *Balancing Work and Family Life in Japan and Four European Countries: Econometric Analyses on Mothers' Employment and Timing of Maternity*. Tesia, Amsterdameko Unibertsitatea.

Mörtvik, Roger eta Spänt, Roland (2005) *Does gender equality spur growth?* OECD Observer, 2005eko urria.

ELGA (2007): 'Women and men in OECD countries' Ikus <http://www.oecd.org/dataoecd/44/52/37962502.pdf>

Pazos Morán, María, 2005: 'Género e Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas. Propuestas de reforma'. María Pazos Morán (ed): *Política fiscal y género*. Azterlan Fiskaletako Institutua.

Pazos Morán, María, 2006: 'Impuestos y prestaciones: ¿Cómo tener en cuenta a las mujeres?' María Jesús Vara (ed): *Estudios de Género y Economía*. Akal.

Pazos Morán, María (2007): 'Género, orientación del presupuesto y eficiencia económica'. *Economía e igualdad de género: retos de la Hacienda Pública en el siglo XXI*. mintegian aurkeztutako txostena, Azterlan Fiskaletako Institutua, Madril (oraindik argitaratu gabea).

Ikus

http://www.ief.es/Investigacion/Recursos/Seminarios/Genero/2007_PoliticaFiscal_Madrid.htm

Sainsbury, Diane (1999): *Gender and welfare state regimes*. Oxford University Press

Sommestad, Lena (2002) *Gender Equality - A key to our future?* Diskurtsoa. Ikus <http://www.regeringen.se/pub/road/Classic/article/13/jsp/Render.jsp?m=print&d=1321&nocache=true&a=4220>

Thoursie (2007): 'El modelo de familia de dos sustentadores con un permiso parental prolongado: lecciones de Suecia'. *Economía e igualdad de género: retos de la Hacienda Pública en el siglo XXI*. mintegian aurkeztutako txostena, Azterlan Fiskaletako Institutua, Madril (oraindik argitaratu gabea).

Valcarcel, Amelia: *La política de las mujeres*. Cátedra, 1997.

CLARA CORIA

**Psikologo Klinikoa eta
genero gaien ikertzailea.
Argentina**

Diruaren

sexuazioa:

gatazka

*subjektiboek “mas-
kulinitasunean”,
“feminitatean”*

eta gizon nahiz

emakumeen

eguneroko

bizitzan duten

eragina

Diruari buruz lehen ikerketak egin nituenean, emaitzak “El sexo oculto del dinero” (1986) eta aurrerago “El dinero en la pareja” (1989) liburuetan jaso nituen. Harrez geroztik, gizartean aldaketa asko gertatu dira, eta horrek eragina izan du gizon eta emakumeen arteko hartu-eman ekonomikoetan. Hala ere, gaur egun, emakume askok ohitura tradizionalak mantentzen dituzte, eta diruaren kudeaketa eta kontrola inguruko gizonen esku uzten dute. Emakume batzuek mendeetan zehar mantendutako ohitura eta sinesmen horiek aldatzea lortu zuten, eta dirua kudeatzen hasi ziren. Belaunaldi gazteetako emakumeek ere, lanean hasi eta berehala, independentzia ekonomikoa eskuratu zuten. Hala ere, independentzia ekonomikoak ez du esan nahi dirua era autonomoan erabiltzen dutenik. Baina gai horretan gehiago sakontzen dugunean, deigarria da, independentzia handia dutela dioten emakumeek, “modernotasunaren” itxurapean mendekotasun sofistikatuak izaten dituztela. Egoera hori aurrerago ikusiko dugu, emakume enpresari batzuen adibideak aztertzean.

Pertsonalki lortutako autonomia-maila handiagoa ala txikiagoa izan arren, munduan, hegemonia maskulinoak jarraitzen du boterean; hegemonia hori dirua banatzeko modu zehatzetan eta inkontzienteki atxikitako emakumeen nahiz gizonen ereduetan ere islatzen da. Hemen argi eta garbi azaldu nahi dut, “diruaren sexuazioa” izeneko eredu bat dagoela, eta eredu horren ondorioz, emakumeek, independentzia gauzatzeko orduan aurkitzen dituzten oztopoak sortzen direla, eta aldi berean, gizonen diruaren alde bateko kontrolari uko egiteko zailtasunak dituztela. Eredu hori inkontziente kolektiboan finkatuta dago, eta genero sexualaren identitateari lotuta egon ohi da. Diruaren sexuazioak esan nahi du, gure kulturaren, dirua argi eta garbi sexuatu dagoela, eta hainbat modutan, dirua gizonari atxikitzen zaiola, era horretan potentzia sexuala eta gizotasuna sinbolizatuz. Sexu-identitate maskulinoaren adierazlea bihurtzen da ia.

Sexuazio hori emakumeek jasaten dituzten era askotako mendekotasunetan nabari den fenomeno iraunkorra da, bai ezkutuko mendekotasunetan bai ustez gainditutakoetan ere. Mendekotasun horiek, indarkeria, kontraindarkeria eta bestelako

sintomak sortzen dituzten emakume eta gizonetan. Hemen azpimarratu nahi dut, leku batzuetan (ez uste den bezainbatetan), emakume batzuek (aldaketa sozialek emandako erraztasunak kontuan hartuta, ez horrenbeste) independentzia ekonomikoa, eta batzuetan autonomia lortu dutela egia den arren, horrek ez duela esan nahi, diruari dagokionez, emakume eta gizonen eredu subjektiboak aldatu direnik. Halaber, pertsona behartsu batzuk aberasteak ez du esan nahi pobrezia desagertu denik, ezta aberats bihurtzean indarrean dagoen botere-eredua aldatu dutenik ere.

Itxuraz ona dena ez da beti hala izaten, eta beraz, munduko leku batzuetan gertatutako aldaketak ez dira uste bezain sakonak izan. Emakume eta gizon askok aldaketaren alde izaten dituzten jokabideek ez dira beti aldaketa sakon baten isla. Diruaren sexuazioak indarrean jarraitzen du, eta momentu kritikoetan gertatzen da agerian kontzeptu horren boterea, eguneroko bizitzan sintoma disfuntzional asko betikotuz. Sintoma horiek, pairamenak sortzeaz gain, generoen arteko harreman paritarioagoak eta solidarioagoak sortzeko oztopoak jartzen dituzte.

Oraingoan, horrek guztiak diruaren sexuazioarekin duen harremanaren esparru bakar bat azalduko dut, eta psikologo naizen bezala, 25 urteko eskarmentuari esker, arazo konplexu hori azaltzeko nire ikuspuntua emango dut.

2.

Emakume askok lortutako independentzia ekonomikoak ez du autonomia bermatzen

Dirua beti izan da zaputza emakumeentzat. Iraganean, esparru publiko eta pribatuak bereizita zeudelako, eta bakoitza genero bakar bati esleitzen zitziolako. Dirua beti zen publikoa, eta ondorioz, etxeko ustezko giro babesle, barrubigun eta itogarrian sartutako emakumeen eskutik kanpo geratzen zen. Gaur egun, esparru pribatua eta publikoa ez dira horrenbeste bereizten, eta munduko leku batzuetan (ez guztietan), emakumeak esparru publikoan sartzen dira, ustez gizonen aukera berdinekin. Hala ere, dirua ez da beren eskuetan egoten, besteak beste, boterearen tresna pribilegiatuetako bat da, eta denok dakigun bezala, emakumeak, munduko populazioaren %50a izanik, ustezko gizarte demokratikoan gizonekin boterearen %50a partekatzeko helburutik oso urrun daude, eta helburu hori lortzeko, lan asko egin behar da oraindik.

Hori bai, arau guztiek dute salbuespenen bat, eta emakumeen marjinazio ekonomiko aipatzean, jende askok aipatu dezakete "munduko lanbiderik zaharrena", hasiera-hasieratik emakumeek esparru publikoan lekua eta dirua "legitimoki" irabazteko aukera izan dutela azpimarratzeko. Baina esaten ez dena, denok jakin arren, emakume askok, dirua irabazteko prostituziora jo behar badute, dirua beren eskuetatik urrun dagoelako dela.

Baita ere, jende askok esaten du "emakumeen askapenaren" garai hauetan, emakumeek ez dutela arrazoirik berdintasunaren alde borrokatzen jarraitzeko, beste garai batean gaudela... askok diote "ez duenak nahi ez duela ezer lortuko". Adierazpen eta suposizio horien aurka, UNESCOK emandako estatistika-datuek zalantza guztiak uxatzen dituzte. Datu horien arabera,

"emakumeek munduko populazio helduaren %50a osatzen dute, eta lanerako indar ofizialaren heren bat; baina munduko lanorduen ia bi heren egiten dituzte, munduko diru-sarreraren hamarren bat bakarrik irabazten dute eta munduko ondasun higiezinaren ehunen bat baino gutxiago dago haien esku".

Badakigu, mugimendu feministen ondorioz sortutako kemenak itxaropena piztu zuela (gizonak bezala, emakumea, subjektu eta lehen mailako herritartzat jotzeko itxaropena), emakume asko independentzia lortzen saiatu zirela, eta horretarako oztopo asko gainditu behar izan zituztela. Emakumeek bazekiten, gure gizartean independentzia lortzeko, lehenbizi independentzia ekonomikoa eskuratu behar zutela. Horretarako, era askotako esparruetan prestatu egin ziren, beren anbizio eta nahien arabera prestakuntza-maila izateko, eta modu horretan independentzia irrikatu hori lortzeko. Hala ere, urteak igaro ondoren, egiaztatu zen, independentziak ez zuela beti autonomia bermatzen, eta burujabe-itxura zuten emakume askok, baita independentzia harrokeriaz erakusten zuten emakumeek ere, mekanismo inkontziente konplexuen ondorioz, horrenbeste irrikatutako autonomia galtzen zutela.

Horrek agerian utzi zuen gizartean egindako lorpenak ez zirela nahikoa emakumeek mendekotasun-mekanismoak alde batera utzi eta diruaren banaketa eta marjinazio ekonomiaren egoera aldatzeko. Zalantzarik gabe, aldaketa sozialak ezinbestekoak ziren, baina aldaketa horiekin bakarrik ezin zen mendeetako esklabotza psikikoa deuseztatu. Adibide askok frogatu dute, fenomeno konplexu baten ondorioz, independentzia ekonomikoa duten emakume asko independentziak ematen dien autonomia galtzera iristen direla.

Beraz, beharrezkoa da azpimarratzea independentzia ekonomikoa eta autonomia ez direla gauza bera. Independentzia ekonomikoak baliabideen eskuragarritasunari erreferentzia egiten dion bitartean, autonomiak baliabide horiek inoren kontrol edo presiorik gabe erabiltzean datza. Modu autonomian jokatzeak hartutako erabakien erantzukizuna hartzea esan nahi du. Bereizketa hori argi egotea funtsezkoa da, autonomia baita independentzia praktikan jartzearen emaitza. Modu autonomian jokatzeo, baliabide ekonomikoak eskura izateaz gain, batez ere baliabide horiek erabiltzeko zilegia dela sentitu behar du emakumeak.

Horregatik, independentzia ekonomikoa funtsezko baldintza da, baina ez bakarra.

Adibide gisa, egoera bitxi bat aipatuko dut. Emakume enpresariei buruzko ikerketa bat egin nuen. Emakume burujabe batzuek autonomia hein batean zergatik galtzen zuten jakin nahi nuen, eta horretarako, emakume enpresari arrakastatsuekin hainbat urteko ikerketa-lana egin nuen. Helburua zen emakume horiek diruaren inguruko praktikekin ohituta zeuden ala ez ikustea, independentzia ekonomiko nabaria zuten ikustea, eta horrek beren bikotekideen aurrean autonomia mantentzen laguntzen zien ala ez zehaztea. Hipotesi gisa, emakumeak enpresa bat (txiki ala handia) planifikatzen, abian jartzen eta aurrera eramaten gai izan zirela ulertu nuen. Gainera, emakumeek, gaitasun profesionala izateaz gain, diruari lotutako zailtasunak behar bezala gainditzen jakin zuten, enpresa-munduan, horrelako zailtasun ekonomikoak ohikoak baitira. Ondorioz, pentsatu nuen egokia izango litzatekeela emakume horiek ikertzea, bikotekidea izan arren, esparru publikoan, erabakiak hartzean eta diru-esparruan, paper protagonista baitzuten.

Baina orain aipatuko dudana da harrigarriena. Gertatzen dena da, emakume enpresari horien senarrak lanik gabe geratzen zirenean, emaztearen enpresan hasten zirela lanean: emakumeek sortutako enpresan, lan-aukera bat eskaintzen zitzaien. Horrela, heinean-heinean, "konturatu gabe" emakumeek diruarekin zerikusia zuten lanak gizonen esku uzten zituzten. Handik gutxira, gizonek, duela gutxi enpresan jardunean hasitakoek, kontrol ekonomiko eta finantzarioa zuten, eta emakumeek, gainontzeko lanak egiten zituzten: ekoizpena, kudeaketa eta mantentze-lanak. Beraz, azkenean, enpresan ere bikote tradizionalak lan-banaketa egiten zen: gizonak "kanpoan" diruarekin; eta emakumeak, berriz, "barrian", eta azpiegituren mantentze-lanetan. Rol tradizionalak aplikatzen zirenez, gizonen esku geratzen zen dirua eta botere gehiena, eta erabaki ekonomikoak hartzerakoan, emakumeak baztertu egiten ziren. Beraz, argi dago, kasu horietan, enpresari buruzko erabakiak hartzean, emakumeek independentzia eta autonomia galdu zutela.

Argi dago, gizonak, hasiera batean emakumeek kudeatutako eta kontrolatutako enpresetan sartzean, kontrol ekonomikoa eskuratzen badute, emakumeek beraiek botere hori emango dietela dakitelako dela. Gizonen artean, jokabide hori nahiko ulergarria da, baina zer gertatzen da emakumeen jokabidearekin? Gizonek kontrol ekonomikoa eskuratzeko postuak eskuratu nahi izaten dituzte, dirua kontrolatzeak boterea baitakar, eta horrek asetasun handia sortzen die gizonei. Baina, emakumeak, berriz, prest daude postu horiek gizonen esku uzteko, eta horretarako arrazoia ez da oso argia. Ziur asko, emakume askorentzat, inkontzienteki izan arren, diruak gatazkatsua izaten jarraitzen du, nahiz eta gaur egun, esaterako, emakume enpresarien kasuan, menpekotasunak dagoeneko gaindituta daudela pentsa daitekeen.

Beraz, sarrera hau laburtzeko, hiru baieztapen adieraziko ditut:

Bat, *independentzia ekonomikoak ez du autonomia bermatzen*. Beharrezko baldintza da, baina ez da nahikoa, gaur egun, emakume askok, dirua dutenez, independentzia lor baitezakete, baina horrek ez du esan nahi dirua kontrolatzeko barne-zilegitasuna lortzen dutenik.

Bi, askotan, emakumeek beren *autonomia arriskuan jartzen dute*, mendekotasun ekonomikorako mekanismo sofistikuak aplikatuz.

Hiru, *mekanismo horiek inkontzienteak izaten dira gehienetan baldintzapen psiko-sozialen emaitza dira*; hau da, diruaren sexuazioaren kontzeptuarekin barneratutako "emakume generoaren" emaitza.

3.

Emakumeek non egiten dute estropazu... estropazu egiten dutenean?.

Bigarren milurtekoaren amaieran, emakumeek dirua eskuratzeko borrokan egindako lorpenak, eta ondorioz, independentziaren bidean egindakoak ikusi ginen. Baina, hirugarren milurtekoaren hasieran, aurrerapenak egin diren arren, emakumeek ez dituzte diruarekin gatazka guztiak konpondu eta lan horretan oztopo asko dituzte oraindik.

3.1

ZEIN SINTOMAK ISLATZEN DITUZTE DIRUAREKIKO GATAZKAK?

Eguneroko bizitzan, zantzu askotan islatzen dira gatazkek. Behin eta berriz errepikatzen dira, baina erabat naturalizatu direnez, ez dira deigarri gertatzen. Nabariak dira, baina inork ez ditu ikusten, eta azkenean ikusezin bihurtzen dira. Urte hauetan zehar, Amerikako eta Europako herrialde askotan, jokabide horiek leku bakoitzean duten aldaera ikusi ahal izan dut, baina funtsa beti berdina da. Jokabide horietako batzuk dira, dirua eskatzeko eta kobrantzak zehazteko zailtasuna, lan-zerbitzuei prezioa jartzeko inhibizioa, gizonen baino gehiago irabazteagatik ezeroso eta egonezina sentitzea, inbertsio handiak edo (kopuru handia denean) diruaren inguruko erabakiak inguruko gizonen eskutan uztea (senarrak, semeak, aitak, anaiak, maitaleak), herentziaren kudeaketa gizonen esku uztea (alderantzizko egoera askoz ere arraroagoa da), eta ezkontzako ondasunak legitimoki harenak direla onartu eta erabiltzea eta abar.

Horrez gain, askotan, jokabide batzuk kontraesankorrak dira emakumeen izaerarekin. Adibidez, emakume ireki eta zuzenek, diruari buruz hitz egitean, ondoeza eta lotsa sentitzen dute. Beste emakume asko, modu abstraktuan pentsatzera ohituta egon arren, "diru-kopuru handien" aurrean, nahastuta geratzen dira. Edo emakume aktibo asko, familiaren ekonomian parte hartzeko prest daude, baina etxeko eguneroko ekonomian bakarrik jartzen dute arreta, eta familiaren beste aspektu ekonomikoak alde batera uzten dituzte. Lan-eskarmentu handia duten emakumeek ere, lan-kontratuak sinatzean, diruari buruzko gaiak ez jorratzen saiatzen dira. Edo etxeko erantzukizun ekonomiko beren gain hartu duten emakumeek, interes ekonomikoak defendatzeagatik "materialista" eta "interesatuztat" joko dituztela pentsatzen dute. Askotan, burujabeak direla adierazten duten emakumeek, dibortziaztean, familia-ekonomiaren dinamikari buruz ezer gutxi dakitela ikusten dute, eta harritu egiten dira.

Jokabide horiek guztiak ez dira batere "naturalak". Egia esan, jatorri ezkutua duen gatazka bat islatzen duten sintomak dira. Sintoma horiek gatazka inkontziente bat jartzen dute agerian; hau da, emakume bakoitzaren subjektibotasunaren barne, aurkako ideien arteko gatazka inkontzientea da. Beste era batean esanda, emakumeek lortzen horrenbeste kostatako askatasun sozialekin bizi nahi dute, eta horretarako borroka kontzienteki egiten dute; baina aldi berean, mendeetan zehar barneratutako aginduak ere hor daude. Gatazka sortzen da, bi borroka horiek bateraezinak direlako.

3.2

ZEIN DA EMAKUMEK DIRUAREKIN DUTEN GATAZKA NAGUSIA?

Barne-borroka sortzen da, aspalditik diruari esleitutako ezaugarriak, duela asko feminitateari esleitutako ezaugarrien kontrakoak direlako. "Feminitate onaren" eta diruaren praktika "espekulatibo eta hotzen" artean sortzen da borroka. Modu laburrean azalduko dut:

Gure gizartean, emakumea esatea jokabide femeninoak gogora ekartzea da: tolerantzia, gozotasuna, ulerkortasuna, altruismoa, leialtasuna eta norberaren buru-ukamena. , emakume femenino bati esleitu eta eskatzen zaizkion ezaugarri horiek guztiak, ideal sozial batean oinarritzen dira, emakume bat batez ere ama izan behar dela diona. Ideal horrek, emakumea amatasunarekin identifikatzen du, eta ondorioz, ama gisa seme-alabekin bakarrik jokatu beharrean, denekin hala jokatu behar duela zehazten du. Eta ama gisa jokatzek, "zintzoa" izatea esan nahi du, hau da, altruista, leiala eta bere buruari uko egiten diona. Eguneroko egoera askotan ideal hori agertzen da, eta horren ondorioz, ia edozeinek emakume bati ardura amatiarra ematea exijitzeko eskubide duela pentsatzen du. Behin, emakume abokatu batek kontatu zidan, bezero batek, zerbitzua ordaintzean, hau esan ziola: "Ez zaitetz gaiztoa izan, jaitsi prezioa". Abokatuaren ustez, gizona izan balitz, ziur asko bezeroak beste zerbait esango zion, adibidez "Begira, arazo ekonomikoak dauzkat, ezingo al zenidake prezioa jaitsi?", baina ez zion esango "Ez zaitetz gaiztoa izan". Okerrena da, abokatu "gaiztoa" hitzak mindu zuela gehien. Horrekin agerian utzi nahi dut, "mundu guztiak" ama bat aurkitu nahi duela emakume bakoitzean, eta haiek "ama zintzo" gisa jokatzeko erantzukizuna dutela.

Emakumea = Ama identifikazioak, emakume guztiak ama bihurtzeaz gain, amatasuna (fenomeno altruista, leial eta buru-ukatzailer gisa ulertuta) goratzen du feminitatearen funts gisa. Hau da, emakume batek ama-ezaugarri gehiago dituen heinean, bere jokabidea femeninoagotzat joko da. Horrek esan nahi du, ama-ezaugarriak betetzen ez dituen emakume bati buruz, gainontzekoek eta berak ere, "femeninoa ez dela" pentsa dezaketela.

Eta puntu horretan, gatazkaren funtsetako batera iristen gara. Izan ere, emakume batek bere interes pertsonalak defendatu behar dituenean, bere ongizatea gainontzekoen aurretik jarri behar duenean, edo bere premiak asetzeko baldintzak exijitu behar dituenean, ziur asko, barne-gatazka handi bat izango du, barneborroka bat, alde batetik, premia pertsonalak izango baititu; eta bestetik, feminitate "amatiarraren" itxaropenak. Hau da, "gaiztoa" sentitzea (bere desioak asetzea), edo "ama zintzoa" izatea; hau da, gainontzekoen desioak asetzea dira bi aukerak.

Puntu horretan, diruak ere zerikusi handia du. Izan ere, diruak emakumeen lasaitasuna apurtzen du, botere-baliabide bat izateaz gain, gure gizartean, gizakien nahiak asetzeko baliabide ezin hobea ere baita. Ildo horretan, dirua eskura izatean, gure nahiak eta ametsak asetzeko aukera daukagu. Beraz, hor gertatzen da benetako talka, bakoitzaren nahiak asetzeak agindu patriarkalaren araberako amatasun-ideiarekin, hau da, "ama zintzoa" izatearekin eta gainontzekoen premiak bakoitzarenak baino lehen asetzearekin, talka egiten baitu. Gainera, diruari "hoztasuna", "espekulazioa", "norbekeria", "manipulazioa" eta antzeko ezaugarriak esleitzen zaizkio, eta ama-idealaren aurkakoak dira. Beraz, dirua maneiatzea, interes ekonomikoak defendatzea eta bakoitzaren nahiak argi eta garbi adieraztea oso zaila da emakumeentzat, ama "leial", "altruista" eta "jasankorra" izateari uzten baitzaio. Beraz, ulergarria da, emakume askok, askatasunahiek eta aldaketa sozialek bultzatuta, esparru publikora iristea eta dirua irabaztea; baina barne-subjektibotasunaren ondorioz, ez dute barne-zilegitasuna eskuratu, eta ondorioz, ez dira dirua modu autonomoan erabiltzeko gai. Beste era batean esanda, diruarekin zerikusia duten praktikek sexu-generoaren identitatearen oinarria bera jartzen dute zalantzan.

4.

*Diruaren banaketamapa aldatzean...
zein ondorio jasaten
dituzte gizonak?*

Diruaren sexuazioaren ondorioz, dirua esparru maskulinoari esleitu zitzaion, eta ondorioz, deuseztatzen zailak ziren pribilegioak ezarri ziren. Alde batetik, pribilegio horiek erabat naturalak direla jotzen delako, eta bestetik, gizonak ez baitaude prest pribilegio horiek solidaritateagatik galtzeko. Gizadiaren historiak age-

rian uzten du, gizonak, boterea biltzeaz gain, ez dituztela baliabideak banatu nahi izan. Eta gizadia ez da konturatzen, nahi eta desio horien kostua ez dela batere osasungarria eta azkenean gizonen kontra jotzen duela. Diruaren banaketa-sistema aldatzea Lurreko aberastasunen banaketa-sistema aldatzea bezala da. Eta pribilegiatuak ez dute aldaketarik nahi izaten. Bestalde, askotan, "pribilegiatuak" ez dira konturatzen pribilegio horien benetako kostuz. Diruari eta generoen arteko harremanei dagokienez, gizonak ez dute ikusten, pribilegio ekonomiko horiek mantenduz gero, botere- eta menderapen-sistema bat betikitzen ari direla, eta horren ondorioz, gorrotoz, etsaiez eta mendekuz inguratuta bizi direla. Oso kostu garestia da, bizi-kalitatean ondorioak baititu. Pribilegio horiek mantentzea Rio de Janeiroko eta beste hiri askotako fabelen hedapena sustatzea bezala da. Diruaren banaketa-mapa aldatzeak beldurra sortzen du gizonen artean. Beldur nagusia da gizonak emakumei mendetan zehar egindakoa, orain emakumeek gizonak egingo dietela. Hau da, gizonak askatasuna eta autonomia kentzea, eta horrela emakumeekiko menpekotasun ekonomikoa, legala eta psikikoa izatea. Mamu kezkarrietako bat, diruaren sexuazioaren ondoriozkoa, noski, maskulinitasuna eta gizontasuna galtzea dira. Diru galtzean maskulinitasuna ere galtzea ez da gauza berria. Duela asko, gizartearen ustezko "egia" hori esatera zaharren bidez adierazten zen, gaztelaraz, esaterako "un hombre sin dinero no es un hombre entero" (dirurik gabeko gizon bat ez da erabat gizona). Frantsesez: "Un homme sans argent est un loup sans dents" (zilarrik gabeko gizona hortzik gabeko otsoa bezalakoa da) eta ingelesez: "A man without money is a bow without an arrow" (dirurik gabeko gizona gezirik gabeko arku bat bezalakoa da). Nahiko argi dago esatera zahar horiek diruaren eta potentzia sexual maskulinoaren arteko harremana berresten dutela. Hortz eta geziaren sinbolismo falikoek argi uzten dute dena, ez da beharrezkoa ezer azaltzea. Eta "si se da por cierto que el dinero hace al hombre entero", dirurik ez badago, sexualitate maskulinoa zalantzan jartzen da.

Diruaren sexuazioaren ondorioz, inkontziente kolektiboan "dirua maskulinoa dela" barneratu da, eta horri esker, diruaren bidezko pribilegio eta botereaz gozatzeko eskubidea gizartearen eta gizonen aurrean legitimatu zen. Beraz, itxu-

raz "irabaziak lortzea" izan arren, jokabide horiek irteerarik gabeko kale batean utzi ditu gizonak, haiek baitira diruak "gizonagoak" eta sexualki ahaltsuagoak bihurtzen dituela uste duten lehenak. Ondorioz, porrot ekonomikoa jasaten duten gizon askok, inpotentzia sexuala ere jasaten dute. Hori psikologia-kontsultategietan nahiko fenomeno arrunta da.

5.

Laburbilduz

- Diruaren sexuazioak, dirua genero sexual maskulinoaren adierazle bihurtu zuen, eta hori gertatu zenean, gizonak kondenatu egin ziren, muga ekonomikoak potentzia eta gizotasunaren ospea galtzea bezala bizi baitute.
- Diruaren sexuazioari esker, gaur egun oraindik indarrean dauden pribilegio asko naturalizatu ziren, esaterako, emakumeek, gizonen lan bera egiteagatik, soldata apalagoa jasotzea.
- Diruaren sexuazioak bikote-harremanetan zailtasunak sustatzen ditu, esaterako, emakumeak gizonak baino gehiago irabazten duenean, arazoak sortuz.

Diruaren sexuazioa ideologia patriarkalaren emaitza da, eta bi ahokoa da: emakumea menpean jartzen du, eta gizona arduradun ekonomiko izatera behartzen du. Horrek botere ematen dio, baina aldi berean, gizonak ezin dio rol horri uko egin. Beraz, exijentzia hori boomerang bat bihurtzen da, eta gizonen artean, gizakiaren ahulezia naturala porrot gisa ikusten da. Eta porrot horrek, "un hombre sin dinero no es un hombre entero" gaztelera esatera zaharrak isolatutako zikiratze sinbolikoa ezin hobe islatzen du.

Bukatzeko, aipatuko dut, diruaren sexuazioa diruaren banaketa-sistemaren aldatzeki aurre egiteko eta indarkeria sustatzeko era bat dela: bai inposaketaren ondorioz sortzen den indarkeria, baita erreakzio gisa eratzten dena ere. Diruaren sexuazioa ustez demokratikoa den edozein gizartek duen mekanismo inkontzientea da, eta gizarte orok hura agerian utzi eta desagerrarazteko konpromisoa hartu beharko luke.

TAMAR PITCH

**Zuzenbidearen
Soziologiako Saila.
Camerino-ko
Unibertsitatea. Italia**

Hiritarren

segurtasunaren

generoa

Europako herrialde gehienetan, hiritarren segurtasuna funtsezko gaia da politika-gai eta diskurtso erretorikoetan, bai bertako esparruan baita esparru nazionallean ere. Hala ere, politika eta diskurtso horiek argumentatu eta aplikatzerako orduan, askotan ez da kontuan hartzen hirietako populazioa emakume eta gizonen osatzen dutela, eta batzuek eta besteek segurtasun-gaiak hautemateko eta bizitzeko oso modu ezberdina dutela. Besteak beste, hauek dira ezberdintasun nagusiak: gizonen biktimizatzen dituzte emakumeak, eta ez alderantziz. Gainera, horrelako egoerak askoz ere arruntagoak dira etxepeko segurtasunean edo lan-esparruan, esparru ireki eta publikoetan baino. Txosten honetan agerian utzi nahi dena da, emakumeen hautemate eta arazoak kontuan hartzean, indarrean jarri beharreko politikak ez lirakeela proposatutakoak izan behar: emakumeek ez dute behar hiri-lurraldea antzutea. Horren ordez, lurralde hori konfiantzaz zeharkatzeko baliabide sozial, ekonomiko eta kultural gehiago behar dituzte.

Dagoeneko hildako italiar konpositore baten abesti batean, gauean, gizon bat ageri da, kale huts batean oinez. Bat-batean, norbait gerturutzen zaio. Pertsona hori ez du ongi ikusten, baina besoetan zerbait daramala nabaritzen du. Eta gizonak pentsatzen du: zer egin behar dut? arriskutsua izango al da? agian arma bat darama. Eta oso kezkatua egon arren, ez da geratzen, ez du atalondo batean babesik bilatzen, ezta beste bide batetik joatea saiatzen. Beraz, bi pertsonak elkarrengana hurbiltzen doaz, gizon ezezaguna argi eta garbi ageri den arte. Eskuetan lore-sorta bat daramala ikusten du.

Abesti horrek gauza asko esaten dizkigu. Bat: gauean, kale huts batean oinez dabilen pertsona gizonetako da. Izan ere, emakumeek ez lukete hori egingo, baldin eta beharrezkoa ez balitz. Bi: gizonak norbait bereganatu hurbiltzen ari zaiola ikusten duenean, arriskutsua izango ote den galdetzen dio bere buruari, ez gizon bat ote den. Izan ere, hori ziurtzat jotzen du, eta horregatik dago kezkatuta; pertsona hori emakumea dela pentsatuko balu, ez luke arriskuan dagoela pentsatuko. Hiru: gizona ez da gelditzen, ez du nonbaiten babesik bilatzen, aurrera jarraitzen du, bereganatu doan pertsonari begira. Gizon gehienek, leku publiko batean, pertsona baten mehatxupean sentitzen direnean, hori egiten dute: pertsona horri begira geratzen dira. Eta hain zuzen ere, emakume gehienek ez lukete

hori egingo, begira gelditzea irain edo gonbidapen gisa ulertu baitaiteke. Lau: gizonak konturatu ez arren, gizonen beldur dira, ez emakumeen beldur.

Azkenean, gizona ez da arriskutsua, pertsona atsegina da, eskuetan loreak baitaramatza, baina txosten honetan ez dugu hori aztertuko.

Badirudi bakarrik doazen emakumeentzat, gaua eta esparru publiko asko debekatuta daudela. Esparru horiek berak ere arriskutsuak izan daitezke gizonentzat, batez ere ezinduak edo zaharrak badira. Baina emakumeentzat askoz ere hein handiagoan dira arriskutsuak, edo emakumeek hala ikusten dituzte; eta gizonek ere hala deskribatzen dituzte, behintzat.

Hiria, modernotasunaren leku eta sinboloa da, eta beti izan da aukera eta arrisku ugariko lekua. Baina horrenbeste aipatu ez dena da, aukerak gizonentzat direla; eta arriskuak, berriz, emakumeentzat. Hiri modernoan, gizabanakoak norbanako bihurtzen dira: bertan lotura zaharrak alde batera utzi eta abentura berriak bizitzen hasten dira. Baina askatasuna eta abenturak gizonentzako dira, aldi berean, hiria emakume "askeentzako"; hau da, gizon bati lotu gabeko emakumeentzako arriskutsua baita. Judy Walkowitzek azaldu duen bezala, oso adierazgarria da XIX. mende bukaeran, emakumeak etxetik ez ateratzeko, Jack tripa-ateratzailearekiko beldurra nola erabili zen. Era horretan, emakume "askeak" emakume publiko; hau da, gizonentzako harrapakin baimendu bihurtzen dira zuzenean.

Baina, horren ez paradoxikoki, badakigu, kaleko ezezagunek ordeztu, gehienetan oso ongi ezagutzen dituzten gizonen emakumeak askoz ere gehiago biktimizatzen dituztela etxean. Kriminari buruzko ikerketa gehienetan zehaztu da, beldurraren paradoxaren ondorioz, emakumeek gizonen baino beldur handiagoa dutela, askoz ere gutxiagotan biktima izan arren. Horren ondorioz, argi eta garbi ikusiko dugu, hain zuzen ere horregatik, emakumeen gizonen baino neurri gehiago hartzen dituztela esparru publikoan, txiki-txikitatik kalea, gaua eta ezezagunak arriskutsuak direla erakutsi baitzaielako. Hori, noski, oso gutxitan aipatutako biktimizazio-modu bat da. Are gehiago, horren onartuta dago, non ezezagun batek emakume bati eraso egiten badio, errua emakumeari botatzen zaiola, kontuz ez ibiltzeagatik. Egia esan, biktimizazioa ez da hitz egokiena gaur egungo popula-

zioak bizi duen egoera azaltzeko. Gizon-populazioarekin konparatuta, emakumeek nolabaiteko askatasun-gabezia dutenez, diskriminazioa, zapalkuntza edo antzeko termino bat ez al litzateke egokiagoa izango? Askatasun-gabezia hori gutxienez hiru elementuz osatuta dago: etxeak ez dira babesleku segururak, askotan kalea bera baino arriskutsuagoak dira; emakumeek beraiek askatasun-gabezia hori onartzen dute, nahiz eta ez aintzat hartu. Aldi berean, gizonak babesle eta harrapari bihurtzen dira: emakumeentzat, beraz, kale itsu bat da.

Krimenarekiko beldurra aztertzen duten adituek, gainera, ez dute kontuan hartzen beldurtzen gaituzten pertsonen sexua: arriskutsuak izan ala ez, gizonak dira, ez emakumeak. Prostitutei ez zaie beldurrik izaten, askotan, kalean, hiri-degradazioaren irudi gisa agertu arren. Gizonek; hau da, prostituten bezeroek, ez diete beldurrik. Emakumeak ez dira prostituten beldur. Emakumeak saldu edo erosten diren lekuetan, ez dira eroso sentitzen, gizon arriskutsu ugari baitaude, bai bezeroak baita babesleak direnak.

Krimenarekiko beldurraren ikerketei buruz gehiago hitz egin beharko litzateke, baina lan honetan, azterketa mugatuago bat egingo dugu. Italia iparraldeko hiru hiritan, emakumeek segurtasunari eta segurtasun-ezari buruz dituzten pertzepzioak aztertu genituen, era horretan, herri eta herrialde askotako gobernuek hartutako nahiz aplikatutako politikak aldera batera utzi eta beste politika batzuen premia dagoela azpimarratzeko.

Guretzat, ez zen oso harrigarria izan, emakumeen segurtasun-eza, batez ere fisikoki ahul sentitzen direlako agertzen dela ikustea, berdin dio emakumeak zein adina edo lanbide duen, baita aldez aurretik biktimizatua izan den ala ez. Adibidez, gizonentzat kaltegarriak ez diren egoera eta jokabide maskulino asko, emakumeentzat ez dira batere atseginak (nahiz eta ez diren zertan egoera horien beldur izan behar). izan ere, lehenbizi gizon-taldea elkarrizketatu genuenean, bi gauza adierazgarri aipatu zizkiguten. Lehenik eta behin, gizon horietako askok esan ziguten, beste gizon batzuk tabernetan edo beste lekuetan gerturatu zitzaizkiela, asmo sexualekin. Hala ere, gizonak ez ziren mehatxupean sentitu. Egin zuten gauza bakarra izan zen iradokizuna ukatzea eta proposamena serioски ez hartzea izan zen. Bigarren, emakumeek gizonak beren atzetik dabilzala uste

dutenean sentitzen duten egonezinaren aurrean, gizonak mindu egin ziren, jokabide hori gehiegizkoa eta ulertezina iruditzen baitzitzaien. Horrek esan nahi du, segurtasun-eza bakoitzaren hautematearen arabera dela: emakumeek beraiek, fisikoki ahulak direla sentitzen dute, eta egoera berean, gizonak ez dute arriskurik ikusten.

Gainera, berriz ere harridura handirik gabe ikusi genuen, askotan konturatu ez arren, emakumeak kontu handiz ibiltzen direla. Hala ere, arriskuak genero maskulinoa zutela hautematen zuten. Hala azaldu ziguten guri. Gizonak, bestalde, konturatu ez arren, gizonen beldur zirela adierazi ziguten.

Hala ere, emakumeen artean ezberdintasun handiak zeuden, adina eta gainontzeko aldagarriak kontuan hartuta. Hala ere, hiri handi batean, esaterako Bolognan ikasi edo lan egiten duten emakume ikasiek; hau da, gauean ateratzeari uzten ez dioten emakumeek eta hirietan emakumei jartzen zaizkien mugak apurtzen dituzten emakumeek ere, beldurra izaten zutela adierazi ziguten, ez horrenbeste lapurretan egiteko arriskua jasan zezaketelako; baizik eta gizonak erasotzaileek bere esparru pertsonal edo fisikoan sartzeko arriskua zegoelako. Beraz, emakumeek ez diote krimenari beldurrik, baizik eta segurtasun-ez "ontologikoa" sentitzen dute, txiki-txikitatik ikasitakoaren ondorioa dena; hau da, fisikoki ahulak direla eta gizon arrotzak bereziki arriskutsuak direla erakutsi dietelako, eta ondorioz, "gure" gizonak arrotz horiengandik babesteko behar ditugulako. Hau da, hitz gutxitan: emakumeek sentitzen duten segurtasun-ezak zerikusirik handiagoa dauka sexuen arteko harremanen egoerarekin, kriminalitate-mailekin edo antzeko gaiekin baino. Delitu gogorrekiko beldurra eta kezka segurtasun-ez horri daude lotuta, eta sentimendu horrek beldurra areagotu egiten du.

Hala ere, segurtasun-ez hori sozializazioaren ondorioa da; hau da, ontologikoki, bakoitzak bere burua arriskuan dagoela ikasten duelako. Kultura nagusiaren diskurtsoak, autonomia- eta askatasun-ezaren bitartez, sozializazio hori etengabe indartzen du. Horrek bi faktore nagusirekin du zerikusia: alde batetik, gizon gehienekin alderatuta, emakumeek ez dituzte horrenbeste baliabide sozial eta ekonomiko. Horrez gain, kale itsua ere hartu behar da kontuan; hau da, esparru publi-

koa eta gizon (arrotzak) arriskutsuak direla; eta etxea nahiz gizon (ezagunak), beharrezko babesa direla.

Hiri-segurtasunari buruzko diskurtso eta politikek, bai tokiko esparruan nahiz esparru nazionalean, segurtasun-eza gutxitu ordez, areagotu egiten dute. Arriskua, batez ere emakumeentzat, esparru publikoan dagoela azpimarratzean, emakumeen askatasun-eza legitimitatu eta indartu egiten da; eta ez da kontuan hartzen esparru pribatuan emakumeak askoz ere gehiago biktimizatzen direla. Horrek guztiak, kale itsuaren joera indartzen dute.

Hirietan era eta kolore guztietako hiritarrak aurki daitezke, baina diskurtso eta politika guztiak "hiritar zintzoei" zuzenduta daude, eta bertan, etorkinak, etxerik gabeko pertsonak eta orokorrean, behartsuak arriskutsuak direla azpimarratzen da. Hala ere, hiritar zintzoak bi motatakoak izan daitezke: gizonak eta emakumeak. Hala ere, mota bakoitzak hiri-esparruan dituen berezitasunak ez dira kontuan hartzen.

Badirudi, orokorrean, hiri-segurtasunari buruzko politika eta diskurtsoetan bi estrategia nagusi hartzen direla. Lehenengoa lurralde-esterilizazioa da: esparru publikoak mugatu egiten dira, zaintza-kamerak jartzen dira, polizia gehiago dabil kaleetan, etxerik gabeko pertsonak, eskaleak, prostitutak eta drogazaleak kaletik "bota" egiten dira. Bigarren irizpidea, agente pribatuen eta zaintza-patrula, segurtasun pribatua, dendetan segurtasun-neurriak jartzeko diru-laguntza eta antzeko agentzien arteko lankidetzeta da. Horrez gain, boluntarioen sektorea ere inplikatu nahi izaten da, biktimei, zaharrei eta emakume biktimizatuei laguntza emateko.

Baina segurtasuna eta babesa gero eta gehiago pribatizatzeko beste arrazoi bat ere badago: Udalerrri askotan, herritarrei segurtasun-neurriak hartzea eskatzen zaie, eta beren etxeak, ondasunak eta bestelakoak babesteko era guztietako aparatuek erostea iradokitzen zaie. Emakumeak (pertsona zaharrekin batera), horrelako propagandaren jomuga izan ohi dira: segurtasun-produktuak haientzat (eta neurri horiek hartzen ez badituzte, biktimizatu egiten dira) edo zaintzen dituzte pertsonentzako dira: batez ere, haurrentzat eta zaharrentzat.

Esterilizazioak eta pribatizazioak, elkarren arteko mesfidantza gutxitu beharrean, areagotu egiten du, hiriko bizitza aberats eta anitza desagerrarazten du, eta ondorioz, babesa familian eta pertsona ezagunen artean bilatzen da. Konfiantza oso baliabide urria da gaur egun, konfiantza partikulartua daukagu soilik: Offek adierazi zuen bezala, era batean edo bestean "gu bezalakoak" diren pertsonengan duguna. Baumanen arabera, horrelako kolektibitateak "konplize-erkidegoak" dira.

Joera horrek denei kalte egiten digun arren, bereziki dagoeneko baztertuta daudenei egiten die kalte gehien; hau da, hein handiago batean, emakumeei. Hein batean behintzat, emakumeen segurtasun-eza sexuen arteko harremanen ondorio bada, emakumeek mehatxu gisa ikusten dutena ezin da ez hiritik kanporatu, ezta zaintze-kamerekin zaindu edo atxilotu ere. Hirietako populazio erdiaren ikuspuntuaren arabera, indarrean dauden hiri-politikak zentzugabeak eta gaiztoak dira; baina, aldi berean, horrek ez du esan nahi emakume askok politika horiei buruzko iritzi txarra dutenik. Izan ere, hala izango ez balitz, arraroa izango litzateke, emakumeak gizonen mundu mediatiko eta politiko berean bizi baitira, eta bertan, arriskuak kanpotik datoz; hau da, jende arraro eta arrotzaren eskutik. Gainera, orokorrean, emakumeek gizonen baino baliabide gutxiago dituztenez, gizonen baino gutxiago fidatzen dira jendearengan. Egia esan, politika horien logika muturreraino eraman beharko bagenu, emakumeentzako hiri seguru bat gizonen gabeko hiria izango litzatekeela esan beharko genuke, bai esparru pribatuaren barne eta handik kanpo ere.

Hala ere, gure ikerketan, beste aurkikuntza bat egin dugu: segurtasun gehien duten emakumeak beren buruak eta bizitzak gehien kontrolatzen dituztenak dira. Konfiantza hori, baliabide ekonomiko, sozial eta kulturaletan oinarritzen da; baina emakume horiek arriskuak bizitzeko duten trebetasun eta gogoak ere segurtasun hori areagotzen du. Offeren ustez, arriskuak bizitzeak, konfiantza gutxitu beharrean, konfiantza handitu egiten du, bereziki konfiantza orokorra. Argi dago, arriskuan jartzen den pertsona batek ez duela beldurrik arrisku horrengatik prezio altuegia ordaindu behar izateagatik. Horrek esan nahi du, emakume horiek,

gizon baten babesik gabe biziteko adina baliabide sozial, ekonomiko eta kultural dituela.

Askotan pentsatzen da askatasuna eta segurtasuna erabat aurkakoak direla, baina, segurtasuna norbaiten edo zerbaiten babesean gauzatzen denean soilik da hala. Segurtasuna bakoitzak bere buruan duen konfiantza eta gainontzeko jendearekin fidatzeko aukera gisa ulertzen denean, askatasunaren funtsezko baldintza bihurtzen da.

Beraz, segurtasuna eta babesa bermatzeko politikak emakumeen egoera hobetzen hasi beharko lukete, arriskuak ekidin beharrean, horiei aurre egitea bultzatu beharko bailukete. Duela urte gutxira arte, politika horiei gizarte-politika esaten zitzaien. Gaur egun, segurtasunarekiko dagoen kezka "hiritar zintzoek" kalean erasorik ez izatea du helburu. Baumanek dioen bezala, horri esker, berehalako irrika politikoak eskuratu daitezke, edo "estatuak" gai horretan oraindik funtzio garrantzitsua betetzen jarraitzen duela sinestarazi diezaguke. Baina azkenean, politika horiek kaltegarriak dira (ikus Castelek gai horri buruz adierazitakoa), eta hiriko populazio erdiaren bizi-baldintzak okerragotu egiten dituzte.

**ANDRÉS MONTERO
GÓMEZ**

**Biolentziaren
Psikologiaren Espainiako
Elkarteko lehendakaria.
Madril**

Genero-

indarkeria

ezberdintasuna-

ren tresna gisa

1.

Osasunaren Munduko Erakundearen arabera (1996), botere fisikoa edo indarra ekintza edo mehatxu gisa nahita erabiltzea da indarkeria, bai bakoitzaren, beste pertsona baten, talde baten ala erkidego baten aurka, eta indar horrek zauriak, heriotza, kalte psikologikoak, garapen-desorekak eta gabeziak sortzen ditu, edo sortzeko aukera handiak ditu.

Indarkeriaren etiologia, jatorria eta adierazpena azaltzeko saiakeretan, OMEk indarkeriari buruz egindako karakterizazioa erabilienetako bat da. Hala ere, indarkeriaren esanahi "medikalizatua" osatzeko orduan, OMEren karakterizazioa gure hautematea moldatzen gehien lagundu duena izan da, hein batean, indarkeriaren esanahi hertsitik urruntzen baikaitu.

Diziplina juridikoen arabera, indarkeria jokabide okerra da, araudiaren arabera jokabideak dira; hau da, legearen barne daudenak, erreferentziatzat hartuta. Subjektu baten jokabidea okerra da legeak xedatutako mugetatik kanpo dagoelako; edo zentzu negatiboan, jokabide zigorgarri sorta baten barne baitago, eta jokabide horrek arauetan oinarritutako elkarbizitzan eragin negatiboak sortzen dituelako.

Beste zentzu batean, osasun publikoaren esparruaren arabera, erreferentziako populazioak osatutako baremotik kanpo dagoena da jokabide okerra. Zentratu gabeko jokabide hori egoeraren arabera baldintza etiologikoek (nahaste aku-tuak) edo egiturazko eraginek, esaterako izaera eta antzeko baldintzek, sortzen dute, eta gainera pertsonari berari eta ingurukoei arazo kliniko larriak sortzen dizkiete. Indarkeria osasun publikoko gai bihurtzen denean, indarkeria errotik kentzeko orduan funtsezkoak diren oinarriak ezartzen dira: erasoak kaltegarriak dira horiek jasaten dituzten pertsonentzat, eta ondorio fisiko eta psikologiko txarrak sortzen dituzte. Gehienetan, ondorio txar horiek gaixotasun baten sintoma gisa azaltzen dira. Indarkeriak elementu patogenoak dituela aintzat hartzea funtsezkoa izan da biktimologia diziplina gisa sortu eta finkatzeko.

Hala ere, indarkeria bezalako kontzeptu konplexu bat eremu semantiko zehatz batean sartzen dugunean; lehenik eta behin, intenzionalitate jakin bat antzematen da, eta beraz, errealitate jakin bat nola ikusten dugun islatzen dugu. Bigarren,

interpretazioari dagokionez, kontzeptualizazio hori argumentuetan erabili eta manipulatu daiteke, eta hasiera batean eztabaidari ekin ziotenek, ez dute argumentu horiengan kontrolik (eta askotan kontrol hori erraztu nahi izaten dute). Manipulazio horiek kontzienteak izan daitezke, edo munduak eta gizakien nola funtzionatu behar duten buruzko aldez aurreko eredu zabalago baten ondorioak ere bai. Indarkeria osasun publikoaren esparruan sartu bezain laster, interpretazio-desbideratze horiek indarkeriari kontzeptu gisa atxikitzen zaizkio.

Izan ere, aipatu dugun bezala, indarkeria osasun publikoaren arazo gisa kontzeptualizatzearen ondorioz (OME, 1996, 2000), indarkeriarekin zerikusia duten delituen biktimei emandako laguntza nabarmen hobetu da, eta diziplina horretan, ikerketa ere nabarmen areagotu da. Baina indarkeriazko jokabideetan (autolitioa ez denean), gutxienez bi pertsona daude, erasotzailea eta erasotua (bi pertsonen elkarren arteko erasoetan ere, jokabidea eraso eman eta jasaten duen eskemaren arabera uler daiteke). Indarkeria osasun publikoko jokabide gisa kontzeptualizatzeak, beraz, ez du biktimak hautemateko geure modua soilik aldatu, baizik eta erasotzailearen ikuspuntutik ere, indarkeriak duen esanahia; hau da, erasotzailea ulertzeko modua ere aldatu egin du.

Osasun publikoaren ereduan, indarkeriaren biktimak lan-irizpide zehatzen hartzaileak dira, batez ere erasoen ondorio kaltegarriari tratamendua emateko. Eredu berean, erasotzaileak, jokabide-arazo larria dauka, eta esku-hartze sanitario espezializatua behar du. Osasunaren ikuspegian, errealitatea interpretatzeko eredu mentalen arabera, jokabide okerra duen pertsona bat, osasun-esparruko arazo bat duen pertsona bat da, eta ondorioz, gaixoa da. Buru-asoziazio horien eraketa sozialak arrazoiketa-sekuentzia horien araberakoak dira.

Erasotzaileak jokabide-arazo bat duela eta senda daitekeela oso hedatuta dagoen ideia da. Gainera, OMEk azaldu eta sortutako definizioaren ondorioz, erasotzailea gaixotzat ikusten da, jokabide okerra duena gaixotzat jotzen da, ez jokabide baten aktore edo antzezle bezala. Beraz, horren bidez, babeserako proiektio psikologikoak garatzen ditugu gizakiok. Proiektio horiek kulturalki zigorgarriak diren jokabideetatik urruntzeko eta gu bezalakoak ez diren pertsonen jokabideetatik bereizteko erabiltzen ditugu, esaterako, kasu honetan.

Espainiako eta Europako herritarrei gizonek emakumeen aurka duten indarkeria-
ren jatorri edo arrazoiak zein diren galdetzen badiegu, inkesten portzentaje txi-
kienak ere ez du aipatuko erasotzaileak biktima menderatzeko nahi edo erabakia
hartzen duenik, ezta erasotzaileak indarkeria jokabide-tresna probetxugarri gisa
erabili nahi duenik ere. Espainiako Ikerketa Soziologikoen Zentroak eta Bruselako
Eurobarometroak egindako inkesten arabera, herritarren ustez, emakumeen aur-
kako indarkeria maskulinoaren arrazoi nagusia, alkohol- eta droga-kontsumoa,
jeloskortasuna, erasotzailearen lan-arazoak, bulkadak kontrolatzeko arazoak eta
indarkeria-jokabideak sorrarazten dizkioten nahaste psikologikoak dira. Esleipen
horiek guztiak zentzu psikologikoan egiten dira, arau sozialek berez ez zigortu-
tako jokabide bat kanpo-arrazoiari esleitzen zaielako. Gizon batek emakume bat
hein bateraino erasotzen badu, horretarako arrazoiak dituelako izango da, pen-
tsatzen dugu. Era horretan, gizon horiek egindakoa justifikatzen dugu, ulertu egi-
ten dugu; baina aldi berean, gu pertsona horiek bezalakoak ez garela ere azpi-
marratzen dugu. Guk ez bezala, gizonak edan egiten badu, psikologikoki ara-
zotik urruntzen gara, eta anormaltasuntzat jotzen dugu; jeloskorra bada, bereha-
la ulertzen dugu; ez bada jeloskorra, ez badu alkoholik kontsumitzen eta lanean
arazorik ez badu, indarkeria ulertzeko interpretazio-ereduaren ondorioz, eraso-
tzaileak arazo psikologikoren bat duela pentsatu ohi dugu, eta haren jokabidea
horrela justifikatzen dugu. Oso pertsona eta momentu gutxitan, egia esan, ia
inoiz, onartzen da gizonak, helburu jakin bat eskuratzeko jokabide probetxuga-
rriena izanik, nahi duelako erasotzen duela; eta helburu hori emakume batekin
daukan harremana ulertzeko moduaren arabera dela, baita emakumeak
harreman horretan eduki behar duen paperaren arabera ere.

Beraz, erasotzaileak indarkeria-arazo psikologiko bat duelako erabiltzen duela
pentsatzen badugu, eta OMEk osasun publikoko arazo bat dela adieraziz, gure
planteamendua berresten badu, berehala ondorioztatuko dugu, emakumeen era-
sotzaileak, berez, arazodun pertsonak direla, eta sendatzeko tratamendu klinikoa
behar dutela. Eta interpretazio horretatik harago joatea; hau da, erasotzailea
bere jokabidearen erabateko erantzulea ez dela eta bizi-baldintzen ondorioz,
jokabidea hein batean justifikatu daitekeela pentsatzea, ez da horren zaila.

Errealitatea interpretatzeko koktel-ontzi hori betidanik sozializazioa eraikitzeko erabilitako kode androzentrikoen sistemarekin edo gizonen nagusitasunaren sistemarekin alderatzen badugu, ikusiko dugu askorentzat oso konplexua dela gizonek emakumeekiko duten indarkeriaren jatorria ulertzea.

Beraz, alde aurretik osatutako interpretazio horiek oinarritzat hartuta, indarkeriaren aurkako esku-hartze onena aurkitzeko orduan, jokabide hori definitzeko moduaren arabera, arazoa modu batean edo bestean erauziko dugu. Lege-hauste gisa definitzen badugu, zuzenbidea aplikatuko dugu; eta osasun publikoko arazo bat iruditzen bazaigu, esku-hartze klinikoak aplikatuko dugu. Bi ikuspegi horiek eragina izango dute arazoaren jatorri soziala zehaztean, baita pertsona bakoitzak zenbateko eragina duen arazo hori sortzean, baita zenbaterakoa den aurre-joera biologikoa eta zenbatekoa den txiki-txikitatik ikasitako jokabidea.

Aurrerago ikusiko dugun bezala, ez dago funtsezko premisarik erasotzaileen indarkeria osasun publikoaren arazo bat dela esateko; baina aldi berean, badaude adierazle objektibo eta baloratuak, sistema legegileen bidez zehaztutakoak, indarkeria arazo penaltzat jotzeko. Indarkeria jokabide bat denez, ikerketarako objektu gisa eta esku-hartze psikologiko gisa ulertzeko adierazle objektiboak ere badaude, nahiz eta azken horiek ez duten zertan klinikoak izan behar.

Frogetan oinarritutako iritzia sortzeko, indarkeriaren edozein nazioarteko eta kultura arteko definizioak izan ditzakeen baldintzagileak alde batera utzita, indarkeriaren elementu ezagun guztiak desegingo ditugu. Indarkeriaren esparruan, definizio mugaturik eta mailakaturik ez dagoenez edo behar bezala funtzionaten ez dutenez (1); edo horren dimentsionalak direnez, zehatzak izateari uzten dio-

(1) Indarkeriari buruzko interpretazio-joera batzuk erasotzaileak pertsona gaixo edo arazodun pertsona gisa ulertzeko sortzen ote diren alde batera utzita, OMEren definizioak berak ez du eraginkortasun handirik genero-indarkeriaren esparruan, <<indarra erabiltzeko mehatxuetatik>> kanpo, indarkeria psikologikoa ez baitu kontuan hartzen. Emakumea emozionalki manipulatzeko, isolatzeko, haren jokabide kontrolatzeko, baliomurritzeko, debaluatzeko eta antzeko tresna guztiak OMEren indarkeriaren definiziotik kanpo geratuko lirateke. Hala ere, egia da, OMEk indarkeria-motei buruz egindako definizioetan indarkeria “psikikoa” eta gabezia nahiz axolagabekeriak indarkeriaren jatorri gisa aurkezten dituela.

tenez, azter ditzagun indarkeriaren ezaugarri ezagunak, era horretan ondorioak atera eta ondorio horiekin esku-hartze psikologikorako proposamen arrazionala egiteko.

2.

Indarkeriaren dimentsio ugariko karakterizazioa

Usadioz, indarkeriari buruzko saiakeretan eta ikerketetan, jokabidea etiologikoki kontzeptualizatzean, bi pentsamendu-korronte nagusi daude. Doktrina-aurrekarien ondorioz, kronologia horretan lehen korrontea innatismoa da, gehienetan Konrado Lorenz (1966) etologoaren eta Anthony Storren (1968, 1991) saiakeretan oinarritutakoa. Korronte hori Sigmund Freuden psikoanalisi-usteetan, eta Charles Darwinen eboluzioaren interpretazio interesatuan dago oinarrituta. Beste eskola bat, interakzionista gisa sailkatu daitekeena, Yale Unibertsitateko John Dollard psikologoaren taldeak egindako ikerketekin (1939) hasi zen. Leonard Berkowitz estatubatuar psikologoak ikerketa horiek berrinterpretatu zituen (1963) eta Erich Frommek psikoanalisi-moduan adierazi zituen (1973). Ashley Montagn britainiar psikiatrak (1976) ere ikerketa horiek ere psikoanalisian aplikatu zituen, eta Albert Bandurak (1976), berriz, psikologia esparruan, ikasitako jokabide gisa azaldu zituen.

Innatismoak, funtsean, agresibitatearen eredu hidrauliko bat proposatzen zuen. Freudiar thanatosen arabera, agresibitatea aurreprogramatutakoa eta norberaren kalterakoa zen, subjektuak bere buruari zuzendutako heriotza-instintua kanporantz proiektatuko bailuke. Hasieran Lorenzek, eta aurrerago Storrek, senezko agresibitateaz aurkeztu zuten, pertsona bakoitzaren barnean hidraulikoki pilatzen doana, eta tentsio gehiegi pilatzen denean, askatu egin behar zena. Proposamen horren arabera, gizaki guztiak, oldarkor edo oldarkorrak dira jato-

riz, eta eguneroko bizitzan jokabide oldarkorrik ez badute, sozialazioan adierazten dute, ikasitako jokabide zehatz batzuen bitartez. Jokabide horien bitartez elkarbizitza, pertsonarteko harremanak sustatzen dira, eta hautazko jokabide-sekuentzien bitartez kontrolatu eta bideratzen dituzte, eta era horretan, senezko agresibitatea sublimatu egiten da. Ikuspegi horren arabera, agresibitatea ez da desagertzen, kontrolatu egiten da, eta batez ere mekanismo katartikoetan disolbatzen da.

Bestalde, ikuspegi interakzionistaren arabera, lehenik eta behin, agresibitatea subjektuek bere inguruarekin duten hartu-emanaren emaitza da. Jokabide oldarkorren adierazpenak ezaugarri biologiko batzuk dituela onartzen da, baina hala ere, indarkeriak ikasitako ereduen adierazpenak direla dio, ikasitako jokabideen emaitzak, oinarri biologiko batean adierazitakoak. Indarkeriari buruzko pentsamendu- eta ikerketa-korrante horri atxikitako lehen ereduek frustrazio-eraso pareaztertutak zuten. Dollard eta al. izan ziren gaur egun indarkeriari buruzko ideia hedatuenetakoa bat proposatu zutenak. Ideia horren arabera, helburu bat lortzeko jokabide-sekuentzia bat etetearen sortutako frustrazio-sentimenduaren ondorioa da eraso [frustration as an unexpected blockage of an anticipated goal attainment>>, Dollard et al, 1939]. Tesi horren arabera, frustrazio guztiak ez dira eraso argien bidez adierazten, erasotzaile potentzialak zigorra jasoko duela aurreikusitako duelako.

Aurrerago, Berkowitzek, neoasoziazionismo kognitiboaren teoriaren arabera (1969), aipatu zuen ez zela frustrazio-sentimendua indarkeria pizten zuena, subjektuak abertsio-estimuluak bizitzearen ondorioz jaso dituen afektu negatiboak baizik. Kognizio sozialaren ikuspegi bidez, Bandurak eta Pérez-Iniestak (1976) ikuspegi mekanizista horiek osatu zituzten, eredu bitartez ikasitako jokabideak proposatuz. Ikuspegi horren arabera, haurrek ereduak begiratuz ikasten dituzte jokabide oldarkorrak (inguruko pertsona garrantzitsuak, komunikabideak), eta jokabide oldarkor horiek haurraren lehen urtetako bizitzan gertatutako maiztasunaren arabera, jokabide horiek eragilearen ikasketa-funtzioaren arabera izango dira (hau da, subjektuak indarkeria-jokabideak gainbalio gisa ulertzen dituenean, horrelako jokabideak askoz ere gehiagotan adieraziko ditu).

Indarkeria kontzeptualizatzeko lehen ahalegin horiek guztiak ikusita, jokabide horren idiosinkrasia-ezaugarri nagusia aipatu behar dugu: ikasitako jatorri duela, ikasitako jokabidea dela. Innatismoaren eskolak, indarkeriak hein batean oinarri biologikoa duela aipatu du, eta era horretan, izaera oldarkorrak nolabaiteko senezko aurre-joera dela esaten dute. Interakzionistek, oinarri biologikoa ikasketaren esparruan kokatzen dute, baina ez dute eragin biologikoak ingurumenaren eraginean duen garrantzia ulertzeko ekuazio egokiena ematea lortzen. Azken ikuspegiak, baita Espainiako ikerlari garrantzitsuenenak ere, indarkeria nola ikasten den zehazten saiatzen dira, baina ezin izaten dute oinarri patologistatik urrundu, eta teoria batzuetan, diskurtso morala ere agertzen da.

Espainian, Enrique Echeburua indarkeriaren elementu biologiko eta ikasiak uztartzen saiatu zen, baina ez zuen esan fenomenoak nahitaez erro sozialak zituenik. Echeburuak (1994) aipatu zuen, indarkeria organismoaren egitura psiko-biologikoan oso errotuta zegoela eta espeziearen bilakaera filogenetoari lotuta zegoela. Bere hitzetan, agresibitatea organismoak kanpoko arrisku potentzialei aurre egiteko daukan sistema da. Gure ikuspuntuaren arabera, agresibitatea egokitzapen-erantzuna da, eta gizakien gauzei aurre egiteko dituzte estrategietako bat da. Bestalde, autore berak adierazten du <<indarkeriak, berriz, pertsonak eta gauzak suntsitzeko almena du, eta disfuntzio sozial handi bat sortzen du. Indarkeria erreakzio oldarkorraren mekanismo neurobiologikoetan oinarritzen da. Ideia kontzeptual hori oinarritzat hartuta, Jose Sanmartinek (2000) argi eta garbi adierazi zuen <<kulturarik gabe, ez dago indarkeriarik. Bi ideia horien artean, Gregorio Gómez-Jarabok liburu bat argitaratu zuen. Bertan, agresibitate biologikoa eta agresibitate soziala bereizteko ildoan hainbat ekarpen egin zituen, baina indarkeria jokabide oldarkorraren patologia bat dela iradoki zuen (Gómez-Jarabo, Alcázar eta Rubio 1999).

Berriz ere, indarkeriaren kontzeptu medikalizatu batekin egiten dugu topo, indarkeria elementu natural baten "patologia" gisa aurkezten da, barruan daramagun agresibitatearen patologia gisa. Baina edozein indarkeria motako erasotzaileei buruz egindako ikerketa, behaketa eta landa-lanek agerian uzten dute, gehienetan, indarkeria borondatezko jokabide aukeratua izaten dela, gehienetan helburu

bat lortzea dutela xedetzat, eta horretarako tresna beste pertsona ezereztea dela. Fenomenologia eta topografiari dagokionez, jokabide horiek ikasiak izaten dira, eta subjektuak aldez aurretik egiaztatu izan ohi du jokabide horiek eraginkorrak diren ala ez.

3.

Itxasitako indarkeria zehazteko modu ezberdinak

Indarkeria nola ikasi eta mantentzen den azaltzen duen faktore bakar eta isolaturik ez dago, baldin eta pertsona horrek neurobiologikoko burmuinaren eremu jakin batzuetan garun-zauriak ez baditu edo joera oldarkorrak dituen gaixotasun mentalik ez badu. Adierazpen hori orain aztertuko dugu. Izan ere, hasiera batean gezurtatu egiten du, jaiotzez edo zaurien ondorioz sortutako deformazioen anormaltasun neurologikoetatik kanpo, ez dagoela berez indarkeriara garamatzan senetzko faktore bakar bat.

Orain arte argitaratutako ikerketetan, ez da emakumeei eraso egiten dieten gizonetan indarkeria hori eragiten dien gene edo burmuin-mekanismorik aurkitu (indarkeriaren oinarri neurologikoak berrikusteko, ikus Niefoff 1999). Egia da, gizakien jokabide guztietan bezala, burmuinean indarkeriaren oinarri neuroanatomikoa eta funtzionala eratzen duen zirkuitu biologikoa dagoela. Izan ere, giza jokabide bakoitzak burmuin-egitura bat ala bat baino gehiago ditu. Ikusi behar dena da, burmuin-egitura horiek gure borondate edo plangintzaren arabekoak diren ala ez. Indarkeria-jokabidea duten pertsonak, horretarako borondatea eta errealitatea ondo ezagutzen dutela argi dago.

Gizabanako normal batean, indarkeriaren ibilbide neurologikoak, grosso modora (jokabidea sorrarazten dutenak kanpoko faktoreak badira) zentzumen-bideak sartzen ditu erabiltzen ditu, baita talamoa (estimulu-seinaleak jaso eta banatzeko tresna gisa) , eta amigdala-nukleoa ere (emozioak interpretatzeko= eta aurreko kortexa ere (plangintza- eta kontrol-zentroa, lan-memoria eta errealtatea ulertzeko banakako ereduaren arabeko interpretazioak egiteko tresna). Burmuinean, indarkeriak dituen ibilbide biologikoei buruz askoz ere gauza gehiago azter daitezke, baina ez ditugu hemen aztertuko, indarkeriaren burmuineko egitura gainetik azaltzea nahiko baita gutxi gorabeherako ideia bat egiteko.

Adrian Raine eta beste ikerlari batzuk, indarkeriaren korrelatu neurologikoak bilatzen saiatu dira. Eta horretarako ez dituzte gizabanako normalak aztertu, baizik eta indarkeria erabiliz, pertsonen arteko harremanak sistematikoki hausten dituzten populazio-eremuak. Rainen taldeak (2000), erreplekazio hasieran egindako azterketetan, gai gris prefrontal-gabezia aurkitu zuen psikopatiadun subjektuetan, baina aurkikuntza hori eztabaidagarria da, hasierako fasean agertu zelako. Hipofrontalitate hori hainbat eratan interpretatu daiteke, baina teoriarik behintzat, lobulu horretan informazioa prozesatzeko zama gutxitzeari lotuta dago, eta besteak beste, lobulu horrek plangintza kontrolatzeaz gain, indarkeriaren zirkuituan, amigdala-nukleoaren aktibazio primarioena orekatzen du (emozionalena, narras-tiena edo primarioa). Psikopatiei buruzko eztabaidan, ondorioztatu daiteke, psikopatek, jokabide oldarkorrak dituztenean, gutxiago pentsatzen dutela biktimengan, eta ondorioz, irrika oldarkorrak hobeto aska ditzaketela. Hala ere, argumentu horrek ez du zentzu handirik, psikopaten azpitalde handi batek, indarkeria-jokabideak hein handi batean planifikatuta egiten baititute, eta beraz, horretarako, prozesamendu frontal-maila gutxi gorabehera normala behar da. Bestalde, hipofuntzio frontalaren iturburua psikopatek besteen lekuan jartzeko duten zailtasuna izan daiteke, baina ez ikuspuntu enpatiko eta emozionalean (hori ere egiten baitute), baizik eta biktimek pentsatzen dutena ulertzeko gai ez

direlako, edo biktimek identitate bereizi eta errespetagarria dutela ikusten ez dute-lako. Mentalki bestearen lekuan jartzeko gaitasun horri adimenaren teoria (Baron-Cohen, 1997) esaten zaio. Edonola ere, inork ez du lortu gai gris-gabeziaren (%12 ingurukoa) eta indarkeriaren arteko lotura zuzen bat zehazten.

Era horretan, Raine et alen aurkikuntzak esperantzarriak izan arren, oraingo psikopatiaren teorizazio zailaren esparruan argi-printza bat besterik ez dira. Emakumeen erasotzaileei dagokienez, soilik aipagarria izango litzateke populazio normalean nahaste hori duten psikopata-kopurua baino %2-3 gehiago egotea erasotzaileen artean, orain arte kopuru hori enpirikoki adieraztea lortu ez den arren (adibidez, Echeburua eta Fernández-Montalvok, 1998). Genero-indarkerian espezializatuta egon ez arren, psikopatietan espezializatutako ikertzaile batzuen arabera, besteak beste Robert Haren (2000) arabera, bere herrialdean, AEBtan, emakumeen erasotzaileen artean, psikopatia-nahasteak dituztenak multzo osoaren %25 osatzera iritsi daitezke. Inolako oinarri enpirikorik gabeko iritzi huts bat dela kontuan hartu behar dugu, nahiz eta egilea psikopatiaren ikerketa-munduko aditu ospetsua izan. Hala ere, hori guztia kontuan hartu arren, Hareren adierazpenak kritikarik egin gabe onartuko bagenu, ondorioztatuko genuke emakumeen erasotzaileen %75 ez direla psikopatak. Agian, berehala beste aditu bat aurkituko genuke, gainontzeko %75eko portzentaje batek beste nahaste-mota bat duela baieztatzeko, eta horrela hurrenez hurrez, emakumeen erasotzaileetako bat ere psikologikoki osasuntsu ez dagoela ondorioztatu arte. Era horretan, berriz ere, gizarteak gaixo gisa tratatzeko duen premia ia saihestezina agerian geratzen da. Izan ere, karanbola horrekin ere ez genuke irtenbiderik aurkituko. Izan ere, Harek modu apatatsuan inprobisatutako kopuru berezi hori bikoiztu arren, ezingo litzateke ezetsi emakumeen erasotzaileek beren asmoak gauzatzeko eredia eta jokabide-profilak ikasi egiten dituztela, baita horretarako asmoa eta planifikazioa dutela ere.

AEBtan eta Espainian, nahiz gure usadio legalen antzeko edo leislazio anglosaxoien antzeko jurisdikzioetan ere, ez da onartzen psikopatia bat delituak egiten dituzten subjektuen erantzukizun kriminala alda dezakeen baldintza bat izan dai-

tekeenik; hau da, jurisdikzio horien arabera, nahaste horrek ez ditu aldatzen subjektuak dituen nahimenezko eta ezagutzazko gaitasunak. Beste hitzetan, emakumeen erasotzaileen artean psikopata gisa diagnostikatutako subjektu-kopuru txikiaren artean ere, ondorioztatzen da psikopatak modu oldarkorrean portatzen direla hala nahi dutelako, eta helburua beren borondatepean emakumeak menderatzea eta kontrolpean edukitzea dela. Edonola ere, emakumeen erasotzaile gehienek psikopatia izatea asmo bat izan beharrean, adierazpen horrek oinarri empiriko bat balu, asko erraztuko lirateke eraso-egoeren arriskuen ebaluaketak. Izan ere, psikopatia, hain zuzen ere Hareren tresnaren bidez neurtua (Psychopathy Checklist, PCL-20), indarkeria aurreikusteko faktore estatiko ziurrenetakotzat jotzen da (Harris et al., 1991; Rice eta Harris, 1992; Hare eta Hart, 1993; Quinsey et al., 1995). Zoritzarrez, ikerketa empirikoek eta landa-azterketek ere ezin izan dute aukera ideal hori frogatu.

Datuen arabera, badirudi garuneko lesio jakin batzuen ondorioz, psikopatia duten pertsonen inguruarekiko jokabide oldarkorrak izateko aukerak handitu egiten direla. Lesio horien ondorioz, oldarkortasuna handituko litzateke. Beraz, logikoki, lesio horiek oldarkortasuna eta ondorioz indarkeria biltzen dituzten korrelatu neurologikoen oinarriko eremuetan daude kokatuta. Beraz, lesio prefrontalen ondorioz, jokabide oldarkorrak eta haustek areagotzen dira (Damasio, 1996); eta amigdala-nukleoko hiperaktibotasunak ere indarkeria-jokabideak areagotzen ditu, batez ere aldi berean kortex orbitofrontaleko jarduera gutxitzen bada. Lesio horiek populazio orokorraren %1ari baino ez dio eragiten, eta emakumeen erasotzaileen artean, zifra antzekoa da.

Beste elementu askok, hormonien eta neurotransmisoreen esparru biologikoetan kokatutakoek, indarkeriarekin zerikusia dutela zehaztu da. Indarkeriari gehien lotutako neurotransmisorea 5- hidroxitriptamina edo serotonina izeneko da. Ildo horretan, esan daiteke aurkikuntza handia izan dela jokabide oldarkorraren eta serotonina-maila apalagoaren arteko lotura zehaztea. Hain zuzen ere, hori da serotoninari buruz dakigun gauza bakarra, indarkeriarengan ondorio negatiboak sortzen dituela, baina ezer gehiago ez. Izan ere, ez dakigu serotonina jokabide

sistematiko zehatz baten jatorria edo ondorio biokimikoa den, eta inola ere ez du azaltzen, indarkeria-profil iraunkor bateko jokabidearen norabidea denik. Serotonina-maila apala, buru-hiltzaileetan, lapur bortitzetan eta beste pertsona bortitzetan ere aurkitu da; baita depresioa duten pertsonetan ere. Beraz, serotoninaren bidez azal daiteke indarkeriaren biktima gehienek ezaugarri erreaktibo antsiatsu-depresiboa izatea. Serotoninak, berez, ez du emakumeen aurkako indarkeria matxista azaltzen.

Beste elementu neurokimiko maskulinoago batek, testosteronak, ere ez digu emakumeen aurkako indarkeria matxista justifikatzeko oinarri biologikoa ematen. Testosterona eta indarkeria lotzen dituzten ikerketak ez dira erabakigarriak. Gehienez, ikerketa horiek ikerketa-ildo berri bat proposatu dute, testosterona-maila handiagoa eta estatus sozial nagusiagoaren arteko lotura proposatzen duena, ez hormonaren eta indarkeriaren arteko lotura (Niehoff, 1999). Baina hori kontuan hartuta, ezin dugu ahaztu, nagusitasun soziala lortzeko tresna garrantzitsu bat dela indarkeria eta beraz, lotura horretan, testosterona bitarteko hormonal prestatu bat besterik ez dela.

3.2

ERASOTZAILEK EZ DUTE GAIXOTASUN MENTALIK

Biologiak, aipatutako baldintzetan ezik, indarkerian zerikusirik ez duela kontuan hartuz, jarraian, gizon bat emakumeekiko jokabide oldarkorrek izatera bultzatu dezakeen beste faktore bati buruzko eztabaida bat aztertuko dugu. Eztabaida horretan, gehien aipatzen den elementua nahaste mentalak dira.

Nahaste mentalen esparrua oso zabala da, eta bertan, depresioa eta antsietatea kokatzen dira; baita drogak eta bestelako substantziak kontsumitzeagatik sortutako nahasteak, eta kalean zoramen izenez ezagutzen diren nahasteak; hau da, nahaste eskizofrenikoak eta eldarnio-nahasteak besteak beste. Horrez gain, nor-

tasunaren nahasteak ere esparru horretan sartzen dira, nahiz eta, indarrean dagoen filosofia psikopatologikoarean arabera, klinikoki tratatu arren, nahaste horiek eritasun mentaltzat jotzen ez (2) diren arren.

Ez da beharrezkoa denbora gehiegi igarotzea “buru-nahasteen” eta indarkeriaren arteko lotura zuzena, esaterako antsietateak eta depresioak indarkeriarekin duten zerikusia ezesten. Indarkeriaren biktimek jasaten dituzten eragin eta ondorioetan, antsietate eta/edo depresio-egoerak nahiko diagnostiko ohikoak izaten dira; eta kasu horietan, indarkeria jasan izanaren eta bi diagnostiko horien sintomak garatzearen artean, lotura zuzena dago. Hala ere, erasotzaileak aztertzean, lotura hori ez da agertzen. Orain arte, ez da depresioa eta/edo antsietatea erasoko aldagai independente gisa eta erasoa gauzatzea menpeko elementu gisa uztartzen dituen ikerketa bakar bat ere argitaratu. Antsietate-depresio egoeretako sintoma batzuk etsaigoa areagotzean agertu daitezke, baina bat egoerez gaineko areagotze bat izango litzateke, ez pertsona edo sexu jakin bati lotutakoak. Hau da, depresioak edo antsietateak ez dute emakume jakin batean indarkeria ardatzarazten. Emakumeen erasotzaileei buruzko ikerketen arabera, populazioaren batezbestekoa baino depresio- eta antsietate-maila handiagoak daude (esaterako, Fernández-Montalvo eta Echeburúa, 1997), baina ikerketa horiek ezin izan dute nahaste horien eta indarkeriaren arteko lotura zehaztu. Ezin da harreman hori zehaztu, literatura zientifikoan eskura dauden datuen arabera, bai ikerketan bi nahaste horiek aztertu arren edo indarkeria bera elementu gisa aztertuz, ez bai-

(2) Usadiozko ortodoxia psiko-patologikoaren barne, DSMko I. ardatzean sailkatutako buru-gaixotasunak daude. II. ardatzeko nahasteak, berriz, nortasun-nahasteak dira, ez dira “horren buru-gaixotasuna”. Hala ere, buru-gaixotasuna terminoaren interpretazioen barne, nortasun-nahasteak eta indarkeria ala antzeko jokabide okerrak ere sartzen dira. Horren froga garbia da, gero eta unitate kliniko espezializatu gehiago daudela nortasun-nahasteetarako, eta bio-psikologikoki beste edozein buru-gaixotasun gisa tratatzen direla.

tago bi elementu horien arteko lotura erabakigarriak. Agian aurkakoa lehenago gertatu daiteke. Izan ere, antsietateari eta depresioari buruzko ikerketen arabera, populazioan nahaste horiek gehien jasaten dituztenak emakumeak dira. Beraz, indarkeriaren jatorria depresioa edo antsietatea izango balitz, emakumeak gizonek baino oldarkorragoak izango lirateke. Autore batzuen arabera (Tolman eta Bennett, 1990), emakumeen erasotzaileek, ikerketa gehienetan esku-hartze psikologikoa edo zigor legala betetzen dutenek, jasaten dituzten antsietate-nahasteak edo gogo-aldarteak beren egoeraren ondorioz sortutako erreakzioak dira; hau da, indarkeria erabili ondoren, beren egoerari aurre egitearen ondorioak besterik ez dira.

Azkenik, garunaren eta adimenaren patologien kapituluan, nahaste jakin batzuk daude. Nahaste horiek, lesio jakinekin batera, subjektuaren jokabidea nabarmen baldintzatu dezakete, borondate- edo kontzientzia-gaitasunen gainetik. Nosologiak aztertu gabe, nahikoa da azaltzea buru-eritasun horiek usadioz psikosi izenez ezagutzen diren gaixotasunen artean; hau da, subjektuak errealitate-arekiko duten kontaktua kolokan jartzen duten buru-gaixotasunen artean kokatzen direla. Esparru horretan, eskizofrenia-nahasteak, paranoiak eta eldarnio-nahasteak daude; horrez gain, ikuspegi kontzeptualaren arabera, nahaste maniako-depresiboaren aldaera larrienetako batzuk ere esparru horretan kokatzen dira. Beste esparru-mota batean, bulkadak kontrolatzeko arazoek nahasteak daude. Nahaste-mota horietan, teoriarik eta oso modu orokorrean (gero kasu zehatz bakoitza aztertu beharko litzateke) sintoma hauek dira nagusi: errealitatea ulertzeko gaitasuna gutxitzea, eta subjektuak errealitatea ulertzeko moduaren arabera dituen jokabideak aldatzea. Bulkadak kontrolatzeko ezintasunaren nahastean, berriz, *a priori*, borondatearen gaitasunean eragiten du gaixotasunak.

Psikopatologia horietako bat duen gizabanako batek jokabide oldarkorak izango balitu, errealitatea ulertzeko modua eta indarkeria zein heinetaraino lotuta dauden aztertu beharko litzateke, baita gaixotasunak errealitatea ulertu eta jokabide kontrolatzean zenbateko eragina duen ere. Ebaluaketa hori egitea ezinbestekoa da. Izan ere, aipatutako gaitasunetan eragina duela teorizatu arren, ez

dago argi paranoia, eldarnio eta mania baten ondorioz indarkeria sortzen denik (3), eta indarkeriaren barne, emakume jakin bat erasotzea sustatzen duenik. Horren ordez, indarkeria horrelako nahasteek sortutakoa ote den aztertu ordez, nahaste horiek jasaten dituzten pertsonen zenbateko indarkeria erabiltzen duten aztertuko bagenu, emaitza hori ere zalantzarik izango litzateke. Izan ere, datuen arabera, eskizofrenia-nahastea duen populazioan, jokabide oldarkorrek %12 eta %20 arteko proportzioa osatzen dute (Niehoff, 1999). Badirudi, indarkeria-jokabideak dituzte gaixo psikotikoen kasuan, erasoak diagnostikoari lotutako sintometara zuzenean lotuta daudela, batez ere haluzinazio-, eldarnio- eta jazarpen-sentsazioei (Taylor, 1985; Juginger, 1996; Wessely, 1997; Juginger, Parks-Levy eta McGuire, 1998). Gainera, sintoma psikotiko zehatz batzuek, eldarnio- edo jazarpen-sentsazio bat izateak, subjektuak indarkeria-jokabideak gartzeko aukera handitzen dute. Baina ikerketen emaitzen arabera, orokorrean, nahaste psikotiko bat izatea ez da erabakigarria jokabide oldarkorrek izateko orduan, baina indarkeria-jokabideak dituzten gaixoei, subjektuaren bizia kontrolatzen duten nahaste guztietan bezala, jokabide hori gaixotasunean errotuta izaten dute. Hala eta guztiz ere, genero-indarkeriari dagokionez, borondate- eta kontzientzia-gaitasuna kolokan jartzen dituzte nahastei buruzko argudiatzea askoz ere egokiagoa izango litzateke, diagnosi-mota horiek emakumeen erasotzaileen artean duten prebalentzia-tasa handiagoa zehaztuko balitz. Ez da hala, nahaste horiek emakumeen erasotzaileen artean duten prebalentzia-tasa populazio orokorrekoa bezalakoa baita. (Swanson, Holtzer, Ganju eta Jono, 1990).

(3) Erkidego zientifikoan, nahaste psikotikoen eta indarkeriaren arteko harremana eztabaida etengabea da, eta ikerketa ugari egin dira norabide batean eta bestean. Oraingoan, berrikuspen eta metanalisien arabera, badirudi ez dagoela bi elementu horien arteko harremanik. Ildo horretan egindako analisi interesgarri bat *Mental Illness and Violence: proof or stereotype?* izenekoa da, J. Arboleda, H.L. Holley eta A. Crisantik 1996. urtean Kanadako Osasun Publikoaren Agentziarako egindakoa.

Bestalde, bulkadak kontrolatzeko nahasteek eta arazo horrek emakumeen erasotzaileen jokabidean izan dezaketen eraginaren arteko loturari buruz, eztabaida handia dago. Erasotzaileekin egindako ikerketa gehienetan, ikertutako subjektuaren erdiak, gutxienez, bulkadak kontrolatzeko gaitasun-gabezia duela zehazten da. Aurkikuntza horiek ez dira psikopatologiak zehazteko (4) diagnostiko-irizpideen arabera, kontrola galdutako jokabideen ereduaren arabera baizik. Erasotzaileekin egindako ikerketa gehienetan, ez da bulkadak kontrolatzeko gaitasunaren nahasteari buruzko diagnostiko bakar baten arabera sintoma-segidarik zehazten. Izan ere, kasu horietan, ikertutako subjektuek bulkadak kontrolatzeko arazoak dituztela zehazten da. Kasu horretan ere, subjektu gehienak zigortutako erasotzaileak, espetxeratuak eta era asmatuak esku-hartze psikologiko edo klinikopean daudenak dira. Ez dira bulkadak kontrolatzeko nahaste zehaztugabea duten gaixotzat jotzen ere. Historia psikopatologiko batzuetan, aldizkako nahaste lehergarriak ageri dira, nahaste horrek erasotzaileen artean duen prebalentzia-tasa estatistikoki zehaztu ez den arren. Gehienetan, erasotzaileek indarkeria hori ez dute garuneko lesio baten ondorioz, buru-nahasteen ondorioz edo substantzia bat gehiegi kontsumitzeagatik erabiltzen ez dutela zehaztu ondoren, diagnostiko hori ematen zaie. Diagnostiko-etiketa horren azpian, indarkeria behin eta berriz erabiltzen duten erasotzaileak daude, eta aldizkako "leherketak" dituzte. Beraz, era horretan, diagnostikoa ez dago indarkeriaren presentzia hutsean oinarrituta. Hau da, berriz ere, indarkeria jokabidetzat jotzen denez, nahaste gisa ulertzen da.

(4) Psikopatologiak sailkatzeko sistemetan, bulkadak kontrolatzeko nahasteetan, izenak berak dioen bezala, gizabanakoak beren borondatea psikologikoa galdu egiten duela esaten da; eta gehienetan, gabezia horretan oinarritutako diagnostikoen arabera sailkatzen dira, esaterako, nahaste obsesibo-kompulsiboetan. DSM edo CIEko azpisailetan sailkatu ezin diren gaixotasunentzat, bulkadak kontrolatzeko nahaste zehaztugabeak biltzen dituzten epigrafeak sortu dira, eta bertan, besteak beste, piromania, trikoloromania, kleptomaniak eta ludopatia biltzen dira. DSMan berriz, aldizkako leherketa-nahastearena.

Aldizkako nahaste lehegarriak duen baliozkotasuna zalantzarria izaten da, gehienetan gaizkile bat "gaixo bihurtzeko" baliabide mediko edo psikologikoa izaten baita. Horrez gain, ikertutako erasotzaileek bulkadak kontrolatzeko dituzten nahastei buruzko ikerketetan, indarkeria aztertzen da soilik. Eta indarkeriaren barne, emakume jakin baten aurka erabilitako indarkeria. Izan ere, askotan, subjektuak berak diagnostikatzen du bere "gaixotasuna", indarkeria kontrolatu ezin dituen bulkaden ondorioz gauzatu eta erabiltzen duela adierazten baitu, eta bulkada horien ondorioz, eraso egiten duela, hori bai, emakume bakar bati eta, gehienetan, haren seme-alabei ere bai. Adierazpen horretan eta jokabidearen sekuentziaren azalpenean oinarrituta; askotan beste edozein adierazlerik kontuan hartu gabe, erasotzaileak bulkada oldarkorrek kontrolatzeko gaitasunik ez duela zehazten da.

Prozesu psikologikoen ikuspuntutik begiratuta, funtzionalki erabat eztabaidagarria da ustezko bulkada horiek kontrolatzeko gaitasun-ezak eraso horiek sorraraztea, eta ez subjektu batek (askotan korrelatu biologiko zehatzen laguntzarekin), dituen jokabide-aukeren artean egosintonikoki errotutako eta behin eta berriz errepikatutako jokabidea potentziazteagatik. Orain arte jokabideen mekanismoei buruz dakigunarekin, koherenteena da pentsatzea, beste pertsona bat menderatzeko tresna gisa erabiltzen dela indarkeria, eta beste pertsona menderatzeko asmoa pertsonen artean ideia edo eredu bat nola inposatu behar denari buruzko ideia mentalaren araberakoa dela. Hori guztia kontuan hartuta, erasotzaileak, erasoak heinean-heinean automatizatzen ditu, egoera zehatzetan lehertzen direnak. Hori da gehienetan "bulkada" izenez ezagutzen dena, epe luzean elkarren artean lotutako sustatze-multzo bat besterik ez da (Hebb, 1949), korrelatu neuronalak duen mekanismoa, eta mekanismo horren bidez, garuneko ibilbideetan arrastoak gortetzen dira. Ekintza edo jokabide bat gehiago pizten den heinean, arrasto hori sakonagoa izango da. Erasotzaile sistematikoek eredu mental zehatz bat garatzen dute, era horretan erabiltzen duten indarkeriari esanahia, zentzua eta zilegitasuna emateko (Montero, 2003). Eredu horretan, indarkeriaren aldeko argudioetan oinarritutako kode semantiko ugari lotzen dituzten neurona-sareak ageri dira, baita gorputz- eta emozio-egoera jakin batzuekiko loturak ere. Egoera emo-

zionalak nolabait etiketatuta daude, bai jokabideari zentzua emateko baita indarkeriaren zilegitasuna sorrarazteko ere. Prozesu horren ondorioz, gure ustez oker dauden arren, autore batzuek ondorioztatu dute, emozio batek (esaterako haserreak) pizten duela emakumearen aurkako indarkeriaren protokoloa. Baina, bene-tan, badirudi, protokolo hori pizteko, egoera jakin baten interpretazio zehatz bat egiten dela (beraz, buru-osaketa bat), eta interpretazio hori errealitatea ulertzeko moduan oinarritzen dela (emakumeak modu zehatz batean jokatu behar du). Horrek guztiak emozio bat sortzen du (eredu mental indartua eta zama emozionalduna), eta ondorioz subjektuaren jokabide-errepertorioko jokabide bat pizten da. Jokabide horrek subjektuaren asmoa betetzen duen heinean, jokabidea indartzeaz gain, joera horrekiko loturak ere indartu eta handitu egiten dira, eta jokabidea errepikatzen doan heinean, elementu guztiak gehiago indartzen dira. Haserreak, berez, ez du jokabide hori pizten, emozioak garrantzia duen aktibazio-programaren eredu mentala baizik.

Era horretan, subjektuak jokabide-sekuentzia bat jarraitzen du, eredu mentalaren araberakoa. Eredu hori ekintza-algoritmoa da subjektuarentzat, eta behin eta berriz aplikatzen duenez, azkenean automatizatu egiten da. Beraz, subjektuak, sekuentzia erabat kontrolatzen du, eta gainera, sekuentzia horren osaketaren arduradun bakarra da. Beste arazo bat da, (Hebb) indartutako ekintza-algoritmo horiek jokabideen bidez (Skinner) eta neurofisiologikoki geldiarazteko, kontrol kontzientea aplikatzeko ahaleginak egin behar direla (eta beraz, subjektuak, lehenik eta behin indarkeria-jokabideekiko hautabide bat bilatzea beharrezkoa dela ulertu beharko du, eta gero, behin eta berriz hautabide hori gauzatzeko motibatuta egon behar du), eta are gehiago jokabide-eredu horiek ahazteko, eta eske-ma alternatiboak aplikatzeko. Beraz, kontrolik ez izatea, emakume bat menderatzeko harremanari buruz subjektuak duen eredu mentalari mesede egiten dioten jokabide-algoritmoa aktibatzea besterik ez da.

Azkenik, nortasunaren nahasteak daude. Kalkulu zabalenetako batean, Sanmartinek (2000) aipatzen du, emakumeen erasotzaileen %10 eta %20 artean, nortasun-nahastearen esparruko diagnostikoak dituztela. Lehenik eta behin, aipatu behar da, nortasun-nahasteak, berez ez dituela subjektuak bere jokabideak

ezagutu eta kontrolatzeko gaitasunak kolokan jartzen. Bigarren, kontuan hartu behar da, nortasuna hainbat ezaugarri osatzen dutela, eta emakumeen erasotzaileen ebaluaketa gehienetan, subjektua sailkatzeko, diagnostikorako ezaugarri kopuru aldakor baina partziala erabiltzen dela, eta ez esparru diagnostiko bateko ezaugarri guztiak. Nortasuna ezaugarri osatuta dago, eta ezaugarri horiek denbora eta egoera askotarako balio duten jokabide-joerak dira, batez ere pertsonak 30 urte betetzen dituenetik aurrera, momentu horretan esan baitaiteke pertsona baten nortasuna behar bezala eratuta dagoela. Nortasun-nahaste bat ere ez da indarkeria sortzeko arrazoi zuzen eta isolatua. Nahaste horietako batzuk arrisku-faktoreak izan daitezkeen arren, horiek bakarrik ez dute indarkeria sorrazten, jokabide hori hainbat elementuk zehazten baitute.

Sanmartinek egindako kalkulu lasaira joz, gure tesiaren aurkako argumentu nagusia izango litzateke normaltasun estatistikoaren barne, emakumeen erasotzaileen %80ak, ez duela inolako nortasun-nahasterik. Gainontzekoen artean, emakumeen erasotzaileek artean, ohiko nahasteak nortasunaren nahaste antisozialak dira. DSM sailkapenaren barne, politikoki zeharka gehien ebakitako diagnostiko-mota izateaz gain (5) (APA, 2005), kontzeptualizazio borobilenetakoa duen diagnostikoa da. Diagnostikorako irizpide gehienak jokabide oldarkorrari eta jarrera

(5) Askok uste dugu, gehienetan, TAP ez dela maila egokia, zientifikoki ere nahiko ahula dela, eta haren baliozkotasun eraikitzailea ere oso eztabaidagarria dela. Hasteko, psikopatologiak sailkatzeko bi diagnostiko-sistema nagusietan, APAren DSMn eta OMEren CIEn, ez da psikopatia ageri, beraz, gaixotasun horiek izateko hautagaiak TAParen barne daude. Trauma-ondoko estres-nahaste-arekin gertatu zen bezala (askoz ere fenomeno erabilgarriagoa eta funtzionalagoa da, baina saskinaskitzaletzat jotzen zen), AEBtako gerra-beteranoen artean diagnostikoak egiteko "presioen" ondorioz definitu baitzen, TAP ere erasotzailearen indarkeria medikalizatzeko ahaleginaren emaitza da, eta aldi berean, biktimak osasun publikoko subjektutzat jotzeko modua da. Modu horretan, gaizkile gehienak ez lirateke horren gaizkile izango, "gaixo" baitaude. AEBtako kriminalitate oldarkor-tasak kontuan hartuta, arazo sozial garrantzitsua da.

oldarkorraren adierazpenari lotuta daude. Ondorioz, pertsona oldarkor gehienak eta arauak hausten dituztenak, maila horretan sailkatu daitezke. Era horretan, etengabeko erasotzailea izateak eta ezaugarri jakin batzuk betetzeak (substantzia bat gehiegi kontsumitzea, gazte-gaztetatik adierazpen oldarkorrak izatea) eta nortasun antisoziala izatea oso antzekoak dira. Eta antzekoak direnez, berriz ere argumentu bera aurkituko dugu: hau da, indarkeria (erabiltzea) osasun publiko gaia dela, gaixo baten jokabide dela, eta ez pertsona batek borondate osoz, beste pertsona bat menderatzeko abian jarri eta mantendutako jokabide bat. Zorionez, oraingoz, ez da aipatutako arrazoen arabera kasurik jaso; hau da, nortasunaren nahaste antisozialaren ondorioz, ez da epaitu baten erantzukizun kriminala aldatu, bere jokabidea ez baita nahaste baten ondoriozko oldarkortasun gisa ulertzen.

3.3

ALKOHOLA

Autore askok diote emakumeen erasotzaileen artean, alkoholaren kontsumoa ez dela mito bat. Alde batetik, hainbat adierazpenetan, erasotzaile matxista gehienek alkoholik edaten ez dutela frogatzen saiatzen dira. Batzuen eta besteen iritzia eztabaidagarriak dira, baina alkoholaren efektuei buruz argudiatzean, beldur pixka bat sortzen da. Emakumeekiko indarkeriaren esparruko hausnarketei dagokionez, emakumeen erasotzaileen jokabidean alkoholak duen presentziari buruz, bi jarrera edo iritzi intelektual dira nagusi, biak inpostazio zientifiko itxurakoak: alde batetik, alkoholak erasotzaileen jokabidean eragin zuzena duela esaten da, eta erasotzaileen borondatea zehaztu eta baldintzatzen duela; eta bestetik, alkoholak ez duela eraginik, edo gutxienez, alkoholaren eraginak ez duela indarkeriarekin zerikusirik. Hala ere, interpretazio gutxik auskultatzen dute behar bezala zein heineraino barneratzen dituzten erasotzaileek alkoholaren ondorio psiko-fisiologikoak gisa, eta ondorio horiek, elementu neurotoxiko gisa, jokabidean zein eragin dituzten.

Alkoholaren presentziari dagokionez, ikerketa-nitxoetan oinarritutako zifra estatistikoen arabera (hau da, ikertu daitezkeen erasotzaileak), datu gehienak bat

datoz, emakumeen erasotzaileen %50ak alkohola kontsumitzen duela adierazten baitute (esaterako Fals- Stewart y Kennedy, 2005; Fals-Stewart, Leonard eta Birchler, 2005). Ikerketa guztiek, estatistika-koerlazioan oinarrituta, eta ez kausalitatean, argi eta garbi adierazten dute hori. Modu horretan, badakigu ikertutako erasotzaile-kopuruaren erdiak alkohola kontsumitu eta indarkeria erabiltzen duela. Baina ikerketek ez diote ezer alkoholak eta indarkeriaren arteko kausa-ondorio harremanari buruz, edota indarkeria eta alkoholaren artekoari buruz (izan ere, alkoholak indarkerian duen ondorioa aztertzen da beti, baina... kausalitatea ezin al da alderantzizkoa izan?). Parekotasunak bilatzen hasi garela, indarkeriaren eta beste edozein baldintzaren artean, esaterako, gizona izatearen artean ere parekotasunak egon daitezke. Ikerketa batzuek frogatu dute, erasotzaileen artean, gizon eta indarkeriaren arteko parekotasuna 1ekoa dela; hau da, indarkeria erabiltzen duten gizon erasotzaileen proportzioa %100ekoa dela. Parekotasuna horrenbestekoa izanik, oraingoz oso gutxi ausartu dira esaten agian gizona izatea dela indarkeria erabiltzen duen funtsezko baldintza.

Zehaztasun horiek egin ondoren, argi dago, alkoholak, elementu neurotoxikoa izanik, eragin kimikoa duela giza jokabidean, eta besteak beste, indarkerian ere eragina duela. Lehenik eta behin, kontuan hartu behar da, estatistikoki, alkoholak emakumeen erasotzaileak eta kriminalitate oldarkorra edo jokabide antisozialak maila berean parekatzen dituela (Stabenau, 1984; Abram, 1989; Aluja, 1991; Hudziak et al, 1996; Otero, 1997). Alkohola ez dute emakumeak erasotzen dituen gaizkileek bakarrik kontsumitzen, nahiko jokabide-eredu ohikoa da indarkeria-delitu orokorretan. Beraz, esaterako inkesta soziologikoetan, alkohol-kontsumoa kausalki emakumeen erasoekin uztartzen saiatzen dira, ez da kontuan hartzen alkohola gaizkile oldarkorren jokabide orokorretan ere ageri dela. Ondorioz, berriz ere, erasotzaileak "kontrola galdu" duela justifikatzeko argudio bila ari gara; hau da, erasotzailea alkoholismoaren biktima dela pentsatzen ari gara.

Erasotzaile eta mota guztietako gaizkileen artean ageri den neurrizko alkohol-kontsumoari dagokionez, indarkeria eta intoxikazio etilikoaren artean nolabaiteko harremana egon daitekeela esan daiteke. Hala ere, harreman hori ikerketa-bi-

txikeria edo bitxikeria zientifiko bat izan beharko litzateke, eta inolako aurreiritzi edo aurretiko eredu azientifikorik gabe jorratu behar da. Izan ere, gehienetan horrelako ereduaren arabera ikertzen da fenomenoak; hau da, alkoholak indarkerian eragin kausala duela zehazten da, eta agian, kontrako zentzuan sortzen dira ondorioak. Izan ere, indarkeriari buruz dakiguna kontuan hartuz, ondorioztatu daiteke, jokabide oldarkorrak eredu mental egonkorrek sortutakoak direnean, indarkeriak alkohol-kontsumoa bultzatu dezakeela, jokabidearen gidoian alkohola indarkeria errazteko tresna gisa ikusten baita.

Beraz, alkohola eta indarkeriaren artean lotura bat dago, baina kausalitatea ez da behar bezala frogatu (gaia ezin hobe aztertzen du Galanter, 1997). Datu horien arabera, alkoholak indarkeria sortu dezake, edo ez. Gizabanako batzuek alkohol gehiegi edan eta jokabide oldarkorrak dituzte; baina beste batzuek ez. Alkoholaren eta indarkeriaren arteko harremana iragartzeko orduan, elementu erabakigarriena, aldeztu aurretik sortu eta ageri den indarkeria da. Beraz, teorian behintzat, erasoen eta alkoholaren arteko harremanean, errazagoa da ikustea harreman hori ez dela orokorki uste dena, baizik eta alkohola indarkeriaren mende dagoen tresna bat dela.

Emakumeen erasotzaile gehienek, indarkeria errazteko tresna gisa erabiltzen dute alkohola. Tresna gisa erabiltzeko orduan, bi faktore dira nagusi, biak etanolak substantzia psikoaktibo gisa dituen ezaugarriei lotutakoak. Lehen ezaugarria da etanola kortex frontalen kontrol-funtzioa desinhibitzen duela; eta bigarrena, etanolak eragin antsiolitikoa duela eta distressa gutxitzen duela. Alkoholak kortexaren jardura desinhibitzean duen eragina; hau da, alkoholak lobulu frontalean duen eragin toxikoa, behar bezala dokumentatuta dago (Moselhy, Georgiou eta Kahn, 2001), eta emaitzen arabera, alkoholarekin jardura frontala gutxitu egiten da. Zoritxarrez, gaur egun, kortex frontaleko jarduerari bereziki lotutako prozesu psikologikoen lotura neurologikoak topografikoki lokalizatu eta adierazteko gaitasuna ez da etorkizunean izango dena bezain zehatza. Egoera horretan, alkohol gehiegi kontsumitzean, lobulu frontalean glukosa-kontsumoa eta odol-jarioa gutxitu egiten da. Fenomeno horiek prozesu psikologikoetan izan ditzaketen elkarrekikotasunei buruz hainbat hipotesi daude, eta esparru zabal horretan,

indarkeriari zehazki dagozkionak aztertu behar dira. Argumentu onargarri bat hau izango litzateke: erasoaren eredu psiko-fisiologikoa sortu ondoren (jokabide-sekuentzia agertu baino lehen ere), jarduera frontal txikiagoa izatearen ondorioz, kortex motorra amigdalarekin lotzen duten ibilibideak nagusitu daitezke, hain zuzen ere, subjektuaren gidoi irmotuak epe luzean indartzeagatik aurrez aktibatuta dauden ibilibideak. Ondorioz, subjektuaren jokabide-errepertorioaren barne dauden portaerak, eta ondorioz, aurre-programazio mentala dutenak, alkoholari esker, errazago automatizatu eta protokolizatuak lirateke. Hipotesi hori baieztatuta geratuko litzateke, beste baldintza edo prozesuen ondorioz jarduera frontal txikiagoa duten subjektuetan, indarkeria-jokabide sistematikoetan amigdala-nukleoa nagusitzen dela frogatuta geratu baita.

Jokabidearen kontrol frontala ezaugarri funtzionalak zehaztea oso zaila da, eta eredu psikologiko bakoitzeko korrelatu neurologikoak, noski, ez ditugu xehe-tasun osoz ezagutzen. Baina modu nahiko onargarrian adierazi dezakegu, lobulu frontala funtzioetako bat agindu bati erantzun ahal izateko, jokabidea "eske-matizatu" edukitzea dela. Baina, jokabide hori, subjektuak, bere izaeraren, motibazioen, interesen, helburuen eta beste eta abar luze baten arabera aldez aurretik ikasi eta barneratutako faktoreen arabera da. Kortex frontala beste funtzioetako bat, oraingoz hipotesi hutsa izan arren, jokabidearen kodifikazio morala egitea da. Gizabanako bakoitzaren morala azaltzea lan konplexua da berez, eta txosten honen helburuetatik kanpo geratzen da. Hala ere, gure azterketarako lagungarria da bi ezaugarri azpimarratzea: lehenengoa da, inguruak aztertu eta zigortutako jokabideekiko prozesu frontala inhibititu egiten direla; eta bigarrena, emakumeak behin eta berriz erasotzen dituzten erasotzaileek birko-detze morala egiten dutela, epe motzean, emakumeekiko jokabide oldarkorra justifikatu, eta epe ertain eta luzera, hura legitimatzeko.

Inhibizio-prozesu frontalek iragazpen moralean duten eraginari dagokionez, gure hipotesiaren arabera, alkoholak, eragile neurokimikoa izanik, egintza jakin batzuek moralarekin duten loturarekiko kontrol frontala lasaitu egiten da. Egintza horiek inhibititu egiten dira, bai sozialki gaitzesgarriak direlako, eta subjektuak ingurukoek seinatu eta zigortzea ez baituelako nahi; bai egintza jakin batzuen

aurrean, subjektuaren idiosinkrasia-kode moralaren barne, berezko beto-kodeak (uste sendoen ondoriozkoak) daudelako; edo bai, ikuspuntu batetik jokabide batzuk onargarriak direla jo arren, baremo moral eta pertsonal baten ondorioz, jokabide horiek kontrolatuta mantentzen dituelako, eta subjektua gizartearen arbuioaren beldur baita.

Ebaluaketa psikologikoetan, erasotzaile sistematikoek emandako diskurtsoaren azterketa egin da. Azterketen emaitzek, frogatu dute, emakumeekiko indarkeria justifikatzeko eredu mentalean, gehienetan birkodetze moralak egin dela. Ezaugarri edo baldintza moral berri horien arabera, erasotzaileak, emakumea josten duenean "ez du ezer txarrik egiten". Izan ere, erasotzaileak pertsonen arteko harremanak eta/edo emakumeen jokabidea ulertzeko dituen baremoen arabera, emakumearen jokabide jakin bat ez da egokia, eta horregatik, eskura dituen baliabide guztiak erabiltzen ditu, indarkeria barne, emakumearen jokabidea zuzentzeko. Baremazio moral berriak, berez, indarkeria adieraztea errazten du.

Erasotzaile batzuetan, birkodetze hori ez da erabat osatu, eta oraindik jokabide berrikusteko barne-gako batzuk geratzen dira. Gako horiek kontraesan moralak sortzen dituzte; ondorioz, desadostasun kognitiboa, eta azkenik, ondoez psikofisiologikoa. Erasotzaile batzuen kasuan, prozesu horrez gain, kontrolik gabeko inhibizio-seinale inkontzientek ageri dira, biktima sufritzen ari dela ikustean, sistema linbikoak pizten dituenak. Seinale horiek sortutako desadostasuna eta kode moral kontraesankorren ondorioz sortutako gatazkak denboran zehar aldatzen doaz; batez ere, gizona indarkeria psikologiko edo fisiko esplizitua, boluntarioa eta zuzendua lehen aldiz erabiltzen ari dela konturatzen denetik aurrera: momentu horretatik aurrera, aldezturik sortzen joan diren elementu horiekin, indarkeria sistematikoaren eredu mentala eraikitzen da. Eredu mentalak, zentzu egosintonikoan, desadostasuna gutxitzea du helburutzat. Alkoholak, eragile desinhibitzaile gisa duen paper bikoitzari esker, aldaketa-prozesua erraztu egiten du (eredu mental berria eta osatzen doazen kode moral berriak gauzatzea bultzatzen baitu) eta distressa ere gutxitu egiten du.

Izan ere, alkoholak edozein desadostasunek sortutako ondoez psikologikoa gutxitzen du, baina inguruko baldintzek estresa sortzen diotela konturatzen denean, subjektuaren gehiegizko aktibazioak sortutako ondoeza ere gutxitzen du. Gizabanako arrunt baten kasuan, estresak hainbat jatorri izan ditzake, baina, gehienetan, inguruko eskaera eta horiek asetzeko eskura dauden baliabideen arteko desoreka baten ondorioa da. Gizabanako kontrolatzaileen kasuan, estres-arrazoi nagusi bat da, kontrolatu nahi duten objektua subjektuak, objektu hori gauzatu edo adierazteko, aurreikusitako eredutik ateratzea. Emakumeekiko indarkeriari dagokionez, kontrolatutako objektua subjektua da; hau da, emakumea (esparru horretan, zuzena da emakumea objektu bihurtzea, erasotzaileak deskonexio moralerako egiten dituen prozesu mental gehienen helburua emakumea gauza bihurtzea baita, hari gizatasuna kentzea, eta kontrol-objektu bihurtzea). Erasotzaileak, emakumeak izan ditzakeen portaerak, jarrerak eta jokabideak aurreikusita ditu. Emakumea jarrera horietatik kanpo ateratzen bada, erasotzaileak ingurunearen eskaera gisa ulertzen du, eta eskura dituen baliabideak erabiliz (indarra, indarkeria), egoera zuzendu egin behar du, objektua aurreikusitako egoerara itzultzeko. Estres-egoera hori indarkeriari esker konpontzen dute, eta erasotzaile-kopuru erdiak, alkoholari esker errazten dute eginkizun hori. Baita ere, beharrezkoa da aipatzea, etanolak estresak sortutako ondoez psikologikoa gutxitzea lortzen badu ere, indarkeria fisikoa deskargatzea antiolitifkoa dela; berez, edozein deskarga fisiko antiolitifkoa baita. Jipoiak indartzeko bigarren mailako elementu biologikoetako bat, eta aldi berean alkohol-kontsumoa indartzeko lehen mailako elementu bat, potentzial antiolitifkoa da; hau da, tentsio- eta estrés-tes-tuinguruetan sor daitekeen ongizatea. Izan ere, erasotzaileek, indarkeria-egoeretan (nahaste psikopatikoa duten erasotzaile-kopuru apalak izan ezik) estresa sentitzen dute, eta estres hori kontzeptualizatu egin behar da, behar bezala ulertu eta kontrolatzeko. Lehen aipatu dugun bezala, emakumeak erasotzaileak harentzako sortutako jokabide-eredu onargarritik ateratzen dela hautematen duenean, erasotzaileak estresa sentitzen du Ebaluaketetan, erasotzaileek beraiek onartu zuten, indarkeriara jo behar izan zutela “emakumeak esku artetik ihes egiten zuelako”.

Aurreko ataletan azaldutakoa kontuan hartuz, laburbilduz, ondorioztatu dezakegu indarkeria ikasitako jokabide bat dela. Gizabanakoak, kode kulturelek osatutako inguru kultureko sozializazio-prozesuen bitartez ikasten du jokabide hori, kode kultural horiek sozializazio-eragileen bitartez transmititzen baitira. Gizabanakoek ikasitako sozializazio-kode horietako batzuk belaunaldiz belaunaldi transmititzen dira, emakumea gizonaren mende dagoela, edo alderantziz; baina betiere gizona emakumearen gainetik dagoela zehaztuz. Indarkeria gizaki batek edo batzuek erabilitako jokabide-tresna bat da, eta haren helburu bakarra indarraren bidez beste gizaki batzuk erabat edo hein batean mende hartu edo baliogabetzea da. Edozein indarkeria-motak, bai legitimoak baita ez-legitimo edo legez aurkakoak, nagusitasun edo menderatzea dute xedetzat. Emakumeekiko indarkeria matxista ere berdina da: indarra munduaren ikuspegi jakin bat, pertsonen arteko harreman eta jokabideei buruzko ikuspegi zehatz bat inposatzeko erabiltzen da: hau da, emakumeei izaera jakin bat inposatzen zaie. Munduaren ikuspegi hori, erasotzaileak bidegabeki zehazten du.

Emakumeekiko indarkeriak eta patriarkatuak kode berak dituzte, eta patriarkatuak indarkeria errazten du. Izan ere, menderatzerako balore eta kodeak eskualdatzea indarkeria alde zurretik prestatzen duen faktore bat da, gizonak indarkeria gauzatzeko eta emakumeek hura jasateko arrisku-faktore bat da. Horregatik, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako ekintza gehienak sexu-berdintasunerako hezkuntzan oinarritzen dira. Simetria eta berdintasuna indarkeriaren aurkako antidotoak dira, menderatzea, nagusitasunaren eta asimetriaren aurkako muturrean kokatzen baitira.

Menderatzerako edozein kodifikazio, esaterako, balore patriarkalak, indarkeria gauzatzeko arrisku-faktorea da, baina ez gizabanako batek indarkeria jokabide-tresna erabiliko duela zehazterako orduan, da erabat erabakigarria. Izan ere, ez dago indarkeria zuzenean sortzen duen faktore bakar bat ere, garun-lesio zehatz batzuk izan ezik. Lesio horiek subjektuaren jokabide-errepertorioa jokabide oldar-

korrez betetzeko aukerak handitzen ditu (hala ere, lesio horiek ez dute %100 bermatzen indarkeria agertu eta mantenduko denik, horretarako, indarkeria-jokabideak ikasi egiten baitira). Indarkeria nola sortu eta mantentzen den jakiteko, arrisku-ekuazio gisa ulertu behar dugu, psikologian urrakortasun- eta aurrejoera-ereduak ulertzen diren modu berean.

Indarkeria hainbat faktoreen ondorioz sortutako jokabide konplexua da. Indarkeriari buruzko ikerketetan, gizabanakoen sozializatzeari ikasitako elementu-multzo bat identifikatu da. Elementu horiek, gizabanakoek, beste bati nagusitzeko, indarkeria tresna gisa erabiltzeko aukerak areagotu egiten dituzte. Beste ikerketa batzuetan, bestelako arrisku-faktore ugari zehaztu dira. Besteak beste, sentrazioak bilatzea, oldarkortasuna, txikitan tratatu txarrak jasatea, gurasoen babesik ez izatea, haurtzaroan eta aurre-nerabezaroan indarkeria erabiltzen zuten pertsonekin bizi izatea; hezkuntza autoritario, arazoak konpontzeko gaitasun-gabezia izatea, edota emozioak ala auto-kontrola adierazi eta kontrolatzeko arazoak... horiek guztiak, erasotzaileei buruzko ikerketetan ondorioztatu diren arrisku-faktoreak dira; hau da, faktore horiek gizabanakoen urrakortasuna handitzen dute, eta ondorioz, indarkeria konponbide gisa erabiltzeko aukerak ere areagotu egiten dute. Horrek esan nahi du, haurtzaroan tratatu txarrak jasan dituen gizabanakoa, ezinbestez oldarkorra izango dela? Ez. Haurtzaroan tratatu txarrak jasatea X arrisku bat da, eta gizabanako horrek indarkeria erabiltzeko aukera edo arriskuan P probabilitatea osatzen du. Urrakortasun-faktore horrez gain, gizabanako edo subjektuak beste arrisku-faktoreak ere baditu (esaterako, izaera oldarkorra, hezkuntza autoritarioa eta guraso oldarkorrak). Horrez gain, substantzia psikoaktiboak kontsumitzen baditu, estres-egoera batean aurkitzean, gizabanakoak, borondatea inposatzeko, menderatzea eta indarra erabiltzeko P aukera edo probabilitateak askoz ere handiagoak izango dira. Eta gizabanakoak, behin indarkeria erabiltzen badu, arrisku-faktore horietako batzuk, eta indarkeria erabili izana (batez ere emaitza positiboa lortzen badu), automatikoki indarkeria mantentzeko faktore bihurtuko dira. Indarkeria aurreikusteko metodo onena aurrez aldetik erabili izana da.

Indarkeria erabiltzen duen lehen momentutik aurrera, subjektua indarkeriari esanahia ematen saiatuko da. Gure jokabide guztiek esanahia dute, gehienetan argumentu formapean. Gizon batek psikologiko emakumearen aurka indarkeria erabiltzen duenean, eraso edo fisiko hori menderatze-jokabide horiek legitimoki eta modu egosintonikoan ikasteko interpretazio-kodeak ematen dizkion pertsonar-teko testuinguru eta testuinguru sozial bati lotuta dago. Subjektua indarkeriarako alde zuzenetik prestatzen zuten elementuak, hain zuzen ere sozializazioan sortu direnak, argumentu moduan antolatzen hasten dira, alde zuzenetik badiren piezetan oinarritutako eredu mentalean, erabiltzen duten indarkeriari zentzua emateko. Hala ere, subjektu gehienetan, elementu horiek ez daude behar bezala egituratu oraindik. Eredu mental hori natura eta emakumea ulertzeko interpretazio-eskemak erabiliz sortzen da, baita pertsonen arteko harremanak nolakoak izan behar diren ideiak erabiliz ere. Heinean-heinean, eredu mental hori sendotzen doa, eta azkenik indarkeria kontrolatzeko zentro bihurtzen da, baita pertsonen arteko estimuluak eta inguruko estimuluak iragazteko sistema ere; hau da, subjektuak eredu mentalen bidez interpretatzeko sistema. Emakumearen aurkako indarkeria sistematikoaren kasuan, indarkeriaren eredu mentalak pertsonen arteko harremanaren elementu guztiak iragazten ditu, eta modu horretan, poliki-poliki harremana eskema huts, gizonak emakumea menperatzeko eskema huts bihurtzen da. Ezin dugu ahaztu, eredu mental hori subjektuaren borondatearen araberakoa dela, erasotzailearen borondatea gauzatu eta betikotzeko bereziki osatutakoa baita.

JOUNI VARANKA

**Genero Berdintasunerako
Saila. Gizarte Gaietako
eta Osasuneko
Ministerioa. Finlandia**

*Genero-
berdintasunak
gizonak behar
ditu, gizonek
genero-
berdintasuna
behar dute*

Txosten honen izenburua "Genero-berdintasunak gizonak behar ditu, gizonek genero-berdintasuna behar dute" 2006an, Finlandiak EBko lehendakaritza izan zuen bitartean, gizoni eta genero-berdintasunari buruzko kanpainako eslogan gisa erabili zen. Gainera, txosten honetako pentsamoldea ohiko bi ideien aurkako da: genero-berdintasuna gizonengan pentsatu edo arreta gizonen jarri gabe lor daiteke, eta genero-berdintasun handiagoa izateak, emakumeek irabazten duten heinean, gizonek galdu egiten dutela esan nahi du.

Gaur egun, 2007an, gizonak eta genero-berdintasuna nahiko gai hedatu eta eztabaidatua da Europako genero-berdintasunerako politiken esparruan. Egoera globala eta gizon eta genero-berdintasunaren erronka honela laburbildu daiteke: gero eta argiago dago, genero-berdintasunean politika eraginkorrak aplikatu ahal izateko, gizonen baldintza eta paperean arreta gehiago jarri behar dela. Erronka da hori helburu nagusia indartzuz; hau da, emakumeen egoera hobetuz lortzea. Artikulu honetan gai horri buruzko aurrekariak aipatuko ditut, baita erronka horri aurre egiteko hainbat modu ere. Txosten hau, gobernuaren genero-berdintasunaren esparruan, gizon eta genero-berdintasunaren ataleko garapenaren aditu arduradun gisa egindako lanean dago oinarrituta, eta askotan, bertan estrategia-dokumentu bat aipatzen da, ingelesez idatzitakoa eta "Men and gender equality policy in Finland" izenekoa ("Gizonak eta genero-berdintasunerako politika Finlandian") (Gizarte eta Osasun Ministerioa, 2007).

Txosten honetan, hasteko gizonen eta genero-berdintasunaren esparruan egondako aurrekariak aipatuko ditut, eta era horretan, gai hori genero-berdintasunaren nazioarteko politikan horren gai garrantzitsu nola bihurtu den azalduko dut. Jarraian, Finlandiako estrategia-dokumentuaren gakoak azalduko ditut, eta azkenik, gizonen eta genero-berdintasunaren gaien gehien azaltzen den galderetako bat aipatuko dut: zergatik parte hartu beharko lukete gizonek?

1.

Gizonengan arreta gehiago jartzera bultzatu duten faktoreak

Genero-berdintasunak betidanik egin die erreferentzia gizon eta emakumeei, baina genero-berdintasunerako politika, batez ere emakumeen ekintza eta egoeretan interesatu da. Gizonengan arreta gutxi jarri izan da. Baina 2000ko hamarkada hasieran, egoera hori aldatu egin zen. Gaur egun, ez da horren arraroko gizonen eta genero-berdintasunari buruzko kongresu edo txosten bereziak egitea. Gutxienez, azken hogeitertan zehar, heinean-heinean aldaketa-prozesu bat gertatu da, eta horri esker, genero-berdintasunerako politikan gizonen kasu handiagoa egin zaie. Noski, gai hori aldeztu aipatu zen. Adibidez, 1979ko CEDAW batzarra oso garrantzitsua izan zen, eta bertan aipatu zen beharrezkoa zela gizonen paper tradizionala aldatzea.

Genero-berdintasunerako politikan, aldaketa horretan hiru ideia nagusik eduki dute eragin gehien (1):

- 1) Gizonen ekintza eta jarrerak funtsezkoak dira emakumeen egoera hobetzeko orduan.
- 2) Generoaren zeharkakotasunaren ondorioz, gizonen kasu handiagoa egin behar zaie.
- 3) Genero-berdintasunaren politikan, gizonen arazo eta baldintzek ere beren arreta eduki behar dute.

(1) Gauzak labur eta argi edukitzeko, genero-berdintasunerako politikari buruz bakarrik egingo dut analisia. Gizarteko beste aldaketa batzuk, besteak beste, emakumea era masiboan lan-munduan sartzeak, eta 1970eko hamarkadan sortu eta bi hamarkada geroago zabaldu ziren maskulinitasunari buruzko ikasketek ere eragina izan dute.

Denbora luzean zehar, Nazio Batuek (eta hein txikiagoan, Finlandiak) genero-berdintasunaren esparruan abian jarritako ekimenak ia emakumeentzako ziren soilik; gizonak aipatzen baziren, emakumeen egoeran zuten eragina aipatzeko zen: gehienetan arazo zehatz baten sortzaile gisa agertzen ziren, emakumeen estatusa hobetzeko oztopo gisa, edo erreferentzia gisa; esaterako, soldata osoa jasozten duten gizonak. 1980ko hamarkadan zehar, poliki-poliki, emakumeentzako genero-berdintasunerako ekimenak haien egoera hobetzeko modu eraginkorrena ez zirela pentsatzen hasi ziren, eta ideia hori zabaltzen joan zen. Genero-berdintasunerako politikan, emankorragoa izango litzateke gizonei buruz ere hitz egitea; bereziki horiek genero-berdintasunerako lanean gehiago nola nahasteari buruz, gizonen artean jokabide zuzenago bat nola lortzeari buruz, ala emakumeen egoera hobetzea nola bultzatzeari buruz (ikus Sternberg-Hubley 2004, 389-390).

Pekingo Ekintza-Plataforma onartzea, mundu mailako mugarrietako bat izan zen gizonen eta genero-berdintasunaren arteko harremanaren kontzientziaziorako. Plataformak bi atal bereizi ditu: bat gizonentzat, eta bestea genero-berdintasun orokorarentzat. Atxikitako adierazpenean, sinatzaileek aipatu zuten "gizonak berdintasunaren aldeko ekintzetan parte hartzera bultzatzeko" borondatea zutela (NBE 1995, 35. artikulua). Aldi berean, Ekintza Plataformaren Helburuen Adierazpenean aipatzen da "Ekintza-Plataformak azpimarratzen du, emakume guztiek kezka berak dituztela, eta horiek jorratzeko modu bakarra emakumeek batera eta gizonen laguntzarekin lan egitea dela, mundu osoan genero-berdintasunaren helburu komuna lortzeko" (NBE 1995, 3.artikulua). Aipamen horiek agerian uzten dute, Pekingo dokumentuan, gizonei arreta gehiago ematea zalantzarik gabe emakumeen estatusa hobetzeari dagoela lotuta.

Gizonen laguntzak genero-berdintasunaren aldeko lana indartzen du, eta gizonen erresistentzia aktibo edo pasiboak, lan horren eraginkortasuna gutxitzen du. Ideia hori laburbilduz, gizonak genero-berdintasunaren zaintzaileak dira, eta arazoaren zati bat izan ordez, arazoaren konponbidearen zati bat dira. Interneten eskuragarri dagoen argitalpen batean, gizonekin egindako lanaren adibide praktikoa jasotzen dira (Ruxton 2004).

Gizonei eta genero-berdintasunari jaramon handiagoa egitea eragin duen beste elementu bat izan da, emakumeetan oinarritutako ikuspegia erabili orde, genero-ikuspegia erabiltzen hasi dela. Hori generoaren zeharkakotasunari ere lotuta dago. 1995ean, Pekingo Ekintza-Plataforma onartu zenean, genero-berdintasuna sustatzeko estrategia mundial garrantzitsu gisa ezarri zen zeharkakotasuna. Zeharkakotasunaren funtsa genero-berdintasunaren pentsamendua genero-berdintasunaren eragileen esparrutik harago zabaltzea da, generoaren gaia erabaki guztiak hartzeko orduan kontuan izateko. Pekingo Ekintza-Plataformak gobernuei eta beste eragileei eskatu die genero-ikuspegia politika eta programa guztietara aplikatzeko politika aktiboago eta agerikoagoa aplikatzea; era horretan, erabakiak hartu baino lehen, emakume eta gizonengan duen eragina aztertzeke. Aipagarria da, xedapen horretan ere aipatzen dela, gizonengan dituen eraginak ere aztertu behar direla. Era horretan, askotan uste baino onartzen ez den ideia gezurtatzen da: "genero" hitzak "emakume" bakarrik esan nahi duela.

Gizon eta genero-berdintasunaren aldeko hirugarren ideia, ziur asko eztabaidagarriena da. Txosten honetan zehar, eztabaida hori hainbat ikuspuntuen arabera aztertuko dut. Hirugarren elementuaren gai garrantzitsuena da, genero-berdintasunerako politikak emakume eta gizonei mesede egin diezaiekeela, eta biei mesede egin behar diela. Mesede edo onura horrek jatorrizko bi esparru bereizi izan ditzake: gizonek dituzten arazoak gutxitzea eta emakumeen egoera hobetzeko ekintzek, gizonei ere onurak ekartzea.

Generoaren ikuspuntutik, ez da behar bezalako azterketarik egin gizonek emakumeek baino egoera okerragoa ala genero-bazterketa jasaten duten esparruei buruz; hori dela eta, ez dago behar adinako datu argi eta sistematikorik. Eskuragarri dagoen informazioaren arabera, esparru nagusiak berdinak dira EBko hainbat herrialdetan, eta herri-esparrua baino zabalagoak dira (esaterako, hainbat herrialdetan aitatasunari, osasun fisiko eta mentalari nahiz bazterketa sozialari buruz eztabaidatu da). Horrek esan nahi du, genero-zeharkakotasuna behar bezala aplikatzen bada, ulermena hobetu egiten dela, eta beraz, gizonen arazo izenekoak gutxitu egiten direla. Gizonei eta herritarrek agintariei egindako ekarpenei buruzko ikerketek adierazten dute, gizonek jasaten duten genero-dis-

kriminazioa uste duguna baino askoz ere fenomeno ohikoagoa dela. Europako herrialde batean, gutxienez, Austrian, gobernuak atal berezi bat sortu du gizonen lotutako gai garrantzitsuenak jorratzeko. (Gizarte Segurantzak, Belaunaldi eta Kontsumo Ministerio Federala 2005).

Askotan, hirugarren ideia feminismoaren aurkako erreakzio eta emakumeen jabe-kuntza gisa ulertzen da. Agian, komunikabideetako solasaldi batzuetan, emakumeen abantailak gizonen abantailen aurkakoak direla esaten delako, zeroan amaitzen den joko bat balitz bezala: emakumeek irabazten badute, gizonen galdu egiten dute, eta alderantziz. Esatari batzuek adierazi dute gizonen arazo-ei buruz hitz egitea, gizonak egungo sistemaren biktima bihurtzea dela. Finlandian, duela gutxi, gizonen eta genero-berdintasunari buruzko artikuluz osatutako liburu bat argitaratu da, "Men without equality" (Gizonak berdintasunik gabe) izenekoa. Liburu hori argitaratu ostean, komunikabideetako eztabaida nagusia izan zen genero-berdintasuna jorrotzean, gizonen eta haien arazoei jaramon gutxi egiten ote zitzaien ala ez. Hala ere, genero-berdintasunerako politikan, zeroan amaitzen den joko ez da gizonen onurak azpimarratzeko ikuspegi bakarra. Bi alderdiek onurak izatea eta gizonak nahiz emakumeak irabazle ateratzeko egoerak kontuan hartzea hirugarren ideia ikusteko ikuspegi konstruktiboa dela dirudi.

Berdintasunerako politikan, gizonen eta genero-berdintasunaren gaia jorratzeko, laugarren arrazoi bat ere aipa daiteke. Arrazoi horrek zerikusi handiago du egungo egoerarekin eta etorkizunekoarekin, iraganen gertatutakoarekin baino. Herrialde askotan, noizean behin, gizonen buruzko eztabaida populistak agertzen dira, gehienetan ustez betetako erretorika oso estereotipatuari lotua. Eztabaida horretako parte-hartzaileak ez dira genero-ikuspegian adituak izaten. Beharrezkoa da eztabaida espezializatua sustatzea; hau da, gizonen eta genero-berdintasunari buruzko benetako ikerketetan oinarritutakoa eztabaidak sortzea, era horretan diskurtso populistek etorkizuneko ekimen politikoak zehaztu ez ditzaten.

Gizonen eta genero-berdintasunaren gaia nahiko berria izan arren, dagoeneko baditugu nazioartean hitzartutako irizpide eta ondorioak. Garrantzitsuenak NBEko Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialaren Batzordearen (CSW) ondorioak, eta EBko EPSCO kontseilukoak, dira, 2004. eta 2006. urtekoak, hurrenez hurren. Ondorio horiek garrantzitsuak dira, gizonak eta genero-berdintasuna lantzean, genero-berdintasun orokorraren ikuspegia alde batera uzteko arriskua gutxitzen baitu. Egoera orokorraren ikuspegia argi dago: emakumeen egoerak eta emakumeen jabeakuntzak lehentasuna dute, eta gizonak eta genero-berdintasuna jorratzean, ideia hori kontuan hartu behar da.

1995ean Pekingo Ekintza-Plataforma onartzea, gizonen eta genero-berdintasunaren arteko harremanaren kontzientziazioa areagotzeko mundu mailako mugarrietako bat izan zen. Hala ere, berehala ulertu zen, beharrezkoa zela gizonei jaramon handiagoa egitea. 2001ean, NBEko Idazkari Orokorrek Pekingo Ekintza-Plataformari buruzko ebaluaketa egin zuen.

Genero-ikuspegia hartzeko aurrerapauso handi bat izan arren, ekintza-plataformaren eztabaida gehienetan arreta emakumeetan jartzen da soilik. Funtsezkoa da gizonen paperari arreta handiagoa ematea, genero-berdintasun eraginkorra sustatzea ezinezkoa baita, baldin eta ez baditugu gizonak aldaketa-prozesuaren barne kontuan hartzen. [...]Hala ere, gizonentzako lan-ekimenak genero-berdintasunaren sustapenaren esparru orokorrean kokatu behar dira beti. (NBE 2001, 10)

2004. urtean, NBEko Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialaren Batzordearen (CSW) 48. bileran, gizonek eta hurrek genero-berdintasunaren sustapenean jokatu beharreko paperari buruzko ondorio batzuk zehaztu ziren. Ondorio batzuetan gobernuentzako iradokizun erabilgarriak aipatzen dira. Txosten honetan, funtsezkoa da ondorio horietako printzipio nagusietako bat aipatzea:

Batzordeak onartzen du, gizonak eta mutilak genero-berdintasuna lortzeko lanean parte hartu behar dutela, baina parte-hartze hori emakume eta nesken jabetzarekin koherentea izan behar da, eta ondorioz ahalegin handia egin behar da emakumeei lotutako lan, gaitasun eta paperen balio-galerari aurre egiteko. Ildo horretan, garrantzitsua da gizon eta mutilentzako egindako genero-berdintasunaren ekimenek emakume eta neskentzako antzeko aukera eta baliabideak arriskuan ez jartzea. (Emakumearen egoera juridiko eta sozialaren Batzardea, 2004).

Finlandiak, 2006. urtean EBko lehendakaritza izan zuenean, Lan, Politika Sozial, Osasun eta Kontsumitzaileen Batzardeak (EPSCO), gizonak eta genero-berdintasunari buruzko ondorioak zehaztu zituen (EPSCO 2006). Ondorio horiek aipatu berri ditugun CSWenen antzekoak ziren. Horrela, NBEk eta EBak zehaztutako ondorioetan, bi erakundeek gizonak eta genero-berdintasunari lotutako eztabaidan jarrera bat hartzen dute: esparru horretako ekintza-politikan batez ere emakumei kalte egiten dien arazoei, ala batez ere gizonak kalte egiten dien arazoei lehentasuna eman behar ote zaien.

Kapitulu hau laburbilduz, esan dezakegu gizonak eta genero-berdintasunari buruzko gaia nahiko berria dela genero-berdintasunaren politikan. Hala ere, dagoneko badaude nazioartean hitzartutako oinarri nagusiak, bai NBEk eta EBak gai hori nola bideratu behar den zehaztu baitute.

3. *Gizonak eta genero-berdintasunerako politika Finlandian*

Nazioarteko aurrekariak buruzko ikuspegi orokor eta labor bat eman ondoren, azter dezagun Finlandiako egoera. Eskandinaviako herrialdeetan, genero-berdin-

tasunaren aldeko lanean, gizonak eta genero-berdintasunaren gaia beste herrialdeetan baino gehiago hartu da kontuan. Esaterako, Suedian, 1980ko hamarkadan, gizonak genero-berdintasunari buruz zuten jarrerari buruzko ikerketa bat egin zen, eta hamarkada berean, gobernuak hainbat lantalde sortu zituen gizonak eta genero-berdintasunaren gaia jorratzeko. Finlandiari dagokionez, munduko errekorra duela dirudi: gizonak eta genero-berdintasunari buruzko lantalde ofizial zaharrena bertan dago. 1988tik aurrera, Genero-Berdintasunerako Kontseiluaren barne, zortzi azpibatzerde aritu dira gizonak eta genero-berdintasunaren gaia jorratzeko. Urte horietan, azpibatzerde horiek, hainbat gai landu ditu. Lehenetsuta aita-tasunaren sustapenari eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako borrokariei eman zaio. (Genero-Berdintasunerako Batzordea 2006).

2003an, Finlandiako gobernuak, 2003-2007 programan adierazi zuen "genero-berdintasunari buruzko gaiak ikuspuntu maskulinoaren arabera ere aztertuko direla". Helburu hori betetzeko, gizonen eta genero-berdintasunerako estrategia-dokumentu bat prestatzea eskatu zidaten (Ingelese. Ikus Gizarte eta Osasun Ministerioa, 2007). Dokumentu hori bera Finlandiak EBko lehendakaritza izan zuen bitartean, 2006an egindako "Gizonak eta genero-berdintasuna – politika progresisten bidean" biltzarrean, material lagungarri gisa erabili zen (Gizarte eta Osasun Ministerioa, 2006). Dokumentu hark ikuspegi orokorra izango zuela erabaki zen, "genero-berdintasunari" buruzko gaiak, besteak beste emakumeen aurkako indarkeria, multzo bakar bat bezala jorratzea erabaki zen, ez gai bereizi gisa. Era horretan, ikuspegi hori filosofikoagoa da, ez horren estatistikoa. Jarraian, gaia nola kontzeptualizatu zen laburbilduko dut. Gainera, genero-berdintasunerako politikan garrantzia estrategikoa duten erronka eta ikuspegi batzuk ere azpimarratuko ditut.

Estrategia-dokumentuaren prestakuntzarako, 2004an CSWrako lanerako hartutako lau printzipioak hartu ziren:

- 1) Gizonekin genero-berdintasunaren alde egindako lanetan, sexuen arteko egoera orokorra hartu behar da kontuan.
- 2) Gizon eta mutilek genero-berdintasunean duten interesa azpimarratzea; hau da, gizon eta mutilentzako onurak azpimarratzea.

-
- 3) Gizon eta mutilen ongizatea genero-berdintasunerako neurrien helburu legitimoztat jotzea.
 - 4) Gizonen (eta emakumeen) egoera- eta baldintza-aniztasuna aintzat hartzea.

Estrategia-dokumentua osatu bitartean, ideia horietara behin eta berriz jo zen.

4. *Txanpona bati begiratsen dionaren metafora*

Finlandian gizonen eta genero-berdintasunaren gaia jorrazteko, lehenbizi, garrantzitsua da "gizonak eta genero-berdintasuna" nola kontzeptualizatzen den ulertzea. Horretarako, metafora bakun bat erabiliko dut: txanpona bati begiratzeko. Metafora hori erabilgarria da gai horren inguruko bi gaizki-ulertze arrunt argitzeko.

Metaforaren lehen zatiak begiratzeari egiten dio erreferentzia. Kontua da nor ari den begira - eta gainontzekoei zer ikusten ari diren nork esaten dien. Garrantzitsua da, jorrazten diren gai eta ikuspegiak zehazten direlako. Ohiko gaizki-ulertzea da "gizonak eta genero-berdintasuna" gaiak gizonek pentsatzen dutenari buruz soilik egiten diela erreferentzia. Genero-berdintasunaren testuinguruan, ideia horrek arazo ugari sortzen ditu. Lehenik eta behin, genero-berdintasunaren aldeko profesional gehienak emakumeak dira, eta ondorioz, gizonek genero-berdintasunean duten "ahotsa" esparru horretatik kanpo geratzen da. Hori dela eta, esparruan bertan gai horri buruzko iritzi aditua edukitzea ezinezkoa dela jotzen da. Bigarren, segurutzat jotzen da norbaitek gizonei buruz hitz egin dezakeela. Izan ere, gizonen ikuspegi eta iritziak oso ezberdinak izan daitezke, eta ez dago gizonen sindikaturik edo gizon guztiak ordezkatzeko dituen antzeko erakunderik. Horren ordez, askoz ere erabilgarriagoa da, "gizonak eta genero-berdin-

tasunaren" gaia espezializazio-esparru arrunt gisa ulertzea, eta beraz, emakumeak nahi gizonak gai horri buruz hitz egiteko gai izatea. Praktika horren inplikazioak ez du esan nahi ez litzatekeela erabilgarria izango gizonen jarrera eta pentsamoldeei buruzko inkesta eta azterketak egitea (oso erabilgarriak baitira). Horrekin esan nahi duguna da garrantzitsua dela gizonen eta genero-berdintasunerako politika-esparruan, eztabaida gizonen erakunde eta elkarteek soilik zehaztu ordez, bertan emakumeek ere parte hartzea.

Laburbilduz, gizonen eta genero-berdintasunaren gaian, funtsa ez da "nor dagoen begira", "zer begiratzen den" baizik. "Gizonak eta genero-berdintasuna" esparruan, "gizonak" hitza, diskurtso-gai bat bezala ordez, arreta-objektu gisa ulertu behar da.

Horrekin metaforaren bigarren zatira iristen gara, txanponera. Txanpon orok bi aurpegi ditu. Metaforan, txaponaren aurpegi bakoitzak arazo-mota ezberdinak ditu; hau da, alde batetik, gizonekin zerikusi handiagoa dutenak (esaterako, gazte hiltzea) eta emakumeekin zerikusi handiagoa dutenak (esaterako, soldataren ikuspuntutik, gutxietsitako lanbide batean aritzea) (2). Ohiko gaizki-ulertzea da "gizonak eta genero-berdintasuna" gaiak gizonek pentsatzen dutenari buruz soilik egiten diela erreferentzia. Ideia hori, funtsean, gizon eta emakumeen egoeraren arteko ustezko orekarekin lotuta dago. Izan ere, askotan, emakumeek arazozerrenda bat dutela (soldata apalagoa, indarkeria eta abar) eta gizonek antzeko zerrenda bat dutela (hilkortasun-tasa handia, eskola-errendimendu apala, gizonek dibortzioetan duten egoera eta abar) pentsatzen da. Argudiatze horren oinarria horrelako zerbait da: "Genero-berdintasuna emakumeek beren arazoez hitz egitea bada, orduan "gizonak eta genero-berdintasuna" gizonek beren arazoei buruz hitz egitea izango da". Puntu hori, lehen metaforarekin lotzen da, "gizonak

(2) Aipagarria da, ustez gizonei bakarrik dagozkien arazoek, askotan emakumeei ere kalte egiten dietela, eta alderantziz. Emakume batzuk gazte hiltzen dira, eta gizon batzuek gaizki ordaindutako lanak dituzte, esaterako, haurtzaindegietako langileek.

eta genero-berdintasuna" gaia gizonen beren arazoei buruz hitz egitea dela uste delako.

Txanponaren metaforarekin jarraituz, ikuspegi horrek ikuspuntu bakarra edo aurpegi bakarrekoa duela esan genezake. NBEk eta EBak egindako adierazpenak aztertuz gero, argi ikusiko dugu, gaizki-ulertu horrek ez duela arazo osoa islatzen. "Gizonak eta genero-berdintasuna" gaiak emakumeen arazoei eta gizonen arazo horiek konpondu (edo okerragotzeko) duten paperari egiten dio erreferentzia. Txanponaren bi aldeei egiten die erreferentzia. Adibidez, sexu-trafikoaren eskarian gizon batzuek funtsezko papera dute, baina aldi berean, eskari hori gutxitzerako orduan ere, funtsezko funtzioa dute gizonen. Prostituzioaren gaia adibide ona da. Ez da gizonentzako arazo gisa ulertzen, eta beraz, ez da gizonekin egindako lanaren barne kontuan hartzen. Baina, prostituzioa gizonekin zerkusi handia duen genero-berdintasun arazoa da. Gizonen osatzen dute prostituzioa beharrezkoa bihurtzen duen eskari gehiena. Argi dago prostituzioa gizonen eta genero-berdintasunari buruz hitz egitean eztabaidatu beharreko gaia dela. Gainera, NBEk eta EBak egindako adierazpenetan eta genero-berdintasunari buruzko beste dokumentuetan, txanpon hori bereziki azpimarratzen da: gizonen eta genero-berdintasunari buruz hitz egitean, emakumeen jabeakuntzari eta haien egoera hobetzeari eman behar zaie garrantzia handiagoa, gizonen arazoei baino gehiago, alegia.

Laburbilduz, txanpona bati begiratzen dion pertsonaren metaforak gizonen eta genero-berdintasunaren gaian, garrantzitsuena gizonen eta emakumeen arteko arazo eta harremanetan gizonen duten papera aztertzea dela esaten zaigu. Ikuspegi hori ez-adituarena baino askoz ere zabalagoa da, eta gainera, emakumeen eta gizonen arazoen arteko harreman eta loturak azpimarratzen ditu.

Txanponaren metaforak eta hari lotutako gaizki-ulertuek, genero-berdintasuneko esparruko aditu batzuek "gizonak eta genero-berdintasuna" kontu handiz eta etsaitasunarekin ere zergatik jorratzen duten ulertzen laguntzen digu. Emakumeen jabeakuntzatik arreta eta baliabideak desbideratu ditzakeen fenomeno baina. Erabaki estrategiko egokiak hartzen badira, hori gertatzeko aukerak asko gutxitu daitezke. Gai hori NBEk eta EBk gizonen eta genero-berdintasunari buruz zehaz-

tutako ondorioetan zehazten dira. Gainera, lehen aipatu dugun bezala, argi dago, emakumeen egoera hobetzeko, funtsezkoa dela gizonak eta genero-berdintasunaren gaia jorratzea.

5.

Genero-berdintasunaren aldeko laneko hiru erronka

Estrategia-dokumentua prestatzean, hiru erronka zehaztu ziren:

- 1) Genero-berdintasunerako politiken eztabaidan gizonen parte-hartzea areagotzea.
- 2) Gizonengan erdiratutako ekintzei lehentasuna ematean, oreka bat aurkitzea.
- 3) Genero-berdintasunari eta gizonei lotutako gai asko, berdintasun-politiken gaietatik kanpo geratzen dira; hau da, lan-merkatuko gaiak.

Gizonei eta genero-berdintasunari buruzko testuinguru askotan aipatzen den helburu garrantzitsu bat gizonen parte-hartzea areagotzea da; baina, harrigarria izan arren, ez da adierazpen horren esanahia azaltzen. "Genero-berdintasunaren aldeko lanean gizonen parte-hartzea areagotzea" era askotan ulertu daiteke. Modu pasiboan, besteek irekitako bideak igaroz; edo aktiboan izan daiteke, genero-berdintasunerako politikaren barne dauden helburuak, metodoak eta motibazioak baloratzea barne. Halaber, "genero-berdintasunaren aldeko lana" ikuspegi zabal baten arabera uler daiteke, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen dituzten ekintza guztiak barne hartzen dituen esparru gisa, ekintza horietako baten helburua berdintasuna lortzea izan ez arren (adibide, gizonek familia-arazoengatik baja hartzeko aukera). Baina "genero-berdintasunaren aldeko lana" askoz ere modu murriztean ere uler daiteke, helburu nagusitzat genero-berdintasuna sustatzea duten ekintzak sustatzea balitz bezala (adibidez, genero-berdintasunaren aldeko erakunde ofizial batean lan egitea), eta ekintza horien

ondorioak bigarren mailakoak dira. Ildo horretan, gizonek egungo egoeran parte hartzeko modu garrantzitsuena genero-berdintasunari buruzko eztabaidan parte hartzea zela erabaki zen, eta parte-hartze hori nahiko aktibo eta zabala da. Eztabaida aukeratu zen, etorkizuneko edozein ekintzaren oinarria baita.

Genero-berdintasunari buruzko eztabaidetan gizonak inplikatzeko garrantzitsua da, ez gizonek emakumeek ez duten ikuspegi bat ematen dutelako, baizik eta genero-berdintasunak gizonen ere eragiten dielako, eta gizonek genero-berdintasunari buruzko eztabaida-gai berriak eta ikuspegi konstruktibo berriak eman ditzaketelako. Gizonek gehiago parte hartzeko beste arrazoi bat da gizonak genero-berdintasunaren sustapenean parte hartzera bultzatzen dituela, eta ondorioz, ekintza hori gizon eta emakumei dagokiela sinesgarriago bihurtzen du. Parte-hartzeari dagokionez, garrantzitsua da gizonek hainbat egoeratan duten parte-hartzea babestea eta erakunde bakar batek gizon guztien izenean parte-hartze-ko arriskua gutxitzea.

Bigarren erronka nagusia da gizonekin eta genero-berdintasunarekin zerikusia daukaten gai guztiak ezin direla berehala konpondu. Hori dela eta, lehen eta bigarren mailako helburuak zehazteko, lehentasunen azterketa bat egin behar da. Batez ere baliabideak banatzeari buruzko erronka da hori. Gizonei eta genero-berdintasunari dagokionez, bi ikuspegi ezberdin daude lehenbizi eta aurrerago egin beharko lirakeen ekintzei buruz, eta ikuspegi horien artean tentsioa sortzen da. Ikuspegi baten arabera, emakumeen egoera hobetzeko orduan, gizonek bertan duten papera babestea da garrantzitsuena. Horrelako proiektuen barne prostituten bezero-kopurua gutxitzeko ekintzak egongo lirakeke. Beste ikuspuntuak azpimarratzen du, lehentasun nagusia batez ere gizonei eragiten dieten arazoak konpontzeko lan egitea dela. Ikuspuntu horren barne, lehentasunetako bat krisi-egoera ezberdinetan dauden gizonei laguntza ematea da. Garrantzitsua da aipatzea, gai batzuetan, arazoek gizon eta emakumei egiten dietela kalte, askotan arazo ezberdinak izan arren. Adibidez, gizonak ez dira emakumeak bezain pozik geratzen dibortzioaren emaitzekin; eta emakumeek bikotekidearen indarkeria handitzeko arriskua jasaten dute.

Gizonei eta genero-berdintasunari buruzko eztabaida bat dagoenean, tentsio hori nahiko azkar agertzen da. Horren adibide interesgarri bat EBko lehendakartzak 2006ko urriaren 4 eta 5ean Helsinkin antolatutako biltzarra da, "Gizonak eta genero-berdintasuna – politika progresisten bidean" izenekoa. Biltzar horretan, gizonei eta genero-berdintasunari buruzko hainbat gai jorratu ziren, baina betiere tentsio horretako bi ikuspegiak kontuan hartuz. Biltzarra amaitu zenean, partaide batzuek esan zuten gizonen arazoak eztabaidatu zirela soilik, eta beste batzuek, berriz, emakumeen arazoak bakarrik soilik jorratu zirela.

Genero-berdintasunaren aldeko finlandiar politikaren funtsa lan-merkatuan emakumeen egoera hobetzea izan da. Funtsezko ideia hori argi geratzen da Berdintasunaren Legeko 1. artikuluan: "Lege honen helburua sexuagatiko diskriminazioa ekiditea, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea; eta ondorioz, emakumeen egoera hobetzea da, bereziki lan-merkatukoa (609/1986 Legea, 1. artikulua).

Gizonei eta genero-berdintasunari buruzko funtsezko gai gehienek ez dute lan-bizitzarekin lotura esturik. Gizonei eta genero-berdintasunari dagokionez, Finlandian eta mendebaldeko beste herrialde batzuetan, bost gaik sortu dute eztabaida gehien. Gai horiek hauek dira:

- Gizonak lan- eta familia-bizitza berdinkatzea eta aitasuna
- Gizonak emakumeen aurka erabiltzen duten indarkeria (bereziki bikote-harremantako indarkeria)
- Gizonak eta osasuna
- Gizonak eta dibortzioa
- Haurrak eta eskolatzea (alde batetik, eskola-sistemari erreferentzia egiten dio; eta bestetik, haurrei eta maskulinitasunari, herrialdearen arabera)

Argi dago, bost gai horietako batek bakarrik, lan- eta familia-bizitza berdinkatzeak, duela zerikusia emakumeek lan-merkatuan duten egoerarekin. Gizonak haurrak zaintzen eta etxeko lanetan gehiago parte hartuko balu, emakumeek lan-merkatuan duten egoera hobetuko litzateke, lan-munduan ekarpen handiagoak egingo bailituzkete, eta lanpostuetan, emakumeen diskriminazioa gutxituko bailituzkete. Izan ere, genero-berdintasunaren aldeko politikaren barne, gai horri arreta

handia eman zaio, bai Finlandian bai EBko beste herrialde batzuetan eta EB osoan ere.

Izan ere, bereziki gizonekin zerikusia duten gai asko genero-berdintasunerako politikatik at geratzeak, genero-berdintasunaren aldeko politikak gai horiek nola jorratu beharko lituzkeen planteatzen du. Genero-berdintasunaren esparruan lan egiten duten pertsonak gai-nukleo horretan espezializatzen dira, noski, eta ondorioz, ez dago tradizioz beste gaiak, adibidez, osasuna, genero-berdintasunaren ikuspegiaren arabera jorratzeko.

Maila orokor eta estrategikoan, gizonei eta genero-berdintasunari lotutako gaiak zehaztea Gizarte eta Osasun Ministerioari dagokio, genero-berdintasunerako politika zehaztea baita bere ardurak. Hala ere, edozein gai zehatzetarako, espezializazio-maila handiagoa gai hori jorratzen den lekuan aurkitzen da. Horrek esan nahi du, generoaren zeharkakotasuna metodo garrantzitsua dela gizonei dagozkien gaiak, lan-esparrutik kanpo geratzen direnak, jorratzeko. Baita ere aipagarria da, generoaren zeharkakotasunak ez diola emakumeen ikuspegiari soilik erreferentzia egiten. Gai batek gizonei zein ondorio dakartzkien ere aztertzen du; hau da, gai horretan gizonen estatusak nola eragiten duen, gai horretan gizonak zein egoeratan dauden, eta egoera horiek zein heineraino diren arruntak.

6.

Helburu estrategikoa: gizonak gehitzea

Finlandiako estrategia-dokumentu horretan helburu estrategiko orokor bat eta bost azpi-helburu garrantzitsu aipatzen dira. Helburu horiek ikuspegi orokorraren arabera ulertzen dira, ez gai zehatz edo adierazle estatistikoen arabera. Maila orokorrean, helburu nagusia gizonak genero-berdintasunerako politikara gehitzea da. Hori bi ideia-pareen bitartez azal daiteke. Lehenik eta behin, gizonak parte-hartzaile aktibo gisa sartu behar dira esparruan, baita aztertu eta arreta eman

beharreko objektu eta esparru gisa ere. Bigarren, helburu hori ekimen espezializatuen bitartez eskuratu behar da, baita genero-berdintasunerako politikan gehituz ere. Hemen "gehitu" hitza azpimarratu behar da gehien. "Gizonak" osotasunaren barne egon behar dira, ez handik kanpo. Horrek esan nahi du, politiketan makineria eta egoitza ofizialak ezarri behar direla, adituak bildu eta benetako ekimenak aplikatu behar direla.

Gizonak genero-berdintasunerako politikara gehitzeko helburua bost modu ezberdinetan bideratu daiteke:

- 1) Genero-berdintasunerako politikako ekintzetan, gizonentzako eta haiei eragiten dizkieten ekintzak areagotzea.
- 2) Genero-berdintasunerako politiken eztabaidan gizonen parte-hartzea areagotzea.
- 3) Genero-berdintasunerako politikaren diskurtsoan, gizonei jaramon handiagoa egitea.
- 4) Gizonei buruzko espezializazioa areagotzea.
- 5) Genero-zeharkakotasuna sustatzea eta emakume nahiz gizonak inplikatu behar dituela azpimarratzea.

Gizonak genero-berdintasunerako politikan gehitzeko modu onena, genero-berdintasunerako politikaren ekintzetan gizonentzako ekintzak areagotzea da. Orain arte, ekintza horiek oso modu berezian sustatu dira, aitasun-baja nahiz lan- eta familia-bizitzaren berdinkatzea sustatuz. Hala ere, ez dago benetako arrazoirik beste gai batzuetan gizonentzako berariazko neurririk ez egoteko. Izan ere, gai guztietan galde genezake "eta zein ondorio dakarzkie gizonei?" Beraz, gure ustez gomendagarria da gobernu bakoitzak genero-berdintasunerako politikan lehenetsuna emango dien gaiak zehaztean, gai horietan gizonak duten paperari buruzko hausnarketa bat egitea. Baita ere aipagarria da, genero-berdintasunerako politikan, gizonentzako neurriek ez dutela emakumearen egoera gutxietsi behar. Baita ere lehen aipatutako zerbait gogorarazi nahi dugu; hau da, gizonei jaramon gehiago egiteak ez du esan nahi gizonen arazoak bakarrik landu behar direnik. Adibidez, emakumeen aurkako indarkeria gutxitzeko, gizonei arreta eskaini behar zaie. Azpimarratu beharreko hirugarren gauza bat da, gizonen-

tzako ekintzak ez direla gizonentzat soilik. Gai askotan, hobe da aldi berean emakume eta gizonak aztertzea.

Adibide on bat Britainia Handiko Aukera-Berdintasunerako Batzordeak egindako ikerketa da (Equal Opportunities Commission 2005). Ikerketa horretan lan-munduko diskriminazioa aztertzen da, eta gehiengo maskulinoko lau sektoreetan eta emakumeek gehiengoa duten sektore batean diskriminazio hori deuseztatzeko baliabideak bilatzen dira. Proiektu hori bereziki gomendagarria da ez baita sexu bakar batentzako soilik: gizon eta emakumeentzako da. Ikuspuntu horretan sexu bat ez dago bestearen gainetik, eta emakumeentzako gomendio asko gizonentzako ere izan daitezke. Horrez gain, adibide hori beste zentzu batean ere interesgarria da. Orokorrean, diskriminazioari aurre egiteko, emakumeei ohikoak ez diren lanbideak aukeratzeko babesa eta laguntza eman zaie. Baina, era berean, gizonari ez zaie ia laguntzarik eman alderantzizkoa egiteko. Hala ere, errendimendu beherakorraren printzipio ekonomikoaren arabera, emakumeak usadioz gizonen esku egon diren lanbide-munduan sartzeko laguntzak eman ordez, gizonak usadioz emakumeen esku egon diren sektoreetan sartzeko proiektuak abian jarriko balira, diskriminazioa askoz ere gehiago gutxituko litzateke.

Bigarren azpi-helburuaren garrantzia erronkei buruzko atalean aipatu dugu lehenago. Genero-berdintasunaren makinaria babesteko, parte-hartzeko modu errazena eztabaida espezializatuan parte hartzea da. Gutxienez, baliabide hauen bidez sustatu daiteke: iritziak eskatzen direnean, garrantzitsua da, emakume-erakundeei galdetzeaz gain, gai horrek gizonari nola eragiten dien aztertzen duten erakundeei ere galdetzea. Genero-berdintasunari buruzko ekintza eta ospakizunetan, oso garrantzitsua da gizonentzako ordezkari bat bidali dezaketen erakundeak gonbidatzea. Aukera bat gizonentzako adituak genero-berdintasunari buruzko aditu-taldeetan parte hartzera gonbidatzea da. Eta azkenik, adituen eragina kanal ez-ofizialen bidez ere zabaldu daiteke; hau da, garrantzitsua da genero-berdintasunari buruzko hartu-eman ez ofizialetan ere gizonentzako adituak dituzte sareak finkatzea.

Diskurtsoari buruz, aipagarriena da, genero-berdintasunari buruz hitz egiten denean, gizonak entzuleen atal garrantzitsu direla. Publiko orokorrari zuzendutako genero-berdintasunari buruzko edozein diskurtso gizon eta emakumeei zuzenduta egon beharko litzateke. Gizonei buruz oso modu estereotipatuan edo partzialki hitz egiteak ez du azken puntu hori kontuan hartzen. Gizonen egoeren konplexutasuna kontuan hartzen badugu, proposatutako edozein gain aztertze modu gehiago izango dituzte gizonak; eta beraz, genero-berdintasunari buruzko eztabaidan parte hartzeko bide gehiago ere bai. Funtsezkoa da aipatzea genero-berdintasuna sustatzeko diseinatutako ekintzak onuragarriak direla gizonentzat, eta baita ere ideia ona da, genero-berdintasunari buruzko arazoak konpontzerako orduan, gizonak kide gisa tratatzea, batez ere gizonen jokabidearen ondorioz arazoak sortzen diren gaietan (adibidez, emakumeen aurkako indarkeria). Diskurtsoan arreta jartzea tresna garrantzitsua da genero-berdintasunerako politika emakumeen aldekoa edo gizonen kontrakoa dela gezurtatzeko.

Diskurtso baten gaiak ez dirudi elementu garrantzitsua denik, baina kontuan hartzen ez bada, diskurtso horren publikoa haserretu egin daiteke, eta ondorioz, ekimen politikoak oztopatu litzakete. Finlandiako adibideak argi uzten du, askotan, horretarako, oso aldaketa txikiak egin behar direla. Finlandiako genero-berdintasunaren egoerari buruzko txosten baten zuzenketan parte hartu nuen. Txosten horretan lorpen garrantzitsuenen zerrenda bat zegoen (besteak beste, 1978an aitatasun-baja onartzea). Zerrenda horren izenburua "Emakumeen estatusa hobetzea" zen. Izenburu horrek seinale okerra transmititzen zuenez, horren ordez, beste izenburu hau jarri zen: "Berdintasunaren bidean egindako pausoak".

Genero-berdintasunaren aldeko edozein lanetarako adituen ezagutza behar da. Horri lotuta, Finlandian (eta ziur asko Europako beste herrialdetan) daukagun arazo handi bat da, genero-ikuspegian oinarritutako espezializazioa gainekoa eta sakabanatua dela. Hori arriskutsua da, populismoak eta gaizki argumentatutako ideia nahiz ekimenek garrantzia lor baitezakete. Epe luzera, gizonen eta genero-berdintasunaren esparruan lan egiteko, genero-berdintasunaren makinarian erakundetze-maila handiagoa behar da.

Erakundetze horretarako hiru eredu daude, eta gogorrenetik ahulenera ordenatuta aipatuko ditut. Lehenik eta behin, gizon eta genero-berdintasunerako unitate berezia sor daiteke. Bigarren, gobernu honek indarrean jarritako politikarekin jarraitu daiteke, gizoni eta genero-berdintasunari buruzko lana funtzionario bakar baten esku utziz, eta gai zehatzetarako aholkulari bereziak izendatuz. Hirugarrena, eta aukera ahulena, genero-berdintasunaren esparruan lan egiten duten funtzionario guztien lanen artean, genero-berdintasuna aztertzean, "angelu maskulinoa" gehitzea da; eta zeharkakotasunaren antzekoa da. Horretarako modu onena erdi-bideko aukera da. Gizonentzako eta genero-berdintasunerako atal bat sortzean, alde batetik zeharkakotasuna egongo litzateke; eta bestetik, gizonak eta berdintasun-generoa, bata bestearekin lehian. Atal hori genero-berdintasunerako ekintzetan baztertzeko arriskua dago, eta hori gertatuko balitz, atal horren ekarpenak ez lirateke herrialdeko eta nazioarteko lanetara iritsiko. Hala ere, ez da nahiko ikuspegia bakarrik gehitzea, oraindik garatzeke dagoen gaia baita, eta horretarako dedikazio handia behar baita.

Noski, gobernu kanpoko makinaria ere espezializatu egin behar da. Finlandian, gizoni buruzko espezializazio zabalago eta sakonagoa sustatzeko modu bat gizoni eta genero-ikerketei buruzko ikasketak finantzatzea da, gizonak ere aztertzen baitira bertan. Gainera, genero-berdintasuna sustatzen duten gobernu kanpoko erakundeei laguntza globala eman behar zaie, eta horretarako, genero-berdintasunaren alde lan egiten duten gizon-erakundeei diru-laguntzak emateko moduak aztertu behar dira.

Azkenik, funtsezkoa da genero-zeharkakotasuna indartzea. Politika-esparru ezberdinetan, gizoni eta genero-berdintasunari lotutako erronkei aurre egiterako orduan, oso garrantzitsua izango da genero-zeharkakotasuna indartzea. Zeharkakotasunak esan nahi du gizonek genero-ikuspegiaren barne egoteko aukera izan behar dutela: gauzak angelu femeninoaren arabera ikus badaitezke, angelu maskulinoaren arabera ere ikus daitezke. Zeharkakotasuna indartzeko beste arrazoi garrantzitsu bat da, emaitza gisa, gizoni lotutako berariazko tema lehen planora pasatzen direla. Herrialde batzuetan, zeharkakotasunak, errealitatean, emakumeen egoera ikustea esan nahi du soilik. "Gizonak eta genero-ber-

dintasuna” angeluaren arabera, berriz, funtsezkoa da azpimarratzea zeharkakotasuna ez dela emakumeentzat soilik, gizon eta emakumeentzat baizik. Zeharkakotasun horretan, sexuen araberako estatistikak oso garrantzitsuak dira. Estatistika horiek gabe, ezinezkoa da fenomeno jakin batek alde batetik emakumei, eta bestetik, gizonei nola eragiten dien jakitea.

Genero-zeharkakotasuna indartzeko arrazoi garrantzitsu bat genero-berdintasunaren makinariari buruz egindako kritikak dira. Kritika horien arabera, makinaria horrek ez ditu gizonen arazoak behar bezala jorratzen. Lehen aipatutako arrazoiak direla-eta, kritika horren aurrean, erreakzio egokia genero-zeharkakotasunaren garrantzia azpimarratzea da.

Gaur egun, 2007an, estrategia hori ekintza zehatzetan aplikatzeko moduak bilatzen ari gara. Hainbat proiektu jarri ditugu abian. Estrategia hori errealitate bihurtzeko modu bat Finlandiako Genero-Berdintasunaren Atalean egiten dugun lana da. Hainbat gairi buruzko dokumentuak aztertzen dira, betiere gai horiek gizonengan zein ondorio sortzen dituzte kontuan hartuz, eta horren inguruan agertzen diren ideiak dokumentuan jasotzen dira.

7.

Galdera ohikoena

Azken atal honetan gizonei eta genero-berdintasunari buruz egiten den galdera ohikoena aztertuko dut. Zergatik parte hartu beharko lukete gizonek? Testuinguru honetan, parte-hartzeak genero-berdintasunaren aldeko lanean parte hartzea esan nahi du, edo zehatzago esanda, emakumeen jabeakuntzan parte hartzea. Jarraian, gai horri buruz dagoen literatura kontuan hartuta, galdera horren erantzun tipikoa emango dut. Ikus daitekeen bezala, egia esan, erantzunak “gizonek zer irabazten dute?” galderari erantzuten dio. Erantzun tipikoa aztertu ondoren, ikuspegia zabaldu egingo dugu, betiere genero-berdintasunerako politikaren ikuspegian oinarrituta. Usadioz, gizonek parte hartzeko dituzte interesak lau taldetan sailkatu izan dira:

- 1) Genero-berdintasunaren balio etikoa.

- 2) Genero-berdintasunak gizarte osoari ekartzen dizkion onurak.
- 3) Genero-berdintasunak gizonengandik hurbil dauden emakumeengan dituen onurak.
- 4) Berdintasunak gizonengan dituen onurak.

Lau talde horretan, era guztietako erantzunak daude, bai erabat abstraktuak baita erabat zehatzak ere. Gizonek duten egoeraren arabera, jasotako onurak ere ezberdinak izango dira: bidaia luzeak egiten dituen kamioilari ezkongabe batek ez ditu horrenbeste onura izango; eta haurtzaindegi batean lan egiten duen, ezkontuta dagoen eta hiru alaba dituen gizon batek, onura gehiago izango ditu. Beraz, egoera ezberdinetan dauden gizonek onura ezberdinekiko interesa izango dute. Herritar arruntek onura zehatzago eta pertsonagoekiko interesa izaten dute; eta lehen ministroak, berriz, genero-berdintasunak BPGa eta lehiakortasuna areagotzen dituen jakin nahi izango du. Dirudienez, erantzuna “bai” da.

Gaiari buruzko literaturan, gehienetan, onura gisa aipatzen da balio etiko jasoa- goak dituen gizarte batean biziko garela. Hori da aipatutako onuren arteko abstraktuena, eta printzipioen inguruko gai gisa uler daiteke.

Bigarren taldea oso interesgarria da funtzionario (eta politikari) batentzat. Izan ere, genero-berdintasunak gizarte osoari mesede egiten diola dio. Adierazpen zaila da, baina, zorionez, adibide askorekin frogatu daiteke. Ideia da berdintasunari esker, gizartea eraginkorragoa eta zuzenagoa dela, eta horrek kide guztiei, bai gizonei nahiz emakumei mesede egiten diela. Emakumeek beren potentziala gizonek bezain erraz garatu dezaketen gizarte batean, funtzio guztiak gizonen esku dauden gizarteetan baino hobeto erabiltzen dira giza baliabideak.

Adibide interesgarri batzuk emango ditut. Lehenik eta behin, NBEan, Eskandinaviako herrialdeak genero-berdintasunaren erreferentzia puntutzat hartzen dira, fenomeno horren buru baitaude. Aldi berean, lehiakortasunean ere lehen postuetan daude. Ez da harreman arbitrario bat: 2006an, PNUdak ondorioztatu zuen, arabiar herrialdeen garapena gehien oztopatzen zuen faktorea emakumeen egoera larria dela. Beste adibide bat Finlandian aurki daiteke. Bertan, 2007ko irailan, txosten batek frogatu zuen, zuzendaritzan emakumeak izatea enpresa baten irabaziei estatistikoki lotuta zegoela. Azkenik, zantzu batzuen arabera, herrietan,

erabakiak hartzerako orduan, aurrean emakumeak badaude, erabakia hartzeko prozesuak askoz ere gardenagoak dira; eta berriz ere denei egiten zaie mesede. Adibide horiek argi uzten dute emakumeen egoera hobetzea ez dela emakumeen kontua soilik, gizonena ere bada.

Hirugarren onurari dagokionez, "gizonengandik hurbil dauden emakumeak" esatean, gizonen bizitzan garrantzitsuak diren emakume guztiei egiten zaie erreferentzia; bai emazteak, alabak, arrebak, amak edo lagunak izan. Emakume horiei bidezko tratua emateak gizoni mesede egiten die. Adibidez, Europako aita gehienei gustatuko litzaieke beren alaba diskriminaziorik edo genero-indarkeriarik gabeko gizarte batean bizitzea.

Azken taldea onura pertsonalei buruzkoa da. Bertan, gizon eta emakumeen bizitza zehazten dituzten uste eta itxaropen tradizionalak hainbat eratan uko egitean gizoni egiten dizkien mesedeak aztertzen dira. Hori da genero-berdintasunerako politikaren helburu nagusia. 1979ko CEDAW biltzarrean aipatu zen, baita EB 2006-2010erako genero-berdintasunaren ibilbide-orrian ere. Gizonek beste gizonen aurka erabilitako indarkeria eta diskriminazioaren arrazoi nagusietako bat da, askotan, biktimak ez duela maskulinitasunaren eredu jakin bat betetzen, besteak beste, heterosexualitatearena. Gainera, askotan pentsatzen da beren burua zaintzea ez dela bateragarria maskulinitasun tradizionalarekin. Hirugarren adibide gisa, aipagarria da, gizoni dagozkien lanbideekiko ideia zorrotzik ez dagoen testuinguruetan, hurrekin lan egitea gustatzen zaien gizonak ez dutela hartzaindegi batean lan egiteko horrenbeste oztoporik izaten. Laugarren, gizon askok beste gizonen presioa jasan behar izaten dute, batez ere emakumeekiko jokatibide okerrak izateko. Genero-berdintasuna aintzatespen gizarte batean, esparru horretan ez da horrenbesteko presiorik egoten.

Azken talde edo maila hori lau ideiarekin luzatu nahi dut. Lehenik eta behin, genero-berdintasunerako politikan, emakumeen jabetasuna sustatzen duten ekimenek gizon askori onura ekarriko die. Bigarren, emakumeen egoera hobetzeko ekintzek gizonen arazo ezkutatuak agerian jartzen dituzte. Hirugarren, gizon eta emakumeen biziak, eta beraz, arazoak, askotan denak irabazi edo galtzen duten dinamikan lotuta daude. Azkenik, gizonak parte hartzen duten esparru oro, aldatu egingo da.

Genero-berdintasunerako politikan, emakumeen egoera hobetzeko ekimenek, gizonei ere mesede egiten die. Adibide argi eta sinesgarriena genero-berdintasunaren legea da. Hasiera batean emakumeen aurkako genero-diskriminazioa gutxitzeko idatzi zen. Hala ere, lege hori ikuskatzen zuen arartekoarekin harremanetan jarri zen gutxiengo gero eta handiagoaren atal handi bat gizonak ziren. Horrez gain, aitaltasun-bajen esparruan edota lan- eta familia-bizitza berdinkatzeko aukeran egin diren hobekuntzak ere aipagarriak dira. Gehienetan, hobekuntza horiek emakumeei laguntzeko egiten dira, baina, noski, gizonei ere antzeko aukerak ematen dizkiete.

Bigarren ideia adibide honekin argiago azal daiteke: Finlandiako Tukinainen ("Emakumeei laguntza") Bortxaketen Biktimen Laguntzarako Zentroan, urte batzuk daramatzate bortxaketa-biktimei laguntzen. Gehienetan uste da, biktima guztiak emakumeak direla. Baina zentro horretan ikusi dute gizonak ere biktima izan daitezkeela, eta diru-laguntza bat eskatu berri dute zerbitzu gehiago izateko eta era horretan bortxatuak izan diren gizonen premiak ere asetzeko. Hau da, gehienetan emakumeen arazotzat jotzen den fenomeno batean ere, egoera berean dauden gizonak aurki daitezke. Beraz, adibide horrekin interpretatu dezakeguna da emakumeen erakunde batek atera duela argitara arazoa, eta ez gizon-erakunde batek. Beste adibide asko beste esparru batzuetan aurki daitezke, besteak beste, bikoteetako indarkeriaren biktimen esparruan.

Azkenik, hirugarren ideia adibide batekin hobeto azalduko dut. Adibide horrek, gainera, argi uzten du, gizonen ekarpenari esker, emakumeei kalte egiten dien arazi bat birplanteatu daitekeela, guztientzako konponbide bat proposatuz. Mendebaldeko herrialdetako gizonek genero-berdintasunarekiko interesa edukitzeko ohiko arrazoietakoa bat, ohikoena ez bada, dibortzioa eta seme-alaben zaintza galtzea da. Objektiboki hala dagokionetan baino gehiagotan, dibortzioak gertatzen direnean, haurren zainketa amari ematen zaio. Horretarako arrazoi bat da, zainketa esleitzeko prozesuetan, gizonek genero-diskriminazioa jasaten dutela. Ondorioz, diskriminazio hori hor ote dagoen ikertzea eskatu da (Parlamentuko Lan eta Berdintasunerako Batzordeak 2005eko memorian), eta dis-

kriminaziorik badago, hura desagerraraztea. Argi dago arazoa diskriminazioa dela, eta arazo hori konpontzeko modu onena hura deuseztatzea dela.

Baina, hala ere, arazoa eta konponbidea modu ezberdinetan adierazi daitezke, gizonentzako onuragarriak izateko; baina aldi berean, emakumeentzat ere hein berdinean onuragarriak izateko. Lehenik eta behin, arazo hori hiru arazotan banatu daiteke: 1) dibortzioa, gehienetan, ez da bi alderdiek nahi duten zerbait; 2) edozein diskriminaziok Berdintasun Legea urratzen du; 3) dibortzioaren ondorioz, gurasoen eta seme-alaben artean gerta daitekeen urruntzea arazo bat da berez, eta diskriminaziorik gabe ere gerta daiteke. Helburua haurren zaintzea esleitzeko prozesuan diskriminazioa deuseztatzea bada, konponbideak 2. arazoari eta hein batean 3. arazoari eragingo lioke. Epe motzera, badirudi, haurren zaintzea esleitzerako orduan, diskriminaziorik egon ala ez, zaintze gehienak amei esleituko direla, gehienetan emakumeek izaten baitute erantzukizun handiagoa seme-alaben zainketan. (Melkas 2005). Beste hitzetan, gizon dibortziatu gehienak, gehienetan ez dira beren seme-alabekin egongo.

Hautabide bat bikoteei laguntza emanez dibortzioaren prebentzioa egitea da, baita partaidetza-gurasotasuna sustatzea ere. Ikuspegi horrek dibortzio-tasa gutxituko luke, etorkizunean diskriminazioa oztopatuko luke, eta dibortzioen kasuan, seme-alabekiko urruntasun-arriskua ere gutxituko litzateke. Partaidetza-gurasotasunari esker, dibortziorik balego, seme-alaben zaintza aitari esleitzeko aukera handiago egongo litzateke. Dibortzio-arrazoirik garrantzitsuenetako bat etxeko lanak eta haurren zainketa modu desorekatuan banatzen direla da (Paajanen 2003). Arazo hori nahiko larria da, bereziki emakumeentzat (Melkas 2005). Ondorioz, dibortzioen prebentzioa egiteko eta gizonen egoera hobetzeko metodo on bat gizonek etxeko lanetan eta haurren zainketan gehiago parte hartzea izango litzateke. Era horretan, emakumeen gizonen eta haurren bizitzan, zaintzak esleitzeko prozesuetan gizonen aurkako diskriminazioa desagerraraziz baino onura gehiago lortuko lirakete.

Azkenik, gizonen parte-hartzeak genero-berdintasunaren aldeko lana era askotan aldatuko du. Aldaketan horien barne daude zer, nola eta zergatik egiten den. Aldaketa horietako batzuek gizon guztiei egingo die mesede. Hala ere, kontuan

hartu behar da, gizonen parte-hartzeak arriskuak ere badituela. Arrisku horien artean, aipagarriak dira:

- genero-berdintasunari buruzko ikuspegi globala galtzea;
- emakumeen eta gizonen arazoei aurre egiteko ekintzen arteko lehia sortzea;
- gizonen eta genero-berdintasunaren arteko harremana ikuspuntu estu eta parzial baten arabera aztertzea.

8.

Ondorioa

Txosten hau amaitzeko, aztertutako funtsezko ideia batzuk laburbildu nahi ditut. Bada garaia genero-berdintasunerako politikan gizonen jaramon gehiago egiteko. Lan horretan, hitz garrantzitsuena “gehitzea” da. Genero-berdintasunerako politikan, gizonen jaramon egitea osotasun baten barne egon behar da, ez da haren kanpo finkatu behar, bai antolaketaren ikuspuntuaren arabera edo eduki, ekintza edo printzipioei dagokionez. Edozein gairi buruzko ekintzak prestatzen direnean, esaterako soldatak orekatzea edo lidergo postuetan emakume-kopurua handitzea, gizonen paperari buruzko hausnarketa bat egin behar da.

Ingelesez eskuragarri dagoen barometro baten arabera (Melkas 2005), Finlandiako gizon eta emakumeen %80 baino gehiago ados dago ondoko adierazpenarekin: “Genero-berdintasun handiagoari esker, gizonen ere onura gehiago dituzte”. Bai, gizonen ere genero-berdintasuna eta emakumeen jabetuntzaren ondurak bizi dituzte. Beraz, genero-berdintasuna eta emakumeen jabetuntza ez dira emakumeen kontua soilik, denoi dagokigun zerbait da. Genero-berdintasunerako politikak hori jakinarazteko ahalegin handiagoak egin beharko lituzke.

Genero-berdintasunerako politikan gizonen arreta handiagoa ematen bazaie, zalantzarik gabe, politika egiteko modua aldatu egingo da, nahiz eta oraindik ez dakigun nola. Gai berriak, esaterako osasuna eta genero-berdintasuna, garrantzitsuagoak bihurtu daitezke. Agian emakumeen edo gizonen arazoei lehentasuna eman behar zaien tentsioa arreta handiagoz aztertuko da. Gai horri buruz eztabaidatzean, CSWak 2004ko biltzarrean zehaztutako ondorioak erabili daitezke,

baita EBak 2006ko abenduan hartutakoak. Izan ere, bietan, emakumeen jabe-kuntzari lehentasuna eman behar zaiola zehazten da.

Antolaketa-eraginkortasunari dagokionez, gizonen jaramon handiagoa egitean, genero-berdintasunerako makinariaren ekintzak babestu beharko lirateke, eta makinaria hori hobetzen lagunduko litzateke. Ildo horretan, interesgarria da, gizonekin bereziki zerikusia duten arazoak konpontzeko, genero-zeharkakotasuna garrantzitsua dela. Ideia hori batez ere gizonen ongizatean interesa duten mugimendu sozialak motibatuzko erabili al liteke, mugimendu horiek genero-zeharkakotasun gehiago eta hobea eskatzeko, eta era horretan genero-berdintasunerako makinariaren xedek lortzea lagunduz?

Bibliografia

Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialaren Batzordea (2004): *The role of men and boys in achieving gender equality. (Gizon eta mutilen papera genero-berdintasuna lortzeko orduan)*. Adostutako ondorioak. 48. Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialaren Batzordeko 48. bilkura. 2004ko martxoaren 1-12. Nazio Batuen Erakundea, Emakumearen Aurrerapenerako Atala.

<http://www.un.org/womenwatch/daw/csw/48sess.htm>

Genero-Berdintasunerako Kontseilua (2006): *The History of Subcommittee on Men's Issues. (Gizonen Gaietarako Azpi-komitearen historia)* Helsinki: Genero-Berdintasunerako Batzordea 2006 (Ingelesez)

Europako Batasuneko Kontseilua (2006): *Conclusiones sobre los hombres y la igualdad de género, Consejo de Empleo, Política Social, Sanidad y Consumidores (EPSCO)*, 2006ko azaroaren 30 eta abenduaren 1a.

http://www.eu2006.fi/news_and_documents/conclusions/vko48/en_GB/164987131570/files/76348606395122256/default/91959.pdf

Aukera-berdintasunerako Batzordea (2005): *Free to Choose: tackling gender barriers to better jobs. England final report – EOC Investigation into workplace segregation and Apprenticeship. (Aukeratzeko askatasuna: lanpostu hobekak lortzeko, sexuaren araberako oztopoak aztertzea. Ingalaterrako azken txostena. Aukera-berdintasunerako Batzordeak lantokian eta prestakuntza-tokian diskriminazioari buruz egindako ikerketa)*

Gizarte Segurantzza, Belaunaldi eta Kontsumo Ministerioa (2005): *Men's Policy. Unit for Men's Affairs. (Gizonen politika. Gizonen gaietarako Atala).* Liburuxka.

https://broschuerenservice.bmsg.gv.at/PubAttachments/men's_policy.pdf

Melkas, Tuula (2005): *Gender Equality Barometer 2004. (Barómetro de Igualdad de Género).* Gizarte eta Osasun Ministerioa. Argitalpenak 2005:11. Helsinki: Yliopistopaino.

<http://www.stm.fi/Resource.phx/eng/public/Julkaisu-2005-short.htx>

Gizarte eta Osasun Ministerioa (2006): *Gizonak eta genero-berdintasuna – politika progresisten bidean.* Gizarte eta Osasun Ministerioaren Txostena 2006:75. Biltzarreko txostena. Jouni Varanka, Antti Närhinen eta Reetta Siukolak argitaratua. Helsinki: Yliopistopaino.

<http://www.stm.fi/Resource.phx/eng/public/Julkaisu-2007-short.htx>

Gizarte eta Osasun Ministerioa (2007): *Men and gender equality policy in Finland. (Gizonak eta genero-berdintasunerako politika Finlandian)* Argitalpenak 2007:2. Helsinki: Yliopistopaino.

<http://www.stm.fi/Resource.phx/eng/public/Julkaisu-2007-short.htx>

-
- Paajanen, Pirjo (2003): *Perhebarometri 2003. Parisuhde koetuksella. Käsitteitä parisuhteesta ja sen purkautumisesta*. Väestöliitto. Väestötutkimuslaitos E 17/2003. Helsinki: Vammalan kirjapaino.
- Ruxton, Sandy (2004): *Gender Equality and Men. Learning from Practice. (Genero-berdintasuna eta gizonak. Eskarmentuari esker ikastea*. Oxford: Oxfam GB.
- NBE (1995): *Pekingo Adierazpena eta ekintza-plataforma*. Emakumeei buruzko Laugarren Mundu Biltzarra. Pekin, Txina, 1995eko irailaren 4-15. <http://www.un.org/womenwatch/daw/beijing/platform/index.html>
- NBE (2001): *From Beijing to Beijing +5. (Pekinetik Pekin + 5era)*. New York: NBE.
- Sternberg, Peter – Hublely, John (2004): *Evaluating men's involvement as a strategy in sexual and reproductive health promotion. (Gizonen inplikazioaren ebaluaketa sexu- eta ugalketa-osasuna sustatzeko estrategia gisa)*. Health Promotion International 19(3), Oxford University Press. 389-396.